



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VI. legegintzaldia

Iruña, 2004ko maiatzaren 20a

43-1. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2003an egindako lanari buruzko txostena ([2. or.](#)).

(Txostena Aldizkari Ofizialaren bost aletan argitaraten da, 43-1, 43-2, 43-3, 43-4 eta 43-5. zenbakietan).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2003an egindako lanari buruzko txostena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko maiatzaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2003an egindako lanari buruzko txostena jasotzat ematea.

**2.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.-** Txostenaren azalpena Foru Araubideko Batzordearen bilkura batean eginen dela xedatzea.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 4an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## **Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2003an egindako lanari buruzko txostena**

### 43-1 ALEKO AURKIBIDEA

#### I.- 01. SARRERA

#### I- 02. HERRITARREN ESKUBIDEEN SUSTAPENA

“Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideen gutuna” prestatzeko proposamena

Aurkezpen publikoa

Deialdia

Herrien/elkarteen hasierako zerrenda

Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideen gutunari buruzko hasierako datuak

Lan egiteko metodoa

Deialdira bertaratutakoan zerrenda, herri/elkarteen arabera

Deialdira bertaratutako elkarteen zerrenda, elkarte motaren arabera

Deitutako elkarteak eta bertaratuak

#### I- 03. HERRITARREN ESKUBIDEEN ZEHARKAKO DEFENTSA

##### **Adingabeak**

1. Nafarroako Foru Komunitateko adingabeen aurkako tratu txar eta abusuei buruzko protokolo bat egitearen gaineko ebazpena aurkeztea Parlamentuari

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren proposamena, adingabekoei buruzko foru lege bat prestatzeari buruzkoa

3. Nafarroako Foru Komunitateko adingabearen eskubideei buruzko txosten orokorra prestatzen hastea

4. Otik 3 urtera bitarteko hezkuntzari buruzko txosten berezia

##### **Emakumeak: etxeko indarkeriari bekoz beko**

1. Etxeko indarkeriaren aurkako kanpaina Nafarroan, arartekoaren ekimenez Nafarroako hedabideek egina

2. Espainiako arartekoen aho bateko iritzia, genero indarkeria dela-eta

Emakumeen eta mendeko pertsonen aurkako indarkeria bizikidetzaren esparruan

I. Sarrera

II.- Kontzeptua eta jarduteko esparrua

III.- Botere publikoek indarkeria desagerraraztearren eginiko jarduketak

3.1. Lege esparrua

3.2. Hezkuntza esparrua

3.3. Gizarte esparrua

Ondorio eta gomendioak

3. Nafarroako arartekoaren esku-hartzea genero indarkeria dela-eta

4. Emakumezkoen prostituzioa eta immigrazioa

#### **Ezgaitasuna duten pertsonak**

1. Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko tailerraren ondorioak

I. Sarrera

II. Hiri-ingurunearen irisgarritasuna

III. Ezgaitasun egoeran dauden pertsonak laneratzeko neurriak

IV. Arartekoen zeregina, ezgaitasuna duten pertsonen egiaz integratzen laguntzeko

V. Ondorioak

2. Nafarroako adimen-osasunaren arloko laguntzari buruzko txosten berezia

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren txosten berezia, Nafarroako adimen-osasunaren arloko laguntzari buruzkoa

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren txostenaren ondorioak

Txosteneko oinarritzko ideiak

Adimen-gaixotasunaren orbana

Gomendioak

3. Txostenaren aurkezpen publikoa

Espainiako arartekoak koordinatzeko XVIII. jardunaldiak

Ponentzia: "Adimen Osasuna: zuzenbidearen ahanztura. Ahantzien eskubidea," Nafarroako arartekoak aurkeztua

Espainiako arartekoak koordinatzeko XVIII. jardunaldietan aurkeztutako beste ponentzia batzuk

#### **Zaharrak**

Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzari buruzko txosten berezia egiten hastea

#### **I- 04. PARLAMENTUAK ESKATUTAKO TXOSTEN BEREZIAK**

I. Nafarroako Tributu Ogasuneko zergadunen espediente fiskalen konfidentzialtasunari buruzko txosten berezia

I. Sarrera

II. Txostenaren norainokoa eta helburuak

III. Espediente fiskaletako agiriak artxibatze-ari buruzko ondorio eta gomendioak

IV. Telefono bidezko laguntza zerbitzuari buruzko ondorio eta gomendioak

V. Azken hausnarketa

II. "Altuzako (Nafarroa) Jorge Oteiza museo etxearen nahiz museoaren ondare artistikoen kontserbazioari buruzko txosten berezia"

Txosten bereziaren alderdi oinarritzkoak

Sarrera

Klarionak

Ondorioak

#### **I- 05. 2003. URTEKO KEXEI BURUZKO BALIO-ESPEN OROKORRA**

Sarrera

Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa

Gizarte Ongizatea

Kultura, kirola eta elebitasuna

Hezkuntza

Funtzio publikoa

Ogasuna

Barne Departamentua

Justizia

Ingurumena

Herrilanak eta zerbitzu publikoak

Osasuna

Lana eta Gizarte Segurantza

Hirigintza eta etxebizitza

Besterik

Bitartekotza

Kexarik esanguratsuenen aurkibidea

Nafarroako arartekoaren ebazpenei eta informazio eskariei administrazioek emandako erantzunaren balioespena

Ebazpenak betetzea

Onartu diren, onartu ez diren eta erantzuteko dauden ebazpenen zerrenda

Ebazpen ez onartuak

Erantzuteko dauden ebazpenak

Balioespen estatistikoa

## I. 01. SARRERA

**Balantzea egitekotan.** 2002an baino kexa gutxiago aurkeztu dira (orduan 513 aurkeztu ziren), lauhun eta laurogeita hemezortzi (498) hain zuzen ere, baina iaz baino 60 gehiago itxi dira, hurrengo urterako ixteke utzi gabe. Hau da, eragingarriagoa izan da tramitazioa, nahiz eta hauteskunde urtea izateak eragina izan herritarren itxaropenetan eta kexak aurkezteko "aukeran". Hori hala izan dela egiaztaturik dago.

91 ebazpen eman ziren, 2002ko 48 ebazpenen muga goiti eginez, eta zer esanik ez 2001eko 24ak. Administrazioek, 2001eko eta 2002ko joerari utsiz, ebazpen horien % 73 onartu zituzten hasiera batez.

Aurreko urteetan legez, etxebizitza, osasuna, gizarte ongizatea eta hezkuntza dira herritarrek arartekoaren erakundeari aurkeztutako kexen iturburu nagusia. Eta aurreko urteetan legez, urteko txosten honetan jaso dugu zer erakundek eta zer administrazio publikok hautsi duten, laguntzarik eman ez dutelako, erakundea arautzen duen legearen bitartez Parlamentuak erakunde honentzat bilatzen zuen espiritua eta harreman instituzionala. Horren erakusgarri da zenbat ordu eta zenbat komunikazio izan dugun herritarrek informazioa jasotzeko duten eskubideari uzkur egiten dioten administrazio horiekin, ez baitute onartzen eskubide hori administrazio horien boterea baino lehena-gokoa dela, herritar horiek berek emana da-eta. Eskubide hori arartekoaren erakundeari buruzko ikuspegi "estrabikoaren" gaineratik dago; izan ere, erakundearen jarduteko modua sinplea da: hor dago erakundea arautzen duen legea, eta hor herritarrei eta kudeatzaileei buruzkoak, horiek izena edo kargu politikoa izan ala ez. Eskubide hori orobat dago hiru urte hauetan euren erantzukizuna nahiz independentzia eta gisa honetako erakunde bati buruzko interes orokorra uztartu dutenen gaineratik –gertuago apika–, euren erantzukizuna betetzen dihardutenean argiro frogatzen dutenez.

Ikus daitekeenez, segida 2002. urteko txostenekoaren nahiko antzekoa da. Orduetik hona zer-bait ikasi dugu. Hain zuzen ere, disuasio ahaleginei eusteak fruituak ematen dituela –ez beti, ordea– eta herritarrek inoiz baino konfiantza handiagoa dutela erakunde honen etorkizunean, batez ere Nafarroako arartekoaren erakunde indartuaren etorkizunean.

Zeren, arestiko lau paragrafoez haratago –begirada azkar batean kexen nahiz administrazioen erantzunen segida laburbiltzen dute–, azpian espazio oraindik azaldu gabea gelditzen baita,

laburbiltzen zaila dena eta, oro har, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak Nafarroako Parlamentuarentzat egin duen 2003ko urteko txosten honen oinarri dena. Hegan egiteko espazio zabalgago bat, zeinetan ozta-ozta planeatzeko aukera izan baikenuen haren errealitateaz jabetzeko, kolektiboagoa izaki gordinagoa, mobilizatzaileagoa izaki itxaropentsuagoa.

**Ahotsen bat, hil ez dadin.** Eduardo Vascok, zuzendari gaztea bera, antzerki bihurtu ditu Dulce Chacónen azken lanak, zeina handik gutxira hil baitzen (2003). Haren azken lana: elkarrizketa bihurtu haren lehen eleberria, "Algún amor que no mate". Eta biek ala biek lortu zuten azken helburua: senarrak eta maitaleak bi aldiz jotzen dutela frogatzea. Batak bestearen indarkeriaren ezagutzeak agerian uzten du errealitate ezkutua, errealitate onartu gabea.

Emakumearen esparru pertsonalaren galerak –batzuetan esparru hori ezabatzeraino heltzen da, sarriegi 2003an (81 heriotza baino gehiago)– eta beste aurpegi batek islatu arteko setio-egoera salatu gabe bat sortzeak eraman zuten erakunde hau urrats bat eman eta gizalege izaera nabarmeneko ekintza bat abiatzera, zeinaren bitartez sakondu hainbat alderen arteko loturetan, ezkutatzen den errealitatean azpimarra jartzeko. Etxeko eremuan haurren nahiz emakumeen aurkako tratu txarrei aurrea hartze aldera Nafarroako erakunde- en arteko akordio baterako proposamena egin eta urtebete igarota, zenbait erakundek halako akordio bat sinatu eta urtebetera –oraindik erabat garatu gabe dago eta bide luzea dago ibiltzeko barne koordinazioari begira–, Nafarroako hedabide guztiek onartu zuten isiltasunari ahotsa jartzeko proposamena. Tratu txarren salaketa bera eta tratu txarren aurrean salaketak duen balioa sustatzea.

Horrela sortu zen ekimen hau, beharbada ez ohikoa. Nabarmendu beharra dago ekimena abian jartzeko urtebeteko ahaleginaren emaitza izan dela, hain zuzen ere, abian jarri ahal izan dela denei esker, eta nabarmentzekoa da orobat ikus-tea, atseginez ikusi ere, asfaltoaren azpitik ere aditzen direla nafar gizartearen taupadak. Urteko txosten honetan harea-pikor horren aipamen laburra egiten da. Erantzukizuna kolektiboa da, eta goitik behera nahiz atzetik aurrera egin beharko da bidea.

**Adimen osasunaren 2003koa 2004an berri-rakurriko da.** Nafarroan adimen osasunaren arzoa zertan den jakiteko oinarri dira kexak. Ezagutza hori adimen gaixotasunen bat duten pertsonen foru administrazioak ematen dien laguntzari buruzko salaketek dute sorburu. Arazoaren muinera iristeko, senideei emandako laguntza ere aipatu

beharko litzateke, baina, agian, gehiegi sinpletuko genuke berez arazo sozial larria dena, bai Nafarroan bai hemendik kanpo, azken gobernuarekin nahiz aurrekoekin, eta baita egungo foru administrazioaren agintaldian ere, arlo horretako eskumen osoa baitu.

Etxeko indarkeriaren eta adimen osasunaren arloetako protagonista nagusia emakumea da edo izan ohi da. Eta bietan ere biktima da, batzuetan hari erasotzen diotenena eta beste batzuetan gizarteak nahiz administrazioak haren bizkarrera bota duten eginkizunak garatu ahal izateko baldintzena; eta haren bizkarrera botatakoa ez da eskuordetze itundu bat, ezpada utzikeria ekidinezina, 2002an eta 2003an zehar “Nafarroak adimen osasunerako laguntzari” buruz egindako txosten bereziaren laburpenean berrirakur daitekeenez –txostena Legebiltzarrean aurkeztu zen–.

Batzuetan erraz egiaztatzen ahal da gizarte administratzen dutenen ardura, gobernuaren boterea baliatzen dutenen ardura, egoerak gurutzatzen direneko espazio bat dela, eta espazio horretan, ia beti, gizarte sektore batzuk eta gizarte gabezia batzuk nabarmentzen direla beste batzuen gainetik. Erraz ulertzen da gobernatzeko ardura hori zaila dela garatzen gizarte gero eta konplexuago eta, oro har, exigenteago honetan. Eta horri beste zailtasun bat gehitu behar zaio, gizarte gabeziak leuntzeko eta sektore sozial batzuek kaltetu bakarrik izateari uzteko moduko erabakiak hartu beharra baitago. Eta hori guztia ahortzi gabe a priori lehentasuna dutela erabaki ekonomikoek, eta horiek gero eta unibertsalagoak dira, baina gero eta indar handiagoarekin errebendikatzen ditugu guretzat, autonomotzat; eta zenbat eta desegokiagoak izan “alderdi sozialaren” eta “beharrizanen” arteko gurutzaketari erreparatuz gero, orduan eta errebindikatuagoak.

Urteko txosten hau bukatzean oihartzaren gara ez dela deus aldatu “Nafarroako adimen-osasunaren arloko laguntzari buruzko txosten berezia” Foru Parlamentuarentzat egiten hasi ginenetik. Zertxobait berpiztu dira talde kaltetuak, urratsen bat eman dute aurrez ikusi gabeko eskumenak bereganatzeko. Ekintza saiakera bat –autohornikuntza esan beharko genuke–, aurre egiteko agerian gelditu den baliabide-ezari eta korapilo –beharrizanen eta taldeen korapilo– sanitario, sozial edo zoosanitario horretan ustez erabakiak hartzen dituztenen erantzun hitsari.

Erakundearen zeregina kexa-orri batean idazten den errealtatearen isla hutsala izatera mugatzeko tentazioari aurre eginez, auziak sakon aztertu, ondorioak nahiz ardurak zehaztu eta gomendioak egin ondoko aldatetaren –espero den

edo iragartzen den aldatetaren– azterketa etengabea egiteko lan hau irekitzen den ate bat da, administrazioei gogorarazteko –beste kasu batzuetan ere, baina baita adimen-osasunaren arloko laguntzaren auzi honetan ere– eskubideen sustapena eta urraketa bukatzen edo hasten direla administrazioak erantzukizun nagusi gisa hartzen duenean, hain zuzen ere, haren erantzukizunetik urrunzea.

#### **Kexak eta herritarren eskubideen gutuna.**

Agian, haren lorpenik handiena da berretsita daudela oro har, ikuspegi kolektibo bat izatea, Nafarroako herritarrek zenbait eskubide eta libertateretikiko duten interes argiaren isla. Baina, oro har, Parlamentuan 2004an aurkeztuko den herritarren eskubideen gutun horren ondorioek eta 2003ko kexei buruzko datu estatistikoek antzeko zeruertza islatzen dute: eskubide nahiz kexa gisa, etxebizitzak, osasunak, gizarte ongizateak eta hezkuntzak mugatzen dute erakundearengana jo edo euren egoitzetatik erakundearekin lanean aritu ziren herritarren iritzia espazioa. Batari nahiz besteari erreparatuta, erakundeari aurkeztutako kexak funts bera dutela ikus daiteke, hiru urteren buruan ezin daitekeelako joerez hitz egin.

Datu indibidualei buruz, kexei buruz alegia, erantzun guztiz positiboa ematen du erreferentziako administrazioak: Arartekoaren erakundearen 91 ebazpenetatik %73 onartu ziren, eta beste batzuk kexaren tramitazioa bukatutakoan onartuko bide dira. Datu kolektiboari buruz, espero izatekoa da foru administrazioak eta toki administrazio handienak irekita izatea atea aurrerantzean ere, Parlamentu honetara iristen denean, Herritarren Eskubideen Gutunean jasotzen diren elkarten errebindikazio eta iradokizunei. Gutuna da, hain zuzen ere, administrazio eraginkorrago baterako aitzakiarik onena eta, laguntza emateko eginahal hutsean, elkarten sentimena aupatzeko oinarri sendoa.

**Adingabeak, azkenik.** Emakumeen kasuan bezala, 2003an ahalegin guztia egin genuen adingabeen eskubideen auziari ekiteko zenbait alorretan. Arartekoak koordinatzeko Iruñean iaz egin ziren jardunaldietako tailer batean ekin ahal izan genion gaiari, modu orokorrean izan bazen ere –“Adingabeak erreforman”–, oihartzuta betiere hori zela erakunde honek zabaldu beharreko lehen atea, orduan oso gertu zegoelako legearen aldatzea. Lehen ekimen horren ondotik heldu ziren Parlamentuarentzako txosten berezi bat egiten hastea, “0tik 3 urtera bitarteko adingabeen hezkuntza premien trataera,” 2004an bukatuta egonen dena, “Adingabeen aurkako sexu abusu eta tratatu txarren kasuetan jarduteko protokoloa” taxutzeko

gomendia, etxeko indarkeriari buruz foru gobernuak planteatutako erakundeen arteko protokoloan aurreikusi ez zena, eta Nafarroako Parlamentuak "Adingabeei buruzko Foru Legea" taxutzeko proposamena, sakonetik berraztertze adingabeengan eragina izan arren beste arau batzuek aurreikusten ez dituzten arloak edo zaharkiturik gelditu direnak.

Albiste ona izan zen foru gobernuak nahiz oposizioak Parlamentura lege proiektu bana igorriko zutela iragartzea, baina haien edukia nahiz garatzeko aurreikuspenak ezagutu zain gaude.

Emakumeen kasuan bezala, adingabeek interes lehenetsiko taldea osatzen dute euren eskubideen gaurkotzeari begira, are egiazki dituzten eskubideen egiaztatzeari begira; eginkizun hori, beste batzuen artean, erakundeak arautzen duen legeak ematen dio arartekoari. Emakumeen kasuan bezala, haien beharizanetako batzuk eskubide aitortuak dira eta beste batzuk, aldiz, oinarrizko eskubideak garatzean sortzen diren eskubide berritzat hartzen hasiak dira. Nafarroako Parlamentuak eskubide horiei buruzko eztabaida sakona egiten baldin badu horien gainera eta errealitateari berari buruzko ezagupen handiagoa izan ahalko dugu, eta hartara, hezkuntza bezalako oinarrizko eskubideen berrikuspena ez denez ez beharrezkoa ez zilegia, eskubide horiek beste talde batzuegana edo adinengana zabaltzea eskubideen ikuspegi hertsitik aztertu ahalko da, eta ez errealitate politiko edo ekonomiko aldakoretik. Alegia, beharrezkoa den lehenespenetik.

## **I- 02. HERRITARREN ESKUBIDEEN SUSTAPENA**

2003a oparoa izan zen gure foru erkidegoko biztanleen giza eskubideen aldeko ekimenetan. Lehenagotik planifikatutako ekintzak gorpuztu egin ziren iazko ekitaldian, eta horiei beste batzuk gehitu zitzaizkien; denek zuten helburu bera, alegia, Nafarroako arartekoaren erakundeak, aurrena, eta gure erkidegoko administrazioek, hurrena, herritarrei laguntza emateko sistema egoki bat sortzea. Baina, alde zuzenetik, diagnosi komuna egin behar zen, eskubide horien errealitateari eta herritarrek jasotzen duten laguntzari buruzko balantze bat hain zuzen. Erronkaren tamainaz jabetuta eta, aldi berean, eman zitekeen erantzun gaitasunari buruz aiko-maiko, lanari ekin genion.

## **"NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO HERRITARREN ESKUBIDEEN GUTUNA" PRESTATZEKO PROPOSAMENA**

Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideen gutunaren gainera ekimena arartekoaren 2001etik 2004ra bitarteko plan estrategikoaren testuinguruan sortu zen, zehazki herritarren oinarrizko eskubideak eta libertate publikoak hedatu eta sustatzera berriaz bideratutako atalean.

Plan estrategikoa taxutu zenez geroztik (2001eko iraila), erakundeak, dituen baliabideekin bat etorritik, ekimenak abiarazi ditu arlo horretan; dena den, Herritarren eskubideen gutunaren proposamena da gure foru erkidegoko herritarren eskubide eta libertate horien ezagupenari nahiz balioespenari buruzko apusturik handiena.

### **"Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideen gutunaren" proposamenaren helburuak**

"Ezagutu, jardun, aldeztu eta babestea" izaki ideia nagusia, arartekoak "Europako Batasuneko oinarrizko eskubideen gutuna" <sup>(1)</sup> baliatu du gutun proposamen honen oinarriak finkatzeko; izan ere, gutunak sorburu du administrazio publikoen kalitatearen printzipioa hobetsi beharra herritarrekiko harremanetan, eta helburu hori gero eta finkatua dago jardunbide publikoa arautzen duten irizpideetan.

Nafarroan 2003an hasitako prozesuaren antzeko bat garatu zuen Gaztela-Mantxako Juntak –kasu horretan, artean arartekorik ez zuen administrazio publiko batena izan zen ekimena–, eta aipamen berezia izan zuen "Premios Ciudadanía" direlakoetan. Sari horiek Administrazio Publikoen Kalitatearen Behatokiak ematen ditu (erakunde horretan estatu nahiz autonomia erkidegoetako administrazioak daude ordezkaturik).

Herritarren eskubideen gutuna bat dator arartekoak erakundeen artean lankidetzan aritzeko duen asmoarekin, administrazio publikoek, herritarren eskubide horiek ongi aplikatzen direla zaintzeko ardura duten aldetik, ahalik eta eragingarritasunik handiena bilatu behar baitute; eta bat dator, orobat, erakundeak, beste ekimen batzuen bitartez, urteotan egin dituen txosten bereziak kasu, herrita-

(1) *Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna eztabaidaren ardatza izan zen, 2001eko irailean ararteko nazionalak eta autonomia erkidegoetakoek EBko Ombudsmanaren babespean, Bruselan, egin zuten topaketan.*

rrren taldeekin hasiera-hasieratik etengabe bilatu duen lankidetzarekin.

Kontsulta prozesu hori, ezinbestean, bi alderdi nagusitan oinarritu beharko litzateke. Alde batetik, herritarrek administrazio organoekin duten harremanetan duten beharrezanez buruz (harreman mota, administrazio tramitazioa, komunikazio sistemak...) administrazioak eta herritarrek zer nolako harremana duten. Erradiografia hori lortzeko, erakunde honekin lankidetzan aritutako guztiei pasatu genien galdetegi bat prestatu genuen, iritzia emateko parametro zehatz-zehatzak ezartzen zituena.

Galdetegiak bazuen Nafarroako herritarren eskubideen sustapenarekin eta garapenarekin lotura handia duten gaien bigarren kapitulu bat: hezkuntza, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, osasuna, kolektibo zaurgarrienak (zaharrak, adingabeak, emakumeak, etorkinak, ezgaitasuna duten pertsonak...). Lana egiteko, erakunde honetako ordezkarien eta elkarte, giza talde eta gure erkidegoan ordezkariak zabalenerako kolektiboen artean izandako eztabaidak izan genituen oinarri.

Foru Komunitateko herritarren eskubideen gutuna egitean, erakundea sortu zuen legean inplizituki jasotzen diren eginkizunetako bat garatzen ari da arartekoa: herritarren eskubideak indarrean daudela zaintzea eta haien beharrezanekin zein diren igartzea, foru parlamentuari eta administrazio publikoei jakinarazi ahal izateko zein diren gure gomendioak eskubide horien aplikazioa hobea izate aldera.

Foru komunitateko herritarren eskubideen gutunari buruzko proposamena erakundearen jarduketara hirukoitz baten parte da. Izan ere, gutun horri ondokoak gehitu behar zaizkio: Herritarren

Eskubideen Gidaliburua –Nafarroako Unibertsitatearekin eta Andaluziako arartekoarekin elkarlanetan–, estatuan nahiz Nafarroan eskubide eta libertateei buruz dagoen araudiaren ikuspegi praktikoa emanen duena, eta Jokabide Zuzeneko Kodea, arartekoak Nafarroako administrazio publikoari herritarrekiko harremanetan estilo eta maila zuzena lortzearen proposatu ziena. Jokabide administratibo zuzeneko kodea eta zerbitzuen gutunak –arartekoarenak lehenik eta administrazioenak oro har, eta biak ala biak garrantzi berarekin– estu-estu loturik daude.

2003an erabakitazunez hasitako prozesu orokor hori amaitzen denean, gure erkidegoan eskubideak eta libertateak zertan diren jakiteko ikuspegi sakon bat izan ahal dugu, bai eta eskubide horiek baliatu ahal izateko gida praktikoa ere, eta administrazioak, berriz, ahal den neurrian Jokabide Zuzeneko Kodearen espiritua jasoko duten zerbitzuen gutunak izanen ditu prest.

#### **Aurkezpen publikoa**

Ekimena 2003ko uztailaren 17ko prentsaurrekoan aurkeztu zuen arartekoak. Han ziren Legebiltzarreko lehendakari Rafael Gurrea jauna, estatuko arartekoaren bigarren ondoko Manuel Aguilar jauna, arartekoarekiko harremanetarako Kongresu eta Senatuko Batzorde Mistoko lehendakari José Manuel Bermejo jauna eta Nafarroako diputatu eta Kongresuko Giza Eskubideen Batzordeko kide Eva Gorri andrea.

#### **Deialdia**

Uztailaren 17an hasi zen. Gizarteko talde eta elkarteekiko topaketak herri hautatuetan egin ziren, eta bertan izan ziren arartekoa eta haren bulegoko langileak.

HERRIEN/ELKARTEEN  
HASIERAKO ZERRENDA

ZKIA.	HERRIA	GUZTIRA ELKARTEAK
1	ABLITAS	5
2	OIBAR	11
3	ALTSASU	24
4	ANTSOAIN	6
5	ARGUEDAS	4
6	ARROITZ	4
7	ARTAXOA	4
8	AZAGRA	8
9	BARAÑAIN	16
10	BERA	17
11	BERRIOZAR	10
12	BUÑUEL	4
13	BURLATA	35
14	CADREITA	3
15	CAPARROSO	4
16	CASTEJÓN	16
17	CINTRUÉNIGO	8
18	CORELLA	9
19	CORTES	8
20	ELIZONDO (BAZTAN)	10
21	DONEZTEBE	5
22	LIZARRA	27
23	FALTZES	11
24	UHARTE	11
25	IRURTZUN	7
26	LEITZA	14
27	LEKUNBERRI	3
28	LESAKA	8
29	LODOSA	12
30	LOS ARCOS	13
31	MARTZILLA	8
32	MENDABIA	8
33	MONTEAGUDO	8
34	OBANOS	2
35	OTSAGABIA	9
36	ERRIBERRI	6
37	IRUÑA-MENDILLORRI	232
38	GARES	5
39	ERRONKARI (ERRONKARI IBARRA)	6
40	ZANGOZA	7
41	TAFALLA	8
42	TUTERA	25
43	VIANA	6
44	ATARRABIA	6
	Honaino, guztira	651
	Sektoreko beste elkarte batzuk	57
	ELKARTEAK, GUZTIRA	708



### Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideen gutunari buruzko hasierako datuak

Ekimena abian jartzearen, zerrenda bat taxutu zen; 708 elkarte eta gizarte talde biltzen zituen, gure erkidegoko geografia nahiz sektore guztiak aski ordezkatzeko dituztenak. Horiek hautatzerakoan, lehentasuna eman zitzaion biztanleria- edo geografia-erreferentziari, eta elkarte nahiz talde mota hautatzerakoan kontuan hartu ziren haien gizarte-lotura eta administrazioekin bat egiteko izan ohi duten gaitasuna. Halatan, ondoko elkartek hautatu ziren:

#### HASIERAKO ZERRENDA, ELKARTE MOTAREN ARABERAKOA

HIRUGARREN ADINA	82
EMAKUMEAK	89
GURASOEN ELKARTEAK	204
BIZILAGUNAK	30
BESTE BATZUK	303
ELKARTEAK, GUZTIRA	708

#### Lan metodoa

• Herri bakoitzean deitutako elkarte eta taldeei Nafarroako Foru Komunitateko Herritarren Eskubideen Gutuna xehetasunez aurkeztea.

• Gutunaren edukiari buruzko eztabaida orokorra

• Bi galdetegi ematea. Bata, herritarrek administrazio publikoekin duten harremanari buruzkoa. Bestea, oinarrizko eskubideei eta askatasun publikoei nahiz administrazioak horiek garatu eta sustatzeari buruzkoa.

• Galdetegia arartekoari postaz doan igortzea.

• Galdetegiaren bidez jasotako erantzunak sailkatzea.

• Ondorioen lehen zirriborro bat taxutzea.

• Nafarroako bost herritan bilera egitea parte hartu duten elkarrekin, behin betiko bateratzelana egiteko.

• Nafarroako Foru Komunitateko Herritarren Eskubideen Gutuna taxutze aldera arartekoak emandako ebazpena aurkeztea.

• Azterlanaren ondorio nagusiak Nafarroako Parlamentuari aurkeztea.

• Nafarroako Foru Komunitateko Herritarren Eskubideen Gutuna administrazio publikoei igortzea, ezagutu eta onar dezaten.

Talde nahiz elkarrekin izandako elkarrizketa ia guztiak 2003an bukatuta, ondoko taulen bidez baloratu liteke horien maila nahiz parte-hartzea:

DEIALDIRA BERTARATUTAKOEN ZERRENDA,  
HERRIEN/ELKARTEEN ARABERAKOA

ZKIA.	HERRIA	GUZTIRA ELKARTEAK
1	ABLITAS	4
2	OIBAR	11
3	ALTSASU	6
4	ANTSOAIN	5
5	ARGUEDAS	3
6	ARROITZ	3
7	ARTAXOA	4
8	AZAGRA	7
9	BARAÑAIN	11
10	BERA	13
11	BERRIOZAR	7
12	BUÑUEL	4
13	BURLATA	6
14	CADREITA	3
15	CAPARROSO	4
16	CASTEJÓN	14
17	CINTRUÉNIGO	5
18	CORELLA	6
19	CORTES	8
20	ELIZONDO (BAZTAN)	9
21	DONEZTEBE	5
22	LIZARRA	18
23	FALTZES	11
24	UHARTE	5
25	IRURTZUN	1
26	LEITZA	6
27	LEKUNBERRI	3
28	LESAKA	8
29	LODOSA	12
30	LOS ARCOS	6
31	MARTZILLA	8
32	MENDABIA	6
33	MONTEAGUDO	6
34	OTSAGABIA	1
35	ERRIBERRI	2
36	IRUÑA-MENDILLORRI	52
37	GARES	4
38	ERRONKARI (ERRONKARI IBARRA)	4
39	ZANGOZA	6
40	TAFALLA	8
41	TUTERA	15
42	VIANA	9
43	ATARRABIA	5
	ELKARTEAK, GUZTIRA	334

DEIALDIRA BERTARATUTAKOEN ZERRENDA,  
HERRIEN ETA ELKARTE MOTAREN ARABERAKOA

ZKIA.	HERRIA	3. ADINA	EMAKU- MEAK	GURASOEN ELKARTEAK	BIZILA- GUNAK	BESTE BATZUK	GUZTIRA
1	ABLITAS	–	1	2	–	1	4
2	OIBAR	1	1	1	–	8	11
3	ALTSASU	1	–	1	–	4	6
4	ANTSOAIN	1	1	1	–	2	5
5	ARGUEDAS	1	–	2	–	–	3
6	ARROITZ	1	1	1	–	–	3
7	ARTAXOA	1	1	1	–	1	4
8	AZAGRA	1	1	2	–	3	7
9	BARAÑAIN	–	4	6	–	1	11
10	BERA	–	1	3	–	9	13
11	BERRIOZAR	1	1	2	–	3	7
12	BUÑUEL	1	–	2	–	1	4
13	BURLATA	–	–	4	–	2	6
14	CADREITA	1	1	1	–	–	3
15	CAPARROSO	1	1	1	–	1	4
16	CASTEJÓN	1	1	1	–	11	14
17	CINTRUÉNIGO	1	2	–	2	5	
18	CORELLA	1	1	2	–	2	6
19	CORTES	2	1	3	–	2	8
20	ELIZONDO (Baztan)	–	1	7	–	1	9
21	DONEZTEBE	2	1	2	–	–	5
22	LIZARRA	1	1	4	6	6	18
23	FALTZES	1	2	2	–	6	11
24	UHARTE	1	1	2	–	1	5
25	IRURTZUN	–	–	1	–	–	1
26	LEITZA	1	2	–	–	3	6
27	LEKUNBERRI	1	1	1	–	–	3
28	LESAKA	1	–	2	–	5	8
29	LODOSA	1	1	4	–	6	12
30	LOS ARCOS	1	–	1	–	4	6
31	MARTZILLA	1	1	1	–	5	8
32	MENDABIA	1	1	3	–	1	6
33	MONTEAGUDO	–	–	1	–	5	6
34	OTSAGABIA	–	–	1	–	–	1
35	ERRIBERRI	1	–	–	–	1	2
36	IRUÑA MENDILLORRI	11	7	14	6	14	52
37	GARES	1	1	1	1	–	4
38	ERRONKARI (Erronkari ibarra)	1	1	1	–	1	4
39	ZANGOZA	1	1	3	–	1	6
40	TAFALLA	2	1	5	–	–	8
41	TUTERA	3	6	5	1	–	15
42	VIANA	1	1	2	–	5	9
43	ATARRABIA	1	1	3	–	–	5
	ELKARTEAK, GUZTIRA	49	49	104	14	118	334

DEIALDIRA BERTARATUTAKOEN ZERRENDA, ELKARTE MOTAREN ARABERAKOAK	
HIRUGARREN ADINA	49
EMAKUMEAK	49
GURASOEN ELKARTEAK	104
BIZILAGUNAK	14
BESTE BATZUK	118
<b>ELKARTEAK, GUZTIRA</b>	<b>334</b>

DEITUTAKO ELKARTEAK ETA BERTARATUTAKOAK		
	DEITUTAKOAK	BERTARA- TUTAKOAK
HIRUGARREN ADINA	73	49
EMAKUMEAK	74	49
GURASOEN ELKARTEAK	159	104
BIZILAGUNAK	30	14
BESTE BATZUK (2)	208	118
<b>GUZTIRA</b>	<b>544</b>	<b>334</b>

Azterlan horren azken ondorioak arartekoaren Nafarroako Parlamentuarentzako eta administrazio publikoentzako txosten berezi gisa aurkeztuko dira 2004. urtean.

### I- 03. HERRITARREN ESKUBIDEEN ZEHAR- KAKO DEFENTSA

2003. urtean, aholkulari bat sartu zenez geroztik, aztertu ahal izan zen erakundearen antolamendua aldatzea, eragingarritasuna areagotze aldera; antolamendu berri horretan, barne-eginkizunak beste modu batera banatuko lirateke, kexak, kontsultak eta bestelako ekintzak sektoreka banatuz eta kexen nahiz ekimen berezien azterketa ahalik eta sakonena eginez, kexa edo ikerketa horiek zer gizatalderi eragiten dioten harexeri erreparatuta.

Arlokako barne-banaketa horretaz gain, antolamendu berri horrek, 2001etik 2004ra bitarteko plan estrategikoan ezarritakoaren ildotik, aukera eman luke egilea zein gizataldekoa den harexeri erreparatuta aztertzeke kexak eta salatzen den egoeraren ondorioak, nahiz bigarren mailako arrazoiak egiaztatzeke.

Halaber, arloak esleitze horretan sartzen dira 2002an eta 2003an erakundearen jardun etengala

bearen zati izan diren –2004an ere izanen dira– txosten bereziak.

Horren guztiaren ondorioz, espero izatekoa da zorrotzago eta era espezializatuagoan defendituko direla zenbait talderen eskubideak, babesgabeagoak horietako batzuk, hala nola zaharrak, adingabeak, ezgaituak, etorkinak eta emakumeak. Arreta berezia jarriko da 2004an garatuko diren sei arlo horietan; izan ere, kexen kudeaketa orokorrekina batera –kexen zioa zein ere den–, horiek izan dira erakundearen jardueraren zutabe nagusiak.

### ADINGABEAK

Hiru ekimen burutu dira 2003an arlo hori dela eta:

- Nafarroako Foru Komunitateko adingabeen aurkako abusu eta tratu txarren gaineko protokoloa taxutzeari buruzko ebazpena.
- Adingabeei laguntza emateko foru lege bat taxutzeari buruzko ebazpena.
- Nafarroako Foru Komunitateko adingabeen eskubideei buruzko txosten orokorrari hasiera ematea.

### 1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADINGABEEN AURKAKO ABUSU ETA TRATU TXARREN GAINEKO PROTOKOLOA TAXUTZEA- RI BURUZKO EBAZPENA PARLAMENTUARI AURKEZTEA.

2002an egina, arartekoak Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordean aurkeztu zuen adingabeen aurkako abusu eta tratu txarren gaineko protokoloa taxutzeke proposamena. Testuak –2002ko txostenean dago jasota– foru administrazioari eskatzen zion akordio bat garatzeko, abusu eta tratu txarren kasuetan adingabeen defentsan parte hartzen duten aktore guztiek sinatua.

2001eko ekimen batean etxeko indarkeriari buruzko protokolo bat taxutzea proposatu genuen –haren bidez, etxean emakumearen aurka ematen den indarkeria eta adingabeen aurkako abusu edo tratu txarrak jorratu behar ziren–, baina Nafarroako Gobernuak, Osasun Departamentuaren eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren bi idazkiren bitartez, ezetsi egin zuen proposamen hura, eta horregatik planteatu genuen hain zuzen ere ekimen hori. Senarrak Atarrabiako emakume

(2) Horien artean daude Nafarroako Apymas direlakoan federazioak, bergizarteratze lanetan ari diren 13 elkarte, baita ezgaitasun fisiko eta psikikoaren arloan lan egiten duten 14 elkarte ere.

bat hil zuenean, ordea, Gobernuak berehala jarri zuen abian erakunde arteko akordio bat, arartekoak proposatutakoaren gisakoa, baina arartekoaren parte-hartzerik gabekoa eta adingabeen aurkako abusu eta tratu txarrei buruzko alderdiak jaso gabe.

Erakunde arteko akordio horrek –genero indarkeria du ardatz– Nafarroako Emakumearen Institutuaren lehenagoko agiri bat hartzen zuen etxeko indarkeria gertatzen den kasuetan jarduteko oinarritzat, eta arlo horretan jardun behar denerako erreferentzia-gida bihurtzen zuen agiri hura.

Arartekoak adingabeen aurkako abusuen alorrean eskusiboki eta sakon jarduteko protokolo bat taxutzearen aldeko apustua egiten duen ebazpena eman zuen, eta hori izan zen, hain zuzen ere, foru gobernuari alor bi horietarako protokolo-proposamen hura egiten laguntze aldera eginiko eztabaidetan parte hartu zuten elkarte eta profesionalak eskatu zutena.

Foru administrazioak hiru komunikazio igorri zizkigun 2003an, arartekoak egindako informazio eskaerak zirela eta; izan ere, aipatu protokolo-proposamena igorri zenetik aitzina ukitutako departamentuen jarduna zein izan den jakin nahi genuen. Komunikazio horietako lehena Foruzaingoaren barne koordinazio alorrean egindako lanari buruzkoa zen, eta bigarrenak –ekainaren 4ko data zera man–, berriz, adingabeen aurkako abusuen alorrean jarduteko protokoloa taxutze aldera Gizarte Ongizate Departamentuak egin beharreko bi pausoak azaltzen zituen. Pauso horietako lehenaren arabera, alde zuzenetik taxutu behar zen gizarte zerbitzuetako profesionalen jarduteko gida. Dokumentu hori 2004ko urtarrilean igorri zitzaion erakundeari. Hori da arestian aipatutako hirugarren dokumentua. Dena den, arlo horretan jarduteko protokoloa taxutzeko ebazpena Nafarroako Parlamentuan aurkeztu eta ia urtebete igaro bada ere, oraindik ere ez dakigu zein epe eta zein eduki dituen adingabeen aurkako abusu eta tratu txarren alorrean esku hartzen duten eragile guztiak koordinatzeko protokoloak –Foruzaingoa, Estatuko Segurtasuneko Indar eta Gorputzak, abokatuak, epailetza, fiskaltza, gizarte zerbitzuak, psikologoak...–.

Nabarmendu beharra dago ezen Nafarroako Foru Komunitateko adingabeen aurkako abusu eta tratu txarren gaineko protokoloa taxutzeari buruz erakundeak egindako gomendioa “Save the Children” GKErekin, Nafarroako Adingabeen Fiskalarekin, Nafarroako Auzitegi Nagusiarekin, Nafarroako Psikologoaren Elkargoarekin eta Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko kide Félix Pantoja jaunarekin –lehenago Madrilgo adingabeen fiskala zenare-

kin– izandako lankidetzaren fruitua izan zela. Lankidetzaren horri esker taxutu ahal izan zen azterketa juridiko, sozial eta prebentiboko agiri bat, azterketa sakona inondik ere, Nafarroako administrazioek ondoren egin beharreko lana erraztu zuena eta aipatu protokoloa sortu eta berehala aplikatzean foru administrazioak izan lezakeen aitzindarritza erraztu zuena. Eta orobat gogoratu behar da ezen, ebazpen horren esparruan, azpimarra jartzen zela erakundeek adingabeei eragindako tratu txarretan, zeinaren ezaugarri bat baita babesgabetasun egoeretako adingabearen eskubidearen aldeko jardungabezia.

Adierazi beharra dago, azkenik, ebazpenak haurren aurkako tratu txarrei buruzko azterketa sakon bat jartzen zuela protokoloa taxutu behar zuenaren eskura, gizarte mailako arazo larria baita, bai ezagutzen ditugun datuei erreparatuta, bai ekintza horiek duten oihartzun sozial, psikologiko nahiz etikoari erreparatuta. Iritzi horien oinarrian dago administrazio publikoek ardura-mailarik eta zehaztasun profesionalik gorenak erakutsi behar dituztela adingabeen aurkako tratu txarren prozesuetan; premiazkoa da prebentzioa areagotzea eta adingabeak abusuak pairatzen dituen esku hartzen duten eragile guztien prestakuntza nahiz espezializazioa areagotzea. Ebazpenak orobat eskaintzen du abusuen biktima diren adingabeenganako tratuari eta kasu horien tramitazioari buruzko proposamenen zerrenda ireki bat, bai eta kasu horietan egin beharrekoari eta kautelazko neurri gomendagarriei buruzkoa ere.

## 2. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ARARTEKOAREN PROPOSAMENA, ADINGABEEI LAGUNTZA EMATEKO FORU LEGEA DELA ETA.

Arartekoak 2003ko azaroaren 20an eman zuen ezagutzera adingabeei laguntza emateko foru lege bat taxutzeari buruzko proposamena. Testu hartan, hasteko eta behin gogorarazten zen ezen Nazio Batuen biltzar nagusiak azaroak 20 zituen beste behin, 1989an hain zuzen ere, aldarrikatu zuela Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena. Proposamenaren hitzurreak dioenez, sinatu zuten estatuek konpromisoa hartu zuten eskubide horiek errespetatu eta betetzen direla zaintzeko, eta baita nork bere araudietan jasotzeko ere. Konpromiso hark orobat dakar berekin nazioarteak lankidetzan aritu behar izatea eskubide horiek betetze aldera.

Kontuan hartuta haurrek zainketa eta arreta bereziak behar dituztela, ahulagoak direla eta haien mundua helduen munduaz bestelakoa dela, hitzarmenak hura berretsi duten estatuak egiten ditu hurrenganako ekintzen erantzule juridiko-

Gomendioak dioenari jarraikiz, erronkarik handiena da haurren babes maila igotzea eta haien eskubideak sustatzea.

Espainiako Konstituzioaren 39. artikulua arabera, umeez nazioarteko itunetan ezarritako babesa izanen dute, eta botere publikoek familieren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa eta seme-alaben babes osoa ziurtatzen dituzte.

Estatu mailan, Konstituzioaz gain, ondokoak ere aipatu behar dira: Kode Zibila, Prozedura Zibileko Legea –adopzio eta adingabeak babesteko beste era batzuen alorrean–, Adin Txikikoentzako Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, Adin txikikoen erantzukizun penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa eta adingabeen eskubideak arautzen dituzten gainontzeko lege organikoak.

Oinarrizko arau horiek garatzearen, arlo horri buruzko lege berariazkoak taxutu eta onetsi dituzte hainbat autonomia erkidegok, besteak beste Andaluziak, Aragoik, Kantabriak, Gaztela eta Leonek, Galiziak, Madrilak, Murtziak eta Valentziak. Foru Komunitatean, ordea, ez da halakorik izan.

Gizarteak gero eta gehiago erakusten du haurtzaroari buruzko diskurtso bikoitza. Alde batetik, gero eta kezkatuago agertzen da oinarrizko eskubideak –osasuna edo hezkuntza– direla-eta, eta beste alde batetik, aiantzi egiten ditu adingabeen duintasunarekiko oinarrizko errespetua, familia nahiz gizarte ingurunean duen presentzia eta tolerantzia nahiz bizikidetasuna bezalako oinarrizko printzipioetan hezi beharra.

Foru Komunitateak baditu eduki eskumen franko arlo horretan, baina ez dugu foru araubide ordenaturik, adingabearen figura hark dituen premietatik hartuko dituenik; horregatik, hain zuzen ere, arartekoak uste du Nafarroak lege mailako arau bat taxutu beharko lukeela, testu bakar batean biltzeko une honetan sakabanaturik dauden arauak, lege mailarik gabekoak horiek denak.

#### PRINTZPIO OROKORRAK

Ondokoak izan beharko lirateke foru araubide horren printzipio orokorrak:

**1. Lege bidez arautzea:** Foru lege bidez arautuko dira adingabearen eskubideen babesa eta sustapena, estatu mailako araubidean ezarritakoa galarazi gabe. Arlo hori sakabanaturik dago gaur egun, lege mailarik ez duten foru arauetan sakabanaturik hain zuzen ere.

**2. Legearen xedea:** Haurren eskubideak bermatu eta sustatzea eta arriskuan nahiz babesik gabeko egoeran dauden adingabeei babes juridiko

eta soziala ematea. Haurtzaroa babestu eta laguntza emateko politika integral bat egitea bilatzen da, erakundeek dituzten baliabideak koordinatzea prebentzio politikak egitearen –arriskuko egoera jakinetarako nahiz egoera orokorretarako politikak alegia–, eta adingabeen premia guztiei erreparatzea.

#### 3. Oinarrizko printzipioak:

- Adingabearen interesak lehentasuna du bidezko beste edozein interesen aldean; hartara, haren gizarte ongizatea sustatuko da, haren autonomia eta haren garapen osoa ahalbidetuko dira, hala nola familia eta gizartean sartzea.

- Gizartean parte-hartze aktiboa –haren gaitasunen araberakoa– izateko ahalmena izan behar duela onartzea adingabeari; hartara, iritzia eman dezan sustatu eta ahalbidetuko da eta haren iritzia kontuan hartuko da, har litezkeen erabakiak hartzerakoan.

- Familia babestea, adingabearenganako ardurara bere gain har dezan; izan ere, familia da adingabeari laguntza eta babesa emateko ingurune nagusia. Botere publikoek subsidiarioki esku hartuko dute. Familia gunean esku hartuko da nagusiki, eta ahal den neurrian, adingabea haren inguru naturaletik gertu egonen da.

- Tolerantzia, solidaritatea, errespetua nahiz bizikidetasunaren printzipio demokratikoak sustatzea, bai gizartean bai adingabeen artean.

- Administrazio publiko ukituen jarduerak planifikatu eta koordinatzea, ekintza integralak lortze aldera.

- Gizarte ekimeneko entitateekiko lankidetzaren sustatzea.

- Adingabeen eskubideen sustapen eta defentsarako nahiz haien babesgabetasunari, bazterkeriari, moldegabeziari, tratatu txarrei eta esplotazio orori aurrea hartzeko ekintzek lehentasuna izatea. Neurri horiek adingabe bakoitzaren egoerari egokituta hartu beharko dira.

- Segurtasun juridikoa, konfidentzialtasuna eta jarduketan erreserba bermatzea.

- Gizartea haurren arazoan aurrean sentsibilizatzea.

#### 4. Foru araubideak jaso beharreko eskubideak:

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean nahiz Espainiak berretsi dituen nazioarteko hitzarmenetan jasotako guztiak eta, bereziki, jaiotza, naziotasun, etnia, gaixotasun, erlijio edo sexua dela-eta bazterturik ez izateko eskubidea.

Horiek hobeki defenditze aldera, eskubide horiek baliatzen ahal direla bermatzeko politika integralak prestatu beharko dira, eta bide egokiak ezarri, bermatzeko adingabeak eskubidea duela administrazio publikoengana jotzeko babes eta laguntza eske, administrazio publikoak baitira eskubide horiek bermatu eta ahalbidetzeko ardura dutenak. Horretarako, egoki eta azkar jardun beharko dute, babes juridiko eta administratiboaren eragingarritasuna bermatuko bada.

Aldi berean, adingabeei aitortutako eskubideen titulartasunari eta erabilpenari datzekion betebeharrak eta erantzukizunak jaso beharko dira.

Orobat ezarri beharko dira debeku, muga eta jarduera partikularrak zenbait establezimendu eta ikuskizun publiko, ikus-entzunezko, publizitate edo telekomunikazioren gainean eta zenbait produkturen kontsumo eta merkaturatzearen gainean, eragin nahiz ondorio kaltegarriak ekiditearren.

Hartara, zehapena daramaten arau-haustetzat tipifikatutako jarrera eta egitateen artean sartuko dira eman litezkeen ez-betetze eta urratzeak.

Azkenik, eskubide horien hedapenari, informazioari nahiz prestakuntzari buruzko ekintzak ezarri beharko dira, eta edozein bazterkeria ekidin eta zuzendu, berdintasuna xede.

**5. Aurrea hartzeko jarduketak ezarri,** lehentasunez ezarri ere, adingabeen babesgabetasun eta arrisku egoerak ekiditeko.

Aurrea hartzeko neurrien eragingarritasuna loturik doa alde aurretik beharizanak atzemateari, ekintza integral eta osagarriak planifikatzeari eta informazioa koordinatu eta trukatzeari.

Aurrea hartzeko neurri horien artean ondoko eremuetako jarduketak sar ditzakegu:

- a) Familiaren babesa
- b) Gizarte harremanak eta aisia
- c) Hezkuntza laguntza
- d) Osasun laguntza
- e) Prestakuntza eta enplegua
- f) Haurren eskubideen gaineko sentsibilizazioa

Nabarmendu beharra dago ezen, aurrea hartzearen eragingarritasuna bermatuko bada, berebiziko garrantzia dutela atzemate zehatzak, azkar eta gertutik jarduteak eta hartutako neurriak hartzaileen beharizan eta berezitasunei begira gertukoak eta egokiak izateak.

**6. Babesa,** edo administrazioaren esku-hartzea, haurrak nahiz nerabeak babesgabetasun edo arrisku egoeran daudenean. Xede du adingabeen babesgabetasun egoerak zuzentzea eta haren normalizazioa ahalbidetzeko oinarriko baldintzak sortzea.

- Administrazioaren esku-hartzeak jarduteko printzipio eta irizpide multzo batean kokatu beharko du arlo horri dagokionez. Hona balizko printzipio horietako batzuk:

- Adingabearen duintasun, askatasun nahiz autonomiarekiko errespetua.

- Lehtasuna ematea familia ingurunean jarduteari.

- Erabakietan –nork bere gaitasunen arabera– parte hartzea aintzat hartzea.

- Indibidualizazio printzipioa eta gutxieneko esku-hartzea izatekoa.

- Prozedura arautuei lotu beharra eta diziplinartekotasuna.

- Abian diren jarduketa eta neurriak aldizka aztertzea eta horien jarraipena eta kontrola egitea.

- Administrazio publikoek batera parte hartzea ekintzen eta programen garapenean.

- Adingabe baten babesgabetasun edo arrisku egoera bat, edozein, jakinarazi eta salatze beharra ezartzea. Behar hori bereziki dagokie gizarte, osasun eta hezkuntza zerbitzu eta zentroei.

Babes eremu horren barruan sartu beharko litzateke adingabe babestuen eskubide berezien zerrenda bat, ondokoena besteak beste: babestua izateko eskubidea, hartuko diren neurri eta jarduketak berri –horien iraupen eta edukiarena– kasuan kasuko administrazioaren eskutik jakitekoa, hamabi urtetik baino gehiago izanez gero edo heldutasun eta gaitasun nahiko izanez gero entzuna izatekoa, autonomia pertsonala izatekoa, integrazio seguru, iraunkor eta behin betikorako plan bat izatekoa, baliabide publikoak lehentasunez jasotzekoa, segurtasun juridikoa eta emozionala izatekoa...

Halaber, beharrezkoa da ahalik eta gehien zehaztea babesgabetasun egoera guztiak, administrazioak arlo horretan duen zuzendaritza gaitasuna gutxituz. Halatan, arrisku egoeraren kontzeptua definitu beharra dago, arriskuak mugatzen laguntzeko katalogo bat eginez. Arrisku egoeretan, administrazioaren esku hartzea mugatuko da, lehendabizi, balioespena egitera, bigarrenik, deklarazioa egitera eta, hirugarrenik, neurriak har-

tzera adingabearen eskubideak oso-osorik baliatzeko oztopo diren inguruabarrak desagerrarazi, moteldu edo konpentsatzeko.

Segurtasun juridikoa bermatu nahi izanez gero, zehatz-mehatz arautu beharko litzateke zeri deritzon babesgabatasun egoera, zein den kontzeptua eta zein babesgabatasuna deklaratzeko eta babesneurriak hartzeko prozedura. Prozedura-eremua, oro har, erregelamenduzko xedapenatarako gordezten da, baina ikusita zer eskubide ukitzen diren eta ikusita zein diren administrazioaren jarduerak norberarengan nahiz familian dituen ondorioak, komeni da lege bidezko tratamendua ematea.

Prozedura hasiera-hasieratik esleitu behar zaio teknikari koordinatzaile bati, aurrez ikusi behar da kasu jakin batzuei berehalako erantzuna emateko presako prozedura bat, ikerketaren zehaztasuna, esku-sartzeko prozeduraren gutxienezko aplikazioa, heldutasun eta gaitasun nahiko izanez gero adingabeari entzutea eta «kasuko plana», haren eduki, betearazpen eta berraztertzearen ezarpena.

Azkenik, beharrezkoa izanen da jasotzea hartzen ahal diren babes neurri eta jarduketaren erregulazio zehatza, aplikatzekoa zaien araubide orokorra eta horiek aplikatzeko irizpide orokorrak; beti ere familian sartzea babestuko dute, familiari babesa emanen diote eta banatzeak ekidinen, eta banaketa gertatu baldin bada, berriz ere batzea bilatuko da, baldin eta banaketa eragin zuten arrazoiak desagertu badira.

Adingabearen zaintza sustatuko da, familiak hartzea ere bai, eta bestelako baliabide egokiagorik ez bada, egoitza batean hartzera joko da ordezkotako baliabide gisa.

### **7. Gizarte gatazka bizi duten adingabeen kontzeptua eta jarduketak**

Adin txikikoen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa onetsi ondotik, autonomia erkidegoei eskumen bakarra geratzen zaie arlo horretan, adingabeen epaileen epai irmoak direla-eta hartutako neurriak betetzea.

Hortaz, foru legea araudi orokorra aplikatzeko jarduketa-irizpide osagarri eta instrumentalak ezartzera mugatu beharko da, neurrien artean bereiziz ingurune irekikoak, askatasuna kentzekoak eta ordezkotakoak. Edozein kasutan ere, neurriak

betearaztean adingabe arau-hauslearen interesa, haren eskubideekiko errespetua eta neurrien hezkuntza- nahiz berrezarpen-xedea nagusitu beharko dira.

### **8. Eskumenen banaketa eta administrazioen arteko lankidetzak**

Neurriek administrazio publiko bat baino gehiagok parte hartzea eskatzen dutenez gero, eskumenak eta eginkizunak ezinbestean banatu beharko dira foru administrazioaren eta toki entitateen artean lankidetzak nahiz administrazioen arteko koordinazioa ahalbidetu, jarduketaren bikoiztasuna ekidin eta neurrien eragingarritasuna hobetuko badira.

Komeni izanen da, orobat, gizarte ekimena sustatzea; horretarako, bultzatu egin beharko dira entitate laguntzaile pribatuak –elkartekak, fundazioak edo behar bezala erregistraturik dauden pertsona juridikoak, adingabeei laguntzea xede dutenak–.

### **3. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADINGABEEN ESKUBIDEEI BURUZKO TXOSTEN OROKORRARI HASIERA EMATEA.**

Adingabeen eskubideei erreparatzea da, esan bezala, arartekoaren jardunaren ardatz berezieta bat. Ikusita arestiko bi proposamenak eta emakumeen nahiz adingabeen aurkako etxeko indarkeria gertatzen den kasuetan jarduteko erakundearen arteko protokolo proposamenari buruz 2001ean egindako lana, komeni zen gizarteari ahalik eta gehien erakustea zein den adingabeen arloko esparru juridikoa; izan ere, eskubide horiek, gehienetan, herritarren eskubideen artean sartzen dira, eskubide horiek baliatu, aplikatu edo exijitzeko aukerei buruzko azterketa zehatzik egin gabe (3).

Agiri honek –2003. urtea bukatzean ixtear dago– ikuspegi berezi batetik aztertzen du Haurren Eskubideen Adierazpen Unibertsala (Nazio Batuak, 1989ko azaroaren 29a): Arartekoaren erakundearen ikuspegia eskubide horiei buruz. Adierazpen hori iturri, Nafarroako Foru Komunitateko Adingabeen Eskubideei buruzko Txosten Orokorrak beste modu batera ordenatzen ditu eskubide horiek, eta arreta berezia eskaintzen die horietako batzuei, egungoagoak direlako edo gizartearen ikuspuntutik arazo gehiago sortzen dutelako.

(3) Nafarroako arartekoak Nafarroako Unibertsitatearekin lankidetzan eginiko herritarren eskubideei buruzko eskuliburuak (ikus or.) ez ditu eskubideak aztertzen pertsona motaren arabera, modu generikoan baizik, eskubide mota kontuan hartuz eta gizarte osoarentzat.



Adingabeen eskubideei buruzko katalogo hau araubide juridikoari jarraikiz dago garatua, eta adingabeen eskubideen egiazko aplikazioaren zenbait alderdi aztertzen ditu, bai eta administrazio publikoek hezkuntza, familia nahiz lege- eta osasun-esparruetan daramaten jarduna ere, eta hedabideentzako gomendioak ematen ditu.

Bestalde, arartekoak adingabeen aurkako abusu eta tratu txarren gaineko protokoloari buruz emandako ebazpenaren aplikazioa dela-eta foru administrazioak zer egin duen aztertzen du, eta jaso egiten ditu adingabeen babesari buruz zenbait autonomia erkidegotan onetsi diren lege berezien gaineko azterlan juridikoa eta Nafarroako Foru Komunitateko adingabeei laguntza emateko foru legea taxutzeari begira ararteko honek egingadako proposamena.

#### 4. Otik 3 URTERA BITARTEKO HEZKUNTZARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA

“Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza premiei buruzko txosten berezia, Nafarroako Parlamentuarentzat”, 2003an hasitakoa, Otik 3 urtera bitarteko seme-alabak dituzten familien hezkuntza premiak direla-eta sortutako egoera orokorraren balantzea egiten saiatzen da. “Familien hezkuntza premiak” kontzeptuak arazoaren mila aurpegiak bildu nahi ditu; izan ere, Nafarroako gobernuek nahiz erkidegoko hainbat udalek abian jarritako ekimenez haratago, arazoa gizartea garatuz doan erritmo berean garatzen ari da bere mila aurpegi horiek. Familien premien eta lanaren arteko oreka bilatzeak, norberaren eskubidea den aldetik, tarte gero eta handiagoa sortzen du, eta nahiz eta gurasoek erantzukizun gero eta handiagoak bereganatu, laguntzak beharrezkoa izaten jarraitzen du.

Haur eskola edo haurtzaindegietan –dauden eredu baitan, baina batez ere eredu asistentzialean– 3 urtetik beheitiko haurrak artatzerakoan “hezkuntza faktorea” sartzean adingabearen interesak jarri dira hertsiki asistentzialak direnen aurretik, hasiera batean halakoxeak ziren arren. Halatan, zabalik dago adingabeak bizitzako alde horretan jaso behar duen hezkuntzari buruzko eztabaida, etapa horretako “familia-hezkuntzaren” kontzeptu klasikotik haratago doana, eta horren lehen mailaraino ekarri du “hezkuntza faktorea”; horrenbestez, Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza pertsonen eskubide orokorren eremuan sartzen da bete-betean, testu konstituzionalean garbi ezarrita dagoen legez.

Gizarteak, berriz, presioa egiten du gobernuek eskubide hori onar dezaten eta herritarrek gainontzeko hezkuntza etapak egiten dituzten baldintza beretan egin ahal izan ditzaten. Presio hori, alabai-

na, arindu egin da ikastetxe bereziak sortzean; izan ere, Nafarroako Parlamentuan 2000n erabaki zen foru gobernua inbertsio handia egiten zuela –ikastetxeak sortu, familiei laguntzak eman eta abar–, udalek familia ukituekin lankidetzan abiaraz zitzaketek ekimenak diruz laguntze aldera. Foru gobernua berriaz emandako araubideari jarraikiz finantzatu dute de facto hiru alderdiek hezkuntza eredu hori, estatu mailako legeek orain dela hamar urte baino gehiago ireki zuten eredia oinarri.

Erkidegoko zenbait zentrotako eta, bereziki, Iruñeko udalaren eskoletako hezkuntza-esperientziaren aberastasuna beste familia-premia batzuei –hezkuntzan bainoago asistentzia-premietan oinarrituak– gailendu zaie. Premia horretatik heldu dira eredu ezberdinak nahiz gizartean eta administrazio publikoetan azaltzen diren irizpide ezberdinak.

Halatan, Nafarroako arartekoari behin eta berriro heldu zaizkio herritarren kexak, Foru Komunitateko leku guztietatik heldu ere. Horrek erakusten du zein korapilatsua den egoera: administrazioaren dirulaguntzak, itxaron zerrendak udalen Otik 3 urtera bitarteko eskoletan leku bat lortu ahal izateko, bizitzaren etapa horretan adingabeari eman beharreko laguntzak hezkuntzazkoa izan behar duelako defentsa, eskola horietako langileen funtzionario izaerari lotutako bestelako alderdi batzuk...

Komenigarria zenez arlo horretan sakontzea –historiaren hariari ia-ia berriz heltzea– eta azterketari herritarren eskubide oinarritzkoenen eta sortzen ari direnen argitan heltzea, erakundea Nafarroako Parlamentuarentzako txosten berezi bat hasi zen prestatzen 2003an, auziaren alderdi funtsezkoak argitze aldera. Sektoreko zenbait elkarte eta profesionalekin bildu ostean, lan gidoi bat prestatu genuen, 2004an Nafarroako Parlamentuari eta administrazio publikoei aurkezteko bukatuta egonen dena. Txostenaren aurkibideak ondokoak jasotzen ditu:

1) Otik 3 urtera bitarteko hezkuntzari buruzko araudiaren azterketa.

- Otik 3 urtera bitarteko haurren laguntza eta hezkuntza alderdien artatzearen bilakaera.
- Arlo horretan LOGSEk jaso zituen alderdi nagusien azterketa.
- LOCE lege berria eta sektorea antolatzea xede duten alderdiak.

2) Zer gertatzen da Otik 3 urtera bitarte?

- Adingabea, Otik 3 urtera bitarte, eskubideen subjektu den aldetik.

- Laguntza nahiz prestakuntza alderdiak, 3 urtetik behetiko adingabea eskola eremuan artatzean.
- Iruñeko Udalaren haur eskolen eredua.
- Prestakuntza arloan kontuan hartzekoak diren alderdiak, profesionalizazioa eta Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza laguntzarako ingurune-betebeharrak.

### 3) Garatzen doan gizartea.

- Gizartea, Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza premien aitzinean.
- Administrazio publikoaren jarduna.
- Nafarroako arartekoari arlo hori dela-eta aurkeztu dizkioten kexen azterketa eta balorazioa.

4) Otik 3 urtera bitarteko zikloaren “hezkuntza faktorea”

5) Otik 3 urtera bitarteko eskoletan aplikatu beharreko printzipioak.

- Foru administrazioaren ikuspuntua.
- Ekonomia alderdiak.

6) Ondorioak.

## **EMAKUMEAK: ETXEKO INDARKERIARI BEKOZ BEKO**

Emakumea bikotearen eskuetan hiltzearen aurrean gizartearen erreakzioak moda izatetik haratago joan beharra, joera gisa sendotu dadila, sentsibilitate garatu gisa. Hori izan da etxeko indarkeria kasuen aurrean Nafarroako arartekoaren kezketarik bat. Eta ez ezagutzen diren kasuak gero eta gehiago direlako, ezpada informazio horrek jazotakoa agerian uzten duelako; hortaz, erne jarraitu beharra dago. Eta kezkatuta.

### 1. “ETXEKO INDARKERIAREN AURKAKO KANPAINA NAFARROAN”, NAFARROAKO HEDABIDEEK ARARTEKOAREN EKIMENEZ EGINA

Gizarte sentsibilizazio handiagora lortzeko xedea zuten ekintza ugari eta arlo askotarikoren lekukoa izan zen 2003. urtea. Horrek frogatzen du gizartearen zati bat ez dagoela prest kultur atzerapenaren abailduran erortzeko, ez eta kultur arazoak –emakumearen aurkako erasoak gureaz bestelako beste kultura baten bereizgarri– onartzeko ere. Gizarteak aurrera egin du –kostata bada ere– sexuen arteko berdintasun-rolak normalizatzean, eta, horrezaz gain, pertsonen duintasuna beste zernahiren gainetik –arrazoi sozial, kultural, etiko nahiz edonolakoren gainetik– modu aktiboan

defenditzera pasa da. Nahiz eta “logelako terrorismo” horren amesgaiztoak ia egunero ematen dizki-gun zenbateko berriak, arartekoaren Erakundea ahalegin berezi-berezia egiten saiatu da 2003an, gizartearekin bat egin eta egonezinari gizarteak helburu komun baten kariaz bat egiten duenean lortzen duen indarra gehitzeko. Nafarroako hedabide guztiak lehendabiziko aldiz batu dira emakumeen aurkako erasoen laidoari aurre egiteko kanpaina batean. Xedea zen emakumeek tratatu txarrak salatzea eta haiei gogoraraztea, iragarkietako batean esaten zen legez, haiek ere “poztasunera-ko eskubidea dutela”.

## AURREKARIAK

### **Gizarte sentsibilizatu eta informatua**

2002ko ekainean, arartekoaren Erakundeak ekimen bat abiarazteko proposamena egin zien erkidego eremuko hedabide nafarrei; ekimenaren xedea zen herritarrak eta, bereziki, iritzi-emaileak –teknikari, kazetari, osasun, gizarte laguntza eta zuzenbide arloetako profesional eta arlo horretan jarduten duten erakunde ofizialak– nahiz administrazioak herritarren eskubideen defentsan inplikatzeko. Ekimena gauzatzeko, hedabideek doan jarriko zituzten euren publizitate tarteak nafar gizartea etxeko indarkeriaren eta, bereziki, genero indarkeriaren aurka suspertzeko mezuak hedatzeko. Ondoren, kanpaina eginen zuen publizitate agentzia, ikus-entzunezkoen euskarriak eginen zituen produktorea eta kanpaina ekoizteko beharrezkoak ziren gainontzeko profesionalak bilatuko ziren.

Urtebetez, parte-hartze horren baldintzak aztertu eta kanpainaren edukiak prestatu ziren. Proposamena egin eta urtebetera, kanpaina ekoizten hasi zen, berehala hedatzeko.

Kanpaina abiatzeko unea –2003ko urria– kanpainaren eduki nahiz helburuei buruzko une bereziki garrantzitsu batekin batera gertatu zen: orduantxe eman zen argitara estatuko Fiskaltza Nagusiaren urteko txostena, gure herrian gertatzen den etxeko indarkeriaren datu kezagarriak agerian jarri zituena. Bikoteen esku hildako emakumeen kopuruak gora egin zuen aurreko urtearekin konparatuta. Egun haietan, gainera, hedabide guztietan jaso zuten indarrean sartu zela Diputatu- en Kongresuak aho batez onetsi zuen Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua.

Zoritxarrez, erasoek eta heriotzek ez dute etenik, eta albistegiek egunero gogorarazten digute arazoak bere gordinean dirauela. Emakume gehiago hilik, ebazpen judizial iritzi publikoaren aldetik ez-gogobetekoak eta bikoteek eragindako tratatu txarrak bihotzeko prentsan salatzen dituzten ema-

kumeak. Gizartearen geruza guztietara ailegatzen den eta herritar guztien artean etengabeko sentsibilizazioa sortzen duen informazioa.

Gizartea genero indarkeriaren aurka sentsibilizatuta dagoela dugu abiaburu, baina ezin dugu bazter utzi “aldeko mobilizazio” hori aldi baterakoa izan daitekeelako aukera. Hori dela-eta, egunero-kotasunaren esparru orokorrak bide emanen luke pentsatzeko ezen une oro zela egokia –kanpaina hasi zenean nahiz gero ere– azpimarra arazoaren konponbidean jarriko zuen kanpaina bat abiarazteko.

### **Genero indarkeriari buruzko beste kanpaina batzuk**

Genero indarkeriari buruz egin izan diren kanpainarik gehienen helburua gizarte sentsibilizazioa izan dela esan daiteke. Gizarte osoari zuzendutako kanpainak dira, tratu txarrak salatu eta arbuia-tzekoak. Baina badago beste bide bat; alegia, emakumeen aurkako tratu txarren fenomenoaren barruan dauden aktoreei eta hartzaile berezitu-uei zuzendutako ekintzak egitea: biktimak, erasotzaileak, magistratutza, gizartea ikusle gisa... Badago eduki jakin bat horietako bakoitzari helarazteko. Halere, gisa horretako edozein ekintza berariazko herritar guztien sentsibilizazioa dakar.

#### **EGOERAREN AZTERKETA**

##### **Hartzaileak**

Kanpaina hau, berariaz eta espresuki, tratu txarrak pairatzen ari diren eta, arrazoiak arrazoi, egoera horretatik ateratzeko modurik aurkitzen ez duten emakumeei zuzendurik zegoen.

##### **Helburuak**

###### **1. Oinarrizko bi mezu transmititzea:**

- Lehena, haien irtenbidea salaketa egitea dela. Arazoaren berri ematea –azken une hori heldu arte pribatua zen, baina salaketa egiten den unetik aitzina konpromiso sozial eta publiko bihurtzen da–. Salaketa egitean aurkitzen dituen oztopo eta trabak gaindi ditzan da nahi duguna.
- Bigarrena, pauso hori eman ondotik gizarte osoak babestuko duela. Eta, batez ere, aurrera egiteko beharrezkoak diren baliabideak eta laguntza izanen duela.

2. Gizarte honen zati bat proiektuaren garapenean sartzea. Halatan, hedabideen lankidetzak konpromisoa bilatzen dugu kanpaina hedatzeko, eta iritzi-emaileena, berriz, mezua pertsonalizatu eta euren ospeaz laguntzeko. Zutabe bi horietan oinarritzen zen komunikazio proiektua.

### **Hedabideendako deialdia**

Nafarroako arartekoak hedabide guztiei –prentsa, irrati, telebista– egin zien dei. Bilera batera joateko eskatu zitzairen, eta han sortu zen kanpaina doan hedatzeko hedabide guztien konpromisoa. Bazegoen motibazio moralak, badago haiek gizartearen ematen irudian errentagarritasun garbi bat, eta horren ondorioz, errentagarritasun komertziala ere. Soilik hedabide ofizialek eta egunkari batek –GARA– ezin izan zuten edo ez zuten egoki ikusi parte hartzea, baina haien programazioaren puska handi bat dedikatu zioten kanpainari eta sustatu zuten lankidetzaren pertsonalaren bidez.

### **Iritzi-emaileen lankidetzak**

Mezu honi sona ematen dio kanpainaren mezua bere egiten duten pertsonaia ezagun, baloratu eta errespetatuak agertzeak. Hori izan zen kanpainaren garapenean funtsezko parte bat: pertsonaia/gizon sentsibilizatuak, indarkeria eta zapalketa egoeratik irten nahi duten emakume horiei babesa ematen dien gizarte oso baten estandarte mediatikoak. Haiek jartzen dute agerian ez gaudela generoen borroka arazo baten aurrean bakarrik. Borroka horren larria pertsonen duintasunean eta eskubideetan datza.

Erakunde honek sustatutako kanpainarako lortu genuen Miguel Indurain edo Montxo Armendariz bezalako pertsonaia publikoek euren ahalegin eta interes pertsonala jartzea.

Bestalde, iritzi-emaile horiek gizarteko eremu guztietako ordezkari izatea bilatzen genuen, bai eta hainbat belaunalditakoak ere:

Montxo Armendariz jauna. Zine zuzendaria: “Tasio”, “Historias del Kronen”, “Silencio Roto”, “Secretos del corazón” eta abar.

Emilio Echavarren jauna. Irakaslea. Idazlea. Nafar Ateneoko zuzendaria.

Miguel Indurain jauna. Txirrindularia. Frantziako 5 tour irabazitakoa.

Manuel Monje jauna. Antzerkiko aktorea.

Iker Piedrafita jauna. Musikaria. “Dikers” musika taldekoa.

Pedro Salaberry jauna. Margolaria.

Ismael Urzaiz jauna. Futbolaria. Bilboko Athletic-ekoa.

#### **TEKNIKARIEN LANKIDETZA: SORMEN TALDEA**

Garrantzitsua izan zen kanpainaren alderdi tekniko-arduratu behar zirenen ekarpen eskuzaba-

la lortzea ere. Ekarpen hori lortu ahal izan zen ACE Comunicación publicitate agentziaren eta Fase 3 ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxearen lan-kidetza gogotsuari esker eta Nicolás López argazkilariaren inplikazio pertsonal eta profesionalari esker.

#### OIHARTZUN INFORMATIBO ETA SOZIALA

Hedabideen interesak eta kanpainaren oihartzun informatiboak aurreikuspen guztiak gainditu zituzten.

Kanpaina urriaren 2an aurkeztu zen, eta Nafarroako nahiz Euskal Herriko hedabide guztiek eman zuten haren berri; TVEk Espainia osoan eman zuen.

Arrazoi ekonomikoak direla medio, ezin izan da haren eragin maila neurtu, baina kanpainak oihartzun publiko zabala izan zuen. Hori dena posible izan da hedabideen konpromiso maila handiari esker. Hala prentsa nola irratia eta telebista burubelarra sartu ziren, plangintza bizi-bizia eginez. Kanpainak iraun zuen bi hilabeteetan, herritar guztiek izan zuten, nolabait, kanpainaren berri.

#### Hedabideen parte-hartzea

- Prentsako iragarkiak (urriaren 10a eta azaroaren 25a)

Diario de Navarra: 8 orrialde bakoiti eta bikoitiak txuri-beltzean, gehi 8x4 modulu txuri-beltz orrialde bakoitian

Diario de Navarra: 4 iragarki, 4x8ko modulu txuri-beltz orrialde bakoitian

- Irratiko iragarkiak (urriaren 10a eta azaroaren 25a)

Irrati kanpainak hiru kuña zituen, eta horrenbestez, irrati bakoitzean egunean hiru iragarki ematea planteatu zen, programazioaren parrillaren barruan banaturik. Kuña bakoitza 30 segundokoa zen, ohikoa dena baino zertxobait luzeago, baina horrela egin behar zen planteatzen ziren sentsazioak transmitituko baziren.

Kasurik gehienetan, planteatutakoaren gainetiko programazioa egin zuten irratiek. Irratiren bat 14 kuña jartzeraino ailegatu zen zenbait egunetan.

Irratiak:

Radio Navarra Cope  
Cadena Ser  
Onda Cero  
Net 21 Radio

- Telebistako iragarkiak:

Canal 4 Navarra  
Canal 6 Navarra  
Euskal Telebista

## 2. ESPAINIAKO ARARTEKOEN AHO BATEKO IRITZIA GENERO INDARKERIA DELA-ETA

Espainiako arartekoak koordinatzeko XVIII. jardunaldietan – Albacete eta Toledo, 2003ko urria–, genero indarkeriari buruz eztabaidatu zen.

Tailerrak irizpideak bateratzeko balio duten beste kasu batzuetan bezala, Espainiako arartekoek aho batez onetsi zuten garrantzi berezia duen agiri bat. Hona oso-osorik:

“Emakumeek eta besteren beharra dutenek bizikidetza lekuetan jasaten duten indarkeria”

### I. SARRERA

Gaurko gizarteak arazo benetan larria pairatzen du, era kezagarrian pairatu ere: familia eremuan eragiten den indarkeria. Gehienbat erasotzailearekiko mendekotasun egoeran dagoenari eragindako genero indarkeria bada ere –egungo nahiz iraganeko elkarbizitza-harremanak lotzen ditu biak–, ezin da ukatu ezen familiako beste kide ahul batzuek ere, adingabeek eta besteren beharra duten zaharrek kasu, jasaten dutela.

Emakumeen kasuan, gure gizartean generoa dela-eta dauden desberdintasunetan dago fenomeno horren jatorria. Eta indarkeria jasaten duten eta mendekotasunak nahiz besteren beharrak eraginda desoreka-egoera bidegabean dauden pertsona guztiak.

Bizikidetza lekuetan genero indarkeria jasaten duten emakumeen kopuruaren hazkuntza kezkarriak –ikaragarri igo da ehunekotan, aurreko urtearekin konparatuta–, elkarrekin bizi diren familia-inguruneko pertsonen tratu txarrak jasaten dituzten adingabeen kasuak agertu izanak eta senideek eraginda tratu ez duina eta abandonua jasaten duten zaharren egoerak hain ikuspegi samingarria ematen digute, non gure erakundeak ezin diren gelditu zirkinik ere egin gabe.

Eskubide indibidual eta kolektiboak aldeztu eta babesteari begira dagokigun eginkizuna are eta nabarmenagoa da desoreka-egoerak gizaki bereziki babesgabe bihurtutako pertsonen kasuan, gizarte honetako gaitz horren biktimen kasuan alegia.

Eginkizun hori beteko bada, koordinatuta jardun beharra dugu, arazo honi bi helbururekin eki-

teko. Alde batetik, bizikidetzaren lekuetako indarkeria desagerrarazi aldera administrazio publikoek orain arte hartu dituzten neurri eta politikak aztertu, ebaluatu eta baloratu, horien eragingarritasuna eta gabeziak hautemateko. Eta bestetik, arestikotik abiatuta, arazoari konponbide integral bat emateko premian oinarritutako jarduketara ildo batzuk zehaztea.

Halatan, arartekook administrazio publikoei exijitzen diegu euren ardurak hartu eta behar bezala jardun dezaten, ondoko bi helburu lehentasunezkoak ezinbestez lortzeko:

1.- Egoera horiei aurrea hartzea eta gertatu orduko antzematea, hasieratik beretik mozteko indarkeria eragin lezakeen edozein jarrera.

2.- Laguntza integrala ematea pertsona ukituei, lege-, zuzenbide-, osasun-, laguntza-, gizarte- eta hezkuntza-neurrien bidez, inplikaturiko administrazioen nahitaezko koordinazio nahiz lankidetzan oinarrituta biktimari babes, segurtasuna eta medeapena emanen dizkietenak, bai eta gizartean berdintasun egoeran sartu eta errekuiperatzeko aukera ere.

Ohartzen gara lan handia egin dela denbora gutxian arazo ikaragarri hori arintzeko, baina gure erakundeetan jasotzen ditugun kexek eta informazioak garbi erakusten dute ez dela aski izan. Denen ahaleginarekin emandako laguntza zuzen eta berehalakoaren bidez baizik ezin izanen ditugu ezti indarkeria horrek jasaten duten pertsonengan nahiz gizarte osoarengan dituen ondorio latzak.

Pertsona guztien duintasunaren, berdintasunaren, askatasunaren, osotasunaren, bizitzaren nahiz giza eskubideen babesak eta errespetuak fenomeno hori desagerrarazte aldera irimo jardutea eta indar guztiak batzea exijitzen dute, gizarte egiaz solidario, zuzen eta berdintasunezko batean ezin baita halakorik onartu.

## II.- KONTZEPTUA ETA JARDUTEKO EREMUA

Gure lana egiterakoan, ohartzen gara anbiguitasuna dela nagusi arazoa identifikatzeko erabiltzen den terminologian, termino desegokiak erabiltzen baitira, batzuetan zabalegiak eta beste zenbaitetan murriztegiak. Halatan, <etxeko indarkeria>, <familiako tratua txarra> nahiz <familia barruko indarkeria> erabiltzen dira, indarkeria erabili edo azaltzen den eszenatoki edo espazioak izendatzen dituzten terminoak alegia.

Indarkeria jasaten duten subjektu pasiboak zein diren –emakumeak, adingabeak eta besteren beharra duten zaharrak–, aldatu egiten da per-

tzepzioa. Indarkeriak dituen ezaugarri komunak ahanzi gabe, hura azaltzen den egoerak askotari-koak izaki, berezitasun horiek tratamendu ezberdinek eskatzen dituzte.

Zailtasun horiek oztopo dira fenomenoaren agerpen eta biktima guztiak biltzen dituen kontzeptu bat zehazteko. Beharbada horregatik ez dago definizio mundu guztian onarturik, baina ez da zalantzan jartzen beharrezkoa dela tratamendu eragingarri bat eta jarduketa exekutibo bat ahalbidetuko duten definizio espezifikoak sortzea, edo, gutxienez ere, aztertu beharreko fenomeno mugatzen duten eta gure erakundeen jardunbide koordinatua ahalbidetzen duten oinarritzko ohar nagusi batzuk ezartzea.

Badakigu zein larria den edozein pertsonak jasaten duen indarkeriak sortzen duen egoera, eta badakigu orobat zein larria den gure arreta eta gaitzespena merezi duten bestelako tratua txarrek sortzen duten egoera –horra genero indarkeriaren bestelako erakusgarriak (emakumeen aurkako jazarpen sexuala, genitalen ebaketa, emakumeak sexu-ustiapenerako salerostea), adingabeen nahiz besteren beharra duten pertsonen aurka ikastetxetan eta erakunde publiko nahiz pribatuetan eragindako indarkeria eta lan-harremanen esparruan eragindako indarkeria–.

Halere, agiri honetan bizikidetzaren lekuetako indarkeria aztertuko dugu, indarkeria gertatzen den ingurunea eta indarkeria baliatzen duenaren eta jasaten duenaren arteko harremana alegia. Edozein kasutan ere, gure ustez, bai prebentzio lanak bai sustatzen diren antzemate nahiz erantzun neurriek zeharkako eragina izanen dute haietan.

Tratua txarra, tratua txar sexista bereziki, mugatzeko funtsezko elementuetako bat litzateke <afektu harremana> edukitzea edo eduki izana, eta ez da hain erabakigarria bizikidetzaren hutsa, hura zentzurik hertsienean ulertuta, alegia, etxe berean bizitzea. Egoera asko eta askotan ez da bizikidetzarik egon, baina tratua txarrek gertatzen dira biktima erasotzaileari batuta dagoelako edo egon izan delako, isolatu eta pribatutasunez, izaera afektiboko harreman berezi bat dela medio.

Adingabeen eta zaharren kasuan, afektuzko harremana egon badaiteke ere, indarkeria mota hori definitzen duena da pertsona horien bizitza egoera dela-eta beharra duten pertsonaren babesa edo zainketak beharrezkoak zaizkien egoera bizi dutela. Erasotzaile izan litekeenaren mende daude, haren betebeharra, hain zuzen ere, honen segurtasuna zaintzea izaki. Batzuetan, biktimak

mugatuta izan dezake jarduteko gaitasuna, eta horrek babesgabetasuna areagotzea dakar.

Beste egoera batzuetan, mendekotasunik ez badago ere, erasotzaileak biktimarekiko etxekotasun edo konfiantza nolabaitekoa baliatzen du, adingabeen aurkako sexu-abusuak gertatzen direnetan kasu.

Edozein modutan ere, ondoko ondoriora helgintzek: emakumeek, adingabeek eta besteren beharra dutenek bizikidetza lekuetan jasaten duten indarkerian sartzen da haiei min fisikoa, sexuala nahiz psikologikoa –egitez nahiz ez-egitez– eragiten dien jarrera oro, bai eta halakorik eginen delako mehatxua, derrigortzea edo askatasunaren ukazio bidegabea, hala bizitza publikoan nola pribatuan.

Horren erakusgarri dira orobat ekonomia-indarkeria –esate baterako dirua ukatzea, laguntza ekonomikoa emateko beharkizunari muzin egitea, janariak eta oinarrizko beharrianak ukatzea– eta osasun laguntza, enplegua eta abar izatearen gaineko kontrola. Betiere, indarra edo larderia baliatzea dakar, pertsona batek tratu iraingarri eta laido garria izatea beste batekin –normalean harreman estua edo konfiantzazkoa izaten du harekin–, meneratze eta botere jarrerak baliatuta harekiko.

Indarkeria mota horrek, pairatzen duten pertsonen giza eskubideen ukazio eta bortxaketa dakar, eta horrela eragotzi egiten da gizakiaren garapena eta herrien aurrerabidea; hori dela-eta, arlo horri buruz nazioartean diren tresna guztiek ezartzen dute oinarrizko eskubide eta askatasunak gizakiari datzekiolaria.

Estatuek hura berrestean juridikoki betebeharreko bihurtzen da, eta horrek gobernuei ezartzen die indarkeria horren biktimak babesteko beharra, gertatzen denean ikertzekoa, errudunak zigortzekoa, etorkizunean gerta litezkeenei aurrea hartzea eta ukituek ordaina jasotzea, laguntza integrala ematea alegia.

### III.- BOTERE PUBLIKOEN INDARKERIA DESAGERRARAZTE ALDERA EGINIKO JARDUKETAK

- Aztergai dugun fenomenoaren lehen mailako gizarte-arazoa da, baina antzina sortua; botere publikoek, berriz, ez diote oraintsu arte behar bezalako seriotasun eta zorroztasunez heldu. Halakoak eremu pribatukoak zirela uste zenez gero, jarduketa publikoek geldotasun handiz jo zuten, eta, ondorioz, ez ziren bat heldu gizartearen eskariak eta haiei emandako erantzuna.

- Bizikidetza lekuetan jasaten den indarkeria erantzun integral bat eskatzen duen arazo korapilatsua dela ikustean, botere publikoak urte anitzeko planetan hasi ziren lekutzen euren erakunde-jarduera, horietan diziplinartekotasunez ekiten baitzaio arazoari.

Legegintzako ekimenak abiarazi eta neurri juridikoak hartu ziren arazoari ekiteko eta hura arintzeko.

Aukera berdintasuna sustatu eta genero indarkeriari aurrea hartzearen autonomia erkidegorik gehienetan onetsitako planekin batera, gaur egun indarrean dago Etxeko indarkeriaren aurkako 2001etik 2004ra bitarteko II. ekintza plana, ministroen kontseiluak 2001eko maiatzaren 11n hartutako erabakiaren bidez onetsia.

#### 3.1. Lege eremua

Familiako tratu txarrak berariaz daude delitutzat tipifikaturik 1989tik aitzina, baina apirilaren 30eko 11/1999 Lege Organikoaren bidez Zigor Kodea eta Prozedura Kriminaleko Legea aldatzean gertatu zen inflexio-puntua genero indarkeriaren tratamendu penalari dagokionez.

Prozedura kriminaleko legea hein batean aldatzeari, zenbait delitu eta falta azkar eta berehala epaitzeko prozedurari eta prozedura laburtua aldatzeari buruzko urriaren 24ko 38/2002 Legeak eta haren osagarri den egun bereko 8/2002 Lege Organikoak prozesu berezi berri bat ezarri zuten zenbait delitu azkar epaitze aldera, horien artean Zigor Kodeko 153. artikuluan tipifikatzen dena; halatan, tratu txarrei berehalako erantzun judiziala eman ahalko zaie.

Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duen uztailaren 31ko 27/2003 Legeak Instrukzioko Epaitegiko prozedura azkarra ezartzen du, biktimak babes-estatutu integral bat lortzeko asmoarekin, zeinaren bidez izaera zibil eta penaleko kautelazko ekintza bat era koordinatua bildu eta administrazio publikoen gizarte-babeserako tresnak berehala abiaraziko diren. Orain dela gutxi onetsi denez, une honetan ezin da egin prozedura berriaren aplikazio praktikoari buruzko baloraziorik.

Aipatu beharra dago, azkenik, atzeritarren gizarteratzearen, etxeko indarkeriaren eta herritarren segurtasunaren arloko neurri zehatzei buruzko Lege Organikoaren proiektua, zeinak ezartzen baitu ezen Zigor Kodean lesioen faltatzat jotzen diren jarrerak delitu izatera pasako direla baldin eta etxeko esparruan gertatu badira.

Autonomia erkidegoetako araubide berekian genero indarkeriaren fenomenoari modu integrale-

an ekin nahi dioten legeak daude; halatan, Gaztela-Mantxako erkidegoan Tratu txarrak jasan dituzten emakumeak babestu eta tratu txarrei aurrea hartzeari buruzko maiatzaren 17ko 5/2001 Legea dute, eta Nafarroako Foru Komunitatean, berriz, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea dugu, ondotik martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legearen bidez aldatu zena.

Gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna sustatzeko legeak ere onetsi dira, Gaztela eta Leongo Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunari buruzko martxoaren 3ko 1/2003 Legea eta Valentziako Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako apirilaren 2ko 9/2003 Legea kasu. Azken lege horrek Berdintasunaren Defendatzailea sortzea aurreikusten du –Sindic de Greugesek beteko du lan hori–, legean xedatutakoa betetzen dela zaintzeko.

Genero indarkeriaren aurka orain arte garatu den araudiaren azterketak agerian uzten ditu zenbait gabezia. Ondokoak lirateke batez ere:

- Zigor araubidearen erabilera gehiegizkoa; kaltea gertatu denean eragingarria da, baina aurrea hartzeari begira eragin mugatua du. Horrek jurisdikzio zibilaren garrantzi berezia erakusten du, eta orobat erakusten du beharrezkoa dela maila horretako neurrietan sakontzea; alegia, premiazkoa da banatzeko prozedurak azkartzea –bereziki behin-behineko eta oso behin-behineko neurriak–; dibortzioa alde aurretik banatu gabe lortzeko aukera ematea; berme funtsak sortzea pentsioa ordaintzen ez den kasuetarako; prestakuntza berezia ematea epaile, fiskal eta familia arloan eskumena duten organo judizialeko gainerako langileei; organo horiei atxikitzea agintaritzaren judizialari babesa eta aholkua emateko diziplina anitzeko taldeak eta abar.

- Arazoari ematen zaion erantzuna defizitariora da. Disfuntzioak gertatzen dira ematen den babes judizialean, dela jurisdikzio zibilaren eta penalaren arteko koordinazio ezagatik, dela giza nahiz gauza baliabide eskasiagatik... Horren adibide esanguratsua da ez dagoela polizia-bitarteko nahikorik biktimen babesa eta segurtasuna bermatzeko. Kaute-lazko neurriak eta urruntzeko aginduak ematen dira, baina segurtasun-indarrek, familiako indarkeriaren biktimei laguntzeko zerbitzu bereziak dituzten arren, ez dute baliabide nahikorik agindu horiek betetzen direla eta eragingarriak direla kontrolatzeko eta biktimen erabateko babesa bermatzeko.

- Autonomia erkidegoek garatu duten araudia dela-eta, egia da arau horietako gehienak orain

dela gutxi sartu direla indarrean, baina honezkero ikus daiteke tresna horietako asko ez direla eragingarriak. Zenbaitetan asmoen aldarrikapen hutsak dira, aurrekontu-zuzkidura egokirik gabekoak eta prozedurarik ezartzen ez dutenak ez betetzeari ez ebaluazioari begira. Manu ugari dago horien artean hizkuntza programatiko baten bidez printzipioen aldarrikapena egin edo asmo ona adierazten dutenak, baina debeku edo betebeharrak jakinak ezartzen dituen arau gutxi dago. Helburuak aldarrikatzen dira, baina ez dira beti ezartzen horiek lortzeko behar diren baliabideak.

### 3.2. Hezkuntza eremua

Genero indarkeria desagerrarazteko sakoneko aldaketa sozial eta kulturala eman behar da, eta nahitaezkoa da belaunaldi berriak berdintasunean heztea.

Genero indarkeria gure emakumeek, eta horrenbestez familiako kiderik ahulenek, jasaten duten egoera traadizional bidegabe eta desorekatuaren erakusgarri muturrekoa da. Hura desagerrarazteko beharrezkoa da tolerantziaren, desberdinarekiko errespetuaren eta berdintasunaren baloreetan oinarritutako hezkuntza politikak ezartzea.

Oro har, unibertsitate aurreko hezkuntza mailetan zehar-lerro gisa sartu da hezkidetzaren orientabide ez sexista, eta hori, jakina, positiboa da. Hezkuntza eta irakaskuntza alorrean zenbait jarduketa garatu izan dira genero indarkeriaren inguruan: genero indarkeriari eskola eremuan aurrea hartzeko programak, hezitzaileentzako prestakuntza programa berariazkoak, eskolako aurrea hartzeari buruzko kanpainak lehen nahiz bigarren hezkuntzan, zabalkunde jardunaldiak eta hezkuntza materialen nahiz unitate didaktikoen taxuketa.

Halere, praktikan zenbait gabezia antzeman daitezke:

- Irakasleek prestakuntza berariazkoak ez dutenez gero, gela barruan oraindik ere transmititzen dira, batzuetan oharkabean bada ere, estereotipo eta aurreiritzi sexistak.
- Hezkuntza jarduera guztietan proiektatu behar da, batez ere eskolaz kanpokoetan, hezkidetzaren (adibidez, kirolan neska eta mutilen taldeak sustatzea).
- Eskolan jasotzen diren berdintasun-mezuak ez dira eragingarriak baldin eta etxean emakumeen eta gizonen arteko desoreka indartzen duen funtzio- nahiz arduraren banaketa bizi badute neska eta mutikoek.

### 3.3. Gizarte eremua

Aurrerapauso garrantzitsua da aldeen arteko koordinazioa eta lankidetzak hobetzeko, bai eta bigarren mailako biktimizazioa deiturikoa ekiditeko ere, erakundeen arteko akordioak eta jarduteko protokoloak onestea.

Emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan tresna horiek gero eta garatuago daude, eta beste kasu batzuetan ere hasi dira aplikatzen, bereziki haurren aurkako indarkeria antzeman eta tratatzeko. Zaharren aurkako tratatu txarrei dagokienez, fenomenoaz aztertzeke lehen faseetan dago prozesua.

Azken urteotan asko aurreratu da; izan ere, nabarmen igo dira salaketan kopurua, gizarte zerbitzuetan laguntza jaso duten pertsonen kopurua eta biktima sendatu eta gizarteratzeko abiarazi diren programen kopurua.

Halere, gabezia larriak daude oraindik ere, ondokoak besteak beste:

- Esku-hartze puntual eta jarraipenik gabeak, kontuan hartu gabe erasotzailearekiko haustura eta independentzia denboran luzatzen den prozesua dela.

- Laguntza integrala (laguntza psikologikoa, laneratzea, etxebizitza aurkitzea, laguntza ekonomikoa eta abar) emateko baliabide eskasia, eta egonaldi luzeko harrera-etxeetan biktimak erabat sendatzeko programarik eza.

- Baliabideen arteko koordinazio eza.

- Gizarte bazterkeria jasateko arrisku gehien duten taldeetan –emakume etorkinak kasu– tratatu txarren arazoari ez erreparatzea.

- Egoera bereziki ahulean dauden pertsonen –ezgaitasun fisiko, psikiko nahiz sensoriala duten emakumeak, emakume drogazaleak, patologia larriak dituztenak, gizarteratzeko zailtasunak dituztenak eta abar– baliabide berariazkoak lortzeko duten zailtasuna.

- Landa eremuetan baliabiderik ez egotea.

- Jarduteko protokoloen aplikazio irregularra, zabalkunde eskasa, erakundeen arteko koordinazio dinamiko eta azkarrik ez egotea, protokoloak aplikatu behar dituzten informazio eta prestakuntza eza, horiek praktikan jartzeari buruzko gainbegiratze, jarraipen eta ebaluazio eza.

#### IV.- ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

Administrazioaren jardutea eta haren eraginkortasun maila ikusirik, ondoren azaltzen diren proposamenak ematen ditugu, haietan defenda-

tzaileek aho batez adierazitako iritziak eta irizpideak biltzen baitira. Alorrerako ditugun oinarritzko lanildoak dira, eta haien bitartez eskaera bera luzatzen zaie estatuko eta autonomi erkidegoetako administrazioei, bakoitzak bere ardura eremutik honako neurriekin diezaien lehenbailehen, behar-beharrezkoak baitira indarkeriari erantzun egokia emateko.

1.- Gure instituzioek duela gutxi ordenamenduari erantsi zaizkion tresnen erabilerrari jarraipena eta balorazioa egiteko konpromisoa hartzen dute, tresna horiek ('epaiketa arinak' eta 'babeserako aginduak') duten eraginkortasuna eta baliagarritasuna aztertzeke asmoz.

Helburu horrekin, zentzuzko ezarpen-tartea igaro ondoren, estatuko Arartekoak dagokion informazioa eskatuko dio estatuko Fiskaltza Nagusiarri.

2.- Legezko marko bat bultzatuko da bizikidetzako lekuetako indarkeriari aurka egiteko, eta haren biktimek, beste edonork bezala, osoko laguntza jasotzeko eskubidea berehala erabili ahal izan dezaten, kontuan hartu gabe non bizi diren, zenbateraino bete diren administrazioaren jardute-planak edo zenbateraino aurrekontuak dauden erabilgarri.

Justizi administrazioari dagokionez, neurri horrek famili gatazketarako jurisdikzioa sortzea ekarriko luke, behar besteko langilez eta baliabide materialez hornituz.

3.- Indarrean dagoen sistema juridikoan zenbait lege-aldaketa egin beharko liriateke, besteak beste:

- Indarkeria psikikoa aipatzen den zigor-artikuletan zorrotz egin beharko litzateke kontzeptu hori, haren gutxieneko edo oinarritzko definizio bat emanez.

- Salaketa jarrita izan arren norbait hiltzen den kasuei begira, hobetu eta erraztu egin behar da administrazioari ondare-erantzukizuna eskatzeko sistema, haren okerreko funtzionamenduagatik eskatutako babes-neurriak hartu ez baziren.

- Zigor auzibideari buruzko legea arlo penaleko 'epaiketa arinak' egoki egin zitezkeen aldatu zen bezalaxe, beste horrenbeste egin beharko litzateke auzibide zibilari buruzko legearekin, bereizketa edo dibortzio kasuetan eskatzen diren behin-behineko neurriek berehalako erabakia jaso dezaten, auzibide zibilari buruzko legeak ezartzen dituen epe laburretan, alegia.

- Tratu txarrak gurean eta era administratibo irregularrean bizi diren atzeritarrek jasan dituzten kasuei begira, gehigarri bat egin beharko litzateke



Espanian bizi diren atzerritarren eskubideei, askatasunei eta gizarteratzeari buruzko Lege Organikoan, zehazki 31. artikuluan 4. idatz-zatian. Horren arabera, genero-indarkeria egiaztatzen bada, salbuespenezko gorabeheratzat hartuko litzateke, eta gizabidezko arrazoiengatik bide eman beharko luke pertsona horien egoera administratiboa legezatzeko.

- Botere publikoei, indarkeriari aurre egiteko dituzten neurriak gauzatu egin ditzatela eskatzen zaie, erantzukizun zuzena baitute herritarren bizitza, segurtasun, askatasun eta duintasunerako eskubidea babestu beharra duten aldetik.

- Elkarlana eta lankidetzak bultzatuko da arduraren duten instituzioen eta profesionalen artean (epaileak, fiskalak, poliziak, abokatuak, hala nola osasun, laguntza eta hezkuntza zerbitzuak). Helburu berekin, prestakuntza etengabea eta espezializatua emanen zaie, bereziki indarkeriaren adierazleentzatearri dagokionez.

- Protokolo lotesleak osatzea eta ezartzea bultzatuko da, ezinbestekoak gertatzen baitira egin beharreko jarduteak eraginkorrak eta koordinatuak izan daitezten. Neurriak hartuko dira protokoloak zabaldu eta jakinaraz daitezten eta haien sinatzaileek era eraginkorren ezar ditzaten.

Uste dugu bai elkarte eta erakundeak eta bai gure instituzioen ordezkariak parte hartu beharko luketela protokoloen betetze-maila neurtu behar duten segimendu-batzordeetan. Protokoloak zorrotz ezartzen direla ziurtatuko dute, behar den lankidetzak eta koordinazioa bermatze aldera.

- Instituzioen lana egiazta eta balora dadila iradokitzen dugu, indarkeria mota hau jasaten dutenek laguntza osoa eta iraunkorra izan dezaten. Beharrezkoa da, horretarako, ondoko neurriak hartzea:

- Autonomi erkidegoetan berariazko baliabideak eratu dira; horren haritik, behar diren harrera zentroak eta egoitzak antolatuko dira, norberarentzako tratamendu iraunkorren bitartez biktimen erabateko suspertzea lortzeko.

- Egoera horretan dauden emakumeentzako harrera zentroetan eta egoitzetan, gutxieneko kalitatea eta funtzionamendu maila bermatuko da haien kudeaketaren arduraren duten administrazio publikoen aldetik. Baliabide horiek zerbitzu publikoen izaera izanen dute, eta hori kudeaketan islatuko da.

- Azpiegitura horiek erabilgarri egon beharko dute ahultasun handiko egoeran dauden kolektiboenentzat: emakume ezgaituak, drogamenekotasun edo bazterkeria arazoak jasaten dituztenak...

- Behar diren neurriak eskatuko dira, emakume horiek, prestakuntza eta lan egokia jasotzeaz gain, etxebizitza duina ere izan dezaten. Eratu beharko lirateke, halaber, gizarte-bermerako funtsak, familiararen zatiketarako pentsioak ez ordaintzea dakarren kasuetarako.

- Komenigarria litzateke tratatu txarrak eragiten dituztenen tratamendu eta birgaitzerako bideak aztertzea, birgizarteratzea eta prebentzioa ezarritako zigorraren osagarri izan daitezten.

- Dagokien administrazioei behar besteko finantzazioa bideratu dezatela eskatzen diegu, Indarkeria jasaten duten Emakumeentzako Laguntza Plana eta Gizon eta Emakumeen arteko Aukeraren Berdintasunerako Plana paper erreka eta deklarazio hutsalak izan ez daitezten.

- Gogoratzen diegu botere publikoei, Europako Batasunaren ordenamendu juridikoaren aginduz, zeharreko lerroak txertatu behar dituztela beren neurri politiko guztietan, ezinbestekoa baita genero-ikuspegia neurri politiko guztietan agertzea.

- Beharrezkoa iruditzen zaigu hedabideetan arautegi deontologikoak bere egin ditzaten, emakumeen eskubideek begiruneko tratamendua izan dezaten eta azaleko azterbide sentsazionalistak bazterturik gera daitezten emakume, adingabe eta zaharren aurkako indarkeria tratatzean; bestalde, arautegi horrek abiapuntu izan behar du pertsona horien eskubideei buruzko informazio kanpainak zabaltzeko.

- Haurren aurkako tratatu txarren arazoari behar bezala heltzeko, behar-beharrezkoa da arazoa antzemateko eta jarduteko erabiltzen diren protokoloak lotesleak izan daitezten, biktimei babes egokia bermatzeko. Administrazioak, bere aldetik, zorrotz eta estu betearazi beharko ditu protokolo horiek.

- Bortizkeriaren belaunaldi zeharreko transmisioa etenarazi egin behar da prebentzio programen bitartez. Bestalde, ekimen planak abiarazi behar dira, oraingo babes sistemaren hutsak zuzentzeko asmoz.

- Agerian utzi nahi dugu Administrazioak ia ez duela ezer egiten indarkeriaren biktimak adinekoak direnetan. Hala ere, premiazkoa da lehenbailehen esku har dezaten, besteren mendeko adinekoak babesteko protokoloak ezarritako eta zabalduz, eta alorreko profesionalen ere aldizkako trebakuntza emanez.

- Informazio homogeneoa lortzeko, instituzio publikoek oinarrizko ikerketa bultzatu behar dute. Horretarako, kalitateko sistema fidagarri bat erabili-

ko dute, arloko datu bilketa eta estatistiken taxu-tzea egoki burutzen direla ziurtatzeko.

Azkenik, eta egoera ahuleneko kolektiboek (emakumeak, adingabeak eta adineko pertsonak) berariazko laguntza eman nahian, ordezkatzan ditugun instituzioen izenean konpromisoa hartzen dugu gure erakunde eta funtzionamendu egituretan horrelako zerbitzuak zabaltzeko, antzeko beste instituzioetan egin den bezala. Horrela, tratamendu zuzen eta espezializatua eskaini ahalko zaie indarkeria jasaten duten pertsona horiei, beren oinarriko eskubideen errespetua bermatuz.

### 3. NAFARROAKO ARARTEKOAREN ESKU-HARTZEA GENERO INDARKERIA DELA-ETA

Genero indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna ospatu zenean Nafarroako arartekoari parte hartzeko egin zitzaion gonbitaren kariatz mahai gainean jarri ahal izan genituen Erakundeak arlo horretan dituen ideietako batzuk, etxeko eremuan haurren nahiz emakumeen aurkako tratatu txar eta abusu kasuetan jarduteko protokolo-proposamenean ere jaso zirenak. "Emakumeen eta mendeko pertsonen aurkako indarkeria bizikidetzaren esparruan" tailerrean arartekoek atera zituzten ondorioak garrantzi bereziko erreferentzia dira, bai azterketaren sakontasunarengatik bai aho batez atera zituzten ondorioen garrantziagatik. Halere, gure erakundeen lanek badute ezaugarri berezi bat, erakundeotako titular garenon ekarpen indibiduala hain zuzen ere. Jasota gelditu diren irizpideetan bat etortzetik abiatuta, erakunde honetan ziur gaude ezen arartekoaren zereginak jarduketaren eremu zabala duela hemendik aitzinera, pixkana-pixkana jorratu eta garatzen ari garena. Eta sinetsita gaude orobat beharrezkoa dela eskubideen arloko jarduketaren orokor bat, berdin eraginen diena –koordinatuta eta intentsitate berarekin– gizatalde kaltetuei eta euren eskubideen defentsa berariazkoa behar dutenei.

Funtsezko bi ideia horietan oinarritu ziren Nafarroako emakume progresisten elkartearen eskariz Iruñean egin ziren jardunaldiak nahiz Vigoko Udaleko emakumearen zinegotzigoak 2003ko azaroaren 27an antolatu zuen arartekoaren mahai-ingurua, zeinetan parte hartu baitzuten Nafarroako eta Gaztela-Mantxako arartekoek eta Galiziako eta Andaluziako arartekoaren laguntzaileek.

#### BI INTERBENTZIO HORIETAKO IDEIA NAGUSIAK

"2003ko martxorako 2002an baino 13 emakume gehiago hil ziren, eta horrek agerian uzten du areagotzen ari direla genero indarkeriak eragindako heriotzak.

Garrantzitsua da gogoraraztea ezen Espainian 18 urtetik goitiko 17 milioi emakume dagoela, eta horietako 1.800.000k pairatu ditu tratatu txarrak, nahiz eta 600.000k bakarrik onartu, herenak alegia, halakorik pairatu izana.

Esanguratsua babes aginduei buruz ezagutu izan den datua: 4.234 eskari aurkeztu dira, eta horietatik 3.193 onartu. Babes agindua onartu izan den 3.193 eskari horietatik, 727 emakumek jasotzen dute diru-laguntza, eta 184k dute babes ofiziala.

Biktimen babes premiei lotuta, hedatzen ari da babes neurri horiek batez ere bikote-ohiei aurre egiteko hartzen ari direlako ideia, baina errealitatea bestelakoa da, ezkontide erasotzaileek kasuen % 13,2 egiten baitute, eta % 58,7tan erasotzailea ezkontidea baita. Alegia, erasoaren gune nagusia, indarkeriarena, bikotearen etxe barruan dago, ezen ez hautsitako harreman batean.

1999tik 2002ra bitarte salatutako kasuen indizea jaitsi izanak alarma pizteko balio behar digu. Argi dago ezen handiagoa dela erasoaren nahiz indarkeriaren beraren gaineko presio soziala, baina ez du ematen irudipen hori errealitate hobe bat benetan sortzen ari denik, erasoaren aurkako salaketaren erreakzio desiratuak ekartzen ari denik.

Herritarren eskubideak zaintzeko eginkizuna dugunok eta legebiltzar nahiz gobernuen partetik herri bat edo autonomia erkidego bat gidatzeko ahalmena eta betebeharra dugunok gure esku ditugun tresnei buruzko azterketa egin beharra dugu, eta hausnartu behar dugu horiek nola baliatzen ditugun gizartearen kultura berri bat ereite aldera, eskuaren ditugun baliabideen eragingarritasuna hobetzeko batetik eta, bestetik, emakumeari segurtasun eremu bat eskaini ahal izateko gizartearen, zeinaren bidez aurre egin ahalko baitiete eremu pribatuko eraso eta abusuei.

Segurtasuneko gizarte-eremu hori osatu behar dute, aurrena, gizartearen hezteko beharrezkoa den lege-babesak, lehen harrerako babes-baliabideak nahiz indarkeria mota horretako biktimen bizi-proiektua berpizteko baliabideak sortzeak hurrena eta, azkenik, koordinaziorik eragingarriak, biktima den emakumea babesterakoan esku hartzen duten eragile nahiz estamentuen arteko lankidetzarik estuenak.

Hiru jarduketaren maila horiek ezinbestekoak dira nire ustez, aldi berean eman beharko dira eta ezin izanen dute inolaz ere bata bestea ordezkatu ez besteak daudelako desagertu.

Planteatzen dena da botere guztien arteko esku-hartze koordinatua, familia barruan eskubi-

deen errespetu beharrezkoak indarrean mantentze aldera.

Ez da ez egun bateko lana ez administrazio edo botere publiko bakar baten eginkizuna.

Ezin da sinetsi soilik biktimaren babesa bilatzen duten eragileen arteko –polizia eremutik eremu judizialeraino– koordinazioaren erabateko eragingarritasunean, garatzen korapilatsuagoa den makina baten pieza osagabeak baino ez baitira horiek.

Segurtasuneko gizarte-eremu hori ez da sortzen biktimaren babes hutsaren bidez.

Gizabidezko segurtasuneko egoera sortu beharra dago, kasuan kasuko hezkuntza metodoen bitartez, eta errespetuaren kultura sustatu behar da; prozesu geldoa den arren, baina lege arauaren esparrutik baino ez da inplementatzen, sustatzen eta eragingarri bihurtzen ahal.

Segurtasun ekonomikoa, mendekotasun ekonomikoa ez dadin izan indarkeriazko harreman bat bizi behar izateko faktore erabakigarria; segurtasun ekonomikoa, jakina, bizitza autonomoko proiektu gisa, berdintasun faktore gisa eta, beharrezkoa baldin bada, babes faktore gisa. Eta erasoaren aurkako segurtasuna, beharrezkoak direla dakizkigun koordinazio elementuak eragingarritasunez abiaraziz.

Ikuspuntu horretatik, uste dut gobernuak gizartearen itxaropenen atzetik ari direla jarduten; hartzen ari diren neurriei buruzko titular handiz betetzen ari dira hedabideak, baina etxeko indarkeriaren eta gizartearen itxaropenen errealitatea geldiro doa. »Eta azken unean «heltzen saiatzen ari dira», denik eta borondaterik onenarekin eta dauden baliabideekin.

Nafarroan zenbait urteren ostean lortu dugu biktimei laguntzeko inprobisazioaren ordez etxeko indarkeriari eta gehiegikeriei buruzko jarduketa protokolo bat izatea, modu autonomoan funtzionatzen duena, ez dagoelako maila handiagoko beselako neurririk hari lagun egiteko.

Arestian aipatu dugu ezen babes faktoreek ez dutela eragingarritasunik baldin eta faktore horiek hezkuntzaren nahiz prebentzioaren ikuspuntutik indartzen dituen lege esparrurik ez badago. Kasu

honetan ere, Nafarroa aitzindaria da etxeko indarkeriari buruzko lege bat taxutzerakoan, baina Legebiltzarrean onetsi arren, deigarria da ez gartzetarako lege hutsunea, eta kezagarria da batez ere, arriskuan jartzen dutelako beste ahalegin batzuen eragingarritasuna, hala nola koordinazio protokoloarena, zeina orain dela urtebete iragarri baitzen eta, jakin badakit, erabakimenez lantzen ari baita.

Lege arau hori bera da baliabideei buruzko irizpideak ezarri behar dituen, baita babes baliabideei –harrera etxeak kasu– buruzkoak ere, irizpide demografiko eta kulturazkoei jarraikiz. Halatan, garrantzitsua da tratu txarrak jasan dituzten emakumeendako harrera etxe bat Tuteran jartzea.

#### 4. EMAKUMEZKOEN PROSTITUZIOA ETA IMMIGRAZIOA

Emakumezkoen prostituzioari buruzko arau berriak <sup>(4)</sup> onetsi izanak 2003aren puska handi batean Erakundearen prestatzen aritu zen txosten berezia, Nafarroako arartekoaren ebazpen gisa emana, beranduago bukatzea ekarri du. Zigor Kodearen aldaketa horrek egoera orokorra neurri batean argitzen badu ere –proxenetismoa legez kanpokotzat jotzen baitu–, emakumezkoen prostituzioari buruzko inguruabar nagusiek, eta bereziki Nafarroan ematen den prostituzioari buruzkoek eraginda, Erakundeak arreta berezia eman zion gai horri buruz Txirotasunaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Nafarroako Sareak eginiko txostenari, interes orokorreko zenbait alderdi jasotzen zuena.

Alderdi horiek, prostituzioari buruzko uneko araudi indardunaren eta, oro har, sexu berdintasunerako eskubide konstituzionala babesteari buruzkoaren argitan, garrantzi berezia hartzen dute, eta txiki uzten dute Zigor Kodearen aipatu aldaketa.

Kontuan hartuta zenbait alderdi –prostituzioan jarduten duten emakumeen ustiakuntza jatorriaren arabera klandestinizatzea, Nafarroan etorkinek bizi duten administrazio egoera, osasun nahiz gizarte segurantzaren arloko baldintzak ezartzea–, komeni zen txostena taxutzen jarraitzea eta araudi indardunari buruzko edukiak berrikustea. Halatan, 2004an aurkeztutako txostenak ondoko aurkibidea zuten:

(4) Aipatu araudi berriak –Herritarren Segurtasunari, Etxeko Indarkeriari eta Atzerritarren Gizarteratzeari buruzko neurri zehatzak ezartzen dituen irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoa, Zigor Kodea aldatzen duena– oinarri garrantzitsua ezartzen du emakumezkoen prostituzioa ordaindutako lanbidetzat hartzeko edo ez, eta horrek dakar duela asko piztutako eztabaida mugatzea, prostituzioa legeztatzeari edo orain arte bezala bereziki arautu gabe uzteari buruzkoa, alegia.

1. Sarrera
2. Ohar orokorrak
  - 2.1. Prostituzioaren inguruko jarrera juridikoak
    - Sistema debeku-emailea
    - Sistema arau-emailea
    - Sistema abolizionista
    - Sistema legalista
  - 2.2. Prostituzioa nazioartean
  - 2.3. Espainiako egoera
  - 2.4. Europako beste herrialde batzuetako egoera
    - Estatu arau-emaileak: Herbehereak, Grezia eta Alemania
3. Prostituzioaren alderdi sozialak
4. Prostituzioa eta immigrazioa
5. Prostituzioaren alderdi ekonomikoak
6. Prostituzioaren osasun-alderdiak
7. Prostituzioaren fenomeno Nafarroan
  - 7.1. Emakumezkoen prostituzioa klubetan
  - 7.2. Emakumezkoen prostituzioa pisuetan
    - Erakundeen kontrolpeko pisuak
    - Partikularren pisuak
    - Jardute libreko pisuak
  - 7.3. Emakumezkoen prostituzioa kalean
  - 7.4. Gizonezkoen prostituzioa eta transexuale-na
  - 7.5. Laguntza baliabideak
8. Ondorioak
  - Prostituzioa, fenomeno soziala den aldetik
  - Errealitatearen gaineko ezagutza hobea
  - Prostituitzen diren pertsonen lan baldintzak hobetzea
  - Lanbidea uzteko aukerak
  - Osasun arloko hobekuntzak
  - Zergen kontrola
9. Gomendioak

## **EZGAITASUNA DUTEN PERTSONAK**

### **1. EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO TAILERRAREN ONDORIOAK**

Espainiako arartekoek aho batez erabaki zuten "Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak" izanen zirela arartekoak koordinatzeko XVIII. jardunaldietako tailerretan jorratuko zen gain nagusia; hartara, eztabaida hori eta Ezgaitasuna duten pertsonen urtea European batera ospatuko ziren 2003an.

Zenbait ararteko gaiari buruzko txostenak ari ziren lantzen ordurako, batzuek arazoari buruzko ikuspegi global bat erabilita eta beste batzuek ezgaitasun fisiko edo psikikoaren alderdi jakin batzuk bereziki aztertuta. Halatan, arartekoek elkarrekin egindako eztabaida horrek garrantzi bikoitza zuen; izan ere, arloari buruzko akordioetara ailegatu ziren, eta adierazpen bateratua egin zuten koordinatzeko jardunaldi haiek bukatutakoan.

#### **I. SARRERA**

Ezgaitasuna duten pertsonen taldea premia bereziak dituzten herritarren talde heterogeneoa da, pairatzen duten ezgaitasun hori dela medio, sarritan, euren eskubide konstituzionalak baliatze-ko arazo larriak dituen.

Talde hori, berriz, kopuru aldetik handi samarra da. Espainian, 3,5 milioi pertsona inguruk pairatzen du ezgaitasunen bat. European, 50 milioi pertsona baino gehiagok dute ezgaitasunen bat.

Arartekoen erakundeek, pertsona guztien eskubideak defenditze aldera bete behar dugun eginkizun nagusiari jarraikiz, arreta berezia jarri izan dugu beti euren eskubideak baliatzeko arazorik gehien duten pertsonen defentsan. Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideen defentsa, hortaz, gurea bezalako erakunde berme-emaileen helburu nagusia izan da beti.

Europako Batasunaren Kontseiluak, 2001/903/CE Ebazpenaren bidez, "Ezgaitasuna duten pertsonen urtea European" deklaratu zuen 2003. urtea, eta arartekook hausnarketa egin nahi dugu pertsona horien eskubide konstituzionalen eragingarritasunari buruz. Europako Batasunaren Kontseiluak adierazitako helburuetako bi nabarmendu nahi ditugu guk:

- Ezgaitasuna duten pertsonen euren eskubideak oso-osorik eta berdintasunean baliatzea eragozten dieten gertakari eta jarreraren aurreko sentsibilizazioa.

- Ezgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasuna sustatzeko hartu beharreko neurriei buruzko eztabaida eta azterlana.

Begi-bistakoa bada ere, berriz ere nabarmendu behar da ezgaitasuna duten pertsonak gainontzeko herritarren eskubide berberen titular direla, baina, sarritan, oztopo handiak gainditu behar dituzte eskubide horiek baliatzeko. Eguneroko bizitzan mugaturik ikusten dute eskubide horiek baliatzeko aukera, oztopo ugari aurkitzen baitituzte, berezko mugak dituztelako ez ezik, lan, ekonomia, gizarte nahiz jarrera aldetik ere eragozpen ugariarekin topo egiten dutelako, bizikidetasunaren ageraldietan parte hartzea eragozten dietenak.

Oinarrizko irizpide horretatik abiatuta –horren arabera ezgaitasuna duten pertsonen Konstituzioari jarraikiz dituzten eskubideak osorik baliatzeko oztopo diren praktika sozialak aldatu behar dira–, gai horri hurbiltzeko bi ekarpen nagusiak aipatu beharra dago:

- **Irisgarritasunaren izaera soziala.**

Ez da pertsona indibiduala pertsona ustez “normalentzat” prestaturik dagoen ingurune batera egokitu behar dena; aitzitik, ingurunea da –ingurunea zentzurik zabalenean hartuta– herritarren beharrezanetara egokitu behar dena, pertsona guztientzat irisgarri izan behar duena.

- **Irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua.**

Dessertinek orain dela hogeita hamar urte esana du “irisgarritasuna herritar guztien kontua dela: ezgaitasuna duten pertsonak, zalantzarik gabe, baina baita zaharrak, haurdun dauden emakumeak, haur-kotxe bat daramaten pertsonak, far-delak daramatzaten pertsonak eta abar ere.”

Haren ustez, pertsona oro izan da, da edo izanen da ezgaitasuna duen pertsona bat.

Irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua, labur esanda, ondoko hiru elementuek definitzen dute:

- Ingurune fisiko, sozial eta komunikatiboak pertsona guztientzat izan behar du irisgarria, ulergarria eta erabilgarria.

- Erabateko garrantzia eman behar zaio autonomiaren kontzeptuari: pertsona guztien erabilera autonomoa ahalbidetu behar du.

- Herritarren beharrezan askotarikoak asetzen dituen ingurunea sortu behar da, ezen ez talde jakin batzuen beharrezan bereziak asetzen ditue-na.

Irisgarritasun unibertsalaren kontzeptutik abiatuta, garrantzitsua da ondokoak lortzea:

- Sentsibilizazio soziala, eragilerik aktiboen eta erakundeen bidez, herritarrek eskubide berberak balia ditzaten eragozten duten era guztietako oztopoak –fisikoak, sozialak eta ekonomikoak– ezabatzen laguntze aldera.

- Ezgaitasuna duten pertsonen nahiz haien antolakundeek irisgarritasuna berdintasunez gertatzen dela bermatzen duen ingurune bat diseinatzekoan parte hartzea.

Gure erakundeetan jasotako kexen arabera, bai eta ezgaitasuna duten pertsonen elkarteekin, senideekin nahiz laguntza taldeekin izandako bilera eta kontaktuen arabera ere, argi dago pertsona horiek dituzten arazoak asko eta askotarikoak direla: hirigintza-, arkitektura- eta komunikazio-oztopoak; garraibideetako irisgarritasuna; etxebizitza eta lana lortzeko nahiz hezkuntza eta teknologia berriak jasotzeko zailtasunak; zerga arloko neurriak; minusbalotasunen balioespena; errehabilitazioa; laguntza goiztiarra; laguntza informala eta zaintzaileen beharrezan; prebentzioa; laguntza teknikoak...

Gai guztien artetik, bi multzo nagusiren inguruan eginen dugu hausnarketa, defentsa-erakunde- en zeregina zehaztearren:

- Hiri-ingurunearen irisgarritasuna. Hirigintza- eta arkitektura-oztopoak. Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak mugatzen dituzten bestelako oztopo batzuk gainditzea.

- Ezgaitasuna duten pertsonen lanerako esku-bidea eta lanean integratzekoa.

## II. HIRI-INGURUNEAREN IRISGARRITASUNA.

**Hirigintza- eta arkitektura-oztopoak. Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak mugatzen dituzten bestelako oztopo batzuk gainditzea.**

Gure herri eta hiriek irisgarritasun arazo handiak dituzte oraindik ere ezgaitasuna duten pertsonen eta, oro har, pertsona guztiei begira.

Administrazio publikoek irisgarritasun arloan onetsi diren arauak bete behar dituzte, espazio publikoak, urbanizazio-elementuak eta hiri-altzarikak pertsona guztiek autonomiaz erabiltzeko modukoak izan daitezen lortzeko.

Oztoporik gabeko pasabideen gutxieneko zabalera, koskak, zintarren altuera, zoladura irris-tagaitzak, eskailerak... irisgarritasuna ahalbidetze aldera aintzat hartu beharreko alderdiak dira.

Zaila da konpartimentu estankokoak egitea, eta argi dago ingurune eraikiko irisgarritasunak lotura estu-estua duela hirigintza-irisgarritasunarekin, garraio publikoekin eta komunikazioarekin. Alferrik

da eraikin bat irisgarria izatea baldin eta ezinezkoa bada hartan sartzea. Horregatik hitz egin beharko litzateke ibilbide irisgarriez.

Ezgaitasuna duten pertsonen integrazioa lortu nahi bada beharrezkoa da normaltasun osoz izan dezaten sarbidea ikastetxeetara, osasun zentroetara, lantokietara, laguntza zentroetara, zahar-etxeetara, adingabeen zentroetara, administrazio publikoen zerbitzueta, josteta-, kirol- nahiz kultura-zerbitzueta, erlijio-zerbitzueta, ikasleentzako egoitzetara, hoteletara, hotelak ez diren eraikin turistikoetara, industria nahiz energia establezimenduetara, banku-zerbitzueta eta merkataritzako lokal eta zentro handietara.

Zoritzarrez, ezgaitasuna duten pertsonen bizileku bera da irisgaitza dena, eta halatan, etxea "espetxe" bihurtzen da. Egoera zorigaitzoko hori amaitzeko beharrezkoak diren neurriak ezarri beharra dago.

Administrazio publiko eskudunek aurretiazko kontrola egin behar dute, alegia, lizentziak, baimeak, kalifikazioak eta bestelakoak emateko irisgarritasunari buruzko arauak bete daitezzen eskatuko da, eta zehapen neurriak aplikatuko dira beharrezkoa denean.

Ezinbestekoa da neurri horiek direla-eta zorrotza izatea obra eta eraikin berrietan. Eraikin eta ekipamendu lehendik eraikietan arian-arian aplikatuko dira irisgarritasun-irizpideak.

Aipamen berezia zor zaio kultur intereseko ondasun higigarri eta higiezinaren tratamenduari; izan ere, ahal den neurrian bateratu beharko dira horiek kontserbatu eta babesteko betebeharra eta herritarren irisgarritasun-eskubideak.

Garraioak baldintza beretan baliatu ahal izatea da erronkarik handienetako bat egiazko berdintasunaren bidean. Hiri nahiz hiriarteko autobusak, trenak, metroa nahiz aireko trafikoa baliatu ahal izateak neurri erabakigarriak hartzea eskatzen du. Garraio bereziak nahiz atez ateko garraioa sortzea bezalako esperientziak interes handiko esperientziak dira. Hedabideak eta teknologia berriak baliatu ahal izatea ere erronka handia da, integrazio osoa lortuko bada.

Beharrezkoa da, hortaz, botere publikoek neurriak har ditzaten herritar guztien arteko egiazko berdintasuna lortze aldera.

### III. EZGAITASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONAK LANERATZEKO NEURRIAK

Lan merkatuan sartzea da ezgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeko duten biderik nagusieta-

ko bat; horrenbestez, hori da haien ametsik eta, era berean, frustraziorik handienetako bat.

Ezgaitasuna duten pertsonen hezkuntza eta prestakuntza funtsezkoak dira aurrerago lan merkatuan sartzeko.

Botere publikoak behartuta daude pertsona guztiei laneratzeko laguntzeko neurriak aplikatzera.

Ezgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak erreserbatzea esparru publiko nahiz pribatuan, formula berritzaileak sustatzea, esaterako enplegu lagundua; lanpostuak eta lantokiak egokitzea eta enpresetako irisgarritasuna berdintasuna lortzen lagun dezaketenean neurriak dira.

### IV. ARARTEKOEN ZEREGINA, EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEI EGIAZ INTEGRATZEN LAGUNTZEKO

Aipatua dugu arartekoen arduraren berezia dela ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzea. Gure erakundeek jardunean daramatzaten urteotan ezgaitasuna duten pertsonen aurkeztutako kexa ugari bideratu dugu, ofizioski jardun izan dugu sarri, eta txosten bereziak taxutu izan ditugu. Baina, batez ere, nabarmendu beharra dago bai Espainiako bai autonomia erkidegoetako arartekoen munta handiko gomendioak eman dituztela ezgaitasuna duten pertsonen dagokienez, eta horietako baten batek haien eskubideak nabarmen hobetzea ekarri duela.

Halatan, arartekoen gomendioen ondorioz, nabarmen aurreratu da tokian-tokian:

#### **Prestazio ekonomikoaren alorrean:**

- Batzorde Tekniko Kalifikatzaile Zentrala zenari aurkeztutako gora jotzeko errekurso tramitatu eta ebatzi gabeak azkartzea; Gizarte Segurantzak minusbaliatuengatik egindako ekarpen ekonomikoaren espedienteen ebazpenari buruzko formalizazio oker eta eskasa zuzentzea; gutxienezko dirusarrerak bermatzeko dirulaguntzaren zenbatekoa igotzea eta pentsioen kotizazio gabeko sektore bat ezartzea; erabateko ezintasun iraunkorren pentsioaren oinarri arautzailea % 20 igotzeko ezarririk dagoen adina betetzat jotzeko irizpidea aldatzea; langile autonomoen araubide bereziko erabateko ezintasun iraunkorren pentsioa jasotzeko adin eskakizuna kentzea; erabateko ezintasun iraunkorren pentsioaren oinarri erregulatzailearen % 20ko igoera kalkulatzeko irizpidea aldatzea; baliabide ezintasun handiko osagarriak birbaloratzea; laguntza sistema bat ezartzea GIBaz kutsatutako gaixo hemofilikoaren beharrezko berariazko eta ez-ohikoei aurre egiteko.

- GIB-eramaileak ezinduak direla ezartzen duen araudia interpretatzeko jarraibideak, baliaezintasuneko kotizazio gabeko pentsioa onartzeari begira.

- Eskatzaileak ibiltzeko gurpil-aulkia edo makulua erabili behar izateko baldintza ezabatzea, ibilgailu bat erosi edo egokitzeko laguntza jaso ahal izan dezan.

- Ibilgailu bat erosi edo egokitzeko laguntza jasotzeko eskabidea balioesten denean eskatzailearen egoera ekonomikoaz gain haren egoera pertsonal eta soziala ere kontuan hartzeko gomendioa.

- Eskabideak aurkezteko epea deialdia egiten den urte natural osora luzatzea eskabideak aurkezteko epea agortu ondotik sortu baldin bada laguntza premia hori; halatan, premia sortzen den eguna ez da izanen baliaezintasuna gertatu den eguna, baizik eta laguntza beharra gertatu den eguna, izan ere, ez dute zertan bat etorri.

#### **Osasunaren alorra:**

- Adimen-urritasuna duten pertsonak sartzeko transplanteen programetan; entzuteko eta ikusteko protesiak sartzeko osasun sistema nazionalaren material ortoprotesikoen katalogo orokorrean; trakzio elektrikodun gurpil-aulkiak sartzeko material ortoprotesikoen katalogo horretan.

- Odontologia alorreko prestazioak zabaltzea minusbaliotasun larriak dituzten pertsonentzat, anestesia orokorra edo sedazioa emanez ebakuntza txikietan, ebakuntza horiek normalean halakorik eskatzen ez badute ere.

#### **Laneratzearen alorra:**

- Minusbaliatuentzako erreserba kupoa funtzionarioei zabaltzea administrazio publikoan; lan kontratudunentzako lanpostuen deialdietan ezgaitasuna duten pertsonentzako erreserba kupoa ezartzea.

- Minusbaliatuentzako erreserba kupoa handitzea administrazio autonomikoan sartzeko.

- Funtzio publikoan sartzeko probak pertsonaren ezgaitasunaren ezaugarrietara egokitzea.

#### **Hezkuntzaren alorra:**

- Hezkuntza bereziko hezitzaileen kopurua handitzea, ezgaitasuna duten ikasleen hezkuntza premia bereziei aurre egiteko.

- Unibertsitateko ikasketa-tasak ordaintzetik salbuestea ezgaitasuna duten ikasleak.

- Eredu konbinatuko eskolatzea sustatzea ikastetxe arruntetako integrazio-ereduan egoki artatu

ezin diren baina hezkuntza bereziko ikastetxe batera eramateko bezain ezgaitasun larririk ez duten ikasleentzat.

- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak artatzeko irakasle espezialistak nahiz laguntzakoak sustatzea.

#### **Oztopo arkitektonikoen, hirigintzako, garraioetako eta komunikazioetako alorra:**

- Garraio publikoa erabiltzen laguntzeko neurriak hartzea; unibertsitateko eraikinetan arkitektura oztopoak kentzea; jabetza horizontalari buruzko araubide juridikoa aldatzea, arkitektura oztopoak kentzeko xedea duten erabakiak hartzeko quoruma beharrezkoa izan ez dadin.

- Erabilera administratiboko eraikinetako irisgarritasunari buruzko jarduketa plan bat onestea.

- Administrazioak laguntzak ezartzea jabetza horizontalari buruzko legea bete behar duten higiezinak osagai komunak egokitzeko.

- Eremu publikoan ezgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekuak gordetzeari buruzko araudia aplika dezaten exijitzea udalei.

- Udalek neurriak hartzea hiri altzariak eta semaforo-seinaleak ezgaitasuna duten pertsonen ezaugarrietara egokitze aldera.

- Arkitektura oztopoak kentzea erregistro eta notariotzetan.

- Hiri arteko garraioko autobusen geltokiak egokitzea.

- Garraioetako arian-arian egokitzea ezgaitasuna duten pertsonen erabiltzeko.

- Ikastetxeetan nahiz laguntza zentroetan lehenetsia ematea eraikin publikoak egokitu eta irisgarri egiteko neurriak.

- Identifikatu eta aparkalekuak gordetzeko txartela ematea txartela eskatzen duten itsuei.

- Erabiltzaileen esku jartzea ezgaitasuna duten pertsonen aparkatzeko txartel europarra, eta autonomia erkidegoan balioa ematea Europako Batauneko edozein estatu-kidek emandako txartelei.

#### **Bestelako jarduketak:**

- "Subnormal" eta "subnormaltasun" terminoen ordean, "minusbaliotasuna duten pertsonak" edo gisakoak erabiltzea halakorik agertzen den xedapenetan, gomendioa egin zen garaian onarpen handiagokoak baitziren horiek; familia ugariak babesteko legeria aldatzea, aintzat har daitezkeen bi seme-alaba minusbaliatu edo lanerako ezgaitu edo gehiago dituzten familiak.

- Laguntza goiztiarreko plan bat onestea, haur-  
ezgaitasuneko arazoak behar bezala antzeman,  
bideratu eta esku hartzeko.

- Komeni da garaiz programatzea laguntza  
espezializatua behar duten erabiltzaileentzako  
egoitza-plazzen eskuragarritasuna; hartara, pertso-  
na horiek erretiroa hartzen duten une berean edo  
–senideen adinarengatik nahiz beste arrazoiren  
batengatik– familia ingurunean egoterik ez duten  
une berean bete ahalko dute plaza hori.

- Administrazio kontratu txikien edo prozedura  
negoziatuko ehuneko jakin bat gordetzea ezgai-  
tasuna duten pertsonak laneratzeko zentroentzat  
eta baztertuta gelditzeko arriskuan dauden perso-  
nen integrazioa xede duten irabazi asmorik gabe-  
ko entitateentzat.

Esan bezala, arartekoek funtsezko jarduketak  
egin dituzte ezgaitasuna duten pertsonen integra-  
zio osoa lortzeko bidean, baina, halere, gogoeta  
egin beharra dugu gure erakundeetan bertan per-  
sona horien integrazioa lortzeko hartu beharko  
liratekeen neurri buruz: gure egoitzen irisgarritasuna;  
gure egituretan tratamendu berezia ematea  
ezgaitasuna duten pertsonen eskubideen babesari  
(zeharkako arloak, urteko txosteneko atal bat,  
webguneko atal bat); gure langileentzako erreser-  
ba kuota bat ezartzea; kontratazio pleguetan klau-  
sula bat ezartzea, kontratu hartzaileei eskatzeko  
ezgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak gor-  
detzeari buruzko araudia bete dezaten; sektoreko  
elkartekiko lankidetzak, lantokiak egokitzea, lane-  
ko arriskuei aurre hartzea...

Gure erakundeetako askok neurri horiek guzti-  
ak edo horietako asko hartuak dituzte dagoeneko.

Betiere, neurri horiek hartzeko konpromisoa  
hartu behar dugu, agindu dizkiguten zereginak  
bete nahi baditugu.

#### V. ONDORIOAK

Arartekook, ezgaitasuna duten pertsonen  
eskubideei buruz nahiz horiek integrazio osoa lor-  
tzeko beharrezkoak diren neurri buruz luze eta  
zabal eztabaidatu ostean, ondoko ondorioak atera  
ditugu:

#### **A) Orokorrak:**

##### *Berdintasun printzipioa*

Lehenengoa. Berdintasun printzipioa, bereizke-  
riarik ez jasatekoa eta herritartasun osoa izatekoa  
arlo horretako politika publiko guztietan hartu  
beharko dira aintzat, Konstituzioko 9.2, 14 eta 49.  
artikuluetan ezarritakoarekin bat.

##### *Irisgarritasun unibertsala*

Bigarrena. Beharrezkoa da botere publiko guz-  
tiek onartzea irisgarritasun unibertsalaren printzi-  
pioa, eta ondorioz, herritar guztien beharrian  
askotarikoaren arabera ingurunea sortzea.

##### *Gizarte sentsibilizazioa*

Hirugarrena. Gizarteak ezgaitasuna duten per-  
sonen errealitatearen gaineko sentsibilitatea izan  
behar du.

Gizarteak orokorrean egokitu behar du bere  
kideen aniztasunera, eta beharrezko aldaketak  
egin behar ditu, pertsona guztiek euren bizitzaren  
arlo guztietan erabateko partaidetza izan dezaten  
bermatzeko. Gizarte aniztasunera egokitzea da  
bide bakarra pertsonen berdintasuna eta guztien  
eskubideak errespetatu daitezkeen lortzeko.

##### *Partaidetza printzipioa*

Laugarrena. Ezinbestekoa da ezgaitasuna  
duten pertsonen eta haien defentsan diharduten  
erakundeek parte hartzea euren eskubideak oso-  
osorik baliatzea ahalbidetuko dieten tresna juridi-  
koak prestatzen eta neurriak hartzen.

**B) Hiri-ingurunearen irisgarritasuna. Hirigin-  
tza- eta arkitektura-oztopoak. Ezgaitasuna  
duten pertsonen eskubideak mugatzen dituz-  
ten bestelako oztopo batzuk gainditzea.**

##### *Araudia betetzea*

Lehenengoa. Premiazkoa da administrazio  
publikoek irisgarritasunari buruzko arauak bete-  
tzea, ezen bestela, arau horiek inolako eraginkor-  
tasunik gabeko asmo onen katalogo bihurtuko bai-  
lirateke.

##### *Irisgarritasun planak eta inbertsioak*

Bigarrena. Behar-beharrezkoa da administrazio  
publikoek irisgarritasun planak eta programak  
prestatzea eta horiek garatzeko kontusailak jar-  
tzea, hiri-ingurunea pixkana egokitzea bermatze  
aldera.

Ildo horri jarraikiz, beharrezkoa da udalek iris-  
garritasuna sustatzeko inbertsioak egitea, xede  
horrekin aurrekontuetan egiten diren aurreikuspe-  
nak izanen baitira gai horrekiko konpromiso-maila-  
ren erakusgarria.

##### *Dirulaguntzak*

Hirugarrena. Beharrezkoa da irisgarritasuna  
sustatzeko neurriak ezartzea, dirulaguntzen,  
bakarkako dirulaguntzen edo irisgarritasuna hobe-  
tzen lagunduko duen edozein baliabideren bitar-  
tez.



*Kontrola eta ikuskapena*

Laugarrena. Ezinbestekoa da administrazio publikoek kontrol tresnak ezartzea, irisgarritasunari buruzko arauak betetzen direla egiaztatzeko. Horri lotuta, lizentziak, baimenak eta kalifikazioak emateko irisgarritasunari buruzko arauak bete daitezzen eskatzea oso eraginkorra izanen da.

Horretaz gain, administrazioek erabilera eta zerbitzu publikoko eraikin eta lokal berrien kontrol jarduketak egin beharko dituzte, haien irisgarritasuna bermatze aldera.

*Zehapenak*

Bosgarrena. Ezinbestekoa da administrazio publiko guztiek beharrezkoa denean zehapen neurriak aplikatzeko betebeharra hartzea, hori baita irisgarritasunari buruzko arauak betearazteko modu bakarra.

*Administrazio irisgarria*

Seigarrena. Administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte titular diren eraikinen irisgarritasuna lortzeko, batez ere osasun, gizarte eta hezkuntza zerbitzuak ematen diren eraikinetan.

*Irisgarritasun historiko-artistikoa*

Zazpigarrena. Komenigarria da administrazio publikoek interes kulturalako ondasunen, alegia, eraikin historiko-artistikoen irisgarritasuna sustatzea, eraikin horiek babestu eta kontserbatzen diren aldi berean ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak ere babesteko.

*Jabetza horizontalari buruzko legea.*

Zortzigarrena. Beharrezkoa da jabetza horizontalari buruzko legea aldatzea proposatzea, legeak ezarritako ezaugarriak betetzen dituen ezgaitasuna duten pertsonen eskatutako obrak eta/edo instalazioak beharrezkotzat jo daitezzen, jabetza horizontalari buruzko legearen 10. artikulua 1. idatz-zatian ezarritako moduan, baldin eta eraikinaren parte komunetako oztupoak kentzeko badiara. Arau beraren 4. idatz-zatiari, eta horri lotuta, jabetza horizontalari buruzko legearen 9. artikulua e) idatz-zatiari jarraikiz, obra horiek jabe-komunitateak finantzatu beharko ditu.

*Garraio irisgarria*

Bederatzigarrena. Beharrezkoa da "garraio irisgarria" lortzeko neurriak hartzea, eta hiri nahiz hiri-artearen autobus, tren, metroaren eta hegazkinen geltokiak eta azpiegiturak egokitzea, hiritar guztien autonomia ahalbidetze aldera.

*Komunikabideen eta teknologia berrien irisgarritasuna.*

Hamargarrena. Ezinbestekoa da pertsona guztiak baldintza beretan komunikabideetara eta teknologia berrietara iristea ahalbidetuko duten neurriak har daitezela.

**C) Ezgaitasuna duten pertsonen lanerako eskubidea eta lanean integratzeko bermatzeko neurriak.***Prestakuntza eta gaikuntza*

Lehenengoa. Funtsezkoa da ezgaitasuna duten pertsonen prestakuntza eta gaikuntza tekniko hobetzea, laneratzea erraztuko duten lanbide-prestakuntza egokia eta gaitasunen hobekuntza lortze aldera. Halaber, neurri bereziak hartu behar dira beren egoeratik ikasteko arazo gehiago dituzten taldeentzat.

*Lanpostuak erreserbatzea*

Bigarrena. Komenigarria izanen litzateke beharrezko lege aldaketak egitea, enpresetan ezgaitasuna duten pertsonentzako erreserbatu beharreko lanpostuen kuota handitzeko, baita betebeharrak hori enpresa txiki eta ertainetara zabaltzea, beste herrialde batzuetan egiten den moduan. Nolanahi ere, lan arloko agintariek zainduko dute lege ezarritako erreserba egiaz betetzen dela, arauetan aurreikusitako kontrolerako eta jarraipenerako mekanismoen bidez.

*Enplegu publikoa eskuratzea*

Hirugarrena. Enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez, komenigarria izanen litzateke ezgaitasuna duten pertsonen aldeko gaur egungo erreserba kuota handitzea. Horretarako, beharrezko lege aldaketak egin beharko lituzkete oraindik egin ez dituzten autonomia erkidegoek.

Erreserba kuotaren aplikazioa lan eskaintza publiko osora zabaltzeko beharko da, behin betiko, behin-behineko edo aldi baterako lanpostuetara.

Hautaprobak banaka modulatu eta egokitu beharko dira, ezgaitasuna duten pertsonen baldintza beretan parte hartu ahal dezaten. Beharrezkoa denean, ahozko zein idatzizko probak egin ordez proba praktikoak egin daitezke, hautapen prozesuan parte hartzen duen pertsona ezgaitua lanpostu horretara zenbateraino egokitzen den baloratzeko.

*Kapital publikoa duten enpresak*

Laugarrena. Zuzenean edo zeharka administrazioak edota haren mendeko erakundeek enpresa bateko kapitalean gehiengo partaidetza badute –zuzena ala zeharkakoa–, enpresa publiko horiek, lanpostuen deialdietan, nahitaez gorde beharko

dute funtzio publikoan sartzeko ezarritako erreserba kuota berbera ezgaitasuna duten pertsonentzat.

*Kontratazioetan lehentasuna ematea*

Bosgarrena. Komenigarria izanen litzateke, beharrezko arau aldaketak eginda, administrazioek sustatutako kontratazio prozeduretan, orokorrean, horietan parte hartzen duten enpresek ezgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatu beharreko kuota betetzeari buruzko klausulak ezartzea.

Halaber, kontratazio prozeduretan balorazio positiboa eta puntuak eman ahalko zaizkie ezgaitasuna duten langileentzat legez ezarritako langile-ehunekoa baino handiagoa plantillan duten enpresei, edo enpresa horiei lehentasuna emateko beste edozein neurri hartu ahalko da.

Bestalde, arau bidez ezar daiteke administrazio kontratu txikien edo prozedura negoziatuko ehuneko bat gordetzea ezgaitasuna duten pertsonak laneratzeko zentroentzat eta baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonen integrazioa xede duten irabazi asmorik gabeko entitateentzat.

*Bestelako enplegu modalitateak sustatzea*

Seigarrena. Komenigarria litzateke enpresa arruntetan oraindik garatu gabeko enplegu modalitateak sustatzea, ezgaitasuna duten pertsonak laneratzeko balio dezaketenak, hala nola, enplegu lagundua, gune babestuak, brigada mugikorrek edota hautapen enplegua, enpresa arruntetan.

*Enpresa irisgarriak*

Zazpigarrena. Beharrezkoa da enpresak ezgaitasuna duten pertsonentzat irisgarriak izan daitezkeen ahalbidetzea, eta horretarako era guztietako oztopoak kentzea, eta guneen eta lanpostuen egoitzapena bultzatzea, dirulaguntzen edo ordainketa-salbuespenen bidez.

*Sindikatuak eta enpresariak sentsibilizatzea*

Zortzigarrena. Ezgaitasuna duten pertsonak lan egiteko gaitasunari buruz sentsibilizatu behar da gizarteak, bereziki enpresariak eta sindikatuak.

*Zailtasun bereziak*

Bederatzigarrena. Ezinbestekoa da berariazko politikak sustatzea ezgaitasuna izan eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonentzat, hala nola emakumeak, gazteak edota ezgaitu psikikoak.

Nolanahi ere, laneratzeko zailtasunak handiagoak dira landa ingurunean; hori dela eta, agintari-

tza publikoak desberdintasun horiek zuzentzeko neurriak hartu beharko ditu.

*Enpleguko zentro bereziak eta lanerako prestatzeko zentroak*

Hamargarrena. Komenigarria da enpleguko zentro berezien eta lanerako prestatzeko zentroen eginkizuna berrikustea eta egiaztatzea sortu zireneko helburuak eraginkortasunez betetzen dituzten eta, beharrezkoak direla zalantzan jarri gabe, integrazio handiagoa ahalbidetuko duten eta lanpostu arruntak lortzea erraztuko duten formulak bultzatzea.

*Lan bitartekaritza zerbitzuak*

Hamaikagarrena. Beharrezkoa da lan integrazio-orako politika aktiboak sustatzen dituzten bitartekaritza zerbitzuak bultzatzea, hala nola INEM eta beste batzuk, haien jarduna hobetu dezaten, ezgaitasuna duten pertsonen lan integrazioa lortzeko xedearekin.

**D) Arartekoen zeregina, ezgaitasuna duten pertsonen egiaz integrazten laguntzeko**

Arartekoek ondoko konpromisoak hartu dituzte:

*Ofiziozko egintzak, txostenak eta ebazpenak*

Lehenengoa. Beren eginkizunen arloan, ezgaitasuna duten pertsonen integrazioa ahalbidetzeko neurriak sustatzea, nagusiki ofiziozko egintzen bitartez, administrazio publikoek ezgaitasuna duten pertsonen buruzko berariazko araudia noraino betetzen duten ikuskatuz, txosten bereziak prestatuz edota egiazko berdintasuna errazteko ebazpenen bitartez.

*Egoitza irisgarriak*

Bigarrena. Arartekoen egoitzak eta lokalak ezgaitasuna duten pertsonentzako irisgarriak izan daitezkeen ahalbidetzea, eta izan daitezkeen oztopoak kentzea. Horrela, bada, ezgaitasuna duten pertsonen kexak aurkeztea erraztu zaie, eta horretaz gain, langileentzako ere irisgarri izanen dira.

*Lanpostuak erreserbatzea*

Hirugarrena. Erakunde bakoitzean lanpostuen ehuneko bat ezgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatzea, lanpostu publikoetan egiten den antzera.

*Kontratazioetan lehentasuna ematea*

Laugarrena. Gure kontratazio prozeduretan parte hartzen duten enpresek ezgaitasuna duten pertsonen aldeko erreserba kuota betetzeari buruzko klausulak sartzeari.

*Tratamendu berezia*

Bosgarrena. Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak babesteko eta hedatzeko tratamendu berezia sartzeari buruzko erakunde bakoitzak egoki irizten dion moduan: urteko txostenean berezko atala izan den ezgaitasuna duten pertsonen buruzko berariazko edo zeharkako arlo bat sortuz, web orriaren aurreikuspen zehatza eginez, edota pertsona horiei arreta berezia emateko baliozkoa den edozein neurriaren bidez.

*Web orri irisgarriak*

Seigarrena. Ahal den neurrian, ezgaitasuna duten pertsonentzako irisgarriak diren web orriak prestatzea.

*Elkartegintzari laguntzea*

Zazpigarrena. Gure erakundearen eta ezgaitasuna duten pertsonen eta haien elkarrekin arteko harremanak bultzatzea, haiekin elkarlanean aritzea eta haien arazoak konpondu eta haien eskubideak hobeto defendatzeko helburua duten hitzarmenak sinatzea.

## 2. NAFARROAKO ADIMEN-OSASUNAREN ARLOKO LAGUNTZARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA

2003ko martxoaren 7an aurkeztu zen jendarearen erakunde honek Foru Parlamentuarentzat eginiko Nafarroako adimen-osasunaren arloko laguntzari buruzko txosten berezia. Txosten hori egiteko arrazoia izan da 2001eko martxoan erakunde hau abian jarri zenetik jaso den kexa andana, baita arazo horiek konpontzeko foru administrazioko zerbitzuek aurkitu dituzten zailtasunak eta herritarrek haien eskubideen defentsan administrazio publikoetan aurkeztutako eskariak betetzeko zailtasunak ere.

Txosten berezi horren prestaketa eta hedapena izan zen 2003 urtean arreta gehien eskatu zuen lanetako bat. Horrekin batera, gaixoak eta horien familiak biltzen dituzten elkarteek ere lan asko egin zuten.

Parlamentuarentzat eginiko txosten berezi hartan esaten zenez, Nafarroan adimen-gaixoei emandako laguntzari begirada orokorra emanez gero, zatiketa kroniko bat antzematen da herritar multzo kopurutsu honek dituen beharrezan eta foru administrazioaren artean. Zatiketa horren erakusgarri dira baliabideei eta beharrei buruzko iritzi ezberdinak; administrazioak berak bere baitan eskumenei dagokienez dituen barne-desadostasunak; gaixo horiei laguntza ematean gertaturiko koordinazio-gabeziak; Osasun Departamentutik zenbait programa prestatzea aintzat hartu gabe

interesak eta eskumenak eta are herritarrek Gizarte Ongizate Departamentuari eginiko eskaerak; eta Laguntza soziosanitarioari buruzko foru programa bat, "etxea txukuntzeko" asmoz jaioa, zeinak bere egileentzat ere, edukiei dagokienez eta etorkizunari begira, sinesgarritasunik ez baitauka.

Txosten berezi zabal haren laburpen gisa, haren sarreran aipatzen ziren hainbat ideia nabarmen daitezke. Horien bidez, txostenak deskribatzen duen errealitatea eta islatzen duen egoeraren larritasuna antzematea ahalbidetzen da. Ideia horiez gain, txostenaren ondorio nagusiak eta eginiko gomendioak ere aipatzen dira.

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ARARTEKOAREN TXOSTEN BEREZIA, NAFARROAKO ADIMEN-OSASUNAREN ARLOKO LAGUNTZARI BURUZKOA.

## SARRERA

Orain dela gutxi "gaixotasunaren kostu ikustezi-nei" eta gaixoak zaintzean familiek euren gain hartzen duten lan-zamari buruz eginiko txosten batek jotzen zuenez, familiak 100 ordutik 88 osasun-zainketarako erabiltzen ditu. Aldiz, Espainiako osasun-sistemak 12 erabiltzen ditu. Horrekin batera, gure herrian urtero 100.000 etxekoandrek erabakitzen dute etxetik kanpo lan egiten hastea. Txosten horretan adierazten denez, osasun sistemak oso oinarri ahulak ditu, bi akatsen gainean egituratuta baitago: zerbitzu publikoen eskasutasuna eta boluntario-erakundearen urritasun gorria. Bi arrazoi horiek direla-eta, familiak bere gain hartu du zainketa-eginkizun hori, noiz eta "familia" kontzeptua bera eboluzio-prozesu nabarmenean dagoenean.

Gaur egungo sistema aldatzeak ekarriko lituzkeen ondorio ekonomikoek (aurrekontuek % 70eko gorakada izanzen lukete, gaur egun familiek egiten duen zainketa-lanaz arduratuko liratekeen langileei ordaintzeko, soil-soilik) ez digute ahaztaz behar hori dela "baliabiderik gutxien daukaten pertsona edadetuentzat", nahiz eta merkatuaren zati batek eginkizun horiek hartu ahal izanzen lituzkeen. Pertsona horiei dagokienez, aipaturiko txostenak etorkizunari begira aurreikuspen goibela du: "arriskurik garestiena ez da hiltzearena, baizik eta aurrera begira erabateko mendekotasunean bizitzeko 20 urte izatea (...) izan ere, pentsio sistemaren oinarrian dagoen ideia da norbera bizi ahal izanzen dela jasoko duen diruarekin; ideia zuzena, baldin eta pertsona osasuntsu badabil".

Ziur aski, aipamen hori da hobekien definitzen duena nola antolatua dagoen adimen-gaixoen laguntza gure foru komunitatean. Horrez gain,

esan genezake txosten hori –gure komunitateari ere aplika dakiokena– orain dela hamar urte ere orain bezain zuzena izanen zela.

Nafarroako adimen osasunaren lehen planak erreforma-prozesu aitzindari bat abiarazi zuen 1986an, zehaztasunez definitua eta helburuak nahiz beharriak argi adierazten zituen. Harrezkero, azterlanik gehien gaia izan den gizataldea adimen-gaixoen da ziurrenik –ezaugarriak, beharriak, baliabideen balioespena...–. Adimen-osasunak Nafarroan duen errealitatearen “erradiografia”, beste autonomia erkidegoetan bezalaxe, ikuspegi ezberdinetatik aztertu da etengabe, eta aburu ezberdinak aintzat hartu dira, hala nola adimen-osasuneko sareko gizarte-langileen, familiarako eta gaixoen elkarten eta aditu independenteen edo administrazioak berak eginiko lanetan adierazitakoak. Gauza esanguratsua da hain zuzen ere foru administrazioaren baitan –eta, bereziki, osasunaz arduratzen den horretan– egin izana, azken urteotan, azterlan, plan, aurreproiektu, aurkibide eta organigrama gehien. Horietatik, gehienak bideratuta daude honako antolaketa berraztertzerak: adimen-gaixoei ematen zaien laguntzarena, erreforma psikiatrikoan aurreikusitako erkidego-zerbitzuena eta baliabideena. Alde batera utzirik Osasun Departamentuak, txosten berezi honen prestaketan zehar, erakundeen arteko lankidetzari buruz agertu duen ulermen bitxia –txostenez beteriko kuxak eta departamentuaren web guneari buruzko aipamenen zerrenda labur bat bidaltzea–, bidalitako zenbait agiri direla medio sakonki jakin ahal izan da, Departamentu horri eskatu zitzaizkion datuak ez baizik eta honako gai honen inguruan izan duen etengabeko jarduna: nola antolatu adimen-osasunaren arloko eskumen eta baliabideak.

Nafarroan adimen-gaixoei emandako laguntzari begirada orokorra emanez gero, zatiketa kroniko bat antzematen da herritar-multzo kopurutsu honek dituen beharriaren eta foru administrazioaren artean. Zatiketa horren erakusgarri dira baliabideen beharri buruzko iritzi ezberdinak, administrazioak berak bere baitan eskumenei dagokienez –nork zuzendu jarduerak, eta zuzendaritza hori zeri aplikatu– dituen barne-desadostasunak, gaixo horiei laguntza ematean gertaturiko koordinazio-gabeziak, Osasun Departamentutik zenbait programa prestatzea aintzat hartu gabe interesak eta eskumenak eta are herritarrek Gizarte Ongizate Departamentuari eginiko eskaerak, eta Laguntza soziosanitarioari buruzko foru programa bat, “etxea txukuntzeko” asmoz jaioa, zeinak bere egileentzat ere, edukiei dagokienez eta etorkizunari begira, sinesgarritasunik ez baitauka

(eta ondorioz, orain dela ia bi urte ezarritako aurrekontu-dotazioa ez dauka).

Kontu horiek ez dira berriak adimen-gaixotasunari aurre egiten diharduten familiarako, gaixo eta/edo profesionalentzat. Baina, nire ustez, beharrezkoa da horien berri ematea, horiekin osaturik baitago adimen-gaixoei bideraturiko erkidego-laguntzak pairatzen dituen arazoan azpitik datzan egoera, hots, herritarrek euren aurrean aurkitzen duten oztopoa, departamentu batzuen eta besteen eskumenen hariari jarraika harat-honat dabilzanean. Horixe da, halaber, gaixoaren inguruneak familiararen eta gizartearen esparruetan bizitzen duen krisiaren arazoia eta nahaste psikiatrikoari buruz gizartearen ulermenak pairatu duen atzerakadarena, eta historia hutsa besterik izanen ez litzatekeen sistema asistentzial batera itzultzearen mehatxua ekartzen du, zeren eta gizalegearen aurkako sistema hura, gaixoak ospitale psikiatrikoetan uztearena, gaixo horiei laguntzeko zeregina daukaten pertsoneri berri ere erreferentzia gisa agertzen ari baitaie begi aurrean, nekearen nekeaz.

Nafarroako adimen-osasunari buruzko txosten berri bat egin beharrik ez zegoela esatera ere iritsi gitezke. Kopuruei buruzko datuek ez dute aldaketa nabarmenik izan, kontuan hartzen ez bada osasun etxeetan tratatzen diren gaixoen etengabeko gorakada. Nolakotasunari buruzko datuak berberak dira, nahiz eta iragandako denborak larriagotu egiten dituen. Osasun arloan 1986an eginiko erreformak aurreikusitako laguntza-egitura ez da aldatu. Haren aplikazioan izandako gabeziek iritzi negatiboa sortu dute ondorioak pairatzen dituen gizartearen baitan. Eskumen-esparruak ez du inolako aldaketarik izan, eta erreformaren oinarri ez-klinikoak –erkidego-baliabideen horniketak, alegia– ez du oraindik ere behar adinako konpromiso politikorik lortu foru administrazioaren aldetik. Erreforma psikiatrikoak familiari esleituriko zereginak bere horretan dirau. Alabaina, gizartearen bilakaerak aldatu egin du familiak bere gain zamak hartzeko duen gaitasuna, eta gainerako gabeziek aurrekusi gabeko protagonista bihurtu dituzte familia horiek gaixoaren laguntzan; areago, esan liteke ia protagonista bakar bihurtu dituztela. Ikuspegi sozialetik, eritasunaren bilakaera orain dela hamasei urte aurreikusitako ildoari jarraitu zaio –konplexutasun handiagoa, gaixo kronikoek osaturiko gizatalde berria, patologia berriak, baldintza-pen sozioekonomiko berriak...–. Hala eta guztiz ere, bilakaera horri aurre egiteko ez da plangintza egokirik egin.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren txosten berezi honen berariazko asmoetako bat zen ospitalez kanpo adimen-

gaixoei ematen zaien laguntzari buruz dagoen informazio interesgarria biltzea; ikuspegi orokor bat eskaintzea, babesik gutxien daukaten gizarte-taldeetako baten eskubideen defentsatik abiatuta, gizarte-kontzientzia berri bat sustatze aldera, gaixo horien zaintzaileek egiten duten lanari bultzada emateko, eta gure erkidegoko administrazio publikoa ohartaraztea ezen txosten horiek eta horien berri izateak ez dutela orain arte ekarri egoera hori samurtzeko neurririk.

Erakunde honetarako iritsitako kexetan jadanik aipatzen zitzaizkigun eskumen-sakabanaketa, Gobernuko departamentuen arteko koordinaziorik eza eta adimen-gaixoei laguntza emateko oinarriko baliabiderik eza. Horregatik, txosten berezi honen bigarren helburua zen argi gehiago ekartzea administrazioen eta euren eskubideak defendatzeko beharra daukaten herritarren arteko harreman bizi baina ez beti errazeko zenbait eremutan esku hartzeko beharra aztertzeko.

Azterlan eta/edo txostenen ugaritasun hori, jasotako kexen azterketa sakona eta foru administrazioaren erantzuna material baliotsu eta erabilgarria dira arazoaren benetako larritasuna zehaztasunez agertzeko. Eta, txostenaren amaierako ondorio batzuk azpimarratzearen, beharrezkoa iruditzen zait adimen-gaixoentzako laguntzan zer nolako ondoriotara iritsi den ondo jabetzea, hantemenka eginiko ahaleginak ahaztu gabe. Gaixoen baldintzek eta tratamenduen eraginkortasunak "atzera ez egitearen" benetako arriskua dago, ekimen politikorik izan gabe iragandako hamasei urte hauen ondorio gisa, nahiz eta eskumenei buruzko eztabaidak sutsuak eta agian interesgarriak izan diren (baina nahiko antzuak gaixoentzat eta familiar-tekoentzat, ezertan gauzaturiko emaitzarik ez baitute izan). Era berean, beharrezkoa iruditzen zait gogoeta egitea 1986an hasitako eredu asistentziala arriskuan jartzeari buruz eta, batez ere, familia-ingurunearen porrotari buruz eta gaixo horiengandik hurbilen dagoen gizartearen eta haien beharrianak asetzeko erantzukizuna duen administrazioaren arteko hausturari buruz. Izan ere, "osasan fisikoarekin alderatuta, adimen-osasunari dagokionez ehun urteko atzerapena daukagu, ikuspegi kliniko eta sozialetik begiratuta" dioen baitzapena egiantzeko bihurtu zaigu.

Egoera horren larritasuna agerian uzteko, esan beharrezkoa da gaixotasun neuropsikiatrikoak hirugarrenak direla garrantziaren ikuspegitik, gaixotasun infektioso, kardiobaskular eta minbiziaren aurretik; garaiz aurreko heriotza eta ezgaitasuna eragiten dituztela maiz; biztanleen % 25-35ek nahaste psikikoak jasaten dituztela bizitzako uneren batean, eta gaixoen % 22k soilik onartzen

dutela gaixo daudela. Atariko datu oinarriko batzuk dira horiek, txosten berezi honen edukia osatzen duten gai batzuen berri ematen dutenak; dena den, gaixo horientzako laguntzaren errealitatearen agerpen hutsa dira, bai eta foru administrazioak haien eskubiderik oinarrikoenen errespetuan eta defentsan duen erantzukizunarena.

Adimen-gaixoen laguntza antolatzeko sistema aldatu beharra dago. Laguntza hori adimen-osasuneko etxeetan zentralizaturiko erantzukizuna da, baina osasun-etxe horiek gainezka daude eskariarekin, zailtasunak dauzkate laguntza-ematearen lehenetsunak ezartzeko, mugak dauzkate kolektibo jakin batzuentzako programa zehatzak ezartzeko, eta joera agertzen dute eztabaida gutxien eragiten duten kasuak tratatzeko, jarduera-protokolorik ezagatik eta, kasu batzuetan, espezialisten inertzia bera tartean dela.

Baliabide soziosanitarioak eskuratzea eskubide bat da eta, halakotzat, erkidegoko gaixo guztiek berdintasunez eskura ditzaten zaindu behar da, zerbitzu horietako gehienak kokatzen diren hiriburuari, Iruñari, lehenetsunik eman gabe.

Gizartearen eta osasunaren alorren artean gertatu ohi den elkarregokitzerik ezaz gain, baliabide sozialak ere, erreforma psikiatrikoaren ondoriozko sistema berriaren oinarri direnak, falta dira. Mota horretako baliabide batzuk berriki sustatu izanak ezin du ezkutatu egiazko urritasuna, baliabide horien ezegokitasuna eta ekimen horiek entitate pribatuen bidez gauzatzeko joera. Horrela, tamalez, itxita gelditzen da osasun-zerbitzuak –guztientzakoak– eta gizarte-zerbitzuak –irizpideen araberrakoak– elkarrengandik urruntzen dituen zirkulua.

Herritarrek daukaten eskubidea da erreforma haren oinarri eta gidari, eta foru administrazioa erantzun politiko tinko eta kementsua ematera behartzen du, laguntza-sare osatua gauzatzeko, funtzionalki integratua, hizpide ditugun biztanleen bi beharrian-motak asetzeko, laguntza-emate horretan zeresana daukaten ente eta eragile guztien esku-hartzea bultzatzeko, erantzukizun publiko bermatzeko, prozesuaren maila guztiei erantzuna emateko (bai gaixotasunari bai haren ondorioei), zainketaren jarraitasuna bermatzeko, laguntza pertsonalizatu eta baliabidea beharriannei egokitzeko eta, azken batean, aurkako egoera ezabatzeko: alegia, beharrianak direla ezinbestean egokitzen zaizkienak dauden baliabideei; egiazko beharrianetatik, sistema publiko ororen antolaketa-egitura errentagarri eta eraginkorretik urrun dauden baliabide horiei.

Nafarroako Parlamentuari bidaltzeko egin den "Nafarroako adimen-osasunaren arloko laguntza"

izeneko txosten berezi honek etengabe behar izan du, eta lortu du, nahasmen psikiatrikoak dituzten gaixoei laguntzen sutsuki diharduten gizarte-ekimeneko entitate guztien laguntza eskergarria. Entitate horiek, kasu batzuetan, foru administrazioarekin lankidetzan dihardute, eta, beste batzuetan, nork bere ekimen hutsez. Haien jarduera-eremua ezaguna eta zaila da; hori dela-eta, areagotu egin behar izaten dituzte euren ahaleginak eta sentiberatasuna, eta haientzat egunerokoa den errealitatearen azterketan sakontzera beharturik egoten dira. Familiarteko, zaintzaile, gizarte-langile, hezitzaile eta espezialista guztiek euren laguntza eman dute arartekoak edo ikerketa-taldeak haien informazioa, eztabaidetan aritzea edo iritzi pertsonala eskatu izan dien bakoitzean. Haien presentzia jarraia da txosten guztian zehar, ez eskertza-aipamenetan, baizik eta txostenaren oinarria bera osatzen duten aldetik.

Txostena egiteko, Nafarroako Unibertsitate Publikoak kanpotik emandako laguntza ere jaso dugu. Izan ere, Luis Sarriés soziologiako katedradunak zuzendu du dauden dokumentu ugarietara erakunde horrek egin ziezaikeen ekarpenik egokien gisa behinola jo zena. Dokumentu horiek aberasgarri dira oro, baldin eta gure erkidegoan adimen-osasunerako ematen den laguntzan sakondu nahi bada. Horrela, NUPi eskatu zitzaion azterketa kualitatibo bat egin zezan, ikuspegi gaurkotua eskuratu ahal izan genezan bizipen kolektiboetara, familiek jasaten duten zama gehigarriari eta desinstituzionalizaziotik datozen edo berriak diren gaixo kronikoen zuzeneko iritziari buruz. Azterlan horrek bere barnean biltzen zuen egileen objektibotasuna, baina baita lan-mahaietan parte hartzen zutenen subjektibotasuna ere, askatasunez adierazia.

Ondorioei dagokien atala nahiko orokorra da, ezinbestean. Metodologikoki, nahiago izan da erakundearen oharrekin batera kanpoko datu eta informazio andana ematea; halatan, ondorioen laburpen horrek ikuspegi orokorra eskaintzen du gure erkidegoan adimen-osasunari ematen zaion laguntzak jasaten duen arazo orokorrari buruz; hau da, kasuistika gaitzen da, nahiz eta larria, sozialki gogorra eta batzuetan are tragikoa den familia batzuentzat.

Azkenik, Parlamentuari igorritako txosten bereziak bederatzi gomendio jasotzen ditu, arazoaren muina nire ustez den puntua oinarritzat hartzen dutenak. Gabeziak neurgarriak dira, beharrianak ere halakoak direlako, eta, horrez gain, haien jatorria datu hutsetik edo norbanakoak eginiko kexaren egoera emozionaletik haratagokoa da. Erreformaren porrota edo arrakasta balioestean, kontuan hartu behar dira 1986tik hartutako erabaki politiko

eta ekonomikoen segida eta Foru Komunitateko aurrekontuetan urtero aplikaturiko irizpideak, zeinak sortzen baitira, nagusiki, 1986tik aurrera herriarren adimen-osasunaren erantzukizuna izan duten jatorri politiko ezberdinetako Gobernuen sentsibilitatetik. Izan ere, informazioa arras da ezaguna, egiaztatua eta publikoki onartua, eta txosten berezi honetatik espero izatekoa da, bereziki, ez solidaritate-saio bat, baizik eta gaur egungo eta etorkizuneko administrazioei zuzenduriko erantzukizun-ohartarazpen bat, familiek bizitzen duten dramak eta eskueran dagoen laguntzaren egoera nahasiak agerian uzten dituzten premiei berehalakoan erantzun beharri buruzkoa.

#### NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN TXOSTENAREN ONDORIOAK

##### **Laguntza psikiatrikoak ez du arazo larri eta bereziak.**

Mahaietan jasotako iritziek ez dute adierazten sistemaren puntu kritiko batean gaudenik. Hala ere, badira arazo larriak: psikiatren saturazioa, merindade eta eskualdeetako osasun etxeetako espezialista kopuru txikia, gaixo eta familiei ematen zaien informazio oker eta urria.

##### **Laguntza psikiatrikoa ez da laguntza nahikoa adimen-gaixoarentzat.**

Saio terapeutiko osagarriak –gaixoa egonkortu eta lor dezan adimen-gaixoa dela onartzea, berreskura ditzan bere buruarengan izan beharrek konfiantza eta gizarte trebetasuna, gizarteratzeak ahalik eta kosturik txikiena izan dezan gizartearentzat– erabat urriak dira.

##### **Larrialdietako zentroetan ematen den osasun laguntza.**

Zenbait mahaitan, eskualdeetakoetan batez ere, kexa larriak adierazi dituzte gaixoak osasun etxeetako larrialdietara eraman dituztenean izaniko laguntzarengatik. Ez da gaixo hauetan espezializaturiko profesionalik izaten. “Guardiako psikiatra batek egon behar luke, gainerako medikuak bezala, pertsona horrek errazago baloratuko bailuke pertsonak zer egoera duen une horretan, eta ospitaleratu behar den edo ez erabakiko bailuke. Batek bihotzekoa izaten duenean ere, ez du epaileak etorri behar izaten bihotzekoa izan duen edo ez esateko; medikua heldu eta esaten du: ‘zu ospitalera berehala; osasun-etxetik pasatu gabe, ospitalera berehala. Profesional bat balute beti guardian, kasuan-kasuan erabakiko luke beharrezkoa den ala ez ospitaleratzea, eta une horretan behar duen medikazioa ere bai.

**Defizit larriak antzeman dira gaixo hauek krisi akutuak izan eta ospitaleratu beharra gertatzen denean.**

Puntu horretan, lehenbailehen egin behar da zerbait parte hartzen duten eragileen koordinazioa bilatze aldera (familia medikua, epailea, polizia-guardia zibila, ospitalea). Leundu egin behar da prozesu hori. Ospitaleratzeak behar bezala prestatutako eta gaitutako pertsonen bidez egin behar dira. Autonomoak ez diren gaixo akutuentzako egoitza egonkorren arazoa berehala konpondu beharra dago. Ez da gizalegezkoa gaixo horien arazoa familien gain uztea. Gauza bera esan daiteke egoitza-unitate berezietan buruz, ahalbidetzeko, horrela, gaixoaren leheneratzea larrialdietatik irtean.

**Tutoretzako edo erdi-tutoretzako pisuak prestatzea ere arazo larri gisa ageri da.**

Ez dago horrelako gizarte-etxebizitzaren eskaintzarik, eta etxebizitza horiek aukera ematen dute egoera egokiak sor daitezkeen gaixoa gizarteratzeko eta familiak gaixoaz arduratu beharrik ez izateko gaixoak ez duenean egon behar familiarekin edo hori komenigarria ez denean.

**Familia.**

Familia. Lehen arazo larri bat dago arlo honetan. Uneotan, zenbait familia gizarte-larrialdian dauden familiak dira. Zaintzaileak muga-mugako egoeran dauden familiak dira, dela ahituta eta estresak jota daudelako, dela adinagatik eta familian beste arazo batzuk izateagatik (Alzheimerra duen gaixoa, adibidez).

Erabat beharrezkoa dirudi zaintzaileentzako etxetik etxeko laguntza sortzea horiek arinaldiak har ditzaten etengabeko lanean, eta, horrela, denbora izan dezaten atseden hartzeko, irteteko, oporraldiarako. Zaintzaile askoren osasuna arriskuan dago. Zaintzaile gehiegi dira psikologo edo psikiatra batengana jo beharra izan dutela azpimarratu dutenak.

Benetako dramak ezagutu ditugu familietan, adimen-gaixoaz arduratzeko beharrak eraginda. Zenbait familietan arriskuan dago familiaren bata-suna, senar-emazteen arteko harremanaren egonkortasuna. "Hausten ari diren" familiak. Konponbideren bat bilatu beharra dago familia horiek salbatzeko.

**Gaixo asko, orain, familian daude, guraso oso adinekoekin edo izan nahi ez dituzten anaia-arrebekin; gaixo horien etorkizuna.**

Administrazioak ezin du gaixo horien zaintzaren ardura familien gain jarri, eta etorkizunean

konponbideren bat izan dezaten begiratu behar du; ezin du utzi gurasoak estuasun horrekin hil daitezkeen, hau da, haiek ez direnean zer gertatuko den ez dakitela. Arazo ekonomikoa oso larria da sarritan. Nolatan biziko da adimen-gaixo bat autonomiaz 45.000 pezetatik beherako errentekin? Zergatik hartu behar dute familiek gainkosturik beren bizkar?

**Gaixo hauentzat, lanak funtzio terapeutikoa du.**

Bada, mahai guztietan, parte-hartzaileek behin eta berriro esan dute gaixo hauentzako zentro bereziak sortu behar direla. "Ezer ez dago. Itxaron zerrendak amaiezinak dira." Gaixo hauentzako lan eskaintza bereziak sortzea, ikerketa egin duen taldearen ikuspuntutik, lehenbailehen konpondu beharreko puntu kritikoa da. Kontua ez da gaixoak edonon jartzea entretenituta egon daitezkeen. Abiapuntu gisa hartu behar dena da terapia bat dela, gaixoen osasun egoera hobetzeko edo ez okerragotzeko.

**Berrantolatu beharra dago, dirudienez, minusbalotasun psikikoa, fisikoa edo adimen-gaixotasuna dela-eta lana aurkitzeko arazoak dituzten herritarrei eskaintzen ari zaizkien baliabideak: eskaintzek izan behar dute bereziak eta talde bakoitzaren beharrei egokituak.**

Lana ez da entretenigarri huts bat besterik. Talde horientzat guztientzat funtzio asko betetzen ditu. Ezgaitasun nolabait ere bateraezinak dituzten pertsonak elkarrekin jarrita, ez dira nahi diren helburuak lortzen, eta, eskizofrenikoen kasuan, frustrazioak eta krisiak ere eragin ditzake.

**Adimen-gaixoa arbuia egiten da lan arloan.**

Talde horren kontratazioa sustatzeko politikak bultzatu beharko lirake, lanaldi murriztuarekin bada ere.

**Gure ustez, zaintzaileen prestakuntza ere beste puntu kritiko bat da; parte-hartzaileek asko eskatzen dute.**

Ospitale psikiatrikoa etxera eraman da. Baina familia ez da prestatu gaixo berezi hauek zaintzeko. Zaintzaileek etengabeko prestakuntza behar dute gaixotasuna ezagutzeko, gaixoak egoki tratatzeko eta beren sendatze psikikoan lagundu ahal izateko, krisi egoerak konpontzeko. Azkenik, zaintzaileak bere burua zaintzen ikasi behar du, eta jakin behar du familia nola babestu, ez dadin desegin.

### **Berehala adiskidetu beharra dute administrazioak eta familien eta adimen-gaixoen taldeak.**

Hasteko, ardurak gainetik kendu nahi dituzten familiei ez zaie errurik bota behar. Familiek gertu nahi dituzte gaixoak eta lagundu egin nahi diete ahal duten neurrian. Ez dira adimen-gaixoak "giltzapean sartzearen" aldekoak. Eta administrazioak ere ezin du aurrekontuen luzatzea aitzakiatzat hartu. Talde horrek uste du administrazioak ahaztu egin dituela, eta hala gertatu dela, batetik, elkar antolatzen asmatu ez dutenez ez dutelako behartu administrazioa konponbideak ematera, eta, bestetik, errentagarritasunik gabeko taldea delako hauteskundeei begira.

### **Administrazioak gaixo hauekiko duen ardurazuzena hartu behar du**

Zerbitzuen koordinazioa, osasun-laguntza hobetzea, gaixo hauen eta beren familien bizi kalitatea hobetzera bideratutako zerbitzu terapeutikoen sortzea, sortzea, orobat, egoitzak, tutoretzako pisuak eta erdi-tutoretzako pisuak.

## **TXOSTENEN OINARRIZKO IDEIAK**

### **ADIMEN OSASUNA**

- Adimen-gaixotasunaren definizioa ez da soilik anomalia baten agerpenaren baitakoa, edo prozesu biologiko baten baitakoa, baizik eta gizarte-taldearen beraren aurre-determinazioaren baitakoa, gizarte-talde horrek erabakitzen baitu taldeko zein kide dagoen gaixo.

- Ereduaren aplikazioa amaitu gabe egotearen ondorioek krisi-esparru berriak ireki dituzte, batez ere familiararen eta gizartearen arloan, eta horien indarrez beste berrazterketa bat egiteko joera dago.

- Familiararen protagonismoa eta administrazioen ardura ez-guztizkoaren ondorioz elkarrekin duten ordezkotza ardurak dira adimen-gaixotasunerako laguntza-esparruaren ezaugarriak.

- Adimen-osasuneko informazio-zerbitzuetan erregistraturiko biztanleak adimen-arazoak dituzten biztanleen egiazko kopuruaren % 25 besterik ez dira.

- Gaixo kronikoen gorakada nabarmena; horrek osasun eta gizarte zerbitzuen erabilera bikoitz handiagoa eta luzaroagokoa eragiten du.

- Gaixotasun kronikoa gizartean agertzen da, arazo mediko baina, arazo sozioekonomiko gisa.

- Esan beharrekoa da adimen-nahaste bakar bat, depresioa, ezgaitasunaren ondorioz doituriko

bizitza-urte gehiagorekin loturiko bigarren kausa gisa agertzen dela 2020rako eginiko estimazioan.

- Eskizofreniaren zuzeneko kostuak bederatzi aldiz handiagoak ziren miokardio-infartuarenak baino, eta hala ere, beste gaixotasun horrek baino inbertsio apalagoa jasotzen zuen.

- Ospitale-egoitzako zerbitzuak itxi dira ordezkotza erkidego-laguntzako sare bat guztiz ezarri aurretik.

- Ezinbestekoa da ahalegin tinkoa egitea lanezartzearen arloan, horretarako zailtasunak dauzkaten kolektibo batzuei zuzenduriko ekimenen bitartez (enplegu babestua eta lanerako trebakuntza).

- Osasunari buruzko Lege Orokorrak ezartzen zuen adimen-osasuneko zerbitzuen erkidego-izara; gaixoen haiez baliatzeko daukaten eskubidea, publikoa, unibertsala eta doakoa.

- Laguntza espezializatuak itxaron zerrendan gauzaturiko presioa jasaten du.

### **ADIMEN GAIXOA**

- Adimen-gaixoen bizi-itxaropen luzea dute, eta herritar-talde hau plan soziosanitarioaren helburu da.

- Gaixo psikogeriatrikoek gizarte laguntza behar dute, eta zerbitzu bereziak behar dira horientzat eta gainerako adimen-gaixontzat.

- Drogak hartzeagatik HIESa duten eta larri dauden gaixoen kopurua gero eta handiagoa da eta haientzako ez dago gizarte baliabiderik.

- Gaixoen % 76,3 bere jatorrizko familiarekin bizi da; % 21, aldiz, pentsio batean. Adinean aurrera egin ahala, gero eta gutxiago bizi dira familiarekin.

- % 18,47k ez du inolako dirusarrerarik eta % 50ek bost urte baino gehiago daramatzate lanik egin ezinik.

- Zaintzaileen % 34k 50.000 eta 100.000 pezetako arteko batez besteko dirusarrerak dituzte (300 eta 600 euro artekoak).

- Gaixoen erdiak bikotekidea izan du eta % 41,2k ez du inoiz bikotekiderik izan.

- Bereziki larriak diren kasuak: Berrogei urtetik gorako gaixoak, hirikoak, familia- eta gizarte-lotura eskasak dituztenak, Iruña aldean bizi direnak eta behar bezalako bizileku iraunkorrik ez daukatenak.

- Gaixo gehienak adimen osasun-etxeko kontsultara joaten dira, baina baliabide publikoetako mediku psikiatra da gutxien erabiltzen direnetako bat (% 15,8).



- 2001ean 34.957 pertsona joan ziren kontsultara adimen-nahaste larrien ondorioz. Drogamendekotasunagatik, berriz, 12.177.
- Gaixoen % 59k ez dituzte erabiltzen dauden gizarte baliabideak.
- Populazioaren ia erdiak begi-bistako ezgaitasun-maila dauka, larria edo oso larria.
- Familiartekoren batekin bizi diren gaixorik gehienek ezgaitasun arinenak izaten dituzte; bakarrik bizi diren pertsonen % 40,6k, ordea, ezgaitasun larriak edo oso larriak jasaten dituzte.
- Gaixo kroniko heldu eta gazteak “psikiatriko arazo handia” bihur daitezke, erreforma hasi eta gero sorturiko kroniko berriak.
- Nahaste psikiatrikoak dituzten gaixoei dituzten beharrianak, gero eta neurri handiagoan, gizartearen esparrukoak dira, orokorrak, eta, horrela, beharrezko suertatzen da gizarteak erantzuna ematea, gero eta handiagoa den talde baten bazterketa saihesteko.
- Boluntarismoak, adimen-gaixoei laguntza emateko erantzukizunari ihes egite gisa ulertuta, erreformaren eta bere helburuen arteko lokarria etetea dakar.
- Baliabideen koordinazioa eta jarraitasuna ez badira bermatzen, kudeaketa publikoko adimen-osasuneko sareen arazorik larrienetako bat gertatzen da.
- Beharrezkoa da “familia berrien” zereginari buruzko diagnostiko berria egitea, baita administrazioetako zerbitzuen eta gaixoaren gizarte-ingurunearen artean erantzukizunak banatzea ere.
- Nafarroan 5.500 familia baino gehiago bizi dira adimen-gaixotasuna duen senideren bati lotuak.
- Nahaste psikiatrikoak dituzten gaixoei dituzten beharrianak, gero eta neurri handiagoan, gizartearen esparrukoak dira, orokorrak, eta, horrela, beharrezko suertatzen da gizarteak erantzuna ematea, gero eta handiagoa den talde baten bazterketa saihesteko.
- Boluntarismoak, adimen-gaixoei laguntza emateko erantzukizunari ihes egite gisa ulertuta, erreformaren eta bere helburuen arteko lokarria etetea dakar.
- Baliabideen koordinazioa eta jarraitasuna ez badira bermatzen, kudeaketa publikoko adimen-osasuneko sareen arazorik larrienetako bat gertatzen da.
- Beharrezkoa da “familia berrien” zereginari buruzko diagnostiko berria egitea, baita administrazioetako zerbitzuen eta gaixoaren gizarte-ingurunearen artean erantzukizunak banatzea ere.
- Nafarroan 5.500 familia baino gehiago bizi dira adimen-gaixotasuna duen senideren bati lotuak.
- Zaintzaileak: emakumea, ezkondua, gaixoaren ama, etxeandrea, oinarrizko ikasketak dituen, batez beste 57 urtekoa; familiaren dirusarrerak, batez beste, 1.200 euro baino txikiagoak dira. Lau urte baino gehiago daramatza gaixoa zaintzen eta 30 ordu eskaintzen dizkio astean.
- Zaintzaileak pentsatzen du bere osasunak okerrera egin duela, antsietatea dauka eta lasaigarriak hartzen ditu.
- Gaixoen % 30ek soilik jasotzen du bere gaitasuna tratatzeko berariazko zerbitzuen laguntza.
- Plan soziosanitarioa: “Zaintzaileen laguntza-zereginak ez du izan merezi duen aitorpena, ez eta sare formalaren behar adinako laguntzarik; honekin saihestu eginen ziren gehiegizko zama fisiko eta psikikoko egoerak”.
- Familientzako laguntzak ezin du oinarritu hertsiki ekonomikoak diren arazoietan eta administrazioak aurrekontuetatik dirua eskuratu ahal izateko aukeran.
- Adimen-gaixoari buruz gizarte kontzientzia-terratzea lortzea, ez du garatu erantzukizuna duen administrazioak.
- Alderdi garrantzitsu bat da gaixoen batez besteko adin eta tipologiaren bilakaera, aurreko garaietako ez bestelakoa, baita gaixoei zaindagarritasun arduratzen direnak ere gehiago bizi direla gaur egun.
- Gaixo-talde batzuei dagokienez, soilik gobernu kanpoko erakundeen edo boluntario elkarten esku-hartzeak eragotzi du haiek gizarte-bazterketa are handiagoan behin betiko amiltzea.
- Administrazioak eta autolaguntza-taldeek elkarrekin topo egin dezakete langintza honetan, baina horrek ez du inola ere esan nahi administrazio publikoek adimen-gaixoei dagokienez gizarte-esparruan soil-soilik modu horretan jardun behar dutenik.
- Garatzeke gelditzen da oraindik administrazioak, eta ez beste inork, bere eta ez beste inoren erantzukizunean oinarriturik eskaini behar duen baliabide-multzoa.

- Gizarte-zerbitzuak administrazio publikoaren nahierara emandako prestaziotzat jotzen badira, atea irekitzen zaie dirua egotea eta/edo lehentasun politikoa bezalako irizpideei.

- Sakonki aztertzea da ea adimen-osasunaren arloko baliabide eta programen izaera osasunaren arlokoa, gizartearenkoa ala bietakoa (soziosanitarioa) ote den.

- Sistemaren krisia sortu zen osasunaren arloan behar adinako planifikaziorik ez egiteagatik eta arlo soziosanitariorako (gizarte-ongizatea) aurrekonturik ez izateagatik.

- Eredua bera ez dago krisian; haren aplikazioak eragiten ditu kexa horiek.

- Plan soziosanitarioa: "Oinarrizko laguntzaren eredia, "eskaeraren araberakoa" (sic), ez da egokiena arazo kronikoak dauzkaten pertsonen laguntzeko, zeren eta, haien kasuetan, beharriaz, zalantzarik gabe, eskariak gainditzen baitituzte"

- Gizarte Ekintzako Sistemako egoitza batzuetan, gaixoen egoerak pixkanaka okerrera egin ohi du, eta, horrekin batera, osasun-laguntza nabarmenki gehitu behar izaten da.

- Nafarroako erreforma psikiatrikoak argi ezarri zuten zer eskumen zituzten Osasun eta Gizarte Ongizate departamentuek, eta horien arteko koordinazioa nahiko handia izan zen hasieran.

- Utzikeriagatik kudeaketarako erantzukizun-eremu paraleloa, kontrolatu gabea, tratamenduekin koordinaturik gabea edo boluntarista hutsa eratzeak ekartzen du kaltetuen gainbeheran sakontzea.

- Beharrezko da legeak gizarte-zerbitzuei osasun-zerbitzuen izaera bera ematea; alegia, aurre-erapausoak eman daitezela unibertsaltzat jo daitezkeen.

- Inkoherentzia deigarria somatzen da plan soziosanitarioaren eta kexa horiei Osasun edo Gizarte Ongizate Departamentuek emandako erantzunaren edo aipaturiko planaren aplikazioaren beraren artean.

- Baliabiderik eza gainditzen da eskatuta emandako laguntzen bitartez, eta jokabide hori hirugarren adinekoentzako laguntzaren sistema gerentzian hobeto txertatuko litzateke adimen-gaixoei zor zaien sisteman baino.

- 2001eko adimen-osasunari buruzko planaren zirriborroak (egin gabea) azaltzen duenez, 1986ko

Adimen-osasunari buruzko planaren xedapenak osasunaren arloan bete dira, baina ez, ordea, gizartearen arloan.

- Behar bezala zehaztu gabe daude buruzagitzak, irizpide teknikoak eta kudeaketaren beharriaz.

- 2001eko adimen-osasunari buruzko planaren gaineko azterlanean etxez etxeko laguntza giltzarri-izaerako eremutat jotzen zen —plan soziosanitarioko proposamen zehazgabeengatik eta erabilitzailearen eta antolaketaren ikuspegitik daukaten garrantziagatik—.

- Adimen-osasuneko sareari egozten zaio gainzaka egotea, lehentasun-irizpiderik ez izatea eta zainketen jarraitasuna fisikoki ere eten izana: itxaron zerrendak daude ospitaleratze psikiatrikoko unitateen eta adimen-osasuneko etxeen artean iragateko, eta patologiararen arabera zirkuitu bikoitza izatearen zantzuak daude.

#### ADIMEN-GAIXOTASUNAREN ESTIGMA

Gaixotasunaren gaineko estigma soziala eta estigma hori jasaten duten pertsonak eta haien familiartekoak dira adimen-osasunaren arloan arartekoaren eta gaixoen familiartekoen kezka nagusiak (5).

- Gaixotasunaren irudiak eta ulertu den moduak eraginda gaixoak bakartzuz joan dira gizartean.

- "Ekoizpenik gabeko" gaixoaren irudi soziala zaila da gainditzen.

- Administrazioaren zeregina bi ikuspegietatik da garrantzitsua: batetik, jarduteagatik, eta, bestetik, ekimenik ez izateagatik.

Benetako arazoa izanen da zehaztea nork sortuko dituen adimen-gaixo kronikoen ezaugarri bereziak kontuan izanen dituzten lan-ekimenak?

#### GOMENDIOAK

##### **1. Adimen-gaixoen laguntzarako eredu berriaren beharra.**

Gaixotasunarentzako laguntza medikoaren eskema berreskuratzea behar da, hau da, 1986an hasitako erreforma psikiatrikoan abiapuntua izan zuena, eta gaixoak bere erkidegoaren ingurunean txertatua egon behar du; horiek jotzen dira garrantzirik handieneko faktoretzat. Ereduek indarrean jarraitzen du eta ez da horren egokitasunik eza bereziki erkidego-zerbitzuek duten krisiaren arra-

(5) *Ikus Espainiako arartekoak Koordinatzeko XVII. Jardunaldiak. Albacete/Toledo, 2003*

zoia; horri buruzko uste osoa izan behar da, eta horrek bultzatu behar du administrazioaren ardurazte berri bat, eta aprobetxatu beharra dago, halaber, adimen-gaixoen inguruan familiarteko eta taldeen sentsibilizazioa eta horien laguntzeko borondatea, lehenbailehen egiteko orain arte egin ez diren ahaleginak, eta berreskuratzeko gaixo talde horren laguntzaren arloan galdutako urteak.

## **2. Eremu soziosanitarioa garatuko duen adimen-osasuneko zerbitzu integratuen sare bat eratzea.**

Administrazio publiko moderno baten ezaugarrietako bat da tramiteak errazak izatea eta, herritarren aurrean, kudeaketaren erantzukizuna argia izatea. Herritarrek eguneroko bizitza zailtzen dieten gaixotasun fisiko edo psikikoak dituztenean, ahalegin hori betebeharrak bihurtzen da, baita osasun-laguntza horrek, tratamendua konplexua delako, administrazioaren angelu ezberdinetatik jardutea eskatzen duenean ere. Baina herritarrek, are gutxiago nahaste psikiatrikoak dituztenek, pairatu beharra dute, administrazioarekin dituzten harremanetan, parte hartzen duten arloko koordinazio, eskumenen eta erantzukizunen argitasuna lortzeko administrazioak dituen zailtasunak.

Adimen-gaixoen behar dituzten zerbitzuen dibertsifikazioak –egunegun handiagoa, nahaste motak eta horien jatorriak bilakaera gero eta konplexuagoa baitute– eta Foru Komunitatean indarrean dagoen sistemaren hutsuneak –osasun zailtasunengatik baino gehiago, jarduketa-programen garapenean izaten den erantzukizun-gune eta –irizpideen ezberdintzeagatik gertatzen diren jarduketa-eremu argi eta uniboko bat definitzea eskatzen dute; ezaugarri hauek izan beharko ditu: eragile bakoitzaren eraginkortasun handiagoa, laguntza horretan parte hartzen dutenen profesionalizazioa eta Nafarroan gaur egun adimen-gaixoei laguntza emateko sistemaren hutsune ugari aurre egiteko finantza-ahalmen nahikoa. Sare integral bat behar da eta, horren bidez, Laguntza soziosanitarioari buruzko foru plana modu kritikoa berrikusi eta planaren alderdi positiboak garatu; izan ere, onetsi zenean zenbait itxaropen piztu bazituen ere, plana ez da garatu, irizpide ekonomikoengatik bereziki.

## **3. Adimen-osasunari buruzko plan integrala egitea**

Gizarte-aldaketek –adimen-gaixoen tipologiari eragiten diote eta gaixoen familian izateari ere bai– administrazioaren jarduketa orokor bat eskatzen dute; administrazioak, eskura dagoen informazio guztia ikusita, ahalik eta modurik onenean eta

arau-markorik egonkorrean, hurrengoak egin behar lituzke:

- Zehaztu, adimen-gaixoentzako laguntzaren arloan, ardura publikoen markoa eta ekimen pribatuaren parte hartzea –partikularra edo elkarte bidezkoa–.

- Zehaztu osasun-zerbitzuek eta gizarte-zerbitzuek egin beharreko jarduketak, eta zehatz ezarri eginkizunak eta zer organok hartu behar dituzten erabakiak adimen-gaixo bakoitzaren behar indibidualentzako baliabideen egokitasunari buruz, kontuan hartuz horretarako gaixoaren osasun egoera orokorra, egoera sozioekonomikoa eta familia ingurua.

- Aurreikusi zein izanen den Foru Komunitatean adimen-gaixoen kopuruaren bilakaera, oinarri hartuta zer joera izan dituen gaixotasunak azken hamar urte hauetan; erreforma psikiatrikoari buruzko planen berrikuspen orokor gisa ulertuta hori eta plan horiek errealitate aldakorrera egokitzearren.

- Koadro ekonomiko bat prestatu –urte anitzeko plana– administrazioaren esku-hartzeari begira, hurrengo urteetan egiten diren esku-hartzeak irizpide homogeneoen arabera egin daitezkeen; Nafarroak atzerapena du erkidego-zerbitzuetan eta horrek arreta berezia merezi du.

- Jarduketei buruzko plangintza: zer zerbitzu mota eman behar diren eta, beraz, horietako zein abiarazi behar diren, modu planifikatuan eta lehen aipatu diren egoera posibleetara egokituak.

Adimen-gaixoen arloko laguntza oso modu ezberdinetan egiten da autonomia erkidegoetan; orokorrean, erkidegoak bakarka ibiltzen dira, nahiz eta batzuek elkarren arteko kudeaketa-moduluak ezarri dituzten –parte-hartze publikoarekin eta ekimen pribatu eta/edo elkarte bidezkoaren laguntzarekin–. Aplikatu diren formula guztiek hutsuneak badituzte ere, zerbitzu batzuk elkarren artean kudeatuz gero nabarmen agertzen da herritarrek gusturago daudela, laguntza-markoa koherentea dela eta segurtasuna ematen diela hala gaixoari nola zaintzaileei eta laguntza hori ematen duten profesionali.

Kudeaketa sistema horiek guztiek koordinazio mekanismoak ezartzen dituzte –Laguntza soziosanitarioari buruzko foru planak ere aurreikusten ditu– administrazioan barrena eginiko “txangoa” desagerrarazteko edo ager dadin galarazteko; txango hori, izan ere, irizpide faltaren edo zerbitzuen arteko koordinaziorik ezaren ondorio da. Azken batean, arazo gehiago adimen-gaixoentzat eta horien zaintzaileentzat. Koordinazio sistema

horrek gaixoei norabide bakarrek laguntza emateko mekanismoak jartzeko aukera ematen du, eta, horrela, herritarren eta administrazioaren arteko harremana errazagoa bihurtzen da eta gutxitu egiten dira frustrazioa eta tirabirak sorrarazten dituzten egoerak.

Adimen-gaixoei buruzko laguntzaren edozein zehazte edo berrikuspenek lehenatasuna eman behar dio –osasan arloko iritzien ondotik– familiari eta familiak adimen-gaixoari laguntza ematean duen zereginari, gaixotasunarekiko harreman berri baten barrenean; protagonismoa, erreforma psikiatrikoa egin zenetik, familia pasatu da, eta hori sakon berrikusi beharra dago, aldaketa sozioekonomiko sakonak gertatu baitira –adin arazoak kezkarriak dira– eta, ondorioz, administrazioak laguntza-eredu berri bat eskaini behar die familiei eta/edo laguntzaileei, garrantzitsua baita uztartzea zaintzaileen lana eta gaixoen beharrezan. Erreformen aurreikuspenen eta familiek duten gizarte-errealitate berriaren arteko tirabirak garrantzi erabatekoa du, ez soilik familien egonkortasunaren ikuspegitik; baita, bereziki, haiekin bizi den gaixoren hobetzerako ekarpenaren ikuspegitik.

Administrazioaren egitekoek, horrela, ez dute errealitateari buruzko azterlan gehiagoren beharrik; lehenbailehen abian jarri behar da jarduketa soziosanitarioari buruzko plan bat, erkidego-sareari laguntzeko programa bat, salatutako bi hutsune nagusiak betetzeko: informazio falta –osasan arloko profesionalen denbora eta baliabide gabeziak eragina– eta etxeko etxeko laguntza profesionalizatuaren beharra –eta ez laguntza boluntaristak edo etxekoek emanak–.

**4. Adimen-gaixoaren eskubideen gutun bat prestatzea eta haietaz arduratuko diren zerbitzuena ere bai, hots, zerbitzuen gutun bat, erreforma psikiatrikoaren aplikazio gisa eta kontuan harturik herritarrek eskubidea dutela gizarte-zerbitzuak eta erkidego-laguntza izateko, arlo psikiatrikoko zerbitzuen zabaltze modura hain zuzen.**

Erreforma psikiatrikoaren ezaugarriek berekin dakarte gaixoen instituzionalizazio sistema zaharrean batera ematen ziren zerbitzuen jarraipena –aurreko sistema “eroetxeak” desagertu zirenean hautsi zen–. Eskubide batzuen eta besteen arteko haria berreskuratzen bada, eskubide horiek paretzea lortu arte –adimen-gaixoen osasan-arloko eta gizartearen arloko eskubideak–, herritarren eskubide hori indartu egingen da eta muga bat ezarriko du, eskubidearena, irizpide ekonomikoaren aurrean.

Lehenbailehen zehaztu beharra dago zer eskubide dituzten adimen-gaixoei eta zer laguntza jaso behar duten adimen-gaixotasunaren tipologiaren arabera edo duten egoera eta bilakaera indibidualaren arabera; horrela, behin betikoz itxiko litzateke 1986ko adimen-osasunari buruzko plana onetsi zenetik dagoen hutsune kontzeptuala; izan ere, plan hori behar bezala ez da aplikatu eta zuzenak ez diren erabakien jatorri izan da –gaixoen beren eta horien familiarrek ikuspegitik–, bai eta, jarduketa irizpideei dagokienez, gorabehera administrazio eta ekonomikoaren sorburu ere.

Alderdi bi horiek –gaixoen eskubide eta betebeharrak eta administrazioaren ardura diren bitarteko eta betebeharrak– gutun bana behar dituzte oinarri; gutun horiek segurtasuna ekarriko diete gaixoei, are segurtasun juridikoa ere, eta horiek abiapuntu hartuta, osasan-arloak egokitze prozesua eta hobetze profesionalaren prozesua antolatu ahalko ditu, eta argi neurtu zein diren beharrak, arduraz zehaztutako eta erabakitako eskumen-markoan betiere.

**5. Laneratzearen indartzea eta hori aplikatzeko araudiaren bultzatzea**

Adimen-gaixoei lan arloan txertatzeko dituzten benetako arazoek ezin digute ahaztuz laneratze hori garrantzitsua dela, ez soilik osasan-arrazoiengatik, baita arrazoi sozioekonomikoengatik ere. Administrazioak bestelako giza talde batzuentzat, zuzenean edo dirulaguntzen bidez, bultzatu izan ditu ekimenak programa okupazionalak aurrera eramateko, eta beste autonomia erkidego batzuek egindakoek ere erakusten dute lor daitezkeela gaixoen okupazio-maila hobea eta horien lan-errealizazioa. Edonola ere, garrantzitsua da gogoratzea administrazioak bete eta bultzatu beharra duela ezgaituen taldeentzako lanpostuen sorrerari buruzko legedia, hala estatukoa nola Nafarroakoa, edo formula alternatiboak bilatu behar dituela, zuzenean edo zeharka okupazio-guneak sortu eta horrela nahaste psikiatrikoak dituzten pertsonak gizarteratzeko eta horien osasan egoera hobetzeko.

**6. Nafarroan adimen-gaixoen laguntzaren arloan lanean ari diren erakunde guztiekin jarduketa-markoak ezartzea.**

“Sare natural” edo “gizalegezko sarea” edo “herritarren sarea” deitu daitekeenari dagokienez, adimen-gaixoei eta horien zaintzaileei laguntzen dien gizarte-ekimeneko erakundearen zereginak antolatzeke, administrazioak jarduketa-programa bat prestatu beharra dauka. Administrazioaren ardura, laguntzari osoki begiratuta, argia, egonkorrak eta erabakigarria izatera heltzen bada ere,

etorkizunera begira alderdi garrantzitsuetako bat izanen da laguntza-erakunde/elkarteen zeregina, edo gaixoen eta familiartekoen elkartegintza. Administrazioak adimen-gaixoen aurrean duen zeregina aldeztu aurretik eta lehenbailehen zehaztea ez da oztopo, alderantziz, lankidetzak eskatzen du laguntza-talde antolatu horiekin eta/edo gaixoarekin. Bete nahi duten espazioa ia zehaztu gabe dago, giza talde sakabanatua baita eta, gaixotasun horren inguruan sortzen den presioak eraginda, gaixotasuna bera erraz onartzen ez duen taldea. Baina, administrazioak azken arlo horretan egin beharreko jarduketak gorabehera, erakunde horiekiko lankidetzak-marko bat bultzatu beharra dago, erakundeek dituzten kideen parte hartzea bultzatzeko eta kide berriak erakartzeko, gaixoak zentroetatik kanpora ateratzeko erabakiak sustatzeko eta, erkidego-ekintzak oinarri hartuta, familiako tirabirak gutxitzeko etxeko laguntzak ezarri.

Marko horrek, administrazioaren eta gizarte-entitateen artean sortutako beste edozeinek bezala, eskatzen du zehaztea nolakoa izan den gauzatu nahi den eskumen-esparrua, zein izan daitezkeen administrazioak laguntza ekonomikoan bidez bultzatu ditzakeen ekimenak eta, bereziki, ekimen horiek zer helburu izanen duten. Argia da administrazioak arduratu beharra duela nahaste psikiatrikoak dituzten pertsonen behar orokorrez, eta, hori bezala, erakunde horien jarduketak oso zehatza izan behar du administrazioak ez ditzan albo batera utzi aipatu diren eginbeharrak eta erakundeek ez ditzaten hartu ez dagozkien guneak. Ardura baten eta bestearen artean ekimen-aukera zabala dago, eta zabala da, halaber, arlo honetan agertzen diren antolatze moduak, eta denek izan behar dute beren esparrua; jende kopuruaren aldetik oso garrantzitsuak ez badira ere, ez dago horien gizarte-lana kide-kopuruaren arabera neurterik, baizik eta egiten dituzten lanen eta helburu duten taldearen ezaugarrien arabera.

Horrenbestez, harreman- eta jarduketa-markoa ezarri ondoren, administrazioak, erakunde eta elkarte horien eskutan jartzen diren baliabide ekonomikoaren kudeaketaren arduradun den neurrian, behatze-lana egin beharra dauka eta erantzun beharra baliabide horien erabilera ona dela eta, horretarako, behar izanez gero, neurketa, kontrol eta ikuskapen sistema egokiak erabiliz.

### **7. Prebentzioa eta adimen-osasunaren sustapena**

Laguntza soziosanitarioari buruzko foru planak administrazioaren ahalegin handiagoa aurreikusten du; hauetan, hain zuzen: batetik, adimen-gaixo kronikoentzako behar diren baliabideak garatzen, horrela gaixotasunaren larritasunean eragina

duten faktoreak gutxitzeko, eta, bestetik, adimen-gaixotasunaz gizarte gehiago jabetu eta gaixotasuna onartzera zuzendutako programak garatzen.

“Estigmatzat” jotzearena, bidezkoa ez izateaz gain, ez da sozialki onargarria, gizarte onartzen joan baita, gutxika baina etengabe, gizarte-onarpenerako antzeko zailtasunak zituzten beste mota bateko gaixo batzuk. Administrazioaren eta adimen-gaixoen inguruko gizarte-eragileen bultzadak marko berri bat eratu behar du, foru administrazio-ko arduradunek garatu gabea orain arte, gizarte-komunikazioko eta gaixotasunaz jabetzeko programak prestatuz; prestalan horiek, kanpoko laguntza izan badezakete ere, administrazioak zuzendu behar ditu, ez ekonomikoki soilik, baizik eta eredu-garri gertatuko den parte-hartze eta konpromisoz.

### **8. Adimen-nahasteak dituzten pertsonak beren borondatearen aurka zentroetan sartzea**

Krisi akutua izan eta gaixoak beren borondatearen aurka ospitaleratzea egoera bereziki larria da, hala gaixoarentzat nola ospitaleratze hortaz arduratzen diren familiartekoentzat.

Alderdi emozionalek garrantzi handia dute tirabira egoera horretan, eta, beraz, oso zaila da horiek saihestea. Halere, beharrezkoa da jarduketa irizpide batzuk ezartzea, esku hartzen duten eragile profesionaltasunean oinarriturik, familiei laguntza emateko ospitaleratze prozesuan, beharrezkoa den erreferentzia ezarri –nori deitu– familiak ez dezala bere gain har gaixoaren ospitaleratzea nork eta noiz egin behar duen erabaki beharra. Kasu horietan, eragilearen prestakuntza egokia eta koordinazio zorrotza ahalbidetuko duen jarduketa protokolo bat prestatzea da biderik onena familiek jasaten duten zama emozional hori arintzeko eta eri dagoen herritarren eskubideak ahalik eta berme handienekin defendatzeko.

### **9. Nahaste psikiatrikoak dituzten pertsonen bermeak, gaitasungabetzeko prozedura judizialetan.**

Ezgaitzen duen prozedura judiziala nahaste psikiatrikoak dituzten pertsonen eskubideen bermea da. Ikuspuntu horretatik, gaitasungabetze prozesuak azkartu behar dira, eta horretarako beharrezkoa izan daiteke epaitegiek giza eta gauza baliabide espezializatuak izatea, adimen gaixotasuna duten pertsonen babes juridikoa hobeki bermatze aldera.

Era berean, kontuan hartu beharra dago arau prozesalako eta zigor kodea aplikatzerakoan, adimen gaixotasuna duten pertsonak eskubideen titularrak direla eta beraz, gaitasungabetzeak eragina

izan behar duela lortu nahi den babeserako behar-beharrezkoak direneta soilik.

### 3. TXOSTENAREN AURKEZPEN PUBLIKOA

#### **Nafarroako Parlamentuko Foru Araubide Batzordean**

Nafarroako arartekoak martxoaren 24an aurkeztu zuen Nafarroako adimen-osasunaren arloko laguntzari buruzko txosten berezia. Txostenari dagokionez, bereziki nabarmendu nahi izan zen Nafarroako adimen-gaixoen eta haiek zaintzen dituzten familiartekoek gaur egun bizi duten egoera ez dela 1986ko erreforma abiarazi zenetik Nafarroan izan diren gobernu guztien erantzukizuna. Aldiz, paradoxikoa bada ere, Nafarroa autonomia erkidego aitzindarietako bat izan zen aipatu erreformari dagokionez; hala ere, erreformaren aplikazioa alderdi klinikoetan ez da inolaz ere bat etorri erkidego-laguntzaren arloan aurreikusitako konpromisoen garapenarekin, eta hauek, hain zuzen, gobernu desberdinetako Gizarte Ongizatearen arduradunengan utzi izan dira. Eta planifikatutakoa ez betetzeak, beste autonomia erkidegoetan bezala, akats larriak ekarri dizkio sistemari; hain zuzen, osasun alderdiei dagokienez etengabe berrantolatzen ari den sistema, eta gaixoen zaintzeko zerbitzu soziokomunitarioei dagokienez, berriz, etengabe atzerakada jasaten duena.

Nafarroako arartekoak txosten bereziaren edukia luze eta zabal azaldu eta bertan jasotako ondorioak nabarmendu zituen. Halaber, azpimarratu zuen premiazkoa zela 2003ko maiatzaren 15erako aurreikusitako hauteskunde autonomikoei aterako zen administrazioak adimen-gaixoen laguntzaren benetako erreformari ekitea, baita behar den bezalako programa soziosanitarioa eta 2004ko aurrekontuko aurreikuspena –Gobernu berriaren lehena izanen baitzen– garatzea ere.

ESPAINIAKO ARARTEKOAK KOORDINATZEKO XVIII. JARDUNALDIK

**Ponentzia: Adimen Osasuna: zuzenbidearen ahanztura. Ahantzien eskubidea,” Nafarroako arartekoak aurkeztua.**

2003an Toledon eta Albaceten egin ziren Espainiako arartekoak koordinatzeko urteroko jardunaldietan, administrazio publikoek adimen-gaixoei ematen dieten laguntza izan zen eztabaidagai nagusia. Erakunde guztiek gai horri buruzko txostenak aurkeztu zituzten eta Herritarren Eskubideen II. Foroak ere –foro hori Iruñean egin ziren aurreko jardunaldietan sustatu zen– aztergai berbera izan zuen eta bertan José Gimón psikiatra eta katedradunak hitzaldi bat eman zuen.

Nafarroako arartekoak “Adimen-osasuna: zuzenbidearen ahanztura. Ahantzien eskubidea” txostena aurkeztu zuen. Bere agerraldian ondokoek ere parte hartu zuten, grabazio baten bitartez: Txirotasunaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Nafarroako Sarearen ordezkari bat; adimen-gaixo baten familiarteko Kepa García jauna,; eta Anasaps elkartearen lehendakari Isabel Arboniés andrea. Txostenak bi atal handi zituen: Alde batetik, adimen-osasunak Nafarroan duen egoerari eta gaixoen eskubide soziosanitarioen eskubideekiko administrazioek dituzten ardurei buruzko aurkezpen orokorra, eta, bestetik, arartekoek estigma desagertarazteko gara ditzaketen jarduketa-ildoen ikuspegia. Izan ere, estigma horrek adimen-gaixoen eskubideen urraketa ekartzen du, bi arrazoiengatik: batetik, laguntza falta, gaixotasuna dela eta; bestetik, gizartearen erreakzioa gaixotasunaren aurrean.

Lehen atalari dagokionez –Nafarroako adimen-gaixoen egoera–txostenaren ideia nagusiak ondo idatz-zatietan laburbil daitezke:

“Adimen-gaixotasunen bat duten pertsonen buruzko azterlan ugari egin dira Nafarroako Foru Komunitatean. Adimen-osasunak Nafarroan duen errealitatearen “erradiografia” etengabe aztertu da, eta gure 2002/2003ko txosten bereziak balio berezirik badu, hori da informazio hori guztia biltzea eta antolatzea, helburu praktiko batekin: hainbeste urteren ondoren, egoera ezagutzea; ahanzturaren benetako dimentsioa ezagutzea eta informazio andana hori arakatzea 1986ko erreforma psikiatrikoak proposatutako esku-hartzeen katea non hautsi zen ikusteko.

Ez dakit zein unetan hautsi zen lokarria, hain zuzen, Nafarroan aitzindaria izan behar zuen adimen-osasunaren erreformaren hasiera ilusionagarriaren eta bere helburuen arteko lokarria. Ez dakit zein unetan ezarri ziren erreformak eta haren jarraibideak kontuan hartutakoez bestelako irizpideak, gaur egungo egoerara iritsi arte. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren txosten berezia segida historikoan sakontzen saiatu da, hainbat txostenen bitartez; horietatik gehienak osasun foru administrazioak egindakoak dira; hain zuzen, ez betetzeaz eta gaitasun ezaz betetako ibilbidea egin duen administrazioa.

Ez dakit –esan dudana moduan– zein unetan erreformak erreforma izateari utzi zion eta gaur egun adimen-gaixotasunari aurre egiteko laguntzaren egoeraren gaineko kezka dugunok arduratzen gaituen zulo bihurtu zen. Hala ere, denon onurarako beharrezkoa da ahaleginak egitea eta guneak eraikitzea, herritar horien –Nafarroan bost mila baino gehiago– eta haien familien (17.000

pertsona baino gehiago ukituta) eskubideen alde egiteko eta, horrekin bat etorritik, bete ez zen erreformaren ondorioak aldatuko dituzten erreformak premiaz abiarazteko. Txirotasunaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Nafarroako Sarearen ordezkariak esan zuen moduan, badira herritarrak Nafarroan –zaila da zenbat diren jakitea–, ez erreforma hura, ez eskubide horiek ezagutzen ez dituztenak. Lehena ez zitzaien iritsi eta bigarrenak inork ez ditu ahanzturatik berreskuratu. Izugarrikeria baten ordezkari ospitale psikiatrikoa– beste bat jasaten dute –gizarte bazterkeria–. Gordelekutik estigma sozialera pasatu dira (...)

Badago. Agerikoa da gaixoak ospitale psikiatrikoetan uzten zireneko sistema asistentzial gizalagearen aurkako batera itzultzeko mehatxua, gaixo horiei laguntzeko zeregina daukaten pertsonen nekearen nekez. Eta gero eta handiagoa da arriskua, herritar-talde jakin batzuk gizartearen sotoan, bazterkeriaren karkaban, bizitzekoa, non zuzenbideak ez duen lekurik, ezta bere oroimenak ere; non esklabutza ekonomiko eta mendekotasun psikologiko larriak sortzen diren, deuseztatu nahi zen internamendu psikiatrikoan sortzen zirenen antzekoak.

Eskubide ahaztuez ari garen honetan, adimen-osasunari buruzko txosteneko idatz-zati bat ekarri nahiko nuke gogora: “Kopuruei buruzko datuek ez dute aldaketa nabarmenik izan, kontuan hartzen ez bada osasun etxeetan tratatzen diren gaixoen etengabeko gorakada. Nolakotasunari buruzko datuak berberak dira, nahiz eta iragandako denborak larriagotu egiten dituen. Osasun arloan 1986an eginiko erreformak aurreikusitako laguntza-egitura ez da aldatu. Haren aplikazioan izandako gabeziak iritzi negatiboa sortu dute ondorioak pairatzen dituen gizartearen baitan. Eskumen-esparruak ez du inolako aldaketarik izan, eta erreformaren oinarri ez-klinikoak –erkidego-baliabideen horniketarak, alegia– ez du oraindik ere behar adinako konpromiso politikorik lortu foru administrazioaren aldetik. Erreforma psikiatrikoak familiari esleituriko zereginak bere horretan dirau. Alabaina, gizartearen bilakaerak aldatu egin du familiak bere gain zamak hartzeko duen gaitasuna, eta gainerako gabeziak aurreikusi gabeko protagonista bihurtu dituzte familia horiek gaixoaren laguntzan; areago, esan liteke ia protagonista bakar bihurtu dituztela. Ikuspegi sozialetik, eritasunaren bilakaera orain dela hamasei urte aurreikusitako ildoari jarraitu zaio –konplexutasun handiagoa, gaixo kronikoei osaturiko gizatalde berria, patologia berriak, baldintza-pen sozioekonomiko berriak...–. Hala eta guztiz ere, bilakaera horri aurre egiteko ez da plangintza egin”.

Hau da, administrazioen eta gobernuen, XXI. mendeko administrazio eraginkor baten jarduketa esparru osoa kasu batzuetan administrazioarekin berarekin lotura estua duten hainbat gizarte edo enpresa-talderen komenigarritasun ekonomikoaren edo politikoaren mende dago. Adimen-osasun arazoak dituzten herritarren eskubideak edota haien familiartekoen beharizanak ez dira ildo gisa hartzen, bai ordea aprobetxamendu ekonomikoari begira hitzartutako ekimena, estali gabeko gizarte eta osasun-zuzenbidearen beharra kontuan hartu gabe. (...)

Baliabide soziosanitarioak eskuratzea eskubide bat da eta, halakotzat, erkidegoko gaixo guztiek berdintasunez eskura ditzaten zaindu behar da, edozein izanda ere haien bizilekua. Mota horretako baliabide batzuk berriki sustatu izanak ezin du ezkutatu egiazko urritasuna, baliabide horien eze-gokitasuna eta ekimen horiek entitate pribatuen bidez gauzatzeko joera. Horrela, tamalez, irekita gelditzen da osasun-zerbitzuak –eskubide guztientzakoak– eta gizarte-zerbitzuak –irizpideen araberrakoak– koordinatu eta hurbildu beharko litzuzkeen zirkulua. (...)

Garrantzitsua da, ez bakarrik gaixotasunaren-tzako laguntza medikoaren eskema berreskuratzea, hau da, 1986an hasitako erreforma psikiatrikoan abiapuntua izan zuena, eta gaixoak bere erkidegoaren ingurunean txertatzea. Hori bakarrik esatea da konbentzimenduz agertzea, ereduak indarrean jarraitzen duela eta horren egokitasunik eza bereziki erkidego-zerbitzuek duten krisiaren arrazoia ez dela. Benetako krisiaren arrazoia da administrazioari bestelako ardura garatzeko eskatzen zaiola, herritarrek osasunerako duten eskubidea gobernuen lehentasun ekonomikoaren aurretik jartzea alegia; gobernuei eskatzen zaiela gaixoen inguruan jarduten duten familiartekoen eta kolektiboaren sentsibilizazioa eta borondate ona baliatzea galduko urteak ahalik eta azkarren berreskuratzeke, ez ordea ordezkari behin-behineko sistema bat sortzeko, non gaixoaren zainketa berraren esku uzten den eta administrazioak herritarren eskubide horiekiko duen benetako ardura hartzen ez duen.

Zuzenbidearekiko ardura hori oinarritzat hartuta, adimen-osasunean integratutako zerbitzuen sare bat osatzeko premia dago, eremu soziosanitarioa garatuko duena. Hori izanen litzateke erreforma psikiatrikoan aurreikusitako marko osagarria, eta aldi berean, XXI. mendeko administrazioei eska dakiekeen jarduketa-ariketa eraginkorra. Baina herritarrek, are gutxiago nahaste psikiatrikoak dituztenek, ez dituzte pairatu behar, administrazioarekin dituzten harremanetan, parte hartzen

duten arloen koordinazio, eskumenen eta erantzukizunen argitasuna lortzeko administrazioak dituen zailtasunak.

Eta zuzenbidearekiko ardura horrek jarduketaremu argi eta uniboko bat definitzea eskatzen du; ezaugarri hauek izan beharko dituena: eragile bakoitzaren eraginkortasun handiagoa, laguntza horretan parte hartzen dutenen profesionalizatzea eta finantza-ahalmen nahikoa; protagonismoa, erreforma psikiatrikoa egin zenetik, familiara pasada, eta hori sakon berrikusi beharra dago, aldaketa sozioekonomiko sakonak gertatu baitira –adin arazoak kezkarriak dira– eta, ondorioz, administrazioak laguntza-eredu berri bat eskaini behar die familiei. Are gehiago, esango nuke familiek nahi gabe hartu duten protagonismoak, gainera, pertsonen eskubide asko urratzen dituen sistema ekarri duela –bereziki gaixoak zaintzeaz arduratzen diren emakumeenak–, administrazioaren pasibotasunak gaixo dagoen familiartekoa zaintzera behartzen baititu.

Agerraldiaren bigarren zatiari dagokionez –“Arartekoak adimen-gaixotasunaren aurrean”–, Nafarroako arartekoak adierazi zuen “adimen-gaixotasunaren aurrean jada dagoen gizarte-kontzientzia aprobetxatzeak, ekintza eremu berri bat garatzeko aukera ematen digu, herritarrek adimen-osasunari buruz duten kontzeptu soziala deuseztatzeko helburuarekin. Estigma deuseztatzea. Gizartean zabalduetako ikuspegi horren arabera, adimen-gaixotasuna sendaezina da eta, horrenbestez, gaixoen eskubideen defentsak ez du lehentasunik. Ikuspegi horrek gero eta gehiago itozten ditu adimen-gaixotasunen bat duten pertsonen eskubideak eta bi gezurretan oinarritutako errealitatea sortzen du: Gaixotasuna senda daiteke. Eskubideek lehentasuna dute. (...)

“Gizarte eginkizuna galtzea, familiak hartzen duen zama eta bizitzaren etena eremu soziosanitarioak esku hartzeko moduko alderdiak dira. Adimen-gaixoaren familia inguruneari eta orientabideari buruzko txostenetatik ateratako datuek azpimarratzen dute erkidego-laguntza eta baliabide publikoak konbinaturik ezartzeko beharra. Egia izanik familiak bestelako eginkizuna izan behar duela adimen-gaixoa zaintzeari dagokionez, gaur egungo hutsuneak bizirik mantentzen du estigma-ren hautematea: familia-isolamendua, laguntza eta orientabide falta zaintzaileen eginkizun berriei begira. (...)

Ondorio klinikoak, gaixoa oinarritzko eskubide baten babespean tratatua izatea eragiten dutenak, larriak dira gaixoaren bizitzaren garapenerako eta garapen klinikorako; baina horiek bezain larriak dira bestelako ondorioak, baliabideen gaineko iriz-

pide ekonomikoaren erabaki arbitralaren, edo are, bidegabearen mende baitaude. (...)

Adimen-gaixotasunaren estigmak, gizarteak duen iritzi txarrak, gaixoaren inguruko pertsona eta faktore guztiengan du eragina: gaixoa bera, familia, gaixotasuna tratatzeko behar diren sendagaiak, psikiatraren gaitasuna eta jarduna, ospitale psikiatrikoak bete beharreko baldintzak, baita ospitaleratze unitatea bera ere.

Estigma nola sortzen den eta administrazio publikoen jarduteko gaitasuna kontuan hartuta, eta administrazioak noraino jarduten duen arduraz baloratzeko parlamentu desberdinetako ordezkariak garen aldetik, guk “a posteriori” esku hartzeko gaitasuna dugu soilik, hau da, ardura duen administrazioaren esku-hartzea eraginkorra ez denean, herritarrek hala salatu dutelako edota gure erakundeak talde garrantzitsu batekiko esku-hartzearen eraginaren balioespen negatiboa egin duelako.

Baina, nire ustez, adimen-gaixotasunaren errealitateari aurre egiteko modu horrek, gizarte-alderdi edo ondorioei dagokienez, eremu zuzentzaile soila uzten digu, ziurrenik nahikoa ez dena, eta agian bat ez datorrena adimen-gaixotasunaren tragediak gehien ukitutako herritarrek –gaixo horiek zaintzen dituzten familiartekoak– gure eginbeharraz duten ikuspegiarekin.

Administrazioak erreakzio biziki aktiboa izaten badu ere adimen-gaixotasunak baino “isla publiko” gutxiago duten beste ezgaitasun egoera batzuetan, ez da orain arte halako “asaldurarik” sumatu adimen gaixotasunak antzeko ondorio pertsonal eta sozialak dituzten bestelako ezgaitasunekin parekatze aldera.

Aitzitik, familietara igaro den eginkizun ordezkatzaille horrek hamabost urtez aurkitu dituen erantzun bakarrak administrazio publikoek berezkoa duten erantzukizunetik urrun egon dira, gaixoei eta haien familiek osatzen duten zirkuitu itxian ekintza informatiboak garatzeko dirulaguntzak, eta zenbaitetan halako ekintzak ere espresuki debekatuak izan dira.

Jakinik tratamenduen esparrua administrazioaren ez besteren erantzukizuna dela, uste dut arartekook hainbat ekintza sustatzeko jarrera hartu beharko genukeela, hala nola, familien eta, orokorrean, jendearen hezkuntzari, eta hezkuntzaren, gizartearen eta legearen arloko neurriak proposatzeari dagokionez, administrazioei esparru hauek beren erantzukizuna gauzatzeko eskatuz, baita administrazioaren esku-hartze erabakigarria ekarriko duten ekintzak aztertuz eta proposatuz ere, adimen-gaixotasunaren alderdi medikoak eta sozi-



alak eta ondorioak gertutik ezagutzen dituztenekin batera.

Adimen-gaixotasunaz gizarteak duen pertzepzioa alda daiteke, administrazioen eginkizunak adimen-gaixoaren ingurunearengan eta, horren ondorioz, gaixoarengan duen eragina da administrazioak alde batera utzitako arduretako bat, ahaztutako edo, familiek bezala, haien berezko eskubideak eskatzen dituzten eskuetan utzitako eskubideetako bat.”

### **Espainiako arartekoak koordinatzeko XVIII. jardunaldietan aurkeztutako beste ponentzia batzuk**

1. mahaia: Adimen-osasunaren arloko laguntzarako zerbitzuak eta baliabideak.

- Haur eta gazteen adimen-osasunaren arloan eta psikogeriatrian erabiltzen diren baliabideak eta zerbitzuak (Euskadiko arartekoa)
- Adimen-gaixo kronikoak izan eta patologia dualak dituzten gaixoei laguntzeko baliabideak (Andaluziako arartekoa)
- Adimen-gaixotasuna antolamendu juridikoan (Galiziako Valedor do Pobo)

2. mahaia: Adimen-gaixoa, eskubide-subjektua.

- Adimen-gaixotasuna duten pertsonen eskubide zibil eta sozialak (Kanarietako Diputado del Común).
- Adimen-gaixoaren eskubideak, Osasun Sistema Nazionalaren erabiltzailea den aldetik (Valentziako Sindic de Greuges).
- Adimen-osasunaren erreforma: Zuzenbidearen ahanztura. Ahantzien eskubidea (Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa).

3. mahaia: • Adimen-osasunaren euskarriak: familiak eta elkarteak eta adimen-gaixotasuna duten pertsonen integrazioa.

- Adimen-gaixotasunaren kostu soziala. Gaixiak zaintzen dituzten familiartekoen higadura. Emakume etorkinak, ordezko laguntza baliabideak (estatuko arartekoaren bigarren atxikia).
- Gaixoen eta familiartekoen elkarteak adimen-osasun zerbitzuen hornitzaile gisa (Gaztela eta Leongo Procurador del Común).
- Adimen-gaixotasuna duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea (Catalunyako Sindic de Greuges).

*Hona hemen azaldu ziren ideia nagusien laburpena:*

#### *Zerbitzuak eta baliabideak*

Gure administrazio publikoetako adimen eta gizarte-osasun zerbitzuek daukaten erronka handienetako bat da adimen-gaixoen kronikotasuna eta dualtasuna; izan ere, gaixo horiek osasun eta gizarte-arazo anitzak eta larriak dituzte.

Hori dela eta, beharrezkoa da erantzule publikoek gaixo kronikoentzat eta gaixo dualentzat egonaldi ertain eta luzeak egiteko postu kopurua handitzea, eta gaixo horiek ikuspegi integralarekin tratatzea, adimen-osasunaren alderdiekin batera gizarte laguntza ere kontuan hartuz eta laguntza prozesu osoaren jarraipena bermatuz.

Horrenbestez, beharrezkoa da erkidego-laguntza paraleloa garatzea, erreforma psikiatrikoan eta drogamendekotasunei aurre egiteko planetan aurreikusitako esku-hartze eredu berriekin batera, gaixo hauek pairatzen duten baztertze indibidual eta kolektiboa geldiarazte aldera.

Konstituzioak aitortzen dien eskubidea da hori, eta beraz, gure erakundeetatik eskubide horiek botere publikoen aurrean aldarrikatzeko betebeharra dugu.

#### *Adimen-gaixoa, eskubide-subjektua*

Adimen-gaixotasuna, bazterketa-eragile. Administrazioak bultzatuta baino gehiago beharrak berak sortuta, jada bada gizarte-kontzientzia adimen-gaixotasunaren aurrean, eta hori aprobetxatzeak, ekintza eremu berri bat garatzeko aukera ematen digu: estigma deuseztatzea. Gizartean zabaldutako ikuspegi horren arabera, adimen-gaixotasuna sendaezina da, eta ikuspegi hori aldatzeko erakundeek lana beharrezkoa da, adimen-gaixoen eskubideek lehentasuna izan dezaten eta haien gaixotasuna sendagarria izan dadin.

#### *Adimen-osasunaren euskarriak:*

Errehabilitazioa eta gizarteratzea. Eraginkorrak izateko gizarte osoak hartu behar du parte, eta horretarako erroturik dauden aurreiritziak eta estereotipoak deuseztatzeko zabalkunde eta informazio kanpainak abiarazi behar dira. Horregatik, zirikusirik duten agente politiko, sozial eta ekonomikoaren arteko komunikazio-bitartekoak bultzatu behar dira –administrazio publikoak, herritarren entitateak eta enpresa-erakundeak–, erabateko laneratzea ahalbideratuko duen benetako prestakuntza ibilbidea aurkitzeko, laborterapiaren eskema zaharrera jo gabe.

*Ondorioak*

- Ezgaitasun psikikoa duten pertsonen integrazioa erraztuko duen neurriak sustatu behar dira.

- Garrantzitsuena da gizartea jabetzen ari zela adimen-gaixoen egoera gero eta larriagoa dela. Horri lotuta, administrazio publikoei eskatu behar zaie, adimen-gaixoen tratamenduari dagokionez, osasun laguntza berma dezatela.

- Udalen eta gainerako administrazioen parte hartzea bultzatu, ezgaitasun arazoak dituzten pertsonen baliabide nahikoak emateko.

- Adimen-gaixotasuna dutenek kalitatezko laguntza jaso dezaten ahalbidetuko duen araudia garatu behar da.

- Baliabideen gabezia dago. Horren arrazoia egin diren erreforma psikiatrikoak izan dira. Hori ulertzeko bi parametro hartu behar dira kontuan. Batetik, adimen-gaixoen kopuruak gora egin du, familiak –erreforma psikiatrikoaren oinarrietako bat– zahartu egin baitira. Bestetik, patologia dualak agertu dira, hau da, adimen-gaixoak izateaz gain, toxikomanoak direnak.

- Komenigarria izanen litzateke adimen-osasunaren arloan garatu behar diren politikak zehaztea. Adibidez, jarraitu beharreko ildoak ezarriko dituzten protokoloak prestatuz eta giza baliabideak eta baliabide materialak gehituz.

- Adimen-gaixoak gizartearentzat lan egiteko gai ez direneko irudia deuseztatu behar da.

- Azkenik, proposatu zen arartekoen plan bate-ratu bat prestatzea, adimen-gaixotasunaren estigma soziala desagertarazteko, administrazioaren eta gizarte osoaren parte hartzearekin.

**Arartekoen beste agerraldi batzuk, “Nafarroako adimen-osasunaren arloko laguntza” izeneko txosten berezia zabaltzeko.**

- “Aita Menni” Ahizpa Ospitalarien egoitza (Elizondo)
- ANASAPS elkateak antolatutako mahaingurua
- Iruñeko ANASAPSen urteko batzarra
- Tuterako ANASAPSen urteko batzarra

**ZAHARRAK**

2003. urteko azken bi hilabeteetan Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzari buruzko txosten berezia abiarazi zen, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Lan Departamentuarekin batera. Erakundea abian jarri zenetik beharrezkotzat jotzen zen txosten hori prestatzea,

baina 2003. urtearen amaierara arte ez genuen horretarako baliabide nahikorik izan. Erakundeak txosten hori egiteko komenigarritasuna aztertu zuenetik (2001) hona, zaharren egoera soziala aldatu egin da Espainian, eta datorren hamarkadan zaharrek izanen duten bilakaera eta haiendako aurreikusten diren ezaugarri sozialak, ekonomikoak eta bizimodua ikusirik, ematen zaien laguntzaren etorkizunari buruzko mobilizazio orokorra sortu da.

**NAFARROAKO ZAHARREN MENDEKOTASUNARI AURRE EGITEKO LAGUNTZARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA EGITEN HASTEAN.**

Erakundearen hasierako abiapuntua txosten-eskema bat izan zen, zaharrei egoitzetan ematen zaien laguntzari buruzkoa, eta bere kezka nagusia zen abegi-etxe horietan pertsona hauen eskubideak errespetatzea eta garatzea, bai pertsona baldunenak, bai laguntza behar dutenenak. Izan ere, lehen lana hasierako ardatz horri jarraikiz hainbat herritara eginiko bisiten bidez mamitu zen.

Ikerketa ildo horren helburua zen egoitzetan dauden zaharren oinarritzko eskubideak noraino errespetatzen diren baloratzea, zeren eta bistan dauden arrazoiak direla medio, herritar talde horrek bere eskubideak defendatzeko gaitasun txikia baitute. Ildo hori baztertu gabe, Nafarroako zaharren mendekotasunari aurre egiteko laguntzari buruzko txosten bereziaren helburua zabaltzea erabaki zen, lehen aipatu alderdiez gain, beste batzuk ere azter zitzan, hala nola, etxez etxeko laguntza, eta oro har, mendekotasuna duten pertsonen ematen zaien laguntza, bai etxean, bai horretarako egokitutako gune publikoetan edota ohiko egoitzetan. Horretarako kontuan hartu zen aldeaz aurretik eginiko ikerlan bat, non Nafarroako eta Espainiako etorkizuneko bizitza baldintzak, alderdi sozioekonomikoak eta zaharrei eman beharreko laguntzari buruzko araudi berriak azterzen ziren.

Horretarako, 2003an txosten hori prestatzeko lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zen Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin. Txostena 2004ko bigarren seihilekoan bukatuko da.

**Egiten ari den txostenaren oinarritzko edukia**

Espainiako gizartearen bizi-itxaropena luzatzen ari da, bihurtzen azken etapetan batez ere, eta horrek ahultasunera eta mendekotasunera eraman ditzake hainbat pertsona. Nafarroan, zaharren artean, 75 urte baino gehiagoko populazioaren pisuak gora egin du pixkanaka. 75 urtez gorakoak 1996an % 7,4 izatetik 2000. urtean % 8,3 izatera pasa dira, Espainiako batez-bestekoa baino puntu

bat gehiago. 2005erako aurreikusten da 75 urtez gorako populazioa 65 eta 74 artekoa baino handiago izatea (% 9,3 eta % 9,1, hurrenez hurren).

Botere publikoek eta gizarteak, orokorrean, hainbat zerbitzu abiarazi dituzte zaharren mendekotasunak sortzen dituen beharrei erantzuteko: egoitzak, eguneko zentroak, etxez-etxeko laguntza, etab. 1997. urtean Nafarroako Gobernuak zaharrentzako laguntza integralaren oinarriak ezartzen zituen plan gerontologiko bat onetsi zuen.

Zalantzarik gabe, Nafarroako gizarte garapenaren maila ona da; hala ere, zenbait hutsune garrantzitsu ere atzeman dira. Zaharren kolektiboari buruzko informazio eskasa dugu. Adibidez, ez dakigu zenbat adineko dagoen besteren mende Nafarroan. Baliabideen irisgarritasuna adierazten duen ibilbiderik ez dago, ezta besteren mendeko pertsona zaharren gizarte-eskubideak zehazten dituen araubiderik ere. Planak eta politikak, nolabait, neurri solte eta loturarik gabekoetan geratu dira. Horrek eta besteren mendeko zaharren kolektiboaren ahultasunak beharrezko egiten dute gizarte kontrolerako mekanismoak zehaztea, pertsona horien duintasuna eta eskubideak babesteko.

Adineko pertsonen mendekotasunari buruzko txostena lau ataletan banatuko da. Lehenengo atalean politika horiek xede duten kolektiboaren ezauzgarri nagusiak aztertuko dira. Bigarrenean, helburu hori lortzeko bideratutako baliabide kopurua gaurkotu eta baloratuko da. Hirugarren atalean zerbitzu horien funtzionamendua sakonki aztertuko da, baita erabiltzaileen egoera ere, eskubide-subjektu diren aldetik. Eta, azkenik, informazio hori guztia abiapuntutzat hartuta, arlo horretan etorkizunean izanen diren joerak eta erronkak zehazten saiatuko gara.

#### **Adineko pertsonak Nafarroan.**

Tamalez, ez daukagu Nafarroako adineko pertsonen besteren mendekotasunaren eraginari buruzko azterlanik. Hurbilpen horren oinarritzko aldagaietako batzuk hauek izanen dira:

- Banaketa geografikoa (gizarte zerbitzuen oinarritzko barrutien arabera).
- Adinaren (bost urteko taldeak) eta sexuaren araberrako banaketa.
- Bizi-itxaropen apala.
- Egoera zibila.
- Ikasketa maila.

- Bizikidetzaren ereduak (zaharrak bakarrik / bi zahar edo gehiago bizikide gazteagorik gabe / zaharrak eta gazteagoak diren beste bizikide batzuk).

#### **BESTEREN MENDEKOTASUNA DUTEN ZAHARREI LAGUNTZEKO SISTEMA NAFARROAN**

Atal horretan dagoen informazioa eguneratuko da, besteren mendekotasuna duten zaharrei laguntzeko baliabide sareari dagokionez: egoitzak, etxez-etxeko laguntza (laguntza tekniko eta diru-laguntza), eguneko zentroak, apartamentu babes-tuak, etxebizitza komunitarioak, klubak, elkarteak eta famili harrera.

Informazio hori guztia aztertzeak ahalbidetuko du zerbitzu mota desberdinen egiazko estaldura-maila eta herrialde-banaketa baloratzea, baita balioetsitako beharretara noraino egokitzen diren ere.

#### **ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDUA ETA ERABILTZAILIEN EGOERA**

Atal horretan aztertuko da zerbitzuen sareak zerbitzu horien erabiltzaileekin duen harremana, bai horiek zerbitzura jotzeko unean, bai laguntza jasotzen duten denboran zehar. Erantzukizun publiko, zuzentasun eta jasotako laguntzaren kalitate irizpideak izanen dira azterketaren orientabidea; izan ere, irizpide horiek hainbat modutan jasota daude arlo horretako berriazko araudian.

Hemen planteatzen den azterlanaren beste baten osagarria da, hain zuzen arartekoaren erakundeak zuzenean egiten duen azterlan juridikoa, bereziki euren kasa moldatzeko arazoak dituzten adineko pertsonen gizarte zerbitzuak baliatzeko duten eskubidea egiaz aitortzeari eta administrazio publikoek zerbitzu horiek emateko duten betebeharrari buruzkoa.

Azterlanak eduki hauek izanen ditu, bestek beste:

- Zuzentasuna, erabiltzaileentzako prezioak ezartzerakoan, zerbitzu mota, postua eta finantzaketa eta kudeaketa ereduak kontuan hartuta. Horrenbestez, kasu bakoitzean egin beharreko baliabide publikoen esleipena ikuspegi horretatik ere aztertu beharko da.
- Daukagun informazioa aztertuta, zor-aitorpenaren sistemaren funtzionamendua, bide hori erabiliz finantzatzeko gastuaren zenbatekoa eta bere ondorioak noraino diren zuzenak erabiltzaileentzat eta beren familientzat.

- Itxaron zerrendak nola kudeatu eta artikulatzen diren, dauden baliabideak gehien behar dituzten zaharregiana modu egokian bideratzen diren baloratu ahal izateko, pertsona horiek euren kasa noraino moldatzen diren eta euren gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta.

- Gizarte Zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenei buruzko Foru Dekretuan ezarritako gutxieneko kalitate irizpideak. Ahal den neurrian Europako beste estandar batzuekin alderatzen saiatuko gara.

- Erabiltzaileek eta egoitzetan bizi direnek, erabiltzaile diren aldetik, dituzten eskubide eta betebeharrak. Bereziki, instituzionalizazio prozesuarekin zerikusia duen oro hartuko da kontuan (kanpo-harremanak mugatzea, denbora eta espazioa mugatzea, berariazko zerbitzuak, kanpoko zerbitzuen irisgarritasuna...), baita erabiltzaile diren aldetik duten partaidetza (zentroko kontseilua, erabakiak eta abar).

Halaber, txosten berezi honetan lau egoitzetako kasuak aztertuko dira. Egoitzak haien ezaugarri nagusien arabera hautatu dira (landa eremua/hiri eremua, kudeaketa publikoa, sozietatea edota merkataritza elkarteak), eta arduradun, langile eta erabiltzaileei elkarrizketa sakonak egiteaz gain, oroit-idazkiak eta barne araudiak aztertu dira.

#### ETORKIZUNEN JOERAK ETA ESTRATEGIAK

Txostena amaitzeko, hainbat gomendio erantsen dira ondorio gisa. Gomendio horiek, alde batetik, aurreko azterketatik ondorioztatzen dira, eta, bestetik, beste autonomia erkidego batzuetan arrakastaz garatzen ari diren esperientzietatik, baita lan horretan parte hartu duten profesionalen eta adituen iradokizun eta proposamenak ere.

Europako Batasuneko beste herrialde batzuetako esperientziak ere islatuko dira txosten horretan.

#### I- 04. PARLAMENTUAK ESKATUTAKO TXOSTEN BEREZIAK

2003an Nafarroako Parlamentuak Nafarroako arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen bi gairi buruz: "Nafarroako Tributu Ogasuneko zergadunen espediente fiskalen konfidentzialtasuna" eta "Altzuzako (Nafarroa) Jorge Oteiza museo etxearen nahiz museoaren ondare artistikoaren kontserbazioa".

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eskatu zituen bi esku-hartze horiek.

#### I.NAFARROAKO TRIBUTU OGASUNEN ZERGADUNEN ESPEDIENTE FISKALEN KONFIDENTZIALTASUNARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA.

Nafarroako Tributu Ogasuneko zergadunen espediente fiskalen konfidentzialtasunari buruzko txostena 2003ko azaroaren 12an aurkeztu zen Parlamentuan. Ondoko testua txosten horren zati bat da.

##### I. SARRERA

2002ko urriaren 11n erakunde honetara iritsi zen Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak urte bereko urriaren 7an hartutako erabakia; haren bidez, jakinarazten zigun "Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker batua, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco eta Nafarroako Demokratikoen Elkargunea parlamentu-taldeek aurkeztutako eskaria, Nafarroako arartekoak iker dezan espediente fiskalen konfidentzialtasuna, Nafarroako arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 19.2 artikuluari jarraituz".

Eskari horren bitartez, talde horiek emaniko justifikazioaren arabera, Nafarroako arartekoari eskatzen zaio egiazta dezan Nafarroako Tributu Ogasunaren zergadunen espediente fiskalen konfidentzialtasuna eta haiei ematen zaien telefono bidezko laguntza une honetan bermaturik ote dagoen, eta egiazta dezan, halaber, dokumentu horiek artxibatze moduan, azken bi hamarkadetan, Nafarroako zergadunen konfidentzialtasuna bermatu ote den".

Eskari hori egin zen modu orokorrari erreparatuta, beharrezkoa izan da ezer baino lehen gure esku-hartzearen xedea eta eremua mugatzea; izan ere, ahaleginak egin ditugu hura zentratzeko ezagutu nahi diren gaien azterketan, betiere kontuan hartuta igorritako proposamenaren planteamenduaren edukia.

Horri dagokionez, proposamen horren justifikazioak haren zioak argitzen edo zehazten ditu; horrenbestez, eskatutako jardueraren eremua era batera zein bestera mugatu egiten du. Hartara, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak 2002ko ekainaren 4an Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordean eginiko agerraldia aipatzen da, hain zuzen ere honako hitz hauek: "une honetan espediente fiskalak ez dira paladaka gordetzen"; datuen zati bat biltegiatzeko zerbitzua kanpoan kontratatu da, Gubertini-Armendáriz enpresari esleitu baitzaio 5.665 kutxa gordetzea, 1985, 1986 eta 1987. urteetako datu tributarioekin; eta, azkenik, Tributu Ogasuneko Langileen Batzordea.

deak kontseilariak parlamentu-batzordean eginiko agerraldian adierazitakoari buruz egiten zuen gogoeta; besteak beste,

- ez dator bat kontseilariaren baieztapen batekin, alegia, zerbitzua kanpoan kontratatzeak ez dakarrela tributu ogasunaz kanpoko jendeak kutxen edukia manipulatzeko aukera izatea.

- eta, gainera, Gubertini-Armendáriz enpresarekin sinaturiko kontratuaren bitartez, enpresa horretako langileek, ezinbestez, norbanako enpedienteak erabiliko dituztela, kontratuan bertan aipatzen baita datuak faxez edo posta elektronikoz kontsultatzeko aukera, bai eta dokumentuak berriz kutxetan sartzeari; lan horietarako, kutxak ireki egin beharko dira.

Azaldukoaren arabera, eskatutako ikerketa espediente fiskalak artxibatuzko sistemara mugatu beharko litzateke, gaia aipatu kontratuan zentratuz, ezertan ere kendu gabe Nafarroako Gobernuaren egoitzetan beretan egin litekeen azterketa (Antso Azkarra etorbideko eta Karlos III.a etorbideko bulegoak); halere, ez dirudi azken inguruabar hori zalantzan jartzen denik, zeren eta artxibo horietan Ekonomia eta Ogasun Departamentuko funtzionarioak aritzen baitira.

Bestalde, eskarian itxura batean harrigarri suerta litekeen beste alderdi bat dago, aurrekoti nolabait ere bereizten dena eta aipaturiko gaiarekin lotura handirik ez duena. Eskarian telefono bidezko laguntzari buruz egiten den hitzez hitzeko aipamenaz ari gara, zeren eta hitzez hitz hauxe esaten baita: “bai eta haietara iristeko telefono bidezko laguntza ere”

Aipamen edo zehaztapen horren argipena Nafarroako Parlamentuaren Foru Araubide Batzordean 2002ko irailaren 24an gaiari buruz egin zen eztabaidan eta bozketan topatu dugu; izan ere, bertan, gai honi berari buruz egin zen proposamenari, azkenik, ezezkoa eman zitzaion; hori dela eta, proposamen horren aldeko taldeek antzeko eskari bat aurkeztu zuten berriz ere Parlamentuko Mahaian.

Foru parlamentari Alli jaunaren hitzaldiak erabaki-proposamena are gehiago zehazten du telefono bidezko aipamen hori dela-eta. Honela dio:

“.. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko langileek asko kritikatu zituzten kontseilari jaunak hemen esandakoak eta eman zituen informazioak; hori dela eta, gure ustez onuragarria da konfidentzialtasuna bermatzeko bitarteko guztiak erabiltzea, ez soilik artxibo-sistematan, baizik eta baita telefono bidezko laguntzaren arloan ere, hura ere enpresa pribatu baten eskuetan baitago; enpresa

horrek, noski, zergadunei buruzko informazioa lortzeko modua dauka. Hori dela eta, gure iradokizuna da –eta esan duenaren arabera, Lizarbe jauna ere ados dago– azkenurreko lerroan aldaketa bat egitea, telefono bidezko laguntza sartzeko, honela gera dadin: “eta artxibo sistemak eta telefono bidezko laguntzak (...) konfidentzialtasuna bermatzen ote duten”. Azken batean, kontua da telefono bidezko laguntza-zerbitzura ere zabaltzea, hain zuzen ere esku pribatuetan jarri baita.

Batzorde horretako beste foru parlamentarietako baten, Lizarbe jaunaren, hitzaldiak aurretik azalduko berresten eta argitzen du, gure erakundeari eskatzen zitzaion jarduketaren eremua zehaztu nahi baitzuen: “.. Ongi iruditzen zaigu Alli jaunak gehitzea proposatzen duena, zeren eta telefono bidezko laguntzarena ez da artxibo kontu bat, baina bai da datuen tratamendurekin loturiko gai bat, eta kontuan hartzekoa da gaurkotasan handiagoko datuak direla. Horrenbestez, komeni den osagarria da –eta beharrezkoa ere bada– lana zuzen egiteko. Edonola ere, gauzak argitzearen, eledun honek ez du inongo arazorik ikusten aurreko sistematan, hain zuzen Ekonomia Departamentuak artxibo sistema eta telefono bidezko laguntza-sistema pribatizatzearen aurrekoan. Orain ikusten dut arazoa, ez lehen. .... Guk ez dugu inongo konfiantza faltarik Ogasun Departamentuko funtzionario eta enplegatuegan, baina konfiantza falta handia daukagu pribatuek datuak kudeatzeko sistema dela-eta: horretantxe datza diferentzia...”

Gure ustez, adierazpen horiek guztiek, aipatu batzordearen Bilkura Egunkarian lortutakoek, nahikoa argitzen dute eskaria aurkeztutako taldeek zeukaten helburua erakunde honek ikerketa egin zezan proposatzerakoan, hain zuzen ere Nafarroako Tributu Ogasunaren bi jarduketa direla- eta –Gubertini-Armendáriz enpresarekin kontratatutako artxibo zerbitzua eta Atento Telecomunicaciones España S.A. enpresarekin kontratatutako telefono bidezko laguntza zerbitzua–.

Horretaz gain, argitu beharreko azken kontu bat ere badago, guk esku hartzeko eskarian ere jasota dagoena. Ikerketaren xedea den aldeari buruz bertan egiten den erreferentzia da; izan ere, ikerketa proposamenaren punturen batean azken (bi) hamarkadei buruz egiten den aipamena nahasgarria baita.

Hemen azalduko aurrekariak aztertuta, ez du ematen proposamenaren helburua denik aztertzea azken bi hamarkadetan arlo hauetan nola funtzionatu izan den; bestalde, hori egitea oso zaila litzateke, funtzionamendu hori egiaztatzea materialki ezinezkoa baita. Hori baino gehiago, ondoriozta daiteke eskatzen dena dela azken bi hamarkadei

buruzko espediente fiskalak artxibatzeako sistema ezartzea.

Azkenik, lanaren garapenari dagokionez, ezinbestez aipatu beharra daukagu lehen datuak eskuratzeko hasieran pairatu behar izan genuen atzerapena. Izan ere, 2002ko urriaren 11n Eledunen Batzarraren 2002ko urriaren 7ko erabakiaren berri izan ondoren, urriaren 22an erakunde honek idazki bat igorri zion Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun kontseilariari; haren bitartez, jakinarazi egiten genion nolako eskaria egina ziguten, eta galdetzen genion departamentuko zein pertsonarekin edo pertsonekin jarri behar ginen harremanetan txosten hau egiteko behar ziren lanei hasiera emateko.

Erantzunik jaso ez genuenez, 2003ko urtarrilean aipatu kontseilariari eskaria berriz egin behar izan genion, zeren eta telefonoz esan baitziguten kontseilaria bera izanen zela gurekin harremana izanen zuena; otsailaren 19an, lehenbiziko bilera izan genuen harekin, eta bertan jaso genituen lehenbiziko informazioa eta dokumentuak Gubertini-Armendáriz enpresarekin izenpeturiko kontratari buruz.

Horrenbestez, 2003ko otsailaren bukaerara arte –hau da, guk hasierako eskaria egin eta 4 hilabetera–, ez dugu batere informaziorik jaso esleitutako lanaren azterketari ekin ahal izateko.

Azkenik, hasierako une horretatik aurrera departamentuko langileekiko harremanak normalak izan badira ere informazio osagarri batzuk eskuratzeko garaian, azken informazio eskaria, telefono bidezko laguntza zerbitzuari buruz emandako dokumentazioari buruzko galdera batzuen erantzuna, abuztuaren 8an eskuratu zitzaion idatziz kontseilariari, eta irailaren 17an lortu genuen haren erantzuna. Hura jaso ondoren, bisita egin genuen Atento enpresak Bilbon dituen instalazioetara, departamentuko langile batzuekin batera.

## II. TXOSTENAREN NORAINOKOA ETA HELBURUAK

Txosten honen sarreran azaldutakoaren ondorioz, guztiz egokia da –eta aipatu hitzaldien arabera, badirudi bat datorrela ekimen hau planteatu dutenekin– erakunde honek egokitzen jotzen dituen azterketak egitea espediente fiskaletako dokumentuak artxibatzeako sistemari buruz, eta gai horren ardatz gisa hartzea Gubertini-Armendáriz enpresarekin horretarako sinaturiko kontratua; telefono bidezko laguntza zerbitzuari dagokionez, gauza bera egin behar dugu Atento Telecomunicaciones España S.A. enpresarekin sinaturiko kontratuarekin.

Honakoa ere kontuan hartu behar da, bestalde, Nafarroako arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 19.2 artikuluan ezarritakoaren arabera: “Parlamentariak –zein bere aldetik–, ikerketa batzordeak eta Foru Araubide Batzordeak Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren eskuhartzea eskatu ahalko dute, idatzi arrazoituaren bidez, 1.3 artikulua aipatzen duen edozein Administrazio Publikotan gertatutako jarrera, ebazpen eta egintza jakinak argitu eta iker ditzan, baldin eta bere eskumenen esparruan pertsona bati zein pertsona talde bati eragiten badiote.”

Une honetan, gure antolamendu juridikoan, herritarrei beren datu pertsonalen kontrola bermatzeko aldera aitortzen zaien babesari dagokionez, nahiko maila altua dago. Hala eta guztiz ere, eta eguneroko jardueraren alderdi zehatz batzuetan izan ezik, esan daiteke, oro har, kontroleko mekanismoen sistema oraindik ere ez dela espero zitekeen bezain efizientea.

Gogoeta bera egin daiteke herritarrek administrazio publikoekin dauzkaten harremanei buruz. Hartara, tributu arloan, osasun arloan eta abar, halako kontzientzia bat dago gai honi buruz, baina kontzientzia hori ez da bestelako eremu edo arloetan islatzen.

Ikuspegi honetatik, eta arauetan bildutako aurreikuspenetan oinarriturik, kontuan hartu behar da konfidentzialtasunaren kultura izenaz ezagutzen dena datu pertsonalen fitxategi guztiei aplikatu behar zaiela, bitarteko informatikoekin bildu nahiz ez bildu, eta gainera ez soilik antolamenduan bereziki babestutzat sailkatzen diren datuak biltzen dituztenei. Datu pertsonal guztiak babestuta daude, zeren eta haietatik abiatuta pertsonen profil jakin bat presta baitaiteke.

Horri dagokionez, Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa datu pertsonalak dauzkaten fitxategi guztiei aplikatu behar zaie, alde batera utzita tratamendu automatizatua ematen zaien ala ez eta titularitate publikoa ala pribatua duten. Aurreko arauaren –Datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzen duen Lege organikoa– irismena zabaltzearen arrazoa hauxe da: Espainiako antolamendu juridikora aldatu behar izatea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/CE zuzentaraua, datu pertsonalak eta datu horien zirkulazio librea direla-eta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; izan ere, lege horrek datu pertsonalen tratamendu automatizatuak eta ez automatizatuak arautu zituen.

Hala eta guztiz ere, gerta daiteke datu pertsonalak konfidentzialak izatearen aitortpena eta datu

horiek babesteko ezarritako mekanismoak guztiz eraginkorrak ez izatea, behar diren ahalegin guztiak egiten ez badira eta eskubide horiek gauzatzeko behar diren neurriak aplikatzen ez badira.

Hori dela eta, funtsezkoa iruditzen zaigu administrazio publikoen zeregina arlo honetan, zeren eta behar diren neurriak hartu behar baitituzte beren informazio sistemai buruz eta erabiltzaileen kontrolari buruz, antolamendu juridikoak kasuan kasu eskatzen duen segurtasun mailari erreparatuta, betiere fitzategietan jasotako datuen motaren arabera eta haiei eman behar zaien erabileraren arabera.

Gauzak horrela, hirugarrenek datuak erabiltzeko zerbitzuak emateko aukerak, Datuen babesari buruzko Lege organikoko 12. artikuluan jasotakoak, berekin ekarri du aintzat hartu beharreko elementu berri bat, konponbide honek dakartzan arriskuei buruzko ustea dela eta.

Legezko gaikuntza horren ondorioz, zabaldu egin da sektore publikoaren artxiboen edo funts dokumentalen kudeaketa hirugarrenen eskuetan uzteko kasuen zerrenda, modalitate ugarian: biltegiatzea edo gordailua, kudeaketa osoa eta abar. Hori egiaztatzeko, aski da, adibide gisa, Kontuen Epaitegiak egin eta berriki ezagutu dugun fiskalizazio txostenari erreparatzea, hain zuzen ere "historia klinikoaren artxiboari, gordailuari eta zainketari edo kudeaketari buruzkoa eta jarduera horren 1999 eta 2000. urteetarako eginiko kontratazioari buruzkoa, Osasun Sistema Nazionalako titularitate publikoko ospitaleen lagin baten arabera".

Laburpen gisa, txosten horretan azalpenen taula bat ageri da, non laginean sartutako ospitaleek –guztira 27 dira– historia klinikoak kudeatzeko erabilitako kudeaketa sistemak jaso baitira; izan ere, hartatik ondoko datuak atera daitezke, esanahi handikoak, praktika horren hedatzeari buruz, gehienetan zentroetan beretan espedientean biltegiatze leku fisikorik ez dagoelako:

- % 44,4k bere bitartekoak erabiltzen ditu historia klinikoak zaindu eta kudeatzeko.
- % 14,8k soilik kanpoko bitartekoak erabiltzen ditu historia klinikoak zaindu eta kudeatzeko, kontratu bidez.
- % 40,8k sistema mistoak erabiltzen ditu –bere bitartekoak eta kanpokoak– historia klinikoak zaindu eta kudeatzeko.

Hartara, dokumentuen artxiboarekin loturiko zerbitzuak xede dituzten kontratuen hipotesiak asko aldatzen joan dira, funts dokumentalen gordailurako higiezinak alokatetik hasi eta hirugarren bati funts dokumental publiko baten kudeaketa

lagatzea xede dutenataraino –azken horietan titularrak den administrazioak baizik ezin izanen du erabili–; tartean, bestelako batzuk ere badaude, non hirugarren batekin artxibo publiko bat kudeatzeko zerbitzu lagungarri batzuen kudeaketa hitzartzen baita; esate baterako, aretoen zaintza, erreprografia, zaharberritzea eta abar.

Hartara, horrelako artxibo zerbitzuak hirugarren batekin kontratatzea, gutxienez ere zati batean, arau autonomiko jakin batzuetan ere islatu den aukera bat da. Hartara, Kataluniako artxibo eta dokumentuei buruzko uztailaren 13ko 10/2001 Legearen 8. artikulua, dokumentu publikoen antolamendua, ebaluazioa eta kontserbazioa eta horiek eskuratzeko bidea kasuan kasuko titularren zuzeneko erantzukizuna dela ezarri ondoren, onartu egiten du administrazioek edo dokumentu publikoen titularitatea daukaten entitateek "funtzio horiekin loturiko lan batzuk enpresa pribatuekin kontratatzea," eta horretarako zenbait zuhurtasun neurri ezartzen ditu.

Antzeko aukera bat ikus daiteke Kantabriako artxiboari buruzko ekainaren 28ko 3/2002 Legean eta Gaztela-Mantxako artxibo publikoari buruzko urriaren 24ko 19/2002 Legean.

Hala eta guztiz ere, aurreko guztia gorabehera, argi utzi behar da, arau horietakoren batek nabarmentzen duen bezala, inoiz ere ezin izanen zaizkiela bide horretatik enpresa pribatuen eskuetara aldatu ahalmen publikoek baliatzeko aukera; izan ere, azken erantzukizun horrek dokumentu publikoen titularrak diren administrazio edo entitateen eskuetan egoten jarraitzen du, eta administrazio edo entitate horiek beren esku izanen dute kudeaketa dokumentalaren sistema definitzeko eta kontratatuturiko jarduera zuzendu eta gainbegiratzeko ardura.

Gainera, aplikatzeko den arauak administrazioaren dokumentuei aitortzen dien nolaketan ere dokumentu horiek kudeatzeko moduak eta terminoak baldintzatzen ditu. Kontuan hartzeko da Estatuaren ondare historikoari buruzko legeko 49.2 artikuluan ezarritakoa, alegia, "ondare dokumentalaren zati direla edozein arotako dokumentuak, edozein erakunde edo entitate publikok, estatuak kapitalaren gehiengoa duen pertsona juridikoek edo zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten bestelako entitate publikoek eta pertsonak, fisikoek nahiz juridikoek, bere eginkizunak betetzen ari direla sortutakoak, kontserbatutakoak edo bildutakoak, zerbitzu horien kudeaketari dagokionez".

Azken batean, dokumentu publikoak izaki, administrazioek eta entitate titularrek dokumentu horiek kontserbatu eta babestu behar dituzte, eta

debekaturik dago haien gaineko trafiko juridiko oro; eta administrazioak haien edukitza galtzen badu ere, dokumentuen publikotasuna eta haien titularitatea ez da aldatuko.

Kontuen Epaitegiaren aipatu txostenera itzuliz, interesgarri jotzen dugu hartatik atera daitezkeen ondorio batzuk adieraztea, laburki bada ere, funtsean era horretako zerbitzu baten funtzionamenduan antzeman dugun praktikak daukan balioarengatik; betiere, esan beharra dago osasun sistema publikoaren ospitale batzuei buruzkoak badira ere, administrazioaren beste edozein jarduera-eremuri aplikatzekoak direla.

Formula horietara jotzeak eragiten duen kezka logikoaz gainera, datu pertsonalen lekualdatzea dakartenez eta datu horien segurtasuna arriskuan jartzen denez, garrantzitsua iruditzen zaigu bi alderdi nabarmentzea praktika hau kontuan hartzerakoan; izan ere, legearen ikuspuntutik ez da inoiz zalantzan jartzen, baina zuhurtziaz eta baldintza batzuekin erabili behar da, lagapenaren xede diren datu pertsonalen osotasuna eta konfidentzialtasuna zaintzen badira.

Alde batetik, aholkularitzako, laguntzako eta zerbitzua emateko kontratu "txikiak" gero eta gehiago erabiltzeko joera dago, eta horrek, lehenengo eta behin, kontratazio publikoaren publikitate eta lehiakortasun bermeak gutxitzen ditu eta, batez ere, eragina dauka berariazko kontratu hauek, beren xede berezia dela eta, eskatzen duten babes-mailan.

Datu pertsonalak dauzkaten dokumentuen artxiboa kudeatzeko zerbitzuak emateko maila txikiagoko kontrataziora jotzeak arrisku are handiagoa dauka artxibo horietan bildutako informazioaren segurtasunari eta konfidentzialtasunari begira, zeren eta zaila baita kontratu bidez ezartzea ondusun juridiko horiek bermatzeko behar diren erreserbak, prozeduraren sinpletasun gehiegizkoa dela eta. Zehazki, batetik kontratu txikien kasuan baldintza tekniko partikularrak onestea nahitaezkoa ez izatea eta bestetik kontratua dokumentu administratibo batean formalizatzea, arrisku bat dira, informazioaren tratamenduan gerta litezkeen pribatutasunaren bortxaketei aurrea hartzeko kautelazko neurriak ez aplikatzeko bidea eman dezakeena.

Bestalde, Kontuen Epaitegiak egiaztatutako praktikari buruz egiten duen azterketa honetan beste gai bat azpimarratu nahi dugu; izan ere, kudeaketa kontratatua duten artxiboak, oro har, enpresa adjudikazio-hartzailearen lokaletan jartzen dira, alegia, haien ardura duen entitate publikoaren egoitzaz kanpoko lokaletan. Egoera honek,

datuen segurtasunari eta konfidentzialtasunari begira arrisku handiagoak ekartzeaz gainera, logikoa den bezala, kontratua hartutako enpresen mendetasun maila handia dakar berekin.

Kontuan hartu behar da kontratu-hartzailea ordezteak normalean gastuak dakartzala; esate baterako, leku-aldatzearenak, inbentarioa egitearenak eta, batzuetan, artxiboak berrantolatu behar direnak; horrek errazago egiten du enpresa adjudikazio-hartzaileek lan horretan jarraitzea, eta mugatu egiten du lehia askea. Hori guztia dela eta, gastu publikoaren kudeaketa efizientzia eta ekonomia printzipioen aurkakoa da, hain zuzen ere zerbitzuaren kudeaketa beste batzuen eskuetan uzteko erabili ohi direnak. Laburbilduz, zerbitzu hau datozen urteetan beste enpresa batzuei adjudikatzeko baldintza bat dago: artxiboa behin eta berriz lekuz aldatu behar da, eta horrek, datuen segurtasunari eta konfidentzialtasunari dagokienez, arazoak ekarriko ditu, eta leku-aldatze horiek, gainera, kostuak handitu egiten dituzte.

Teknika horietara jotzeak planteatzen dituzkeen beste auzi txikiago batzuk ezertan kendu gabe, garrantzitsua iruditu zaigu hemen azpimarragarriak nabarmentzea, kontuan har daitezkeen honelako konponbideak aztertzerakoan, are gehiago oraingoan bezala, haien formalizazioa eta exekuzioa behatzen heldu direnen kasuan.

Kontuan hartu beharra dago, gainera, administrazio publikoek enpresa pribatuak kontratatzea ez dela artxiboarekin lotutako era honetako lan administratiboetara mugatzen; izan ere, horretara jotzen da, baita ere, diru-bilketan laguntzeko, nominak kudeatzeko, edo telefono bidezko laguntza zerbitzuetan dei gehiegi pilatzen direnerako. Kasu horietan guztietan, kontratua hartutako administrazioek beren egitekoez arduratzeari uko egiten ez badiote ere, datu pertsonalen lagapen bat gertatzen da, eta halakoetan datu horien segurtasuna arriskuan jar liteke. Egoera horietan guztietan –gure antolamendu juridikoan lekua izan dezaketen aukerak badira ere–, horretarako eskatzen diren baldintzak bete beharko dira eta, bereziki, txosten honen xedeari dagokionez, kontratua datu pertsonalak babesteko arauetara lotuta egotearen ondoriozkoak; izan ere, arau horien betetzea egiaztatzeko eta haien auditoria egiteko behar diren tresnak ezarri beharko dira.

Hori guztia dela eta, erakunde honen eginkizuna ez bada ere administrazioen titularitatea duten zerbitzuen zeharkako kudeaketa-formula horietara jotzea komenigarria den ala ez iritzia ematea, bai gogoratu behar dugu edozein kasutan ere administrazioak berak kudeaketa egiten balu bezainbesteko bermeak exijitu beharko zaizkiela kontra-



tatutakoei, eta enpresak bete beharreko baldintzak ez dagozkiola soilik kontratazio administratiboaren arloari.

Horrenbestez, ikuspegi horretatik heldu behar ko diogu azterketari. Eta horretarako, lehenbizi, kontuan hartu behar dugu zerbitzu horiek kontrata-tzerakoan aplikatzekoak diren arauen esparrua; bigarrenik, kontuan hartuko dugu Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamen-tuak arlo horretan egin duen kontratazioa eta haren deskribapena; azkenik, azken horiei kontra-jartzeko, kontratazio hori aipatu arauen arabera-koa den aztertuko dugu, eta azpimarra berezia jarriko dugu datu pertsonalen babesean.

a) Azken alderdi horretan, ahalegina egin dugu azterketa ez mugatzeko soilik kasuan kasu exijitu-tako formazko alderdien betetzera. Horretarako, ahaleginak egin ditugu, baita ere, egiaztatze-ko ea kontratu-hartzaileak eta Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamentuak kontratu horiek bete ote dituzten, betiere espediente fiska-letan bildutako datu pertsonalen konfidentzialtasu-na bermatzeko betebeharren ikuspuntutik.

b) Baldintza horietatik abiatuta, guztiz beha-rrerikotzat jo dugu lana bi zatitan banatzea, kontra-tuen edo azertu beharreko zerbitzuaren arabera; bietan, txostenaren garapenari erreparatuta, antzeko egitura bat erabili dugu, xedearen eta edukiaren izaera ezberdina kontuan hartuta. Izan ere, gure ustez, bereizirik azertu beharrekoak dira, nahiz eta esparru juridikoari dagokion atale-an, esate baterako, aplikatzekoak diren xedapena-k batera adierazi ditugun, aztertutako bi kontratu-etan egiten diren aipamen asko eta asko bat baita-toz.

### III. ESPEDIENTE FISKALETAKO AGIRIAK ARTXI-BATZEARI BURUZKO ONDORIO ETA GOMENDIOAK

I.- Administrazio publikoen artxiboen kudeake-tan kanpoko baliabideak sartzea berriki gertatu da eta badu legezko estaldura lehen aipatutako arau-dian; nolana ere, baldintzak bete beharra dago, bereziki kasuan kasuko kontratua datu pertsona-len babesaren gaineko aginduei lotzeari dagokio-nez, egokiro betetzen dela egiaztatu eta auditatze-ko bidea emanen duten tresnak ezarriz.

Araudi horren ikuspegitik eta datuen segurta-sunaren arloan kontuan hartu behar da, lehenen-go eta behin, aztertutako kontratuari datuen babe-sari buruzko lege organikoa aplikatu behar zaiola, kontratuan bertan ezartzen den bezala araudiaren aipamenak egitean; beraz, hasteko, lege testu horrek 12.2 artikuluan ezartzen duenaren arabera, 9. artikuluari lotzen baitzaio, kontratuan islatu

behar dira datuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatu, galdu edo baimenik gabe tratatu edo ezagutzea galarazteko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak, teknologiaren egoera, gordeta-ko datuen izaera eta horiek jasan ditzaketen arris-kuak, gizakien eskutik nahiz ingurune fisiko edo naturaletik etor daitezkeenak, kontuan hartuta.

Bigarrenik, aurrekoarekin loturik, aintzat hartu behar da datuen babesari buruzko lege organikoa-ren lehen xedapen gehigarriak aurreikusten duela fitxategi eta tratamendu ez-automatizatuak egokitu behar direla lege horretara hamabi urteko epean 1995eko urriaren 24an hasita, hau da, 2007ko urriaren 24a baino lehen.

Beste ondorio batzuen artean, hemen segurta-sun neurriei dagokienez interesatzen zaigunari begira, horrek ekarriko du fitxategi eta tratamendu mota horri aplikatuko zaizkiela ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Segurtasun neurrien erregelamenduan aurreikusit-ako segurtasun mailak.

Aztertutako kasuan eta ogasunaren arloko datu edo fitxategiak direnez, erregelamenduaren 4.2 artikulua ezartzen du oinarritzko mailako neurriez gain erdi mailakoak ere bete behar dituztela. Datuak Babesteko Agentziak ulertu du agindu horretan jasotzen den ogasun publikoaren kont-zeptuak barne hartzen dituen fitxategiak hauexek direla: estatuko Tributu Administrazioaren Agentzi-aren ardurapekoak, autonomia erkidegoen esku-menekoak diren tributuei dagozkienak eta toki ogasunen ardurapekoak diren toki tributuen zerga erroldak.

Horrenbestez eta, nahiz eta une hauetan eska daitekeen bakarra izan kontratuan datuen babes-ari buruzko lege organikoa 9. artikulua aipatzen dituen segurtasun neurriak, gure aholkua da bai egungo kontratuan ahal den neurrian bai arlo honetan formalizatuko diren hurrengoetan arautu eta ezar daitezkeen kontratuen klausuletan ekaina-ren 11ko 994/1999 Errege Dekretuaren bidez one-tsi zen Segurtasun neurrien erregelamenduan aipatzen diren segurtasun neurriak, oinarritzko mailakoak eta erdi mailakoak.

Horrela, islaturik egonen dira kontratuan orain ez dauden zenbait alderdi, besteak beste segurta-sun agiriarena, langileen betekizunak eta eginkizu-nak, segurtasun arduraduna, eskuratze fisikoaren kontrola, gorabeheren erregistroa, eta batez ere neurriak eta kontrolak datu pertsonalen babesari buruzko araudira egokiturik dauden eta noraino jakiteko auditoria; hori guztia lagungarria izanen da, dudarik gabe, babesaren xede diren datuen konfidentzialtasuna hobeki bermatzen.

Aurrekoarekin ere, irtenbide hori aukeratzen ez bada eta Datuen babesari buruzko lege organikoaren lehen xedapen gehigarrian aipatzen den epea ahitzeko asmoa egonez gero, zehaztu beharko lirateke eta kontratu indardunean lehenbailehen sartu lege testu horren 9. artikuluan, 12.2 artikularekin loturik, ageri diren segurtasun neurriak, eta ziurtatu kontrol sistema egokien bidez kontratu mota hori betetzean ez direla urratzen herritarren eskubideak, eta Datuen babesari buruzko lege organikoak eskatutako konfidentziasun bermeak betetzen direla.

Azkenik, neurri osagarri gisa, alde batetik sartu beharko litzateke kontratu mota horren klausula administratiboen pleguetan zerbitzu hauek azpikontratatzeko debeku espresa, eta bestetik, enpresa kontratu egilearentzat eta langileentzat loteslea izanen diren konfidentziasun baldintzei buruzko aipua ere ezarri.

**II. Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun kontseilariak berak eta departamentu horretako arduradun batzuek esana da Gubertini-Armen-dáriz enpresari artxibo zerbitzuak kontratatzea ekarri duen egoera iragankorra dela eta aldi baterakoa, behin betiko irtenbidea eman artekoa.**

Konponbidea da, iturri horien arabera, Nafarroako Tributu Ogasunaren artxiboak Cordovillako SAFEL zenaren nabean horretarako egokituko den eremuan gordetzea, horrek konponduko litzuzkeelako espazio arazoak hurrengo urteetan.

Horretarako, kontseilariak Parlamentuko batzordean eginiko agerraldian emaniko informazioaren arabera, nabe hori egokitzeko lanak amaitu behar dira; 2002. urtean kontratatu eta 2003. urtean amaitzea zegoen aurreikusirik.

Departamentuak berak, hortaz, sistema zehatz bat aukeratu duenez artxiboak bere bitartekoekin eta Nafarroako Gobernuaren lokaletan kudeatzeko, aukera hori gauzatzeko neurriak hartu beharko dira. Hauexek dira gure gomendioak:

Nafarroako Tributu Ogasunak sortzen dituen agiriak zaintzeko behar den espazioa egokiro aztertzea, behin-behineko neurri iragankorrak hartzea beste biderik uzten ez duten egoerak, deskribatutakoa bezalakoak, eta horren ondorio txarrak berriz gerta ez daitezzen.

Egun espazioak egokitzeko abian den prozesua azkartzea, Gubertini-Armen-dáriz enpresaren instalazioetan dagoen dokumentazioa Cordovillara, Nafarroako Gobernuak SAFEL zenaren nabean dituenetara lehenbailehen eramateko.

#### IV. TELEFONO BIDEZKO LAGUNTZA ZERBITZUARI BURUZKO ONDORIO ETA GOMENDIOAK

Nafarroako Foru Ogasunak 2001ean eginiko segurtasun auditoretzaren ondotik abian jarri dituen babes neurriak direla-eta, ogasunaren eta Atentoren telefono bidezko zerbitzuaren arteko harremana kokatzen da ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak, Datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuetarako segurtasun neurriei buruzkoak, ezarri zuen egungo araudiaren aplikazio egokian.

Halere, ezarritako segurtasun neurri horiek sendotzeko zenbait alderdi hobetzeko asmoz, garrantzitsua izanen litzateke ohar hauek kontuan hartzea:

**I. Ogasunaren suebakien log direlakoak aztertea ohikoa izan beharko litzateke, jakiteko zenbat aldiz gertatu diren sartzeko ahalegin huts eginak, eta oso gomendagarria litzateke osatzea sareko nahigabeko bisitarien detektagailu batekin (IDS) eta zerbitzariko nahigabeko bisitarien detektagailu batekin (HIDS) WEB zerbitzarirako.**

**II. PINaren balio-epe bat ezar liteke, egun mugagabea baita, ez bada galtzen edo zergadunak berak eskatzen ez badu aldatzeko.**

Ildo horretan nabarmendu behar ditugu identifikatzaile bakarra –gehienetan IFZ– deitzen dena izateak ekar ditzakeen “arriskuak”, batik bat bide ematen duelako informazioa arin eskualdatzeko administrazio publikoen artean datu pertsonalen babes eta erreserba erabatekoak errespetatu gabe. Halatan, inguruko herrialdeetan, identifikazio zenbaki bakarra ematea Konstituzioaren bidez debekatu da, Portugalen kasuan, hala ezartzen baitu 35. artikulua, edo, Frantzia gertatu dena, identifikatzaile horretan oinarritutako programek porrot egin dute, herritarrak ez zirelako fidatzen modu horretan intimitatea babesturik egoteaz.

**III. Atentok Ogasunera bidaltzen dituen posta elektronikoko mezuek barnean dituzten datuak (NAN eta PIN) alderatzeak isilpeko informazioa galtzea ekar dezake. Mehatxu horren aurrean gomendioa da zertifikatuak erabiltzea eta Atentoren eta Ogasunaren arteko posta elektronikoa osoa igor dadin behar bezala zifratu eta sinadura digitala duela. Beste aukera bat izanen litzateke erabiltzea Ogasunaren posta zerbitzarietan dauden posta kontuak, kontuan harturik Ogasunaren eta Atentoren arteko komunikazioak ezarria duela azpiko zifratua.**

**IV. Atentoren ordenagailuetarako sarbidea pasahitz bitartez murriztu liteke (datu pertsonalak bereizirik badaude ere).**

**V.-** Lehenago definitu dugun bezala, ikuspuntu teknikitik telefono laguntza emateko zerbitzua ongi taxaturik dago enpresako zuzendaritzatik, baina Atentoren erabiltzaileek Datuen babesari buruzko lege organikoari buruzko oinarrizko pres-takuntza jaso beharko lukete eta aukera izan ira-kurtzeko segurtasun politikei buruzko eskuliburua, haiei dagokien zatia. Guk egindako galderei Aten-tok emandako erantzunetan aipatzen da teleope-radore guztiek "jasotzen dituztela, lanean hasi aurretik, Atento Teleservicios España S.Aren segurtasun politikari buruz behar diren erreferen-tzia guztiak"; baina praktikan frogatu ahal izan dugu ez dela egia, zerbitzua ematen zuten pertso-netatik batek ere ez baitzuen segurtasun politikei buruzko eskuliburuaren berri, are gehiago, zerbi-tzuaren arduradunek beraiek, hurrengo bi maile-tan, gainbegiraleak eta koordinatzaileak, zehazki, eta segurtasun arduradunak ez zuten ongi ezagu-tzen segurtasun dokumentu hori, eta beharrezkoa izan zen telefono dei batzuk egitea bulego zentra-letara eskuliburua aurkitzeko; Intranet bidez egiaz-tatu zen bazegoela, baina ezin izan genuen ikusi.

#### V. AMAIERAKO GOGOETA

Amaierako gogoeta gisa, eta txosten honen hasieran konfidentzialtasunaren kultura deitu denari buruz egiten genuen aipamenari berriz hel-duta, egia bada ere kasu honetan gure esku-har-tzeak kanpora atera diren bi zerbitzu zehatz azter-tu dituela eta, beharbada horregatik kezka edo alarma handiagoa eragin duela hala egiteak ekar ditzakeen arriskuengatik, nabarmendu nahi genu-ke ez dela ahaztu behar datu pertsonalen babes-ari buruzko araudian ezarritako segurtasun neurriak eta bermeak hor daudela, zein den ere fitxategi edo datu horien tratamendua egiteko modua. Babesa eta konfidentzialtasuna eskatu behar zaiz-kie datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiei, bitar-teko informatikoz trataturik egon nahiz ez, admi-nistrazioaren mendeko langileek nahiz kontrataturiko hirugarren baten mendeko langileek tratatuak izan.

Logikoa eman dezake pentsatzeak lan horiek administrazioaren beraren bitartekoz baliatuz egi-ten direnean arriskuak txikiagoak direla. Baina Datuen babesari buruzko Lege Organikoan ez dira ikuspegi horretatik aurreikusten datu pertsonalen defentsa eta babesa, fitxategien edo tratamendua-ren erantzuleari datuak isilpean gorde eta zaintze-ko beharkizuna ezarri baizik; beharkizun horrek bere baitan hartzen ditu datu pertsonalen trata-menduaren edozein fasetan esku hartzen duten guztiak, eta fitxategiaren titularrarekiko harrema-nak amaituta ere irauten du. Konfidentzialtasuna-ren beharkizunak administrazio publikoen mende-

ko langileengan eta kasuan kasuko enpresaren mendeko langileengan du eragina (Datuen babe-sari buruzko lege organikoaren 10. artikulua).

Premisa horrekin, fitxategien titular diren admi-nistrazio publikoen eta erabiltzaileen jardunaren ildo nagusia izanen da datuak erabiltzea soilik fitxategietako bakoitza sortzea eragin duen helbu-rua betetzeko.

Horren ondorioz, neurriak hartu beharko dira asmo hori ziurtatzeko, hala nola segurtasun siste-ma egokiak ezartzen jarraitzea, barne esparruan ere bai, hirugarrenekin egiten diren kontratuetan ezarritako baldintzak betetzen direla zaintzea Datuen babesari buruzko lege organikoaren 12. artikuluari jarraikiz, erabiltzaileei jarraibideak ema-tea datuen erabilerari dagokionez dituzten behar-kizunen inguruan, eta abar.

Zeregin horretan ezin dugu esan gabe utzi aipatutako lege organikoak Datuak Babesteko Agentziari atxikitzen dion eginkizun garrantzitsua, zehazki 37. artikulua adierazitakoa, adibidez, a) letran honako eginkizun hau ematen baitio: "datu-en babesaren gaineko legeria betetzen dela zain-du eta haren aplikazioa kontrolatzea..."

Horrela, 41. artikuluan, legeak berak aitortzen du autonomia erkidegoetan horrelako organoak izateak garrantzia duela eskubide horien erabilera egokia izatea kontrolatu eta babesteari begira, autonomia erkidegoek beraiek eta lurralde esparru horietako toki administrazioak datu pertsonalak biltzeko sortu edo kudeaturiko fitxategiak direnean. Aurreikuspen horietan oinarriturik Madrilgo erkide-goaren esparruan, Madrilgo Erkidegoak datu per-tsonalak tratatzeko informatikaren erabilera arau-tzeari buruzko apirilaren 21eko 13/1995 Legearen bidez sortu zen Madrilgo Erkidegoaren Datuak Babesteko Agentzia; geroago, ekainaren 16ko 13/97 Legeak aldatu zuen eta egun helbide hone-tan du egoitza: Marcelo Spínola kalea, 14, 3. solai-rua, 28016 Madril. Madrilgo Erkidegoan datu per-tsonalak babesteari buruzko uztailaren 13ko 8/2001 Legeak arautzen ditu datu pertsonalak.

Kataluniaren esparruan, Kataluniako Parlamen-tuak onetsi zuen lege batek, Kataluniako Datuak Babesteko Agentziari buruzko apirilaren 19ko 5/2002 Legeak, eman zion hasiera prozesu arau-gileari.

Azkenik, Andaluziako Parlamentuak berriki onartu du tramitera Andaluziako Datuak Babeste-ko Agentzia sortzeko lege proposamen bat.

Horrexegatik aipatzen dugu hemen aukera hori, azter dadin Nafarroan ere ez ote litzatekeen komeni horrelako organo bat sortzea, dudarik

gabe lagungarria izanen litzatekeelakoan Nafarroako administrazio publikoek datu pertsonalen erabilera hobeki kontrolatzeko.

## II. "ALTZUZAN (NAFARROA) DAGOEN JORGE OTEIZAREN MUSEOKO ETA MUSEO-ETXEAREN ARTE ONDAREAREN KONTSERBAZIOARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA NAFARROAKO PARLAMENTUARENTZAT"

Parlamentuak erakunde honi eskatutako bigarren txostenari dagokionez, ondoko orrialdeetan biltzen dira haren sarreran azaltzen diren ideia nagusiak, alegia, Jorge Oteiza jaunaren "klarion laborategia" gisa ezaguna den txosten hori egiteko eskariaren oinarritzko ildoan erreferentzia zabala. Horrek ahalbidetuko digu atzematea lan honen inguruan izan diren gorabeheren garrantzia eta konplexutasuna, erakunde honek Jorge Oteiza Museo Fundazioarekin, Nafarroako Foru Administrazioak fundazio horretako patronatuan dituen ordezkariekin eta Kultura Departamentuko ardurdunekin izandako harremanei dagokienez. »Halaber, txosten berezi horretan ondorio gisa eginiko oharrak ere biltzen dira.

### «TXOSTEN BEREZIAREN ALDERDI OINARRIZKOAK

#### SARRERA

Foru Parlamentuko taldeek, beren iritziz herriarren interesekoak izan daitezkeen gaiei buruz, Nafarroako arartekoaren erakundeari txosten bereziak egin ditzan eskatzeko aukera, erakundea arautzen duen legean aurreikusitako eskumena da. Areago, ararteko honek maiz gogora ekarritako formula bat da, bi erakundeen arteko harremana doitzeko bide egokia delakoan, gure erkidegoko eskubideen edo interesen defentsan sinkronia sustatzeko xedearekin.

Hori dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eginiko eskaera, txosten honen abiapuntua alegia, bat dator oso erakunde hau arautzen duen legearen asmoekin, bai eta Parlamentuko taldeen eta arartekoaren erakundearen artean lankidetzara gero eta handiagoa lortzeko nahiarekin ere; horri gehituko litzaioke halaber interes handiagoa izatea herritarrek erakunde honen aurrean kexa edo kontsulta bidez agertzen dituzten interesekiko, haien oihartzuna foru legebiltzarrerara ailegatzen ez bada ere ordezkariaren arloko beste bide batzuetatik.

Nafarroako arartekoari txosten berezia eskatzeko arrazoia, hau da, Altzuzako ingurunean (Jorge Oteiza Museoa, artistaren Museo-Etxea eta Jorge Oteizaren bizilekua izan zena...) metatu den onda-

re artistikoaren eta historiko-artistikoaren kontserbazioa eta lanen egoera, erakundearen eskumenean barruan dago, baina txostenaren xedea zen ikergaiaren konplexutasunak –kasu askotan tekniko– zailtasunen bat ezartzen zuen, kontuan harturik zein diren erakundearen bitartekoak.

Nolanahi ere, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ez zuen aintzat hartzen beharbada erakunde honen lan egiteko modua eta legez ezarritik dauzkan epeak. Esku hartzeko dugun gaitasuna nahitaez loturik dago ikertu beharreko administrazioan edo bulego administratiboetan nahiz arduradunengan topatuko dugun balorazio borondatearekin. Arrazoia ez da erakundea arautzen duen legea, kautelazko epeak aldeztu aurretik ezartzen dituen eta halatan erakundearen lanaren sendotasuna eta edozein kexa-espediteraren gaia den administrazioaren bermea ziurtatzen dituen, baizik eta administrazio horrek, informazio eskei erantzuteko, aurreikusitako epeak modu egokian edo desegokian erabiltzea.

Funtsean, proposamenaren egilea izan zen parlamentu-taldeak eskaera egin zuenetik ikerketa behingoz abiatu arte (ordu batzuk geroago abiatu baten ere), edozein irregulartasun normaltasunez jantzi zuen denbora tarte bat izan zen. Eta irregulartasun batzuek ez dute arrastorik uzten. Nahiz eta zantzu batzuen pisuak Altzuzako zoruan marka uzteko ahalmena duen.

Jorge Oteiza Museoaren eta hura sostengatzen duen fundazioaren inguruan urte hauetan sortu den errealtate informatibo konplexuaz harago; jatorritzko proiektutik agian gertatu den urrutiratzeaz eta entitate pribatu bat den fundazioaren barreneko ika-miken erabilera mediatikoez harago, ezer gutxi izan da erraza –ez nintzateke ausartuko ez-zuzena esatera– txosten hau prestatzean eta, logikari jarraikiz, azken buruan "ez-txostena" dela esan beharko dugu.

Informazio/kontrainformazio pila horri ezikusiarrena egiten ahaleginduko gara, jakinik ikertu beharrekoaren kontzeptuan berean sartzen zela etengabe, lausotzeraino sartu ere, eta aztergaia hedatzen zutela "ondarearen" kontzeptuari buruzko kontzepzio irekiago baten esparruan eztabaidagaitzak izanen liratekeen alderdietara; aitzitik, horrek ikerketa eramanen luke beste maila bateko agertoki konplexuagoetara, erakunde honen lanak eta zereginak nekez har litzakeenak.

Hortaz, txosten hau, "Altzuzan (Nafarroa) dagoen Jorge Oteiza museoko eta museo-etxeako arte ondarearen kontserbazioari buruzko txosten berezia Nafarroako Parlamentuarentzat" bereziki era-

kunde honi eskatutakoaren edukiaz aritzen gara: Jorge Oteiza Museoaren egokitzapena, artelanak Oteiza jaunaren etxetik lekualdatzea eta Museoaren eraikinean horiek kontserbatzea. Txostena noiz eskatu zen begiratu eta horren aurretik gertatutakoak ezagututa ikus daiteke ikerketa iraganeko gertaera batzuen ingurukoa dela, dagoeneko bideraturik (ordeztu, aldatu, hobetu, arindu, baloratzeko moduko ebidentzia bezala desagerturik...) dauden alderdi fisiko batzuei buruzkoa.

Txosten hau ahaleginduko da zehatz-mehatz kokatzen erakundeak izandako jarduna Parlamentuak bere eskaera luzatu zuen unetik aurrera; ikerketa, ukitutako administrazioaren eta haren ordezkarien borondatearen ez besteren arabera, abian jartzeko baliatu ahal izan ziren epeak argi eta garbi finkatzen; obra bikaina den Jorge Oteiza Museoaren errealitateari interes publikoek nahiz pribatuek erantsi dioten konplexutasuna nabarmentzen; foru administrazioak Jorge Oteiza Museo Fundazioaren esparruan izan duen inplikazio historikoa, gaur egungoa eta zuzena argitzen, bultzada izan baita etapa desberdinetan eta mesfidantza txosten honen prestakuntzari dagokionez.

Amaitzeko, esan liteke Foru Komunitateko arartekoaren Legeak xedetzat duen lankidetzak asmoak –arartekoaren erakundearen bitartez Parlamentuaren eta administrazioaren interesek bat egiteko, ez elkar jotzeko, sistema bat antolatzea herritarrek edo haien ordezkariak plazaratutako aferak ebazteko– ez duela, oraingo honetan behinik behin, gauzatze egokirik izan. Atera daitekeen ondorioa da administratuen artean zabaltzen doan joerak, alegia, administrazio publikoak zuzentzen dituzten jarduna, gizarte baten kultura eta ondarebaliok bezalako ondasun ukiezinen ardura dutenena ere, duina eta gardena izan dadin geroz eta indar handiagoaz eskatzeak, aurrean topatuko duela maiz, edozein ikerketa dela-eta, tentuz eta zuhurtziaz egina bada ere, enbarazu keinu bat edo, are gehiago, haserre kutsua ere nahitaezkoa den erakundearen arteko lankidetzan, kasu honetan bezala.

“Ez-txosten” bilakaturiko txosten honek datuak ematen ditu ulertzeko zein harreman estua dagoen foru administrazioaren eta funts publikoekin finantzaturik dagoen eta beraz inplikazio publiko agerikoa duen fundazio pribatu honen ibileren artean, eta halaxe dela erakusten dute “Vianako Printzea” Erakundeak igorritako agiriek beraiek, gure asmoetan zen eta Parlamentuaren eskaerari hobeki egokitzen zitzaion ikerketa errealerako behar zen epetik kanpo igorri bazituzten ere. Datuak –errealitate objektiboa ezagutzeko interesa dutenentzat zantzuak baino gehiago baitira– ematen

ditu, halaber, kudeaketa tekniko eztabaidatua inguruan, Altzuzako museoaren paratzeko zuzendaritzari dagokionez, obraren lekualdatzeari dagokionez eta egitasmoaren garrantzia –kalitatearena nahiz munta kulturala– zela-eta beharko ziren segurtasun bermeei dagokionez; kudeaketa, administrazio arduraduna den aldetik, ez dator bat proiektuak bere osotasunean duen tamaina kultural eta ekonomikoarekin; eta ez oso arduratsua, oso gardena ez izateagatik, txosten hau prestatzeko denbora guztian izan duen jarrerak itzalak ekarri dituelako, alde aurretiko defentsa interesatu eta justifikaezinen itzalak; gertaeren soinuek lehena gotik ere obra baten bikaintasunari eta gordetzen den duintasun etikoari ezarriak zizkieten itzal antzuei gehitu zaizkion itzalak. Jorge Oteiza hila zen ordurako.

Txostenaren ondoko sekuentziak, hala nola, pilatutako datu guztiak, hainbat jatorritakoak eta hainbat egilek emandakoak, behar bezala baloratzeko laguntza teknikoa eskatu izanak, arrazionaltasuna erantsi zion lanari, ezabatutako egunetako historia berridazteko aukeratik aldentzen gintuen arren. Eskultura, arkitektura eta Jorge Oteizaren obrako aditurik onenek ez zuten arrazoirik ikusten obraren neurriak eta denboraren joanak gainditutako gertaerak eta gorabeherak arakatzeko.

Batetik, Altzuzako Jorge Oteiza Museo Fundazioaren testuinguru orokorrean administrazioaren kudeaketarekin zerikusirik ez duten alderdiak berrosatzen ahalegintzea alferrikakoa zelako uste osoa, ikusirik museoan azkenean kokaturiko obraren tamaina, eta bestetik ezinezkoa izatea berrosatzearen bidez ondorio askorik uztea agerian, gure ondarearen kudeaketa, beharbada, akastuna eta ausarkeriazkoa izan zela ez bada, aski argi mintzatzen dira txosten hau ixteko komenigarritasunaz eta, beraz, bertan bildutako gertaeretatik abiatuta irakurketa zabalik utzi beharraz.

Txostenean ez dago balorazio teknikorik, salbu eta administrazioak aurretik zalantzan jarritako batzuk eta administrazioak emandako beste batzuk eta zenbait iritzi publikok, politikok eta kulturek zalantzan jarri zituztenak. Gehien jota, bildutako informazioak baloratzeko moduko balio teknikoa du.

Txostenean ez da jaso baloraziorik aurreko foru gobernuko hezkuntza eta kultura administrazioak edo aurreko gobernuek Altzuzako instalazioaren eta Jorge Oteizaren legatuaren inguruko egitasmo konplexu osoa garatzen betetako kudeaketaz.

Txostenean ez dago baloraziorik fundazioaren estatutuek duten konplexutasunaz, fundazioan

governuko goi mailako bi ordezkari egon arren governuko kide gisa, ez eta kontserbatutako ondarearen beste aldagai batek, Oteizaren legatuak duen neurri kontzeptual, estetiko eta humanoaren tamainako obra artistiko bat merkaturatu eta zabaltzeko planek, duten orientazioa ere; aipatutako guztia ondare-legatuaren kontzeptuan sartu ahal da.

#### KLARIONAK

Txosten honen zati handi bat Jorge Oteiza jaunaren “Klarion laborategia” bezala ezagutzen denak biltzen dituen eskulturetan oinarritzen da. Eskultura horiek, duten garrantzia artistikoa eta txosten honetan deskribatzen diren gertakariak direla medio, ikerketaren ardatz bilakatu dira, eta horrek ekarri du Oteiza Museoaren beraren beste kudeaketa-esparru batzuen azterketa planteatzea.

Hustuketa-patioan izandako ur pilaketaren eraginez, klarionek kaltea jasan zuten zaindaria ohar-tu zen egun berean, 13an, baina toki horretan bertan gelditu ziren abuztuaren 7tik urriaren 13ra arte. Urriaren 28tik 31ra beste toki batera eraman zituzten eta, lantegira, berriz, egun batzuk geroago, azaroaren 5etik 7ra, hau da, Nafarroako Parlamentuko kideek bisita programatua egin behar zuten egunaren bezperan. Bisita hartan, Museoko kontserbatzaile Pilar del Valle andreak aipatu zizkiren Parlamentuko ordezkariari klarionak egoten ziren patioan gertatu ziren ur-iragazteei buruzkoak. Egun batzuk geroago jakinarazi zitzaion ez zuela administrari gisa zerbitzu gehiagorik emanen; Altzuzako “Jorge Oteiza Museoa” Fundazioak lan kategoria horrekin kontratatu zuen.

Arartekoak Altzuzako Museora eginiko bisitan ere ez zitzaigun jakinarazi ur-iragazteak kaltetu zituenean lanak beste toki batean zeudela, ez gure bisitaren unean hartzen zituen gelan.

Horren garrantzia ulertu ahal izateko, komeni da gogoraraztea, erakunde honen txostenak aipatzen duen moduan, Jorge Oteizari Nafarroako Urrezko Domina emateko ekitaldian, Nafarroako Gobernuo garai hartako lehendakari Juan Cruz Alli jaunak aipatu zuena bere mintzaldian: “Lan experimental frenetikoaren bidez aurkitutako ildo zorrotz eta geometrikoago bat baliatuz, Oteizak, emozio osagai oro alde batera utzita, objektibotasunaren garaitza, zorrotzasun geometrikoaren inperioa ditu xede. Hortaz, ikuskizunari erdeinu egiten dion eskultura da, adimenak antzeman behar duena eta azalpen arrazionala eskatzen duena, zentzumenezkoa baino gehiago, izaera etiko, transzendente eta unibertuala duelako”. Klarionak, artistaren sorkuntzaren oinarria, lan esperi-

mental frenetiko horren adierazpen laburraren zati garrantzitsua dira.

Oteizaren eskultura lanek helburu esperimentalta dute. Nazioarteko saria eskuratu zuen Sao Pauloko Biurtekoan, 1957an, izen hori zuen funtsezko testu teoriko batekin batera aurkeztu zituen bere lanak. Aldi hartan, Oteizak ez zituen gehieenez aurkeztu beharreko hamar eskulturak, 29 eskultura lan baizik, 10 multzotan banatuak. Bere eraikitze esperimentaleko serie guztietako eskulturak aurkeztu zituen. Horien artean, obraren barrenetik argiarekin egindako ikerlanak: argi moduluak eta kondentsadoreak, disko-mozketek poliedroan eragindako irekidurak, poliedroa irekitzea Malevitch kuboideen fusioen bitartez, espazioaren dinamika esfera libre uztearen inguruan. Kuboaren barreneko konklusio lanen aurretik eginiko lan guztia: eraikuntza hutsak eta kutxa metafisikoak, horiekin burutu zuen, 1959an, eskulturaren arloan eginiko lana.

Ulertu beharra dago Oteizak hizkuntzaren barrenean egiten duela lan, unitate minimo batzuk ezartzen ditu, harremanak adierazi, espazioan artikulatzen. Bere obraren ezaugarri metalinguistiko horrek urrundu egiten du beste artista batzuegandik. Horri dagokionez, Oteizak behin baino gehiagotan gogorarazi zuen ezen Marcel Brauerrek –Bauhausen fundatzailea Gropiusen batera eta UNESCOren eraikinaren arkitektoa–, epaimahaiko kide izateko gonbidaturik zegoenak, Biurtekoaren erakustokian elkartu ziren batean ohar-tarazi ziola: “Zuri, Oteiza, hau guztia ez zaizu batere interesatzen (bertan erakusgai zeuden hamar kilometro pintura eta eskultura seinalatzen zituela), zuk hizkuntzaren barrenean egiten duzu lan”.

“Klarionen laborategia” izenez ezagutzen denak osotara biltzen ditu Oteizaren serie esperimental guztiak, konstruktibistak ez ezik zilindroa irekitzetik abiatuta figurazioaren arloan egindako esplorazioa ere, hain zuzen ere Arantzazuko estatuagintza ekarri zuena. Laborategiak egileak eskala handiagoan eginiko obra osoa eta are gehiago biltzen du. Monumentu-eskulturarako hainbat proiektu daude bertan, Londresen, 1952an aurkeztu zuen Preso Politiko Ezezagunaren aldeko Monumenturako aurrelan batzuk barne. Halaber, paretari buruz egin zituen bilaketetan negatiboan trataturiko baxuerliebeak dituzten gisu-xaflak, eta paretari-argiaren beirazko maketak, pinturaren arloan planoaren izaera hiperespazial berriari buruz eta estatuaren arloan hutsari buruz eginiko ikerketakoak. Multzo esperimental guztiak agertzen dira, formatu txikitik. Egitura linealak, mugimenduan dauden puntuen ariketa gisa, alantze eginikoak. Zinkaren gainean guraize jarraituz eginiko arike-

tak, planoan garapena espazioan, “hainbat asmo experimental desberdinekin, eta batzuetan inolako asmorik gabe, inertziaz, landa eremu eta soroak balira bezala, zaindu beharrekoak. Mugikortasun azterlanak, faseak, balentziak, espazio etenak, tarteak, kateatze azterlanak, espazioen konbergentzia, flotazioa.”

Gisu, alanbre, eskolako klarion, kontserba lata xume, zink eta egur xafletan gauzatua, bere proposamen experimental osoa dago bertan miniaturan, hastapenetatik kutxa metafisikoetara, eta geroagoko aldagaiak ere, hirurogeita hamarreko hamarkadakoak.

Altuzan gordetako egile bilduma oso aberatsa da, funtsezko obra ia guztiak baitaude; eskulturgilearen ibilbidea dela-eta obrak ez zuen merkataritza sustapen handirik izan, eta obraren garrantzia, egiazko altxorra, bakar bihurtzen duena da hain zuzen egilearen “Klarionen Laborategia” izeneko bilduma osoa. Obra hori berarekin zegoen etxeko lan lekuetan, idatzi eta musika entzuten zuen estudiotik hasita eskultura lantegietara. Berarekin zituen ezinbestez, estetikari edo hizkuntzalari buruz hausnartzeko baliatzen zituen arbelak bezalaxe.

Horren interesa ez datza eskultorearen eskuak eginiko lanarekiko fetitxismo materialean, horrek ez baitu zentzurik Oteizaren obran, baizik era obra osotara erakustean barnealdetik. Hortxe daude eskultorearen sorkuntza indar guztia, haren pentsamoldea eta lan egiteko era, haren hautaketak eta baztertu zituen bideak, urrakortasun material izugarria duten 2.000 eskultura txikik baino gehiagok osaturiko muin horretan.

Bartzelonako Arte Garaikidearen Museoko Eulàlia Boschek, Oteiza eta Oteizaren lana ezin hobeki ezagutzen duenak, 2000. urtean Kursoaleko Kuboan eginiko Oteiza Huts erakusketaren katalogoan hauxe idatzi zuen klarionen laborategiari buruz:

“Klarionen laborategia” Ideien laborategia. Argi lantegia. Itzalen edukiontzia. Hipotetikoa behatzeko tokia. Intuizioak metatzeko tokia. Beharrezkoa ez dena libre uzteko tokia. Lan lekua. Bizi lekua. Aldaketa eta trukaketa lekua. Heziketa eta jolas lekua. Mugimendua hautemateko talaia. Bakardade eta isiltasun denbora iragaten doan espazioa. Eginahal eta nahi denbora. Zalantza norabidea daraman orain jarraitua. Laborategia, lantegia edo, besterik gabe, etxea. Egoteko espazioa eta denbora. Egindakoa ezagutzekoa. Etorkizun dagoena eragitekoa. Klarionak eta arbelak. Jorge Oteizaren estatuen paisaia ezkutua. Klarionak eta arbelak. Haren testuen heldulekua. Sekula eten ez den arte

ikerketaren helmuga. Haren obrarekin topo egiten duen ikusle zorionekoaren abiapuntua. Klarionak eta arbelak. Hona hemen eskulturgile poeta baten legatua; harengandik lekuko bat jaso dugu, materiala eta ikusezina aldi berean. Klarionak, gizakiaren eskua haren irudimenaren sakon-sakonerara luzatzeko zereginarekin. Arbelak, sortzear den pentsamenduari eite zuzena emateko tokia. Argi eta itzaleko oroimen sendak. Oteizaren klarionen laborategia konkista baten emaitza da. Konkista pertsonal bat, erronka bezala guri eskainia. Askatasunari eta sormenari irekitako ate bat, aitzakiarik onartzen ez duena. Arbelak eta klarionak. Sotiltasunez eta irmotasunez hauts zuria bere baitan hartzen duten plano beltzak. Arbelaren beltza. Huts hutsa. Infinituaren edukiontzia. Klarionaren zuria. Oteizaren O. Beltza, zuria, grisa eta gorria.”

Altuzako Museoak multzo hori osotara erakusteko pribilegioa du, egile-fundazio mota honek berezkoa duen pribilegio berariazkoa. Perry Greeneko Henry Moore Foundationek maketen lantegia erakusten duen bezala, eta Oteizaren kasuan eskultore britainiarrarenean baino askoz adierazgarriagoa da, Oteizaren obrak duen ezaugarri metalinguistikoa dela eta.

Multzoaren garrantzia eta haren hauskortasun izugarria –obra gehienak gisuz, klarionez edo kalitate txikiko metalez eginak dira, kanpoko babesik gabe– kontuan hartuta, beharrezkoa da ahal den arretarik handienarekin zaintzea kontserbazioa, besteak beste, bereziki kaltegarria zaien hezetasunetik babesteko. Fundazioaren betebeharra da egilearen legatua behar den bezala kontserbatzea, eta lan hauek neurri zorrotzenak behar dituzte, Altuzako eraikinean zorrotz aplikatu beharrekoak.

Klarionen laborategia multzo bikaina da, parekorik ez duena eta ez inola ere maila txikiagoko obra, ez bada neurri txikikoa delako eta materialak xumeak direlako. Ukaezina da eskultorearen obrari buruzko ikerketari begira garrantzi handia duela, bai eta erabilgarritasuna ere hezkuntzaren arloan. Oteiza bere-beran da, oteiza hutsa, eta bere obra osoaren xedea ulertzeko gakoa.

#### ONDORIOAK

Txostenean bildutako informazioa kontuan hartuta, hauxe da erakunde honen iritzia:

- Ezinezkoa izan da ezagutzea –ez une ez modu egokian– foru administrazioak uneoro, hau da, 2003ko martxoaren 31ren aurretik, egun horretan bertan –arartekoak Altuzako Museoa bisitatu zuen egunean– eta ondoren ere izan duen informazioa.

- Datu horiek eskuratzeko ezintasun hori “Vianako Printzea” Erakundearen laguntza falta agerikoak eragin du; “Jorge Oteiza Museoa” Fundazio-ko buru Juan Huarte jaunak erakunde horri eskuordetu zizkion bere ahalmenak.

- Lehenengo eta behin fundazio horretara, haren zuzendari Rosales jaunaren bitartez jo genuen arren, haren jarrera ere ez zen izan laguntzearen eta, gutxienez, egin beharreko txostenaren edukari buruz hasieran mintzatzearen aldekoa.

- Foru gobernuaren ordezkariak Fundazioaren –entitate pribatua– patronatuan egoteak eta haien inplikazio konplexuak ez du biderik eman ikerketa modu arinagoan eta eragingorragoan egiteko.

- Aitzitik, Foru Parlamentuko parlamentu-talde batek informazio teknikoak besterik ez zena eskatzean, erantzukizunen eskuordetze nahasia gertatu da interes pribatuen eta publikoen artean, herrialde garatuetan gero eta irmotasun handiagoz aldatu nahi den kudeaketa ereduaren erakusgarri.

- Txosten honetan bildutako datuak –eskatu eta azkenean “Vianako Printzea” Erakundeak bidalitako txosten teknikoak kenduta– Altzuzako Jorge Oteiza Museoa Fundazioaren parte-hartzerik gabe lortu behar izan ditugu, horren arduradun nagusiek uko egin diotelako laguntzeari hala eskatu zaien aldietan, eta beti eskuordetu dutelako beren erantzukizuna, espresuki nahiz de facto, fundazio horretan foru administrazioak dauzkan ordezkariengan.

- Lanek, pilotutako hezetasunaren edo ur-haritzeak –bertsioak bertsiok– eragindako kalteak edo narriak, eta egokitze eta segurtasun arloetan egondako akatsak zuzendu izanak datu objektibo batzuk –aurretik jasotakoak– eta informazio iturriaren arabera kontrajarriak ziren iritziak alderatzeko beste aukerarik ez zuen ematen, eta ez zegoen ondorio gehiagorik ateratzerik, ez baziren txosten hau egiteko sortutako zailtasunen ingurukoak.

- Behin akatsak konpondurik –eta bistan da izan zirela, horien tamainaren berri ez badago ere– ez legoke lotura logikorik ezagututako datuen eta geroago eginiko ikerketa baten artean; gainera, ikerketa horrek, museoaren arloko kontserbazio eta instalazioko adituek egin ere, museoaren irudia eta, batez ere, Jorge Oteizaren obra eta memoria, kaltetuko lituzke berriz ere.

- Azaldu dugun iritziarekin bat datoz erakunde honek kontsulta eginiko adituak, eta denok uste dugu ez dela jada ikerketa bat egiteko garaia, iragan egin dela, edozein izanik ere haren emaitza eta jakitera emanen zutenaren larritasuna, eta akats horiek aipatuko dituen beste datu berri oro-

ren gainera, azpian dagoena dela entitate pribatu baten barne gatazka bat; beraz, entitate horren gain utzi diren herritarren interesetarako kalterik ez den bitartean, gure esku dagoen bakarra da gure nahia arazoa konpon dadin, interes pribatutik eta foru administrazioaren ordezkariak hartutako erantzukizun pertsonal eta politikotik.”

## I- 05. 2003. URTEKO KEXEI BURUZKO BALIOESPEN OROKORRA

### SARRERA

Guk eginiko lehen bi urteko txostenetan, hau da, 2001 eta 2002. urteei dagozkienetan, nabarmendu genuen administrazioen jardura administratiboa ikuskatzeak duen garrantzia. Izan ere, erakunde hau arautzen duen legeak eginkizun hori esleitzen dio 1.3 artikuluan, betiere herritarren eskubideak eta askatasunak defendatzeko eta hobetzeko xedearekin, hori baita erakunde honen eginbarra.

Ikuskapen lan hori, betez ere, herritarrek administrazioekin dituzten harremanak direla eta aurkeztutako kexekin lotuta dago. Horretaz gain, erakunde honek bestelako jarduketak ere garatu ditu bere ekimenez. Horien bidez bestelako gaiak aztertzen dira, eskubideen defentsarekin eta hobetzearekin lotuak, baina herritarrek oso gutxitan planteatzen dituztenak, gai horien tipologia dela eta.

Kexen bidezko ikuskapen-lanari buruzko txostenaren zati honetan islatu nahi ditugu, batetik, administrazioei oharpenen bat –legezko betebeharren gogorazpena, gomendioa eta iradokizuna– egitea ekarri duten gai nagusiak. Baina bestalde, garrantzitsua iruditzen zaigu ikuskapen-jardura egituratu dugun arlo edo gai bakoitzean –Nekazaritza, Hezkuntza, Ogasuna, Barnea, Hirigintza eta abar– planteatu diren auzi aipagarrien ikuspegi orokorra, are gehiago kontuan hartzen badugu aurreko bi ekitaldietan antzeko lana egin dugula.

Lan hori bi helbururekin egiten dugu. Alde batetik, ezagutaraztea, kexen bidez planteatutako auzien aurrean gure jarrera adierazi eta administrazioei jarduketaren bat egitea gomendatu edo iradoki diegun kasuak. Horretaz gain, horrelako jarreraharitzeak gertatu diren kasuak guzti-guztiak ezagutu beharrik gabe, lehen aipaturiko arloetako bakoitzean herritarrek gehien planteatzen dituzten eta garrantzia handiena duten auzien ikuspegi orokorra izatea nahi dugu.

Badakigu ez dela erraza ebazpenen testu osoa irakurtzea, honekin batera doan CDan agertzen den moduan. Horregatik eman diogu jarraipena 2001eko urteko txostenean hasitako lanari, kexa



eragiten duten gaiei buruzko eztabaida eta horien azterketa islatzeari alegia, administrazioei erakunde honekin dituen harremanetan eskatu behar zaion argudioen mailako justifikazioa eta sendotasuna lortzearren. Aurten ordea modu berri batez egin dugu, CD formatuan hain zuzen.

Hiru urte daramatzagu lanean eta, gure ustez, bada garaia administrazio horietako batzuei erakunde honekin dituzten harremanetan lankidetzahalegin handiagoa egin dezaten eskatzeko; bate-tik, gai bati buruzko informazioa eskatzen zaienean, ahalik eta informazio gehien igor dezaten, eta bestetik, guk eginiko oharpenen aurrean duten jarrera gehiago eta hobeto azal dezaten. Hori dela eta, gure ebazpenak modu orokorrean islatzearekin lortu nahi duguna da administrazio horiek gure eskarien eta jarreraren aurrean ematen duten erantzuna hobeto ezagutaraztea; laburbilduz, ikusi ahal izatea administrazio horietatik zeintzuek ahalegin egokia egiten duten arartekoaren Erakundearekin dituzten harremanetan laguntza emateko eta, aldiz, zeintzuek labor-labor erantzuten dieten gure eskari eta ebazpenei, askotan aurkeztutako kexak behar bezala aztertzea eta, batez ere, Parlamentuak agindutako moduan herritarrak babestea eragotziz.

Aukera izan dugun bakoitzean azaldu dugunez, administrazio batengana jo eta hark laguntzarik ematen ez badigu, ezin dugu bete erakunde honek esleiturik duen eginkizuna, hain zuzen ere Konstituzioak eta LORAFNAk aitortzen dituzten libertate nahiz eskubideen babes-maila hobetu eta aldezte, eta hortaz, uste dugu ezen bi aldean arteko harremanak oinarri izan behar dituela elkarrenganako konfiantza eta erakundearen arteko leialtasuna. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak berak babesten du ideia hori, 26. artikuluan, bertan hau xedatzen baita: "botere publiko eta erakunde guztiek laguntza eman behar diote Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari lehenetsunez eta presaz haren ikerketa eta ikusketetan".

Gure kasuan, gure ebazpenen edo iritzien edukia arretaz zaintzen saiatzen gara, bai baitakigu, gurea bermerako erakunde ez-loteslea den aldetik, berebiziko garrantzia duela gure ebazpenen justifikazio egokiak eta, gure irudikoz, eztabaidak ezaugarri horiek betetzen laguntzeko moduetako bat da, hain zuzen, modu horretan islatzea gure jarduerari dagokion zatia kexak tramitatzean.

Lan horrek ere badu garrantzia herritarrekin ditugun harremanetan. Herritarrei dagokienez, gure erabakiak azaldu eta arrazoitzeko ahalegina are handiagoa izan behar da kexak tramitera onartzen ez diren kasuetan, askotan hori gertatzen

baita helarazten zaizkigun afera guztiak aztertu eta ikertu ondoren. Bestalde, gure erakunde arautzen duen legearen 21.3 artikuluan ageri den manua bete besterik ez dugu egiten, kexak ez onartzeko zergatiak arrazoitu eta justifikatzera behartzen baikaitu, bai eta herritarrari arazoa konpontzeko baliatu ahal dituen bide egokienei buruzko informazioa ematera ere.

Gure ikuskapen jarduera osatzen duten arloak aztertzeari ekinaz, arreta jarri behar dugu, aurreko bi txostenetan modu orokorrean egin genuen moduan, eta beraz, arlo edo gai zehatz bati bereziki lotu gabe, administrazio-isiltasunaren erabilerran. Izan ere, herritar askok jotzen dute guregana administrazioari eginiko eskariak edo bertan aurkeztutako idazkiek erantzunik jaso ez dutelako.

Jokabide hori izan da aurten aurkeztu dizkiguten hainbat kexaren arrazoa, eta hori behar bezala jasota dago gure ebazpenak islatzen diren atalean. Hala ere, ez da aurreko urteetan bezain esanguratsua izan. Halaber, antzeman dugu auzi horietako bat dagokion administrazioari planteatu diogunean, horrek herritarrak eginiko eskariari edo aurkeztutako idazkiari erantzun diola.

Hala ere, gure ikuskapen jarduera egitura osatzen duten arloak edo gaiak aztertzen hasi aurretik, behar bezala jasota utzi nahi dugu ohitura hori oraindik ere badagoela. Arlo guztietan gertatzen da eta administrazio txarreko kasu argia da; izan ere, kasu horiek gertatzen dira erakunde publiko batek nahitaez bete beharreko arau edo printzipioen arabera jokatzen ez duenean.

#### NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

2003. urtean zehar, nekazaritza arloan lurzati- en berrantolamendu prozesuekin loturiko kexa gehiago aurkeztu dira. Kexa horiei dagokienez, prozesu horien prozedurazko alderdia aztertu dugu gehienbat, baita prozesu horietan ukitutako- ek bere interesak defendatze aldera oharrak eta alegazioak aurkezteko izan dituzten aukerak ere. Izan ere, loteen edo lurzati- en esleipenarekin zerikusia zuten aferak, orokorrean, funtsik gabekoak ziren, ikusirik aztertutako auzietan aplikatu beharreko murrizketa portzentajeak.

Aurreko urteetan gertatu den moduan, atzeman da zenbait toki entitatek ez dutela jardun jabari publikoko ondasunak defendatzeko, nagusiki auzobideei dagokienez, eta hori dela eta aipatu toki entitate horiei arlo horretako betebeharrak gogorarazi behar izan dizkiegu. Baina kasu horiek alde batera utzita, merkataritzaren eta kontsumoa- ren arloan jardun dugu gehienbat.

Nabarmentzeko moduko lehen afera merkataritza elkarte batek planteatu ziguna da. Elkartearen ustez, Nafarroako Gobernuak Nafarroan merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea ez garatu izanak ziurgabetasun juridikoa ekarri du. Izan ere, lege horren hainbat arautan gobernuari agintzen zaio erregelamenduen garapena egin dezan, legeak merkataritza txikiarentzat aurreikusten dituen babes, sustapen eta modernizazio neurriak eraginkorrak izan daitezzen.

Egia da hasieran ez zela jardunik izan, bereziki saltoki handien lurralde ereduak erregelamendu bidez garatzeari dagokionez; izan ere, legeak erregelamendu hori hilabeteko epean garatzeko agintzen zuen, Merkataritzari buruzko legearen printzipio inspiratzaileak edukiz hornitzeko funtsezko elementua baitzen. Agindu hori ez betetzearen ondorioz, apirilaren 4ko 25/2003 Foru Legea onetsi zen. Lege horren bidez, Nafarroako merkataritza arautzen duen Foru Legea aldatu zen eta saltoki handiak ezarri edo baimentzeko lizentziak emateari dagokionez, moratoria bat ezarri zen, saltoki handien lurralde ereduak indarra hartu artekoa. Eskura genituen datuak ikusirik, atzeman genuen 2003. urteko lehen seihilekoan hasi zela legearen oinarriko aurrikuspenak edukiz hornitzeko lanean, abian ziren tramitazioak bukatzea eragotzi gabe.

Horrela, 2003ko martxoaren 7an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusiaren urtarrilaren 15eko 29/2003 Ebazpena. Horrez bidez agintzen da Nafarroako saltoki handien lurralde ereduaren onesten duen foru dekretu proiektua argitaratzea. Testu horretan aipatzen den moduan, lurralde eredu horren bidez saihestu nahi da saltoki horien ugaritze kontrolgabea, zeren eta, "hala ugalduko balira, zaila izanen litzateke gaur egun dauden merkataritza eremuek irautea eta horrek nagusitasuneko egoera onartezinak sortuko litzuke merkaturuan".

Bestalde, 2003. urtean merkataritza txikiari laguntzeko neurriak garatzen dituzten hainbat arau onetsi dira, 17/2001 Foru Legearen 76.2 eta 77. artikuluek xedatutakoari jarraikiz. Horrela, 2003ko ekainaren 6an argitaratu zen NAO 125/2003 Foru Dekretua, maiatzaren 19koa, merkataritzaren sektoreari laguntzeko neurriak arautzen dituena. Bertan hainbat programa zehazten dira (merkataritzaren sektorea indartzeko programa; merkataritza elkarteak eta enpresen arteko lankidetzaren sustatzeko programa; prestakuntza programa).

Gaixo zeliakoentzako elikagaiek sortzen dituzten arazoak ere aztertu ditugu, bi alderdi kontuan hartuta. Alde batetik, elikagai horien kostu handia

eta gaixotasun hori dutenek horiek erosi ahal izateko dituzten aukerak. Bestetik, gaixo horiek erosi behar dituzten produktuak etiketatzeko modua.

Azken alderdi horri dagokionez, gaixoei adierazi ziguten ohikoa dela etiketan ez aipatzea produktu horiek glutena duten edo ez, eta aipatuz gero, ez dute adierazten kopurua. Informazio hori etiketan agertuko balitz, erraz egiaztatuko ahalko litzateke produktua pertsona horientzat egokia den ala ez.

Bada arau bat zeliakoentzako jaki berezien etiketak arautzen dituena, hain zuzen Jakiak etiketatzeari, aurkezteari eta iragartzeari buruzko uztailaren 31ko 1334/1999 Errege Dekretua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren urtarrilaren 27ko 97/ 4/CE zuzentarauak xedatutakoa barneko ordenamendu juridikora sartu zuena. Baina hala ere, gure ustez beharrezkoa da etengabeko ikuskatze lana egitea arlo horretan, araudia egiaz betetzen den egiaztatze aldera.

Ildo horri jarraikiz, jakinarazi zitzaigun 2000. urtean zeliakoentzako eta alergikoen senitartekoentzako elkarteek Nafarroako Gobernuari laguntza eskatu ziotela, gaixo horiek normalean hartzen zituzten produktuak kontrola zitzan, eta, horren ondorioz, Kontsumo Zerbitzuak produktuen zerrenda bat prestatu zuela eta kontsumo alorreko ikuskariek produktu horiek kontrolatzen dituztela eta laborategira bidaltzen dituztela, etiketak eta edukia azter ditzaten. Jarduketa horien emaitzak ere bidali zitzaizkiguten.

Horiek ikusirik, eta azken atal honetan lan hori jada egiten den arren, produktu horiek finantzatzeko edo erosten laguntzeko balizko moduen aferak, bereziki errenta maila baxuenetakoa duten gaixoen kasuan, arazo izaten jarraitzen du, eta ez da inongo konponbiderik ezarri. Horrek kontuan hartzeko moduko arazoak ekartzen dizkie gaixoei eta haien senitartekoei.

Azkenik, nabarmendu nahi dugu kontsumo alorreko zehapen espediente batzuetan jarraitutako prozedura eta arbitraje sistemaren funtzionamendua aztertzeaz gain, lehenengo aldiz hainbat kexa jaso ditugula, saltzaile ibiltarien instalazioek bereziki sanferminetan sortutako arazoei buruzkoak. Erakunde honen esku-hartzeak ahalbidetu zuen saltzaileei jai horietan instalatzeko baimena ematea; izan ere, Iruñeko Udalak oso denbora gutxirekin ezagutarazi zituen postuak banatzeko ezarri nahi zituen hainbat aldaketa. Hurrengo urteetarako gai hori berrikusteko konpromisoa hartu zuen Udalak.

## GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte ongizatearen atalean, baliabide nahikorik ez duten eta batzuetan haien egoera zaila konpontzeko baliabide egokiak lortzerik ez duten pertsonen kasuez gain, halakoak urtero izaten baitira, iritsi zaizkigun hainbat kexa nabarmendu nahi ditugu. Hain zuzen, familia jatorriari buruzko informazioa lortu nahi zutenei Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak lehengo Nafarroako Amen eta Umezurtzen Etxeko datuak eta agiriak ikusteko baimenik ez ematearen ondorioz aurkeztuak.

Aztertutako kasuetan adierazi genuen, gure ustez, pertsona horiei baimena eman beharko litzaiekeela, Departamentuko artxiobotako senitartekoei buruzko datuak eta agiriak ikusteko –ez ordea besterik, bistakoa denez–, eta horretarako arrazoiak, nagusiki juridikoak, zabal azaldu genituen.

Espediente horiei dagokienez –xehetasun handiagoz deskribatuta daude kexa esanguratsuenei buruzko atalean–, aipatu behar dugu inplikaturiko departamentuek ardura handiagoz jardun eta erakunde honekin lan egiteko jarrera hobea azaldu beharko luketela. Izan ere, espediente guztietan, Gizarte Ongizate Departamentuarekin harremanetan jarri eta haiei buruz eskatutako txostena ere bidali ondoren, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentura bidali gaituzte behin betiko erantzunaren bila, eta kasu batean, gainera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentura ere jo behar izan dugu.

Hauxe da Gizarte Ongizate Departamentuak horrela jokatzeko eman zuen arrazoa: “Uztailaren 4ko 206/2003 Foru Dekretuaren bidez (uztailaren 5eko 86. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua) Kultura eta Turismo Departamentuaren egitura organikoa ezarri da, eta hortik aurrera Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuari eta Ondare Historikoaren Zerbitzuari dagokie Nafarroako Ume Abandonatuen Etxeko espediente eta gauza guztiak tramitatzeko, kudeatzeko eta gordetzeko eskumena”. Hori dela eta, gai horri buruzko kexekin loturiko edozein informazio nahi izanez gero, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari eskatu behar genion eta hari eman genion gure gomendioen berri, horiei buruzko jarrera ager zezan.

Egia esateko, Departamentu horrekin hainbatetan harremanetan jarri ondoren, ezin izan genuen jakin zein zen Nafarroako Gobernuaren iritzia erakunde honek eginiko gomendioei dagokienez; eta larriagoa dena, horrek galarazten zigun kexak aurkeztu zituztenei esan ahal izatea datu horiek esku-

ratzeko baimenik emanen zitzaien, guk kasu horietako batzuetan defendatzen genuen moduan.

Azkenik, txosten hau prestatzen amaitu aurretik jaso genuen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren erantzuna, edukia- ren aldetik berdintsua kasu guztietarako. Bertan kontseilari jaunak aipatu espedienteetan planteatutako kasuen modukoak aztertu ahal izateko jarraitu beharreko prozedura azaltzen zuen, Nafarroako Gobernuaren baitan artxiboen arloan egin den berregituraketatik hasita, departamentuak horrekin loturiko eginkizun guztiak bere gain hartu artekoa, baita “lan ildoak eta, are gehiago, berarizko unitate mistoak” ezartzeko beharra ere.

Gure ustez, erantzun horren bidez ez zaio erantzun egokia eman erakunde honek eginiko eskariari. Izan ere, gaiaren garrantzia kontuan hartuta, gure eskakizuna ahalik eta zabalaren argudiatzen eta funtsatzen saiatu ginen, eta erantzunean antolamenduzko eta prozedurazko arrazoiak eman zitzaizkigun, nagusiki, horri buruzko erabakia atzeratzeko.

Espediente hauekin eta hauen azken emaitzarekin gertatutakoa kezagarria eta desegokia da gaur egungo administrazio batentzat. Izan ere, auziari buruzko azken erantzuna jaso arte izan den atzerapenez gain, kontuan hartu behar da pertsona horiek administrazioari berari eskatu zizkiotela datu horiek alde aurretik. Eta horretaz gain, azken erantzun horrek gai honi konponbidea ematea are gehiago atzeratzen du, eta ez konponbideari buruzko inongo argitasunik ematen. Edonola ere, konponbidea, “beharrezkoa balitz, ezartzen diren lan ildo eta berarizko unitate mistoen” mende geratzen dela dirudi, bidalitako txostenean hitzez hitz aipatzen denez.

Aipatutako guztia espediente horiek direla-eta harremana izan dugun bi departamentuez esan daiteke: Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua alegia, eta hala jakinarazi diegu bi departamentu horietako titularreri. Dirudienez, antolamenduarekin loturiko arrazoi bidez auzi horri buruzko erabaki bat hartzea atzeratu nahi da, edo hori ondorioztatzen da behintzat emandako erantzunetik. Hori dela eta, antolamenduari buruzko kontu horiek eragina dute ukitutako pertsonengan, eta pertsona horiek ez lukete halako zalantzarik jasan beharko azaldu zaizkigun arrazoiak direla medio.

Laguntzen arloan, hainbat gai aztertu ditugu, hala nola Iruñeko Udalak ezgaitasuna duten pertsonen bono-taxia erosteko ematen dizkien dirulaguntzak, edota Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazte-

ria Departamentuak zahar-etxeke egonaldia ordaintzeko adina dirurik ez dutenei ematen dizki-enak. Hala eta guztiz ere, horri lotuta nabarmendu nahi dugu ekainaren 26ko 168/1990 Foru Dekretu-ak araututako dirulaguntzei buruz egin genuen azterketa, hain zuzen, departamnetu berak etxez etxeke laguntzarako ematen ditueni buruzkoa. Dirulaguntza horien xedea da onuradunari bere etxean bertan jaso beharreko zerbitzu pertsonalak ematea, eta urtero garatu ohi da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari-kudeatzaile-ak emandako ebazpenaren bidez. Ebazpen horren bidez, dirulaguntza horiek emateko kontuan hartu-ko diren irizpideak eta aplikatuko diren baremoak onesten dira urte bakoitzerako.

Aipatu araudia aztertu ondoren, bereziki dirula- guntzak emateko aplikatzen ziren irizpideak eta baremoak, horietan izan baitziren kexak aurkezte-ko arrazoia, gomendio bat egin genion Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, hurrengo urteei begira, dirulaguntzen xedeari eta berdintasunaren printzipio konstituzionalari hobeto egokitzen zaien araudi berria presta dezan, gure ustez, aplikatzen ziren irizpideek ez baitzuten prin- tzipio hori erabat errespetatzen. Horretaz gain, eta formari dagokionez, gaia ikusirik eta jende askori zuzentzen zaiola kontuan hartuta, gure iritzia adie- razi genion, alegia, araudi berria erregelamendu baten bidez onetsi behar zela eta, betiere, oso- osorik argitaratu behar zela Nafarroako Aldizkari Ofizialean, ordura arte ez baitzen hala egiten.

#### KULTURA, KIROLA ETA ELEBITASUNA

Kultura arloan hainbat kexa jaso ditugu, baina horietako batzuetan ez dugu irregularitasunik sumatu, adibidez, Nafarroako Liburutegi Nagusian irakurleen eskura jartzen den eguneroko prentsa mota dela-eta herritar batek erakutsitako desados- tasunean; edo ez dugu esku hartzeko eskumenik, afera esparru pribatukoa delako; horixe gertatu zen Espainiako Egile eta Editoreen Elkartearen jarduketari buruzko kexa batekin, hain zuzen elkar- te horrek establezimendu bati eskatzen zion zen- batekoa egile-eskubideak direla-eta.

Kirolaren alorrean, kirol federazioen baten jar- duketaren bat aztertu dugu, delegazioz, adminis- trazioarenak diren eginkizun publikoak betetzen dituzten gaiekin lotuta. Horren arrazoia izan da gure ustez administrazio prozedurari buruzko araudiaren printzipio inspiratzaileak erabat aplika- tu behar direla, hala nola federazio horien espedi- enteetan dagoen dokumentazioa eskuratu ahal izatea eta interesatuek eskatutako agirien kopia jaso ahal izatea.

Elebitasunari dagokionez, ekitaldi honetan planteatu zaizkigun gaietan zehaztasun handiagoa atzeman dugu, orokorrean. Hala ere, kasu batzue- tan, aurkeztutako kexen zioa izan da Nafarroako hainbat eremu eta administrazioetako berrogei dei- alditan euskara jakitea derrigorrezkoa ez izateare- kin edota euskara ezagutzeagatik emandako pun- tuazioarekin ados ez egotea. Agerikoa da kexak aurkezteko modu horrek nabarmen eragozten duela guk esku hartzeko aukera, eta hala adieraz- ten diegu horrelako kexak aurkezten dituztenei. Izan ere, kexa horiek orokorrak izateaz gain, kon- tuan hartu behar da ere administrazio publikoek autoantolatetari buruzko eskumen handiak eta garrantzitsuak dituztela eta, horren ondorioz, baita plantilla organikoko lanpostuen konfigurazioari buruz ere.

Horrela, bada, euskaraz zuzentzen zaien herri- tarrari erantzuteko modua administrazioen ahal- menaren alderdi bat besterik ez da; hala ere, apli- kagarria den araudian herritarrei aitortzen zaizkien eskubideak bermatu behar dira. Orokorrean, lanpostu jakin batzuk era zehatz batez konfiguratu izanagatik, hizkuntzen ezaguerari dagokionez, ezin da alde zuretik juzgatu hizkuntza eskubide- ak urratzen direla. Aldiz, kasuz-kasu aztertu behar- ko da herritarrei egiaz nola erantzuten zaien, herri- tarrei aitortzen zaizkien eskubideak kontuan hartuta. Soilik administrazio publikoak hizkuntza eskubide horiek benetan urratzen dituztenean esku har dezake erakunde honek; hala azaldu izan dugu aurreko txostenetan, baita honetan ere, administrazioari gai horrekin loturiko hainbat jarrai- bide eman zaizkioneko kasuak azaltzerakoan.

Alor honetan gure esku hartzeko aukerak muga bat izaten jarraitzen dute, administrazioare- kiko auzien jurisdikzioaren aurrean Euskararen Legearen aurka aurkeztutako helegiteak, hain zuzen. Pasa den urtean Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren aurka paratutako helegiteak genituen aipagai; aur- ten, berriz, gauza bera esan daiteke otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuaren aurka aurkeztu- takoei buruz; izan ere, azken hori aurrekoaren orde z eman zen, hain zuzen, haren aurka aurkez- tutako errekurtsioetako batzuen ebazpenaren ondorioz.

Eta hori hala da, ez soilik gure erakundea arautzen duen legearen 23.2 artikulua hainbat kasutan esku hartzeko debekua ezartzen digula- ko; baizik eta, horretaz gain, Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2003ko irailaren 11n eta 12an 372/2000 Foru Dek- retuaren hainbat xedapeni buruz –adibidez, 18.3.

artikulua– emandako ebazpenen modukoek hainbat interpretazio eta jarduketa irizpide ezartzen dituztelako, eta logikoaenez, gai horri buruz egin nahi diren azterlanek horiekin bat etorri behar dutelako. Izan ere, ebazpen horietan aztertzen diren xedapen horietako askorekin bat datoz 2003ko azaroaren 6ko 29/2003 Foru Dekretuko xedapenak, eta foru dekretu hori lotu behar da uztailaren 30eko 203/2001 Foru Dekretuarekin, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako zein lanpostu diren euskara jakin beharrekoak (Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakasleenak kanpo direla) eta zer jakite maila behar duten, eta zehazten baita zein lanpostutan hartu behar den euskara jakitea beste batzuen arteko merezimendutzat.

Arestian aipatutakoa baztertu gabe, eta herritarrek administrazioekiko harremanetan jasandako egoerei edo jarduketeki buruz egiten dugun azterketarekin jarraituz, esan dezakegu aurtengo ekitaldian modu berezian islatu dugula herritarrei zuzenduriko hainbat dibulgazio-liburuxkaren argitalpenaren afera, baita argitalpena eremu euskalduneari eta, bereziki, eremu mistoan, egiteko modua ere; izan ere, gai horri buruzko hainbat kexa jaso ditugu. Horren arrazoa da aplikagarria den araudiak, kasuen arabera, argitalpenaren ardura duen departamentuko kontseilariaren esku uzten duela argitalpen horiek egiteko moduari buruzko erabakia.

## HEZKUNTZA

Ekitaldi honetan ere, gehien aztertu dugun gaietako bat eskolatzeari buruzkoa izan da, eta ikuspegi bikoitzetik aztertu dugu. Horrela, matrikula egiteko prozesuarekin lotutako gaiak aztertu ditugu, eta horretaz gain, arreta berezia jarri dugu ikastetxe publiko jakin batzuetan gertatzen ari den egoeran; izan ere, ikasle etorkin asko bildu dira bertan.

Aurreko urteetan azken arazo hori aztertzen hasi ginen, kasu isolaturen bat helarazi baitzitzagun, baina ekitaldi honetan arazoa orokortasun eta sakontasun handiagoz aztertu dugu. Horretarako, lehenik eta behin, Tuterako ikastetxeetan aurtengo ikasturtean gertatutako egoera aztertu dugu –txosten honetako kexa garrantzitsuenei buruzko atalean jasota utzi dugu–, eta, ondoren, antzeko azterketa egin dugu Iruñeko ikastetxeetan. Azterlan hori prestatzen ari gara oraindik, baina dauzkagun lehen datuen arabera, ondorioak Tuterako ikastetxeen kasuan islatu genituenen antzekoak izanen dira.

Gai horrekin lotuta, gure ustez, ikastetxe gutxi batzuetan dagoen benetako kontzentrazio egoerak eskatzen du lehenbailehen hezkuntza neurriak hartzea, gure erkidegoko hainbat ikastetxetan jada gertatzen ari diren diskriminazio prozesuei irmotasunez aurrea hartzeko eta aurre egiteko, modu horretan ikastetxe batzuetan gizarte arazoekin loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak biltzea saihestu eta klaseen eta ikasleen arteko nahasketa susta dadin. Hori gertatu bitartean, beharrezkotzat jotzen dugu ukitutako ikastetxeek hezkuntza baliabide bereziak izatea, ikasle horien hezkuntza premia berezietan erantzun ahal izateko, eta horretaz gain, baliabide horiek aipatu ikasleek hezkuntzaren arloan jasaten duten diskriminazio eta desberdintasun egoera konpentsatzeko balio izatea.

Bestalde, jaso ditugun hainbat kexa 0 eta 3 urte arteko haurren hezkuntza laguntzari buruzkoak dira. Arlo horretako kexa nagusia da dagoen eskaera asetzeko adina postu ez direla eskaintzen; baina aurtengo ziklo horren izaerari eta konfigurazioari buruzko kexaren bat ere jaso dugu. Izan ere, kexa hori aurkeztu duenaren ustez, hezkuntza arduradunek ezarri beharko lukete 0-3 zikloa, eta berori konfiguratzeko hezkuntza irizpideak kontuan hartu beharko liriateke.

Gure aurreko txostenean nabarmendu genuen beharrezkoa dela dagoen eskaintzari erantzuteko borondate sendo eta irmoa izatea. Ildo horri jarraituz, gogora ekarri behar da Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak exijitzen diela administrazio publikoei berma dezatela eskolaurreko hezkuntzan behar adina toki eskaintzen dela, seme-alabei irakaskuntza hori eman nahi dieten gurasoek aukera izan dezaten etxetik gertu dauden ikastetxeetara eramateko haur horiek.

Gaur egun, agerikoa da hori ez dela betetzen, eta gainera, oraindik ez dakigu 10/2002 Lege Organikoa nola garatuko den Nafarroan. Izan ere, lege horrek modu isolatuan hartzen du etapa hori –LOGSEK ez bezala–, eta hezkuntza eta laguntza izaera izanen duen berariazko eskolaurreko hezkuntzako etapatzat hartzen du. Hala ere, autonomia erkidegoei esleitzen die hezkuntza etapa horretako haurren laguntza antolatze eskumena, baita laguntza hori ematen duten ikastetxe eta erakundeek bete beharreko baldintzak ezartzeko ere, betiere Gobernuak etapa horretako hezkuntza alderdiei buruz emandako oinarritzko araudiari jarraituz.

Erakunde hau gai horri buruzko txosten berezi bat prestatzen ari da, eta bertan alderdi horiek eta beste batzuk ere aztertuko dira. Txosten hori

2004ko bigarren seihilekoan aurkezteko asmoa dugu, gure iritzia kontuan har dadin etapa edo ziklo horren behin betiko konfigurazioa prestatzerakoan.

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko laguntza ere aztertu dugu, eta hori aztertzeko arrazoia izan da, banakako kasuren batez gain, Tuteran inguruko ikasle batzuek, ezgaitasuna dutenak, laguntzarik jaso ez izana. Izan ere, ikasturtean zehar, Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroak (CREENA) ikasle horiei fisioterapia tratamendua ematen zien ikastetxean bertan; eskola oporraldian, aldiz, tratamendua eten egin zen, horrek adingabeko horien bilakaerari dakarkion kaltearekin.

### FUNTZIO PUBLIKOA

Funtzio Publikoari dagokion atalean, karrera administratiboari buruzko auziak izan dira gehien planteatu zaizkigunak. Alde batetik, ospitale jakin bateko zerbitzuburu bat bitarte baterako izendatzeko modua baliatu dugu administrazioari gogorazteko, legeak aukera ematen badu ere halako lanpostu hutsak modu horretan aldi baterako betetzeko, halako aldi baterako izendapenak ez direla erabili behar beharrian iraunkorrak betetzeko, langileei buruzko araudiak berak ezartzen baitu izendapen horiek aldi baterako izan behar dutela, eta kasua bada, administrazioak legean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatu beharko du, izendapena orokorrean ezarritako gehieneko epetik haratago luzatzea erabakitzen badu.

Langile edo funtzionario publiko batzuen mugikortasunari dagokionez, Nafarroatik kanpo lan egin zuen estatutupeko mediku talde batek kexa aurkeztu zuen uztailearen 4ko 139/2001 Foru Dekretuak ezarritako araudiari buruz, hain zuzen nazio-esparruko lehiaketarako deitutako postuekin loturikoa. Azkenik, kexa hori artxibatu egin genuen, 2003ko apirilaren 30ean Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak emandako epaiaren ondorioz; izan ere, horren bidez atzera bota zen 139/2001 Foru Dekretuak gai horri dagokionez ezarritako aldaketaren aurka aurkeztutako errekurtsua.

Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legea onetsi izanaren ondorioz, ordea, autonomia erkidegoek, arlo horretan, nahiz administrazioeko beste batzuetan, hainbat neurri hartu beharko dituzte langileei dagokionez, a posteriori prozesu horien garapen harmoniatuagoa bermatzeko eta langileen mugikortasuna ziurtatzeko. Hala ere, Nafarroaren kasuan, aurreikuspen horiek egokitu egin beharko dira, Foru Komunitateak, eskubide

historikoen ondorioz, funtzio publikoaren arloan dituen eskumenak eta eskumen horiek betetzeko modua kontuan hartuta; izan ere, eskumen horiek betetzeko moduak ekarri du foru funtzio publikoari buruzko kode osoa izatea, alderdi guztiak arautzea xede duen araudia, alegia, estatuko legeriaren mende ezer utzi gabe.

Prestazioei dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko funtzionarioak ukitzen dituen sistema arautzen duen martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeak ezarritako eskubide pasiboan erregimen berriari buruzko konturen bat aztertu dugu, baita Gizarte Segurantzaren kotizazioen eta dauden montepioetako klase pasiboan araubidean eginkoen elkarrekiko konputu sistemarik ez izateak dakarren arazoa ere. Horretaz gain, nagusiki montepio horiei atxikitako jubilatuak duten arazoa planteatu zaigu; izan ere, behar dituzten sendagaiak oso-osorik ordaindu behar dituzte eta, ondoren, Osasun Laguntza Zerbitzuari zenbateko hori itzultzeko eskatu, eta arazoa da zerbitzu horrek atzerapen handiz ordaintzen diela.

Arazo horri dagokionez, saiatu gara irtenbide bat aurkitzen 186/2002 Foru Dekretuaren 4. artikuluan ezarritako aurreikuspenaren bidetik, hain zuzen, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak behar diren izapideak egin ditzan Osasunbidearekin duenaren antzeko sistema bat Nafarroako Farmazilarien Elkargo Ofizialarekin ezartze aldera. Baina arazoa oraindik ez da konpondu, aipatu izapideak ez baitira hasi ere egin.

Azkenik, funtzio publikoan sartzeko prozedurei dagokionez, kexa aurkeztu zutenek baztertzailatzat hartzen zituzten muga edo baldintza jakin batzuk ezarri ote daitezkeen aztertu dugu, hala nola, suhiltzaile lanpostuetara sartzeko adina edo polizia lanpostuetara sartzeko gutxieneko altuera.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da justizi auzitegiek behin baino gehiagotan ezarri dutela gai hori, baita jurisprudentzia ezarri ere. Lehenik eta behin, berdintasun printzipioak ez du eragozten tratu juridiko berezituak aplikatzea; hala ere, tratu horrek zio objektibo eta arrazoizkoa izan behar du, baita proportzionala ere, lortu nahi den xedea kontuan hartuta. Horretaz gain –jurisprudentziatzeko doktrina sendotuaren arabera–, ondorioztatu da horrelako baldintzak bat datozela legeekin eta Konstituzioarekin, betiere oro har onartzen diren balio-irizpideen araberrako tratu berezitu arrazoizkoan oinarritzen badira.

Adinaren eta altueraren kasuan, atzeman da tratu berezituak aplikatzen dela beste funtzionario lanpostu batzuen aldean; hala ere, baldintza horiek eskatzea arrazoizkotzat hartzen da, ez arbitrari-

otzat, zeren eta oro har onartzen baita egoera fisiko ona izatea –horretan zerikusi handia dute, besteak beste, adinak eta altuerak– ezinbestekoa dela halako lanpostuetan aritzeko, lanpostu horiek berariazkoak dituzten eginkizunen ezaugarriak kontuan hartuta.

## OGASUNA

Hainbat udal zerga eta tasa kobratzeko jarraitzen den premiamendu-prozedura behin baino gehiagotan planteatu digute zorrak zituztela ez zekitenek, behar bezala ez jakinarazteagatik, edota eskatutako zenbatekoarekin ados ez zeudenek, udaleko erregistroetako informazioa zuzena ez izateagatik. Aipatu prozeduraren barruan, zergadunaren ordezkia ere aztertu dugu. Izan ere, figura hori erabat onartuta dago, bai Toki Ogasunei buruzko Foru Legean, bai Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean, nahiz eta batzuetan harridura sortu.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, hainbat kexa jaso ditugu. Kexa horietan zalantzan jartzen da, besteak beste, aipatu zergari buruzko foru legean ezarritako gutxieneko pertsonalagatiko kenkariaren murrizketa; izan ere, kexa aurkeztu duenaren ustez, horrek ezkongabeak baztertzeko, seme-alabarik gabeko alargunen eta banatutakoen aldean. Era berean, zalantzan jarri da araudi horretako beste aurreikuspen bat, hain zuzen, pentsio-planen onuradunek jasotako prestazioak lanaren etekintzat hartzea eta zerga oinarrian sartzea.

Horretaz gain, zerga horrek etxebizitza kontuei ematen dien tratamendua ere aztertu dugu; alde batetik, kontu horretako saldoa zergapekoaren ohiko etxebizitza lehen aldiz erosteko edo zaharberritzeko –eta ez hurrengoetarako– erabili beharrendaren ondorioz, eta bestetik, kontu horietan sartutako zenbatekoak erabiltzeko epea dela eta, izan ere, azken urteotan etxebizitza bat erosteko dauden zailtasunak ikusirik, epe hori ez zen nahikotzat jotzen, eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamendua aldatzen duen azaroaren 10eko 673/2003 Foru Dekretuak hori zuzendu eta zazpi urteko epea ezarri zuen.

Balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, aisialdirako baratze batzuen erosketari zerga-tasa orokorra aplikatu zitzaioela eta, horri buruzko kexa aurkeztu zutenei gogorarazi izan behar genien hori zerga hitzartua dela, eta, horrenbestez, bai Europako araudian bai estatukoan ezarritakoa aintzat hartu behar dela, eta araudi horien arabera, halako kasuei ez zaiela tasa murrizturik aplikatzen.

Azkenik, Nafarroako Tributu Ogasunaren eta Gipuzkoako Foru Ogasunaren arteko balizko koordinazio faltari buruzko kexa bat aurkeztu zuen enpresa batek, hain zuzen, bi administrazio horiek ez zirelako ados jartzen enpresa horren egoitza aldaketaren eraginkortasun data zehazterakoan, eta horren ondorioz, Nafarroako Ogasunak sozietate zergari eta balio erantsiaren zergari zegozkion zenbatekoak itzultzeko eskatzen ziolako. Hori zela eta, enpresaren egoera ekonomikoa zaila zen, diru kopuru handia ordaindu behar baitzuen, nahiz eta ondoren Gipuzkoako Foru Ogasunak itzuliko zion.

Azkenik, eta nahiz eta gaiaren funtsa, hau da, egoitza aldaketaren eraginkortasun data, ez aztertu –izan ere, horri buruzko errekurtsioa aurkeztu zen administrazioarekiko auzietako epaitegian–, ezagutu nahi izan genuen zer formula eta aukera dauden bi tributu-administrazioak halako kontueta-rako koordinatu ahal izateko, administrazio zentralarekin, adibidez, gertatzen den antzera. Gure jarduketaren ondorioz, enpresa horri eskatutako likidazioak deuseztatu ziren, eta ondoren behar ziren jakinarazpenak bidali ziren Gipuzkoako Foru Ogasunera, horrek deuseztatutako aitorpenei zegokien saldoa Nafarroako Tributu Ogasunari transferi ziezaion. Hala, Nafarroako Tributu Ogasunaren eta zergadunaren arteko saldoa erregularizatu zen eta Gipuzkoako Foru Ogasunarekin erregularizatzeko geratu zen.

## BARNEA

Barneari dagokion atalean, kasu gehienek trafikoko zehapenei buruzkoak izaten jarraitzen dute, batzuetan Trafikoko Guardia Zibilak ezarritakoak. Zehapen horiei buruzko kexak arartekoaren aurrean aurkeztu behar dira, gure eskumenetik at gertatzen baitira.

Aztertu ditugun trafikoko zehapenei buruzko kasuetan –normalean udaltzainek ezarritakoak–, gure jarduketaren bidez jakin nahi izan dugu halako zehapen prozeduretan administratuentzat ezartzen diren berme orokorrak errespetatzen ote diren, eta horri buruzko jarraibideren bat ere eman dugu, zeren eta, askotan, kexa aurkeztu zutenek planteatzen ziguten bakarra zen zehapena jaso zuten gertakariekin ez zeudela ados, eta haien bertsioa beste frogarik ez zuten aurkezten. Kasu horietan, guk ezin dugu gaiaren funtsa aztertu; izan ere, aitortuta ditugun eskumenetatik kanpo geratzen da. Horretaz gain, gure iritziz, horri buruz izan daitezkeen desadostasunak adierazteko bidea karguen pleguari erantzuteko izapidea eta handik aurrerako alegazioak dira, bai ebazpen proposamenaren aurrekoak, bai haren ondorengoak.

Halaber, kexa horietako batzuk bulego edo gai horiek jorratzen dituen aholkularitza zerbitzuren batek prestatutako formularioetan aurkeztu dira, batzuetan zer jarduketari buruzkoa den eta horri buruzko xehetasunik ere eman gabe, eta hori oztopoa izan da guk edozein jarduketa hasi ahal izateko.

Atal horretan, Iruñeko espetxean dauden preso batzuk askatzeko eskariak edota Frantziako hainbat espetxetan bizi duten egoerari buruzko kexak jaso ditugu. Gure eskumenak kontuan hartuta, eta zer gai ziren ikusita, horietako batzuk arartekoari bidali genizkion; beste batzuk, aldiz, Médiateur de la République izeneko Frantziako erakunde balio-kideari bidali genizkion, eta horretaz gain, kexak aurkeztu zituztenei jakinarazi genien halako kasuak Frantziako Batzar Nazionalaren Segurtasunaren Deontologia Batzorde Nazionallean planteatu daitezkeela.

Azkenik, animaliek parte hartzen duten hainbat ikuskizun egiteko eta baimentzeko baldintzak ere aztertu ditugu, hala nola Lodosako sokamuturra edota gure herrietako jaietan gero eta sarriago egiten den ostruken lasterketa, eta nabarmendu genuen jarduera horietako batzuk zeha daitezkeen jokabide gisa sailkatuta daudela. Horretaz gain, sakonki aztertu genuen herritar batek helarazi zigun arazoa; izan ere, esparru nazionalako telebista kate batek bere irudi batzuk zabaldu zituen, kalean gertatutako istilu batean Udaltzaingoak esku hartu zuenean hartutakoak.

Emandako azalpenen arabera, zegokion udalak baimena eman zion telebista kate horri udaltzainei laguntzeko, haien jarduketei buruzko erreportaje bat egiteko eta dauden telebista kate desberdinetako saioetan emateko xedearekin.

Horri dagokionez, eta jokoan ziren eskubideak sakonki aztertu ondoren, besteak beste, ohorerako edo intimitate pertsonalerako edo familiarerako eta norberaren irudirako eskubidea eta informazio egiazkoa komunikatzeko eskubidea, zegokion udalari adierazi genion, berriro ere telebista katearen bati erreportaje bat egiteko Udaltzaingoiari laguntzeko baimena ematekotan, baldintza gisa jarri beharko litzatekeela behar diren neurriak hartzea, poliziaren jarduerak ukitzen dituen herritarren oinarriko eskubideen babesa eta errespetua bermatze aldera.

## JUSTIZIA

Arlo horretan, herritarrek desadostasuna adierazten dute askotan epaileek haien interesen kontra hartutako erabakiekin, gehienbat hainbat epai-

rekin; izan ere, horien ustez, ez zaie irtenbide egokirik eman.

Horren haritik, kontuan hartu behar da beste batzuetan ere aipatu duguna, hau da, epaitegiek eta auzitegiek haien eginkizun jurisdikzionalaz baliatuz hartutako erabakiak ezin dituztela berrikusi botere judizialek kanpoko erakundeek, Espainiako Konstituzioaren 117.3 artikuluan ezarri bezala. Erabaki horien aurka jotzeko, eremu judizialean horretarako dauden errekurtsio jurisdikzionalak baliatu behar dira.

Hainbat prozesu judizialean izaten diren atzerapen eta luzamenduei dagokienez, alderdi hori kontuan hartzen dugu herritarren batek kexa helarazten digunean. Aipagarria da herri defendatzaileari eginiko jakinarazpena, asko berandutzen ari baita Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazio-arekiko auzien salak aurkezturiko konstituziokontra-kotasun-azua, azaroaren 2ko 17/1994 Foru Legearen arau-edukiari buruzkoa. Foru Lege hori Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak eta hori garatzeko erregelamendu-arauek ezarritako ordainketa-sistemaren aplikazioa erregularizatzea da.

Gai hori 2000. urtearen hasieran ere planteatu ziguten, eta orduan aipatu auzitegiko lehendakariak jakinarazi zigun konstituziokontra-kotasun-azui hori ebazteko prozesuan ez zela ohiz kanpoko atzerapenik gertatzen ari, kontuan hartuta auzi hori auzitegiko osoko bilkurak ebatzi behar zuela eta organo horrek lan karga handia zuela. Hori ikusirik, herri defendatzaileari bidali genion afera, eta berak galdetu du auzitegian auzia zer egoeratan dagoen eta noiz ebatziko den.

Abokatuen jardun profesionalari buruzko kexa ugari jaso ditugu berriro; baita, lehen aldiz, prokuradoreen jardunari buruzkoak ere.

Kasu horiei dagokienez, kontuan hartu behar da –eta hala jakinarazten diegu guregana jotzen dutenei– arlo horretan dugun ikuskapen ahalmena soilik profesional horien elkargo ofizialen jardunari buruzkoa dela, eta, horretaz gain, elkargo horien administrazio-alderdiaren gainekoak direla, zuzenbide publikoko korporazioak diren aldetik. Halaber, guk esku hartu ahal izateko lehen baldintza da elkargoek jarduketaren bat egin izana.

Bestalde, gehien aztertu ditugun aferak dira elkargo horiek hainbat prozeduratan hartutako erabakien alderdi formalei buruzkoak, hala nola erabakiek izan beharreko motibazioa edota erabaki horien aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.



## INGURUMENA

Arlo horretan, zarataren gaia da gehien planteatu digutena ekitaldi honetan aurkeztutako keketan. Gure jarduna hasi genuenetik, arazo horrek lehentasuna izan du gure lanean; izan ere, herritarrek askotan jotzen dute guregana, administrazioen ez jardutea dela eta –Nafarroako Gobernuarena eta, bereziki, udalena– jasaten dituzten egoeren berri emateko.

Askotan aurreko urteetako espedienteak berriro ireki behar izan ditugu, orduan kexa aurkeztu zuenak berriro jo baitu guregana eta, zegokion administrazioak arazoa konpontzen ahaleginduko zela adierazi arren, kexa aurkeztera bultzatu zuten zarataren ondoriozko enbarazuak jasaten jarraitzen duela adierazi baitigu.

Aurreko urteen aldean berrikuntza gisa, ekitaldi honetan hainbat harrobitatik gertu dauden hiriguneetan izaten diren arazoak aztertu ditugu, harrobitako leherketek eragindako enbarazu eta dardarak direla medio. Behin eta berriro gogorarazi dugu derrigorrezkoa dela ikuskapenak egitea, baita kasuan kasuko baimenean ezarritako baldintzen eta neurri zuzentzaileen jarraipen egokia egitea ere. Hala ere, berriro ere kexa gehienak ostalaritzako establezimenduekin loturiko enbarazuei eta zaratari buruzkoak izan dira: tabernak, pubak, kafetegiak, diskotekak eta abar.

Gaur egun, zarata da, zalantzarik gabe, jendearen bizi-kalitatearen gainbeheran eraginik handiena daukaten kutsadura-elementuetako bat, eta auzokideen arteko gatazkak pizteraino iristen diren eragozpenak ekartzen ditu. Gainera, jadanik egiztatu den bezalaxe, osasun fisikoari eta adimenekoari kalte egiten die, eta ondorio nahiz nahasmentu psikologiko eta sozial larriak ekar ditzake.

Tradizionalki, zarataren eraginak ondorio gogaikarri soil gisa ikusiak izan dira. Gaur egun, ordea, baieztatu daiteke zarata-eritasuna harremana existitzen dela. Osasunerako Mundu Erakundeak berak (OMEk, alegia) osasuna definitzen du, eritasunik edo ezgaitasunik ez izate soilaz haratago, ongizate orokorreko egoera gisa: ikuspegi fisikotik, psikikotik eta sozialetik. Eta ingurumen-osasuneko adituek gero eta garrantzi handiagoa ematen diote zaratak eta gogait eragiten duten faktoreak kontrolatu eta maila onargarrietara murriztu beharri.

Kutsadura akustikoa, batez ere hiri-inguruneak, arlo guztietan –eta, bereziki, aisialdia bizitzeko moduetan– bilakaeran dagoen gizarte batekin zerikusi zuzena daukaten jarduera ugariaren ondoriozkoa, bizi-kalitatearen ikuspegitik kontuan izan beharreko funtsezko faktorea da, eta, aldi berean, ondoez larria eragiten du bere kausak konpontzen

ez direnean. Horrek herritarrei erakartzen dien erosotasunik ezak zuzeneko eragina izaten du bizikidetasunean; horregatik, kutsadura mota hori kontrolatzeak oinarrizko helburua izan behar du administrazio publiko eskudunentzat, haiek euren ingurumen-politikak taxutzen dituztenean.

Horri buruz, gogoan izan behar da ezen zaratak eta kutsadura akustikoaren arazoak zerikusi zuzena daukala ez ingurumenarekin soilik, baizik eta osasunarekin, ordena publikoarekin eta hirigintzarekin.

Gure Konstituzioak 45. artikuluan jasotzen du guztion eskubidea ingurumen egokiaz gozatzeko, bai eta hura zaintzeko betebeharra ere. Bizi-kalitateko eskubidea ere aipatzen du, eta, halaber, 43. artikulua aipatzen du osasunaren babeserako eskubidea. Eskubide horiek ez dira zarata eta kutsadura akustikoaren arazoak gehien ukitzen dituenak edo horrekin zerikusirik handiena duten bakarrak. Izan ere, haratago joanez, esan izan da gai honek ukitzen duela gure Konstituzioko 18. artikulua, eta horrekin hein berean lotuta dagoela. Artikulu horrek bermatzen du intimitate pertsonal eta familiarerako eskubidea, bai eta bizilekuaren bortxaezintasunerakoa ere. Gero eta hedatuagoa dago iritzi bat zeinaren arabera zarataren esku-sartzea modu berri bat baita eremu pribatuaren esparrua inbaditzeko; hain zuzen ere, gizaki orok, bere eskubidez, bere-beretzat eta bortxaezintzat har dezakeen eremua.

Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legeak arazo garrantzitsu bat dagoela onartzea ekarri du; legeak ezartzen dituen neurrietatik asko aplikatu ahal izateko, ordea, erregelamendu bidez garatu behar dira eta ezarritako epeak agian luze-egiak dira.

Hori egin bitartean, Nafarroan gaur egun daukagun jarduera sailkatuei buruzko araudia eta ikuskizun publikoei eta josteta jardueri buruzkoa tresna baliagarriak dira arazo horri aurre egiteko. Horretaz gain, badugu zaratari buruzko araudia ere, ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuaren bidez ezarritakoa, nahiz eta eguneratu eta aipatu 37/2003 Legea egokitu beharra dagoen, baita lege mailako arauen bitartez ere.

Hala ere, helarazten zaizkigun kexen ondorioz gai hori aztertzen hasi ginenetik, atzeman dugu oso gutxi aurreratzen ari garela eta, horrela, jende askori ukatzen zaiola ingurumen egoki eta osasuntsuaz gozatzeko eskubidea. Zaratak sortarazten dituen arazoei aurre egiteko Nafarroako udal asko erakusten ari diren gaitasun eza benetan kezkarria da.

## HERRILANAK ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

Herrilanen arloan, berriro helarazi dizkigute hainbat azpiegitura publiko egitearekin loturiko kexaren batzuk, nagusiki ondasuna desjabetzen denetik horri dagokion prezio zuzena ordaintzen den arte iragaten den denborak eraginda.

Horretaz gain, premiazko desjabetzapen-prozedura nolana ere erabiltzen da halako kasuetan, nahiz eta prozedura horrek salbuespen-izaera duen eta bere erabilera behar bezala justifikatu behar den, eta hori ez dator bat administrazioak desjabetuari prezio zuzena ordaintzeko hartzen duen denborarekin. Horrela bi zigor ezartzen zaizkio desjabetuari, zeren eta, ondasunen presako okupazioaren ondorioz jabetza kentzeaz gain, ez du dagokion kalte-ordaina jasotzen arrazoizko epean; izan ere, administrazioak ezarritako prezio zuzenarekin ados ez badago, urteak pasa daitezke prezioa zehaztu arte, eta horrek ondorio larriak dakartzkio desjabetuari, babes judizial eraginkorerrako eskubidea betetzeari dagokionez.

Hainbat herritako biztanleek salatu dute eremu publiko batzuk kontserbazio egoera txarrean daudela edota ez direla modu egokian mantentzen. Egoera horiek konpondu dira, inplikaturako udalek jarrera harkorra erakutsi baitute.

Txosten honek aztertzen duen urtean, gai bat behin eta berriro planteatu bada, zerbitzu jakin batzuen funtzionamenduari dagokionez, gai hori telefono zerbitzuari buruzkoa izan da.

Halako kexak egiterakoan, ohikoa da erabiltzaileak xehe-xehe azaltzea bere konpainiari erreklamazioa aurkezteko komunikazio prozesuan izandako oztopoak, eta batzuetan, oztopo horiek kexaren beraren muin bilakatzen dira, prozesua eragin zuten hasierako arazoengainetik.

Dena den, aztertu ditugun kasuetan zerbitzu publikoaren betebeharrak arduragabekeria nabarmena gertatzen zen, errentagarritasun txikiagoko jarduera-sektoreetan, hala nola, landa eremuko telefono zerbitzuan, eta, Telefónicari informazioa eskatu ondoren, arartekoarengana bideratu ditugu, berak baitu gai horiei buruzko eskumena.

Landa eremuko telefono zerbitzu eskariei erantzutean izaten diren atzerapenak, edota, nagusi den operadoreak hainbat eskariri ez erantzuteko balizko asmoa, kostu handia izateagatik, ez dira gertatzen soilik linea berrien eskaera handia delako; horiek Telefónicak operadore nagusi gisa duen jarrera bikoitzaren ondorio ere badira. Alde batetik, sektoreko gainerako enprekin lehiatzen da, prezioei dagokionez, negoziak etekin gehien ematen

dituen esparruetan, eta bestetik, zerbitzu eskari berriei erantzuteko betebeharra du, baita errentagarria ez denean ere, nahiz eta, batzuetan, abonatu berriak Telefónicak linea berria instalatu bezain laster konpainia aldatzeko aukera izan.

Zerbitzu publikoaren betebeharren mugak behar bezala ez zehazteak eta administrazioak eskura dituen baliabideak ez erabiltzeak –hala nola, telekomunikazioen ikuskaritza– erantzun gabe geratzen diren eskarietan gertatzen diren gorabeherak finkatzeko, ahalbidetzen dute erabiltzailea denbora mugagabez egotea zerbitzurik jaso gabe.

Aipatu den moduan, eta gai hori Zientzia eta Teknologia Ministerioaren eskumenekoa bada ere, telefono lineak instalatzeko arreta faltarekin loturiko kasuak helarazi zaizkigunean, askotan Telefónicari jo dugu eta bere lankidetzara eskatu diogu arazo horiei konponbidea aurkitzeko, eta horrela, kasu horietako batzuk konpondu egin dira. Konpondu ez diren kasuei dagokionez, arartekoari bidali dizkiogu, erakunde eskudunen aurrean beharrezko urratsak egin ditzan.

## OSASUNA

Arlo horretan, gehienetan planteatu zaizkigun gaietako bat laguntza pediatrikoari buruzkoa izan da, bereziki Lizarrako eta Tuterako barrutietan. Horrela, zerbitzu horretako oinarritzko barrutietakoren batean egindako berrantolatetaz eta pediatria bakoitzari esleitutako haur kopuruaz gain, Lizarra eta Tuterako ospitaleetako pediatriko larrialdi zerbitzuaren antolatetaren arazoa ere planteatu digute. Hain zuzen, kexak aurkeztu zituztenek eskatzen zuten zerbitzu horretan laguntza ematen duten medikuak pediatrik izatea.

Horren haritik, nabarmentzekoa da –eta halaxe jakinarazi genion Osasun Departamentuari–, ospitaleak kudeatzeko erabiltzen diren eskuliburuaren arabera, osasunaren arloko profesionalen artean erabateko adostasuna dagoela bigarren mailako ospitaleetako –Lizarrakoa eta Tuterakoa hala dira– larrialdi zerbitzuak antolatzeko moduari buruz; horien ustez, zerbitzu horietan larrialdietako sendagileek egon behar dute, baina, horiez gain, barne-medikuntzako sendagileak, kirurgia-oroak, traumatologiakoak, tokoginekologiakoak, anestesia zerbitzukoak eta pediatrikoak ere izan behar dira. Horretaz gain, sendagile horiek ospitalean bertan eta laguntza emateko moduan egon behar dira. Guardia lokalizatuak soilik zerbitzu batean laguntza emateko edo lehen mailako ospitaleetan egongo liriteke; izan ere, ospitale horietan oinarritzko larrialdiak bakarrik hartzen dituzte,

eta gaixoak beste ospitale espezializatuagoetara bidaltzen dituzte gehienetan.

Horrenbestez, gure ustez, bi kasu horietan beharrezko ahaleginak egin behar ziren pediatria-ko larrialdi zerbitzuetan espezialista horiek egotea bermatze aldera, eta Tuterako kasuan Osasun Departamentuak ezezkua eman bazigun ere, Lizarrako kasuari dagokionez, kontseilari andreak erantzun zigunez, zerbitzu hori ezartzeko beharrezko azterketa egiten ari ziren.

Bestalde, Nafarroako oinarrizko barrutietako eta osasun zentroetako pediatria zerbitzuen funtzionamenduari dagokionez, jakin dugu Osasunari buruzko Foru Legearen arabera, herritarren osasun hezkuntza dela arlo horretako printzipio gidarietako bat, 12.3.d) eta 15.1. artikuluetan aipatzen denez. Hezkuntza ezinbesteko elementua da osasunaren arloko profesionalen efizientzia hobetze-ko, zerbitzuaren erabiltzaileentzako hezkuntza programak abiarazteak eta garatzeak herritarrek eskatzen duten osasun laguntza arrazionalizatzea ahalbidetzen baitu.

Horrelako hezkuntza programak ezartzeak osasun zerbitzuaren efizientzia hobetzea ekarriko du, eta hori onuragarria izanen da guztiontzat, bai erabiltzaileentzat –haien haurrak gaixotzen direnean lehenbailehen artatu behar baitira–, bai osasun arloko langileentzat, askotan eguneroko lanak gainditzeko baititu. Ondorio horietara begira, kontuan hartu behar da kasuren batean jakinarazi zitzaiguna, hau da, herritar batzuk urtean 30, 40 eta 50 aldiz ere joaten direla sendagilearen kontsultara. Horren arabera, herritarren % 20k pediatriako kontsulten laguntza emateko denboraren erdia baino gehiago hartzen dute, eta horrek adierazten du osasun zerbitzuak ez direla modu egokian erabiltzen.

Horren haritik, guk ere uste dugu zerbitzu medikoak arduraz erabili behar direla, zerbitzu horiek modu egokian, hau da, benetan behar dituztenean, erabiltzen dituzten erabiltzaileen kaltetan atzerapenik ez gertatzeko.

Ospitaleetan edo osasun zentroetan laguntza ematerakoan izandako atzerapenari buruzko kasu batzuekin batera, kexa ugari jaso ditugu, osasun administrazioak ezezkua emateagatik, osasun zentro pribatuetan jasotako tratamenduen gastua itzultzeko eskatu zaionean.

Gai horri lotuta, kontuan hartu behar da Osasunari buruzko Lege Orokorrean ezarritakoa, hau da, herritarrei osasun laguntza emateko betebeharra duten administrazio publikoek ez dietela horiei gasturik ordainduko, herritarrek erabiltzen badituzte lege horretan, berori garatzeko ematen diren

xedapenetan eta autonomia erkidegoek dagozkien eskumenak erabiltzean onesten dituzten arauetan ezarritako osasun zerbitzuak ez diren beste batzuk.

Xedapen honen salbuespen bakarra da osasun laguntza premiazkoa, berehalakoa eta hil ala bizikoa izanda, gaixoak Osasun Sistema Nazionaletik kanpo laguntza jasotzea. Kasu horretan, gastu horiek itzuliko dira, baldin eta behar den moduan egiaztatzen bada Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzuak erabiltzeko modurik ez dela izan, eta ez dela salbuespena modu desegokian edo gehiegikeriaz erabili.

Legeak ezarritakoa eta halako egoerei buruz jurisprudentziaren interpretazio ugariak ikusirik, aztertu ditugun kasu gehienetan ez dugu arauz kanpoko jarduerarik atzeman administrazioaren aldetik gastu horiek ordaintzeari ezezkua ematerakoan. Alabaina, aztertutako kasuren batean gaixoak osasun sistema publikora jo zuen, baina han ezin izan zioten konponbide egokirik eman bere arazoari. Azkenik, zentro pribatuetara joan behar izan zuen eta han aurkitu zuen konponbidea; gure ustez, kasu horretan administrazioak kostua bere gain hartu beharko luke.

## LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

Gizarte Segurantzaren pentsioen araubidean ezarritako gutxieneko pentsioen urritasunaren arazoa behin eta berriro agertu da arlo honetan jaso ditugun kexetan.

Gai horri buruzko hainbeste kexa izatearen arrazoa izan da, zalantzarik gabe, alargun-pentsioak osatzeko eta Lanbidearteko Gutxieneko Soldatarekin berdintzeko sortu diren ekimenen ondorioz Nafarroan piztutako eztabaida.

Ekimen horiek izandako gorabeheren ondorioz, kexatzeko bi arrazoi sortu dira. Alde batetik, ukitutako pertsonak ez zekiten azkenik laguntza hori emanen zitzaien, ezta zer bide baliatuz eginen zen ere; eta bestetik, hainbat pertsonarentzat bidegabea zen Nafarroako Parlamentua soilik alargun-pentsioez arduratzea; izan ere, beraiek jasotzen zituzten pentsioak ere ez ziren behar adinakoak eta ez ziren iristen Lanbidearteko Gutxieneko Soldatara.

Arazo horietatik lehena konpondu da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikuluari testu berria ematen dion otsailaren 17ko 1/2004 Foru Legea, alarguntasun pentsioengatikoko kenkaria arautzen duena, onestearekin. Bigarren arazoa, aldiz, ez da konpondu.

Nahiz eta pentsio horiek arautzen dituen arautegia estatukoa izan eta horrek erakunde honen esku hartzeko ahalmenean eragina izan –gure eskumena Nafarroako Foru Komunitatera mugatzen baita–, ezinbestekoa da herritarren eskariak aipatzea, sistemako gutxieneko pentsioen prestazio ekonomikoen urritasuna dela eta. Izan ere, pentsio horiek bermatzen jarraitu behar da eta gainerako pentsio publikoen igoeraren batez bestekoren gainetik igo behar dira, gaur egungo zenbatekoek ez baitute bermatzen adineko pertsonen nahikotasun ekonomikoa, eta Konstituzioak ezartzen du botere publikoek pertsona horien baliabide nahikotasuna ahalbidetu behar dutela, pentsio egoki eta aldizka gaurkotuen bidez, horretarako herritar gutzientzako gizarte segurantzako erregimen bati eutsiz.

Hori dela eta, gure ustez beharrezkoa da egoera horiek aipatzea Nafarroako Parlamentuarentzako urteko txostenean, beste ararteko batzuek haien eskumeneko gaitan egiten duten moduan. Horren helburua da Parlamentuak behar diren neurriak hartzea, bai zuzenean, bai eskumena duen administrazioaren aurrean, arazoa konponitzeko biderik egokiena aurkitze aldera.

Bestalde, berriz ere hainbat kexa aurkeztu dira ezintasun iraunkorraren egoera, edozein gradutakoa, baden edo ez den zehaztearekin lotuta, baita lanerako ezintasunak baloratzeko epaimahaiek, uztailaren 21eko 1300/1995 Errege Dekretuari jarraikiz, egiten dituzten egoera horiei buruzko berrikuspenekin lotutakoak ere; Nafarroaren kasuan berrikuspen horiek Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren Nafarroako Probintziako Zuzendaritzak egiten ditu.

Horren haritik, eta nahiz eta kexa horietako batzuk arartekoari igorri –estatuko administrazio orokorraren jardunari buruzkoak ziren–, kasu hauetan esku hartzeko ditugun aukerei dagokionez, kontuan hartu behar da ezintasun graduak irizpide tekniko-medikoetan oinarrituta ematen direla, eta hori dela eta, gure erakundeak ezin du balorazio teknikorik edo legearen aldetiko baloraziorik egin, ezta lanerako ezintasunak baloratzeko taldeak egoniko balorazioa ordeztu ere.

Gure ustez, garrantzitsua da zehaztaper hau egitea; izan ere, antzeko egoera gertatu zaigu gizarte ongizatearen arloan, norbaitek planteatu digunean ez dagoela ados Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren mende dagoen Elbarrien Balorazio, Diagnostiko eta Orientaziorako taldeak onartutako ezgaitasun mailarekin.

Edonola ere, kasu hauetan gure jardunaren helburua izan da arlo horretako erabakiek ezgaita-

sun mailari dagozkion datu eta balorazio guztiak izan ditzatela bermatzea, ez bakarrik administrazio-egintzak arrazoitzeko betebeharrari dagokionez, baita administratuen eskubideen babesa bermatze aldera ere.

## HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

Hirigintzari buruzko atalean jasotako kexa batzuei dagokionez, hainbat udalek hirigintza prozesuak direla eta burutu dituzten desjabetzapen-prozedurak aztertu ditugu. Dena den, arlo horretan jasotako kexa gehienak hirigintzaren inguruko diziplina gaiei buruzkoak izan dira.

Izan ere, toki administrazio eskudunak lurzoru-erabilerari buruzko gaitan esku ez hartzea, hirigintza lizentziarik gabe edo bertan adierazten dena bete gabe eginiko obrak, baita eraikinen segurtasun eta osasungarritasun-baldintzak ere, izaten dira kexetan agertzen diren arazo gehienak.

Toki entitateek arlo horretan duten eskumena, hain zuzen lurzoru-erabilerak eta eraikuntza egintzak legearekin eta udalaren hirigintza planeamendurekin bat datozela egiaztatzea, bere osotasunean bete behar da, eta nahiz eta hirigintza lizentziak araututako egintzak izan eta administrazioak ez izan bere iritzia araberak jokatzeko ahalmenik, baizik eta soilik aplikagarriak diren arauarekin bat datozen egiaztatzea, egiaztaper hori lizentzia eman ondoren ere egin behar da, eta toki administrazioek ezin dute inhibititu hirigintzaren arloan dituzten eskumenak betetzeari dagokionez.

Horretaz gain, gertakari horien aurrean azkar erantzutea are garrantzitsuagoa da, zein arlotan gertatzen diren kontuan hartzen bada; izan ere, ez bada arin erantzuten, jada burututako eta hirigintza arloko ordenamendu juridikoarekin bat ez etortzeagatik behar bezala legezatu ezin daitezkeen egintzak denborarekin antolamenduz kanpoko egintza edo egoera bihurtzeko arriskua dago.

Etxebizitzari dagokionez, aurkeztutako kexak babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzkoak dira, nagusiki prozedura horietan parte hartu dutenei informaziorik ez ematearen edo informazio eskasa ematearen ondoriozkoak, baita kasuan kasu ezarritako baremoetako hainbat atalen aplikazioarekin bat ez etortzearen ondoriozkoak ere.

Etxebizitza bat eskuratzeko arazoa da herritarren kezka nagusienetako bat, eta halaxe adierazi digute jasotako kexa askotan. Merkatu librearen ezarritako baldintza ekonomikoek, batez ere azken urteotako prezioen igoera handiak, etxebizitza bat eskuratzeko arazoak ekarri dituzte, eta hori dela eta, herritar gehienek sustapen publikoko etxebizi-

tzen eskaintzara jotzen dute, bai sustatzaile partikularren ekimeneko eskaintzara, bai administrazioak nagusiki sozietate publiko instrumentalen bidez egiten duenera.

Espainiako arartekoak koordinatzeko XVIII. jardunaldietan etxebizitza eskuratzeko arazoari buruzko lan tailer bat garatu zen eta horri buruzko aipamena egin da txosten honen beste atal batean. Tailer horretako lehen ondorio gisa, ezinbestekotzat jo zen subjektu publiko guztien arteko elkarlana arlo horretako esku-hartze publikoaren tresnak diseinatzeko eta ezartzeko; halaber, subjektu publiko horiei eskatu zitzaaien araudiak haien eskura jartzen dituen baliabideak egiaz abiarazteko.

Nafarroan, esku-hartze publiko horren oinarriko elementuak izan behar dira Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen aplikazioa, baita etxebizitzari buruzko foru lege baten onespina ere; izan ere, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak iragarri du Nafarroako Parlamentura bidaliko duela. Halaber, administrazioak aipatu arauen bidez ezarritako baliabide eta neurriak erabili beharko ditu gaur egun dagoen arazoa konpontze aldera.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, gure ustez, arlo honetako arazo larriena baita, aurtan, lehen aipatu moduan, babes publikoko erregimenen bati atxikitako etxebizitzaren esleipen-prozedurei buruzko kexak aztertu ditugu nagusiki.

Hainbeste kexa jasotzearen arrazoi nagusia da sustapen bakoitzerako aurkezten den eskabide kopuru handia, eskaintzen diren etxebizitzena baino askoz ere handiagoa; horren ondorioz, oso gutxi dira etxebizitza bat lortzen dutenak, eta gainerakoek beste sustapen batzuetara jo behar dute haien helburua erdietsi ahal izateko, eta askotan oztopoz beteriko bide luzea izaten da. Gainera, oztopo horiek areagotu egiten dira behin eta berriro eskabideak aurkeztu beharrek, horrek dakartzan ondorioekin.

Erakunde honek egoera aztertu du eta, lehen ondorio gisa, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari gure iritzia berri eman genion, alegia, arestian deskribatutako egoera baztertu gabe, bistakoa zela esleipen-prozedura horiek lehenbailehen hobetzeko beharra. Gainera, horren haritik, administrazioaren zeregina da, gure ustez, babesturiko etxebizitzaren adjudikazioa publikitate, lehia publikoa eta gardentasun printzipioak errespetatuko dituzten prozeduren bidez egitea.

Sarrigurengo babes publikoko etxebizitzaren adjudikaziorako hasitako prozedura bide horretako lehen urratsa da. Hala ere, etxebizitzak adjudikatzeko modua oraindik hobetu beharko da, lehen aipaturiko etxebizitzari buruzko foru legearen bitartez.

## BESTERIK

Atal honek askotariko kexa-multzoa hartzen du, aurreko gai edo arloetan sartu ezin direnak. Horietaz gain, beste kexa-multzo bati buruz esan behar da erakunde honek ez daukala esku hartzeko eskumenik, partikularren edota enpresa pribatuen jardunari buruzkoak direlako. Horien artean, hainbat toki entitateetan edo toki entitateen eta herritarren arteko harremanetan izandako arazoak izan dira, oraingoan ere, garrantzitsuenak.

Horrela, bada, aztertu ditugu oposizioan dauden udal taldeetako zinegotziek eginiko hainbat salaketa, alkateak edo udalak eginiko obren adjudikazioei edo bestelako jarduketa irregularrei buruzkoak; izan ere, halako hainbat kasu iritsi zaizkigu.

Kasu horietan, kexa aurkeztu duenari erakunde honek esleiturik dituen eginkizunak azaldu ondoren, jakinarazi diogu planteatutakoen moduko gaitan, hau da, toki entitateen antolamendu eta funtzionamenduarekin loturikoetan, arartekoaren jardunaren xedea dela gure Konstituzioaren 23.1 artikuluan aitorturiko eskubidea bermatzea, hain zuzen, herritar guztiek, zuzenean edo beraiek libreki hautatutako ordezkarien bidez, gai publikoetan parte hartzeko duten eskubidea. Horrenbestez, erabakien edukiarekin edo emaitzarekin bat ez etortzea edo erabakiak hartzeko prozeduran edo horiek betetzean irregulartasunak egotea ez dira kexa bat tramitera onartzeko arrazoia. Aldiz, kexak onartuko dira egiaztatzen bada ezinezkoa dela legeak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzea toki-agintariek legez kontrakoak edo arbitrarioak izan daitezkeen erabakiak hartu dituztenean.

Laburbilduz, guk soilik esku har dezakegu zinegotzien eskubide multzoa arriskuan dagoenean. Eskubide horiek Toki araubidearen oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta azaroaren 28ko 2568/1996 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamendu organiko eta funtzionamenduzkoan zehazten dira eta zinegotzi karguaren berezko estatusen sartzen dira, beren eginkizunak hobeto bete ditzaten. Horrenbestez, aipatutako Konstituzioaren 23.1 artikuluko eskubidearen babesa dute zinegotziek.

**BITARTEKOTZA-EGINKIZUNA**

Gure aurreko txostenean bezala, honetan ere azpimarratu nahi dugu bitartekotza-eginkizunak arartekoen eguneroko lanean duen garrantzia. Hori dela eta, aurreko ekitaldian aipatutako kudeaketetako batzuk egiten jarraitu dugu.

Zer esanik ez, ezaugarri horietako eginkizun bat erabiltzea eragingarri izan dadin, beharrezkoak dira batzuetan lortzen errazak ez diren baldintza batzuk, horretarako legitimazioa prozesutik bertatik sortuko baita, alderdien arteko akordiotik. Gainera, gogoan izan behar da ekimen honetaz baliatzea aholkatzen dela, batez ere, administrazioak bere zuhurtziaren arabera jarduera bat egiten duenean edo neurri batean bere iritziaren arabera jokatzeko ahalmena daukanean. Gogoan eduki behar da, halaber, horrelako ekimenez inoiz ezin izanen dutela erakarri kasu bakoitzean esku hartu duten administrazio-organoen erantzukizunak desagertzea.

Bistakoa denez, aldeek gure bitartekotza eskatzen dutenean, guk esku hartu aurretik eurek bat etorri behar dute, bai bitartekotzarekin, bai gure bitartekotza planteatzeko moduarekin. Batzuetan, ez da erraza kontu hori zehaztea, zeren eta, hainbatetan, gure eskumenetik at diren eremuetan bitartekotza egitea eskatzen baitigute, edota, beste batzuetan, bitartekotzaren edukia hain mugatua denez, ez baita beharrezkoa izaten.

IAZKO TXOSTENERA ITZULITA, ARRADAN ZABORRAK BILTZEKO ETA UR HORNIKETARAKO TASEN EZARPEN BIKOITZA ZELA ETA, TARTEKO KONPONBIDEREN BAT LORTU AHAL IZATEKO EGIN GENUEN JARDUKETAREN BATEN BERRI EMAN GENUEN HAN, HAIN ZUZEN ERE KONTZEJU HORREN ETA MURILLO EL CUENDEKO UDALAREN ARTEKO ESKUMEN AUZIEN ONDORIOZ.

Hori zela eta, bi entitate horietako ordezkariak elkarrizketak egin genituen, eta horietan azaldu genien bitartekotza laneko gure ahaleginak, funtsean, bi entitateen artean nolabaiteko akordio edo konponbideren bat lortzera bideratu genituela, gutxienez ere behin-behineko konponbidea, administrazioarekiko auziaren epai behin betikoa ematen ez den bitartean, bizilagunek ur eta zaborren kontzeptuan eskatzen zaizkien kopuruak entitate horietako bati ordain ziezaizoten eta ez zitezen egon zeuden egoeran.

Egin beharreko gestio eta proposamenen ondotik, entitate horien ordezkariak konpromisoa hartu zuten, behin betiko epaia eman arte Arradako biztanleei adoerazitako kontzeptuengatik igorri zitzaizkien kopuruak kobratzen ez jarraitzeko.

Konponbide hori ez zen, gure ustez, lor zitekeen hoberena, baina egoera hori jasaten ari ziren herritarrak lasaitzeko baliagarria zen behintzat, auzi honi buruzko epaien ondorioz emanen den irtenbide behin betikoa izan artean, horixe aplikatu beharko baita orduan.

Aurten ere jaso dugu eskaeraren bat, gure bitartekotza-lana eskatuz. Oraingoan ere toki entitateen jarduketa zehatzei buruzkoa eta jarduketa horiek herritarrengan duten eraginari buruzkoa izan da eskaera, baina azkenean ez da gure eskuhartzearen beharrik izan, eskatzaileek adierazi baitziguten aldeek auzia behar bezala bideratu zutela. Beste batzuetan, aldiz, ez dugu esku hartzerik izan, bitartekotza-eginkizuna betetzeko modua oraindik zehazteke baitago.

**KEXARIK ESANGURATSUENEN AURKIBIDEA****1.- NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA****NEKAZARITZA**

– Getze-lbargoitiko bide batean luberria egitea.

**MERKATARITZA**

– Sektoreko enpresen zailtasunak, ordenagai luak erosi eta Internet sarearen konexioa eta erabilera bultzatzeko dirulaguntzak eskuratzeko eska-bideak tramitatzea.

– Saltoki batean erreklamazio orririk ez egotea, eta ondoren horren arioren irekitako espedientea.

– Sanferminetako saltzaile ibiltarien postuak esleitzeko sistema.

**2.- GIZARTE ONGIZATEA****ANTZINAKO UMEZURTZ-ETXEKO DATUEI ETA AGIRIEI BURUZKO INFORMAZIOA**

– Lehengo Nafarroako Amen eta Umezurtzen Etxeko datuak eta agiriak eskuratzeko, familia jatorriari buruzko informazioa lortzeko.

– Pertsona bati informazioa ematea, lehengo Nafarroako Amen eta Umezurtzen Etxean jaiotako eta adoptatu edo umeordetutako arropa gaur egun non dagoen jakin dezan.

**GARRAIOA ETA LAGUNTZAK**

– Pertsona bati bono-taxia ez ematea, adina dela eta.

– Etxez-etxeko laguntzarako dirulaguntzak.

## EGOITZAK

– Zaharren egoitzan eginiko egonaldiak eragindako zorrak eskatzea.

– Infanta Elena Zentroan emandako laguntza, langileen greba dela eta.

– Zaharren egoitzetan obrak egiteko dirulaguntzen deialdian ezarritako baldintzak betetzea.

## OZTOPO ARKITEKONIKOAK KENTZEA

– Ezintasuna duten pertsonentzako babes publikoko etxebizitzetako oztopo arkitektonikoak kentzea.

– Arkitektura oztopoak kentzea hautesleketan.

## 3.- KULTURA, KIROLA ETA ELEBITASUNA

## KULTURA

– Titulurik ez duten artelanen zaharbertzaileei lanerako baimena ematea.

## KIROLA

– Federazioko lizentziaren kopia lortzea.

## ELEBITASUNA

– Nafarroako Jaialdiei buruzko informazio-liburuxken argitalpena gaztelaniaz bakarrik.

– Berriozarko oinarrizko osasun barrutiko gripearen aurkako txertaketa kanpainari buruzko afixen eta diptikoen argitalpena gaztelaniaz bakarrik.

– Nafarroako Gobernuak “El euro, tu moneda” informazio-liburuxka igortzea.

– Euskaraz ematea arreta Bortzirietako osasun etxean (Lesakako oinarrizko osasun barrutia).

– Iruñeko Udalaren bulegoetan euskaraz ematea arreta.

– Euskaraz ez erantzutea, Iruñeko Udalari hala eskatu dion herritar bati.

## 4.- HEZKUNTZA

## ESKOLATZEA

– Ikasle etorkinen kontzentrazioa Tuterako ikastetxe publikoan.

– Oti 3 urtera bitarteko zikloan ikaspostu nahikorik ez izatea.

## HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK

– Tuterako eremuan, ezgaitasuna duten haurrei laguntza ematen jarraitzea oporraldian.

– Garun-perlesia duen haur baten hezkuntza-ibilbidea.

## IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA

– Atarrabiako “Lorenzo Goicoa” eskualdeko ikastetxe publikoaren banaketa, hizkuntza eredu desberdinen ondorioz.

– BHI bateko zuzendariak proposatutako ordutegiaren kontra aurkeztutako errekursoari erantzunik ez ematea.

## LAGUNTZAK ETA IKASTETXEETAKO MATRIKULAZIOA

– Testuliburuak erosteko dirulaguntzei buruzko informazio urria eta laguntzak atzerapenez ordaintzea.

– Ikasle bat udal musika eskola batean matrikulatzerakoan kontuan hartu beharreko inguruabarrak ez egiaztatzea.

– Famili ugariko kideak matrikulatzerakoan dagozkion onurak ez aplikatzea Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hizkuntzen Goi Mailako Eskolan.

## 5.- FUNTZIO PUBLIKOA

## ADMINISTRAZIO KARRERA

– [...] ospitaleko Barne Medikuntza zerbitzuetan aldian aldian baterako izendapena.

## ARAUBIDE JURIDIKOA

– Erradiologia Zerbitzuko erradiodiagnostiko arloko teknikari espezialisten eta erizaintzako diplomatuen eginkizunak mugatzea.

– Nafarroako administrazio publikoaren monte-pioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean borondatezko erretiroa hartzeko ezarritako baldintzak.

## HAUTAPEN PROZESUAK:

– Maisu-maistren kidegoan sartzeko eta aldi baterako kontratatutako izateko izangai-zerrendak osatzeko hautapen prozesuaren garapena.

## 6.- OGASUNA

## UDAL TRIBUTUAK

– Tasak ezartzea kalean performance bat egi-teagatik.

– Udal katastroko ondasunen titulartasuna aldatzea.

– Zergadunaren ordezkari hornidura, saneamendu eta hiri-hondakinen bilketa-zerbitzuen gaineko tasak eskatzea.

– Zabor-bilketaren gaineko tasa eskatzea zerbitzurik eman gabe.

## PREMIAMENDU PROZEDURA

– Ondasunak bahitzea horretarako ezarritako prozedura bete gabe.

Bankuko kontuaren bahiturarekin amaitu zen premiamendu prozeduraren garapena.

## TRIBUTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

– Sindikatu batek informazio ekonomikoa eskatzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuari.

## 7.- BARNEA

## TRAFIKOA

– Iruñeko Alde Zaharrea autoa aparkatzeko zailtasunak.

– Funtzionarioak ez diren langileek eginiko trafikoko salaketak.

– Baimendutako ordutegiaz kanpo aparkatzeagatik jarritako zehapena.

– Minusbaliatu txartela kentzea eta aparkatzeagatik isuna jartzea.

## IKUSKIZUN PUBLIKOAK

– Lodosako sokamuturra egiteko baldintzak.

## HERRITARREN SEGURTASUNA

– Iruñeko Udaltzaingoaren jarduketa grabatzea, Udalaren baimenarekin, eta irudi horietan agertzen diren pertsonen eskubideen babesa.

## 8.- JUSTIZIA

– Prokuradoreen Elkargoaren jarduna.

– Abokatuen Elkargoaren jarduna.

– Epaiak betetzea.

## 9.- INGURUMENA

## HIRIKO INGURUMENA

– Autoen garaje-tailer baten jardura aztertzea eta Udalak ezarritako neurri zuzentzaileak betetzea.

– Ostaturen pilaketak hirigune bateko alde batean eragiten dituen eragozpenak.

– Tabernetako musika ekipoen bolumena eta itxeko ordutegia kontrolatzea.

– Bizilagun-erkidego bateko garajearen atea sortutako zarata.

– Jarduera bat beharrezko lizentziarik gabe garatzea.

## INGURUMEN OSASUNA

– Hirigunetik gertu abeltzantzako ustiategiak egotea.

– Harrobietan garatutako jardura.

## 10.- HERRILANAK ETA ZERBITZUAK

## HERRILANAK

– Etxebizitza batera doan bidearen zoladura falta.

– Zeharbide baten egoera kaskarra eta konpontzeko beharra.

– Nahitaezko desjabetzapenaren espedienteak ebazteko atzerapena.

## ZERBITZUAK

– Plaza publiko batean terraza jartzeko baime-na ukatzea.

– Kalean mahaiak jartzea, sinadura biltzeko.

– Akatsak telefono zerbitzuaren funtzionamenduan.

## 11.- OSASUNA

## PEDIATRIA LAGUNTZA

– Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Pediatria zerbitzuko guardien araubidea.

– Lizarraldeko oinarrizko osasun barrutietako pediatria laguntza eta Lizarrako García Orcoyen ospitaleko Pediatria zerbitzuko guardien araubidea.

– Corella-Castejón oinarrizko osasun barrutiko pediatria laguntza.

## ABEREEN ETA ELIKAGAIEN OSASUNA

– Etxebizitza baten osasun eta higiene egoera, animaliak izateagatik.

– Osasun Publikoa Ikuskatzeko eta Elikagaien Higienarako Atalaren jardunaren baldintzak.

## OSASUN LAGUNTZA

– Bortzirietan emakumeari laguntzeko zentro espezializatua irekitzeko eskaera.

– Jaso ez den osasun prestazio bat ordaintzeko eskaera.

– Zentro pribatu batean ebakuntza egiteagatik izandako gastua itzultzeko eskaera.

– Nafarroan bizi den pertsona bati osasun txartel individuala berritzea ukatzea.

## 12.- LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

## PENTSIOAK

– Lanbidearteko gutxieneko soldatara iristen ez den pentsioa duen pentsioduna, alargun-pentsioentzat ezarri behar den dirulaguntza jasoko ez duena.



## GIZARTE SEGURANTZA

– Langile autonomoen kotizazioak, ondoriorik ez dutenak.

## 13.- ETXEBIZITZA ETA HIRIGINTZA

## HIRIGINTZA

– Arga ibaiko plan integrala betetzeko desjabetapen prozedura.

– Etxe bat eraikitzea lehendik zeuden beste batzuen ondoan.

– Enpresa baten instalazioak baimenik gabe eraikitzea.

– Eraikuntza lizentziak emateko baldintzak.

– Bide baten hirigintza egoera.

## ETXEBIZITZA

– Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan baremoak aplikatzeko moduari buruzko informazioa eta alokairu-araubideko etxebizitza babestuen beharra.

– Alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitza, araubide berezikoa, eskuratzeko eskaerei uko egitea.

– Sindikatuek eginiko babes publikoko etxebizitzaren adjudikazio prozedurak.

– Baremoen aplikazioa babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan eta administrazioak eginiko ikuskapena.

– Etxebizitza baten bizigarritasun-baldintza kaskarren egiaztapena, babes publikoko etxebizitzak adjudikatzeko prozedura batean.

– Eraikuntza akatsak babes publikoko etxebizitzetan eta bizikidetzak arazoak Vinsaren jabegoko etxebizitzaren errentarien artean.

## 14.- BESTELAKOAK

## TOKI ENTITATEEN FUNTZIONAMENDUA

– Herritarren elkarte bat elkarteen udal erregistroan inskribatzeko atzerapena.

– Kontzejukide kargua betetzeko zailtasunak, horretarako beharrezkoa den informazioa eskuratzetik ez izateagatik.

## NAFARROAKO ARARTEKOAREN EBAZPENEI ETA INFORMAZIO ESKARIEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNAREN BALIOES-PENA

Gure jarduketetan eta administrazio desberdinekin ditugun harremanetan, behin eta berriro azpimarratzen dugu haien laguntzarik gabe ezi-

nezkoa dela ordenamendu juridikoak erakunde honi esleitu dizkion eginkizunak betetzea.

Lankidetzak hori bi modutakoa izaten da, eta hori ere nabarmendu nahi dugu; alde batetik, administrazioek gure informazio-eskei emandako erantzunak daude, eta bestetik, erakunde honek gomendio, legezko betebeharren gogorarazpen nahiz iradokizun gisa emandako ebazpenei haiek emandako erantzunak, alegia, zenbateraino bete eta onartzen dituzten.

Lehenengo gaiari dagokionez, gure ustez, arartekoaren ikuskapen-jardura garatu ahal izateko behar-beharrezkoa da kasuko administrazioak beharrezkoa dugun informazioa igortzeko ahalegina egitea, eta hartara, administrazioaren jardunari buruzko justifikazioa eta azalpenak ere eman beharko lituzke askotan. Horretaz gain, herritarrak pozik egoteko ez arartekoaren erakundearekin, baizik eta beren administrazioarekin berarekin ere, garrantzitsua da ezagut dezatela administrazioak zer-nolako gogoeta egiten duen beren kexaren sorburu den egoerari buruz.

Helarazten zaizkigun kexak direla eta, gure jardunaren aldi hori garrantzitsua bada ere, aipatu dugun bigarren gaiari jarri nahi dugu arreta txosten honetan, bistakoa baita batzuetan hainbat administrazioek ez duela behar bezala justifikatzen gure ebazpen edo jarraibideen aurrean hartzen duen jarrera .

## INFORMAZIO ESKAEREI EMANDAKO ERANTZUNENA

Hala eta guztiz ere, azaldu dugun gaiari heldu aurretik, ezinbestekoa da aipatzea askotan gertatzen den administrazioen atzerapena, helarazten zaizkigun kexekin lotutako informazio eskei erantzuterakoan.

Joera hori aurreko urteetan bezala mantentzen da, eta batzuetan eragozten du herritarren eskakizunei erantzun azkarra eman ahal izatea. Eta hori guztia, kontuan hartuta orokorrean malgutasunez jokatzen dugula administrazioek erantzuteko duten epeari dagokionez, kasuaren arabera, eta epe horiek legeak ezarritakoekiko murrizten direla soilik gaiak erakunde honen berehalako esku-hartzea eskatzen duenean eta beranduago esku hartzea alferrikakoa denean.

Egia bada ere administrazioek eta ikuskatutako erakundeek ez diotela inoiz uko egin gure hasierako informazio eskeari erantzuteko betebeharrari, askotan bi aldiz ere egin behar izan dugu eskaera, eta horrek atzerapena dakar kexa aurkeztu duenarentzat, ezin baitiogu gure jarduketaren berri eman zentzuzko tarte batean.

Nahiko adierazgarria eta larria da hamar erakunderi haien jarrera oztopatzaileaz hemezortzi aldiz ohartarazi behar izana. Izan ere, gure informazio eskaerei edo kexei buruzko espedienteetan, zegokion gaia sakonki aztertu ondoren, emandako ebazpenei ez erantzutean erakunde honi bere eginkizunak betetzea eragozten zioten. Eta hori guztia administrazio edo erakundearen arduradunari hiru bider ere erantzuna eskatu ondoren.

Kasu hauek izan dira:

NAFARROAKO GOBERNUA:

Ekonomi eta Ogasun Dep.

- 02/266/H espedientea, PFEZ aitorpeneko kenkariei buruzkoa
- 03/5/H espedientea, etxez-etxe laguntzaren tributazioari buruzkoa
- 03/12/H espedientea, enpresa baten helbide fiskalaren aldaketari buruzkoa
- 03/78/H espedientea, PFEZaren errenta salbuetsiei buruzkoa

Nafarroako Tributu Ogasuneko zergadunen espediente fiskalen konfidentzialtasunari buruzko txostena, Nafarroako Parlamentuak eskatua

Osasun Departamentua

02/31/S espedientea, osasun zentro batean arreta euskaraz emateari buruzkoa

02/32/S espedientea, osasun zentroan arreta euskaraz emateari buruzkoa

02/383/S espedientea, osasun zentroan tratamendua ematean izandako atzerapenari buruzkoa

Hezkuntza eta Kultura Departamentua

• Altzuzako (Nafarroa) Jorge Oteiza museoaren ondare publikoaren babesari buruzko txosten berezia, Nafarroako Parlamentuak eskatua

TOKI ADMINISTRAZIOA:

Arakilgo Udala

02/311/U espedientea, lizentzia emateko baldintzei buruzkoa

Burlatako Udala

02/79/U espedientea, obrak lizentziarik gabe egiteari buruzkoa

Lizarrako Udala

• 02/363/O espedientea, eremu berde bat egoitzeari buruzkoa

Larragako Udala

• 03/51/O espedientea, bide bateko eustormaren egoerari buruzkoa

Los Arcosko Udala

01/363/U espedientea, obra lizentzia baten legezkotasunari buruzkoa

Iruñeko Udala (Hiritarren Babeserako Alorra)

• 02/89/I espedientea, bizilagunen txartela ez emateari buruzkoa

Iruñeko Udala (Gizarte Zerbitzuen eta Emakumearen Alorra)

• 02/105/B espedientea, bono-taxia ez emateari buruzkoa

• 02/221/B espedientea, bono-taxia ez emateari buruzkoa

Garesko Udala

01/344/U espedientea, obra lizentzia baten legezkotasunari buruzkoa

03/49/U espedientea, obren ondorioz etxebizitza batean izandako kalteei buruzkoa

Vianako Udala

02/154/M espedientea, tabernetako zarata eta ordutegiak kontrolatzeari buruzkoa

Txosten honetan alderdi hori nabarmendu nahi izan dugu, eta hori dela eta, ohartarazpen horiek izan diren kasuak aipatu ditugu. Izan ere, ezin daiteke esan administrazioekin ditugun harreman guztietan orokorrean jarrera hori hartzen dutenik, baina kezkatuta gaude, jarrera horrek erakunde honekiko lege ezarritako betebeharrak betetzearen haustura dakarrelako, eta horretaz gain, begirunerik gabeko jarrera bat delako zuzenbide estatuan ezarritako bitartekoak erabiliz arartekoa bezalako erakunde berme-emaille batera euren eskubideen defentsan jo duten herritarrekiko.

Zerrendatutako espedienteetan arartekoari laguntza txikia eman dioten erakunde horien aipamenarekin batera –izan ere, administrazio horiek bestelako jarrera izan dute beste espediente batzuekiko–, bidezkoa iruditzen zaigu kontrako egoerak aipatzea ere, hau da, arartekoari laguntza handia emateagatik nabarmendu diren erakunde edo entitateak, eskatu zaienean planteatutako kasuei buruzko informazio zabala igorri digutelako, baita arartekoak eginiko iradokizunak ondo hartu dituztelako ere.

Horrela, bada, ondoko erakundeen aipamen berezia egin nahi dugu, nahiz eta zerrenda zehatza ez izan, hauek ez baitira bakarrak:

## NAFARROAKO GOBERNUA:

Hezkuntza Departamentua

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

Nekazaritza Departamentua

## TOKI ADMINISTRAZIOA:

Iruñeko Udala (Hirigintza eta Etxebizitza Alerra)

Tafallako Udala

Tuterako Udala

## BESTE ERAKUNDE BATZUK:

Iruñeko Abokatuen Elkargoa

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

## EBAZPENAK ONARTZEA

Garrantzitsua da konturatzea ezen Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bere helburuak lortzeko eta –esan liteke– arartekoaren erakundea arautzen duen legeak taxuturiko araubide juridikorekin ikuspegitik ezagutu ahal izateko moduan koherentzia gordetzeko ere, fiskalizazioaren xede den administrazioaren lankidetzat izan behar duela, bai fase instrumentalean bai bere adierazpenak egiteko amaierako fasean ere. Izan ere, horrelako lankidetzarik gabe ezin izanen luke esleituta daukan kontrol-eginkizuna bete. Bien arteko harremanak nahitaez oinarrituta egon behar du elkarrekiko konfiantzaren eta leialtasun instituzionalaren printzipioan, zeren eta, azken batean, egiten duen ikuskeraren xedea baita, arartekoari buruzko 1. artikulua dioen bezalaxe, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta libertateak defenditzea eta hobeki babestea; herritarrak administrazioaren balizko abusu eta akatsen aurrean babestea izanen du eginkizun nagusi.

Erakunde honek gomendio, legezko betebeharren gogorazpen nahiz iradokizun gisa emandako ebazpenei haiek emandako erantzunak, alegia, zenbateraino bete eta onartzen dituzten, administrazio publikoen eta Nafarroako arartekoaren arteko lankidetzat harremanen isla esanguratsua dira.

Hori lotuta, aurreko urteetako txostenetan erakunde honek ematen dituen ebazpenak, era guzti-etaoak, modu egokian sakondu eta argudiatzeko egiten duen ahalegina eta kezka azaldu ditugu. Eta hori bi arrazoirengatik. Batetik, administrazioari jarduera edo zerbitzu publikoarekin lotutako ardurak betetzeko modua aldatzeko eskatzeko, edota

legeak ezarritako betebeharrak gogorazteko, eztabaidatu ezineko argudio sendoak beharrezkoak direlako. Baina, bestetik, ezin dugu ahaztu gure ebazpenek es dutela indar exekutiborik. Horrenbestez, zalantzarik gabe, langintza horretan “persuasio-magistratura” deritzona gauzatu behar da, horixe baita honelako erakunde berme-emaitzen bereizgarria.

Ikuspuntu kuantitatibo batetik, bistan da gure helburua dela administrazioek gure ebazpen guztiak onartzea. Baina ebazpen horiek hertsatzaileak ez izateak dakar jasotzen dituzten administrazioek horietako asko kontuan ez hartzea.

Dena den, onartuta batzuetan administrazio horiekin desadostasunak egon daitezkeela, kexak oinarritzat hartzen dituen gertakariak gaineko iritzi desberdinak ditugulako, edota arau eta jurisprudentzia aplikagarriaren interpretazio desberdina egiten dugulako, larritzat jo behar dira administrazioak gure gomendio eta iradokizunei kasurik egiten ez dien egoerak, edo legezko betebeharren gogorazpenak inolako oinarririk gabe kontuan hartzen ez dituenekoak; izan ere, batzuetan lau lerroko erantzunaren bidez adierazten digute, besterik gabe, dagokion ebazpena ez dutela onartzen, eta horrek eragozten du bakoitzaren iritziak kontrajarri ahal izatea, lehen aipatu dugun moduan.

Hori ez dela ohiko erantzuna onartu behar bada ere, halakoak jokabide desegokiak dira, gure ustez. Lehenik eta behin, erakunde honek ahalegin handia egiten duelako argudioak ematen, eta ahalegin horrek ez du ordainik jasotzen ukitutako administrazioaren aldetik. Horretaz gain, eta agian hori da garrantzitsuena, arartekoaren ebazpen bat ez onartzea, horretarako arrazoiak behar bezala justifikatu gabe, Nafarroako Parlamentuaren erakunde komisario bati zor zaion aitortpenarentzat eraso da.

Ondoren nabarmenduko ditugun kasuetan egoera hori larria eta esanguratsua izan da, gure ustez. Halaber, kasuan kasuko administrazioa ere aipatzen da, baita gaia eta azkenean, izandako erantzunaren ondorioz, kexa espedientea artxibatzeko modua ere:

## NAFARROAKO GOBERNUA:

**Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua**

01/282/B, 02/150/B, 03/155/B eta 03/192 espedienteak, lehengo Nafarroako Amen eta Umezurtzen Etxeko datuak eta agiriak eskuratzeari buruzkoak, familia jatorriari buruzko informazioa lortzeko, eta 02/72/B espedientea, pertsona bati

informazioa emateari buruzkoa, lehengo Nafarroako Amen eta Umezurtzen Etxean jaino eta adoptatu edo umeordetutako arreba gaur egun non dagoen jakin dezan.

Planteatutako gaiak sakonki aztertu ondoren, lehen lau espedienteetan gomendioak eman ziren, eta horietako azkenean baita iradokizun bat ere. Horietan adierazten zen, gure ustez, pertsona horiei baimena eman beharko litzaiekeela, Departamentuko artxiboetako senitartekoei buruzko datuak eta agiriak ikusteko –ez ordea besterik, bistakoa denez–, eta horretarako arrazoiak, nagusiki juridikoak, zabal azaldu genituen.

Hilabete batzuetan Gizarte Ongizate Departamentuarekin harremana mantendu ostean –aipatu espedientei buruz eskatutako hasierako txostena ere bidali ziguten–, azkenean Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentura bidali gaituzte gure gomendioen eta iradokizunaren behin betiko erantzunaren bila. Izan ere, Nafarroako Gobernuan izandako berregituraketaren ondorioz, aipatu departamentua sortu da eta hortik aurrera, Gizarte Ongizate Departamentuaren arabera, “Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuari eta Ondare Historikoaren Zerbitzuari dagokie Nafarroako Ume Abandonatuen Etxeko espediente eta gauza guztiak tramitatzeke, kudeatzeko eta gordetzeko eskumena”.

Aldi batez erantzunaren zain egon ondoren, azkenik, txosten hau prestatzean amaitu aurretik jaso genuen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren erantzuna, edukia- ren aldetik berdintsua kasu guztietarako. Bertan kontseilari jaunak aipatu espedienteetan planteatutako kasuen modukoak aztertu ahal izateko jarraitu beharreko prozedura azaltzen zuen, Nafarroako Gobernuaren baitan artxiboen arloan egin den berregituraketatik hasita, departamentuak horrekin loturiko eginkizun guztiak bere gain hartu artekoa, baita “lan ildoak eta, are gehiago, berarizko unitate mistoak” ezartzeko beharra ere.

Horrela, eta espediente horiek jarraitutako tramitazioari buruzko beste azalpen batzuk alde batera utzita, aurkitu duguna da, dirudenez, antolamenduarekin loturiko arrazoi bidez auzi horri buruzko erabaki bat hartzea atzeratu nahi dela, edo hori ondorioztatzen da behintzat emandako erantzunetik. Hori dela eta, antolamenduari buruzko kontu horiek eragina dute ukitutako pertsonengan, eta pertsona horiek ez lukete halako zalan-tzarik jasan beharko azaldu zaizkigun arrazoiak direla medio.

## Osasun Departamentua

02/155/S espedientea, Nafarroako Ospitaleko larrialdien zerbitzuan ingresatuta zegoen pertsona baten heriotza zer egoeratan gertatu zen argitzeari buruzkoa.

Kasu horretan, eta horren harira irekitako ondarre-erantzukizuneko espedientea, kalte-ordain eskariaren onespenerekin amaitu zena, eta Osasunbidearen erakunde aseguratzailearen eskariz eginko kanpoko txosten medikoa ikusirik, zegokion gomendioa egin genuen, barneko azterketa edo ikerketa egin zedin, aztertutako kasuan emandako laguntzaren inguruabarrak eta balizko akatsak zehazte aldera, kasua bada, behar diren zuzenketak ezartzeko eta, beharrezkoa balitz, dagozkion erantzukizunak eskatzeko.

Departamentuari adierazi genion halako kasuetan gure lana dela egiaztatzea noraino den beharrezkoa administrazioak dagokion ikerketa edo barne azterketa egitea, emandako laguntzaren inguruabarrak zehazteko eta ustezko praxis okerraren alderdiak balioztatzeke, funtsean jokamolde hori zuzentzeko eta halakorik berriro ez gertatzeko hartu beharreko neurriak ezartze aldera.

Hala, bada, nahiz eta hiru aldiz zuzendu gataizkion aipatu departamentuari guk emandako gomendioari buruzko iritzia ezagutu nahian, ez dugu erantzunik jaso.

TOKI ADMINISTRAZIOA:

### Iruñeko Udala

- Gizarte Zerbitzuen eta Emakumearen Alorra

02/105/B eta 02/221/B espedienteak, adinarekin lotutako arrazoiak direla medio bono-taxia ez emateari buruzkoak.

Bi kasu horietan, Iruñeko Udalak 2002. urterako onartutako bono-taxia eskuratzeko bakarkako dirulaguntzen oinarrietako 3. atala aztertu ondoren, ikusi genuen oinarri horiek Konstituzioan jasotako berdintasun printzipioa urratzen zutela, 65 urte baino gehiagorekin ezgaitutzat jo dituzten 75 urtetik gorakoei ematen zaien tratua- ren ondorioz. Hori zela eta, kexa aurkeztu zutenei bono-taxia- rentzako dirulaguntzak ukatzen zizkien ebazpena deuseztatzeko gomendioa eman genuen, baita oinarrietako 3. atala indargabetzekoa ere, aipaturiko 75 urteko mugari dagokionez.

Aipatu udalari hiru eskaera egin genizkion, gure gomendioa onartzen zuen edo ez adieraz zezan, eta ez genuen erantzunik jaso. Azkenean, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzenduriko espediente baten kopia bidali ziguten, guk eskatu ez genuena, udalbatzak gure gomendioaren gai-

nean zer iritzi zuen espresuki jakinarazi gabe. Hori dela eta, espediente itxi behar izan genuen, kexa aurkeztu zutenei gure jarduketan emaitzaren berri eman gabe.

- Hiritarren Babeserako Alorra

02/97/H eta 02/333/I espedienteak, horretarako ezarritako prozedura bete gabe ondasunak bahitzeari buruzkoa eta baimendutako ordutegiaz kanpo aparkatzeagatik jarritako zehapenari buruzkoa.

Bi kexa-espediente horietan gomendioak eman ziren, batetik, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 1993ko likidazioa eta trafiko espediente batean ezarritako zehapena baliorik gabe uzteko, egindako arau-hausteak preskribitu duelako, eta bestetik, ezarritako zehapenaren zati bat kentzeko eta zenbateko hori arau-haustearen larritasun eskasarekin bat datorren beste batez ordeztzeko, eta premi-amendu-probidentziarekin hasitako prozedura exekutiboa bertan behera uzteko.

Bi espedienteetan, kexa garrantzitsuenen atalean egiten dugun azalpen osoan egiazta daitekeen moduan, gure iritziaren arrazoiak zabal azaldu genituen. Horietako lehenean, administrazioak arau-haustearen eta tributu likidazioaren preskripzioa ofizios deklaratzeko betebeharra du, hori ordena publikoari dagokion gaia baita eta administrazio publikoari Konstituzioak aitortutako berdintasun printzipioaren mende baitago.

Bigarren espedienteetan, zehatutako kasua larritzat jotzen diren zehapenetatik kanpo dagoela ikusirik, kexaren xede zen zehapenari arau-hauste arinaren kalifikazioa zegokiola ondorioztatzen zelako.

Gure gomendioetan biltzen diren arrazoiak behin eta berriro azaldu ondoren, aipatu Udaleko Hiritarren Babeserako Alorreko zinegotzi delegatuen erantzuna irisi zitzaigun. Kasu bakoitzerako erantzun gisa 4 edo 5 lerroko idazki laburrak bidali zizkigun. Lehen kasuari dagokionez, erantzun zigun arau-hausteak ez zuela preskribitu, eta bigarrenari dagokionez, berriz, arau-haustea larritzat jotzen zela, bestelako azalpenik eman gabe eta gure iritzia argudiatzeko ematen genituen azalpenak eztabaidatu gabe.

03/81/I espedienteak, minusbaliatu txartela kentzeari eta aparkatzeagatik isuna jartzeari buruzkoa.

Espediente horretan, minusbaliatuentzako gordetako gunean zegoen auto bat kentzeagatik eta zegokion zehapena jartzeagatik aurkeztu zen kexa; izan ere, autoak Donostiako Udalak emandako minusbaliatu-txartela zuen. Gomendio bat

eman genuen, ezgaitasuna duten pertsonen aparkatzeko txartelak onar daitezkeen, baldin eta pertsona horiek txartela eman zaien tokian eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte; finean, txartel hori lruñean erabiltzeko aukera eman dadila, Europako Batasunaren Gomendioa eta Trafikoari buruzko legean ezarritakoa betetze aldera.

Horretaz gain, eta kexa aurkeztu zuen pertsonari dagokionez, udalari eskatu genion bere txartela itzultzeko, bere eskubidea erabili ahal zezan, baita ezarritako zehapena deuseztatzeko eta isunarengatik ordaindutako zenbatekoa itzultzeko ere.

Udalak txartela itzultzea soilik onartu zuen. Zehapena deuseztatzeari eta ordaindutakoa itzultzeari dagokionez, berriz, ez zuela halakorik egiten erantzun zuen, ezta zehapen espedienteak artxibatu ere, ezarritako zehapenaren aurka ez baitzen alegaziorik ezta errekurtsorik aurkeztu. Hala, ez zuen aintzat hartu ordenamendu juridikoak erakunde honi aitortzen dion eginkizuna, herritarrek haien eskubideen alde egiteko zuzenbide estatuak ezarritako baliabide gisa.

#### ONARTU DIREN, ONARTU EZ DIREN ETA ERANTZUN ZAIN DAUDEN EBAZPENEN ZERRENDA

Ondoren 2003. urtean emandako ebazpenen zerrenda –gomendioak, legezko betebeharren gogorarazpenak eta iradokizunak– azaltzen da eta onartu diren, ez diren onartu edo erantzun zain dauden adierazten da. Zerrendarekin hasi baino lehen, nabarmendu nahi dugu gure ebazpenen onartze-mailak onargarria izaten jarraitzen duela.

Kontuan hartzen badugu guztira 91 ebazpen eman direla, 2001eko 24 ebazpenen edo 2002ko 48 ebazpenen aldean, eta horietatik 7 erantzun zain daudela, 61 onartu direla eta 23 ez direla onartu, ikusiko dugu ebazpenen % 73 onartu dela, gutxi gorabehera, eta ehuneko hori % 80ra igotzen dela, kontuan hartzen baditugu erakunde honen esku-hartzearen ondorioz, administrazioak herritarren eskaria onartzen dueneko edota planteatutako arazoari konponbideren bat ematen dioneko kasuak.

2003. urtean garatutako jardueri buruzko informazio zabala nahi izanez gero, aurrerago ikus daiteke urte horretako estatistikari eta balorazioari buruzko atala.

#### ONARTU DIREN EBAZPENAK

##### NAFARROAKO GOBERNUA:

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua

02/163/A espedientea. Sektoreko enpresek ordenagailuak erosi eta Internet sarearen konexioa eta erabilera bultzatzeko dirulaguntzak eskuratzeko eskabideak tramitatzeko dituzten zailtasunak.

03/141/A espedientea. Saltoki batean erreklamazio orririk ez egotea, eta ondoren horren ariora irekitako espedientea (legezko betebeharren gogorazpena).

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentua

02/198/B eta 02/235/B espedienteak. Infanta Elena Zentroan emandako laguntza, langileen greba dela eta (gomendioa).

02/209/B espedientea. Zaharren egoitzan eginitako egonaldiak eragindako zorrak eskatzea (gomendioa).

02/267/E espedientea. Otik 3 urtera bitarteko zikloan ikaspostu nahikorik ez izatea eta postu horietan sartzeko aplikagarri den baremoa (gomendioa).

03/54/B espedientea. Zaharren egoitzetan obrak egiteko dirulaguntzen deialdian ezarritako baldintzak betetzea (iradokizuna).

Hezkuntza eta Kultura Departamentua

01/239/C espedientea. Nafarroako Jaialdiei buruzko informazio liburuxkak erdara hutsez argitaratzea (gomendioa).

02/231/F espedientea. Maisu-maistren kidegoan sartzeko eta aldi baterako kontratatuak izateko izangai-zerrendak osatzeko hautapen prozesuaren garapena (legezko betebeharren gogorazpena).

02/254/E espedientea. Testuliburuak erosteko dirulaguntzei buruzko informazio urria eta laguntzak atzerapenez ordaintzea (gomendioa).

02/267/E espedientea. Otik 3 urtera bitarteko zikloan ikaspostu nahikorik ez izatea eta postu horietan sartzeko aplikagarri den baremoa (gomendioa).

03/70/E espedientea. Garun-perlesia duen haur baten hezkuntza-ibilbidea (iradokizuna).

03/92/E espedientea. BHI bateko zuzendariak proposatutako ordutegiaren aurka aurkeztutako errekursoari erantzunik ez (legezko betebeharren gogorazpena).

Ekonomia eta Ogasun Departamentua

03/85/H espedientea. Sindikatu batek informazio ekonomikoa eskatzea (gomendioa).

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua

02/107/B espedientea. Ezintasuna duten pertsonentzako babes publikoko etxebizitzetako oztopo arkitektonikoak kentzea (legezko betebeharren gogorazpena).

02/263/U eta 03/87/U espedienteak. Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan baremoak aplikatzeko moduari buruzko informazioa eta alokairu-araubideko etxebizitza babestuen beharra (gomendioa).

02/361/U espedientea. Alokairu-araubideko babes publikoko etxebizitza, araubide berezikoa, eskuratzeko eskaerei uko egitea (gomendioa).

03/43/U espedientea. Baremoen aplikazioa babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan eta administrazioak eginitako ikuskapena (gomendioa).

03/56/U espedientea. Etxebizitza baten bizigarritasun-baldintza kaskarren egiaztapena, babes publikoko etxebizitzak adjudikatzeko prozedura batean (gomendioa).

03/60/U espedientea. Sindikatuek eginitako babes publikoko etxebizitzaren adjudikazio prozedurak (gomendioa).

03/129/U espedientea. Eraikuntza akatsak babes publikoko etxebizitzetan eta bizikidetzara zoak Vinsaren jabegoko etxebizitzaren errentarien artean (legezko betebeharren gogorazpena).

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua

02/318/O espedientea. Zeharbide baten egoera kaskarra eta konpontzeko beharra (legezko betebeharren gogorazpena).

02/350/O espedientea. Nahitaezko desjabetzapenaren espedientea ebazteko atzerapena (legezko betebeharren gogorazpena).

Osasun Departamentua

01/267/F espedientea. Ospitaleko Barne Medikuntza zerbitzuruaren aldi baterako izendapena (legezko betebeharren gogorazpena).

02/37/S espedientea. Emakumeari laguntzeko zentro espezializatua Bortzirietan (gomendioa).

02/100/C espedientea. Berriozarko oinarrizko osasun barrutiko gripearen aurkako txertaketa kanpainari buruzko afixen eta diptikoen argitalpena gaztelaniaz bakarrik (gomendioa).

02/197/S espedientea. Emakumeari laguntzeko zentro espezializatua Bortzirietan (gomendioa).

03/22/S espedientea. Osasun Publikoa Ikusatzeko eta Elikagaien Higienarako Atalaren jardunaren baldintzak (gomendioa).

03/34/S espedientea. Lizarraldeko oinarritzko osasun barrutietako pediatria laguntza eta Lizarrako García Orcoyen ospitaleko Pediatria zerbitzuko guardien araubidea (gomendioa).

03/90/S espedientea. Langileak kontratatzeo hautapen-prozesuetan parte hartzeo eskariari erantzunik ez (legezko betebeharren gogorazpena).

03/95/S espedientea. Jaso ez den osasun prestazio bat ordaintzeo eskaera. (legezko betebeharren gogorazpena).

03/107/S espedientea. Nafarroan bizi den pertsona bati osasun txartel indibiduala berritzea ukatzea (gomendioa).

TOKI ADMINISTRAZIOA:

Iruñeko Udala

01/348/C espedientea. Iruñeko Udalaren bulegoetan euskaraz ematea arreta (gomendioa).

02/21/I espedientea. Iruñeko Alde Zaharrean autoa aparkatzeko zailtasunak (iradokizuna).

02/175/E espedientea. Otik 3 urtera bitarteko zikloan ikaspostu nahikorik ez izatea (iradokizuna).

02/260/E espedientea. Tasak ezartzeo kalean performance bat egiteagatik (gomendioa).

02/267/E espedientea. Otik 3 urtera bitarteko zikloan ikaspostu nahikorik ez izatea eta postu horietan sartzeko aplikagarri den baremoa (gomendioa).

02/358/A espedientea. Sanferminetako saltzaille ibiltarien postuak esleitzeko sistema (gomendioa).

03/100/I espedientea. Iruñeko Udaltzaingoaren jarduketa grabatzeo, Udalaren baimenarekin, eta irudi horietan agertzen diren pertsonen eskubideen babesa (iradokizuna).

03/128/H espedientea. Bankuko kontuaren bahiturarekin amaitu zen premiamendu prozeduraren garapena (gomendioa).

03/247/O espedientea. Kalean mahaiak jartzeo, sinadura biltzeo (iradokizuna).

Tuterako Udala

02/261/E espedientea. Ikasle bat udal musika eskola batean matrikulatzerakoan kontuan hartu

beharreko inguruabarrak ez egiaztatzeo (gomendioa).

02/354/M espedientea. Bizilagun-erkidego bateko garajearen atea sortutako zarata (legezko betebeharren gogorazpena).

03/109/O espedientea. Plaza publiko batean terraza jartzeko baimena ukatzeo (gomendioa).

Tafallako Udala

02/271/H espedientea. Udal katastroko ondusunen titulartasuna aldatzeo (gomendioa).

Burlatako Udala

– Autoen garaje-tailer baten jarduna aztertzeo eta Udalak ezarritako neurri zuzentzaileak beteetzeo (gomendioa).

Lizarrako Udala

02/62/U espedientea. Etxe bat eraikitzeo lehendik zeunden beste batzuen ondoan (legezko betebeharren gogorazpena).

Ablitasko Udala

03/25/M espedientea. Jarduera bat beharrezko lizentziarik gabe garatzeo (legezko betebeharren gogorazpena).

Baztango Udala

02/318/O espedientea. Zeharbide baten egoera kaskarra eta konpontzeo beharra (legezko betebeharren gogorazpena).

Corellako Udala

02/241/U espedientea. Enpresa baten instalazioak baimenik gabe eraikitzeo (gomendioa).

Ribaforadako Udala

02/49/I espedientea. Funtzionarioak ez diren langileek eginiko trafiko salaketak (legezko betebeharren gogorazpena).

Aranguren Ibarreko Udala

02/357/U espedientea. Bideen hirigintza-egoerari buruzko informazio eskaerari ez erantzuteo (legezko betebeharren gogorazpena).

Zizur Nagusiko Udala

02/391/S espedientea. Etxebizitza baten osasun eta higiene egoera, animaliak izateagatik (iradokizuna).

Illarregiko Kontzejua

02/296/O espedientea. Etxebizitza batera doan bidearen zoladura falta (iradokizuna).

Getze-Ibargoitiko Kontzejua

02/219/A espedientea. Herriko bidean luberria egitea (legezko betebeharren gogorazpena).

Jurramendiko Mankomunitatea

03/62/H espedientea. Zergadunaren ordezkoi hornidura, saneamendu eta hiri-hondakinen bilketa-zerbitzuengatik tasak eskatzea (iradokizuna).

Agoizko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea (10. barrutia)

03/112/H espedientea. Zabor-bilketaren gaineko tasa eskatzea zerbitzurik eman gabe (legezko betebeharren gogorazpena).

BESTE ERAKUNDE BATZUK:

Nafarroako Futbol Federazioa

02/392/C espedientea. Federazioko lizentziaren kopia lortzea (gomendioa).

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

03/132/E espedientea. Famili ugariko kideak matrikulatzerakoan dagozkion onurak ez aplikatzea Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hizkuntzen Goi Mailako Eskolan (iradokizuna).

Iruñeko Prokuradoreen Elkargoa

02/365/J espedientea. Salaketa bati erantzunik ez ematea (gomendioa).

Iruñeko Abokatuen Elkargoa

02/372/J espedientea. Elkargoak hartutako erabakietan jar daitezkeen errekurtsioak adieraztea (iradokizuna).

EBAZPEN EZ ONARTUAK

NAFARROAKO GOBERNUA:

Hezkuntza eta Kultura Departamentua

02/73/C espedientea. Titulurik ez duten artelaren zaharberritzaileei lanerako baimena ematea (gomendioa).

02/87/E espedientea. Tuterako eremuan, ezgaitasuna duten haurrei laguntza ematen jarraitzea oporraldian (gomendioa).

02/280/E espedientea. Atarrabiako "Lorenzo Goicoa" eskualdeko ikastetxe publikoaren banaketa, hizkuntza eredu desberdinen ondorioz (gomendioa).

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

03/15/C espedientea. Nafarroako Gobernuak "El euro, tu moneda" informazio-liburuxka igortzea (legezko betebeharren gogorazpena).

03/114/F espedientea. Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen esku-bide pasiboen araubide iragankorrari buruzko mar txoaren 5eko 10/2003 Foru Legean borondatezko erretiroa hartzeko ezarritako baldintzak (iradokizunak).

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua

01/282/B, 02/150/B, 03/155/B eta 03/192 espedienteak. Lehengo Nafarroako Amen eta Umezurtzen Etxeko datuak eta agiriak eskuratzea, familia jatorriari buruzko informazioa lortzeko (gomendioa).

02/72/B espedientea. Pertsona bati informazioa ematea, lehengo Nafarroako Amen eta Umezurtzen Etxean jaio eta adoptatu edo umeordetutako arreba gaur egun non dagoen jakin dezan (iradokizuna).

Osasun Departamentua

01/343/F espedientea. Erradiologia Zerbitzuko erradiodiagnostiko arloko teknikari espezialisten eta erizaintzako diplomatuen eginkizunak bereiztea (legezko betebeharren gogorazpena).

02/27/S espedientea. Guardiaren araubidea Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Pediatriako zerbitzuan (gomendioa).

03/96/S espedientea. Zentro pribatu batean ebakuntza egiteagatik izandako gastua itzultzeko eskaera (gomendioa).

TOKI ADMINISTRAZIOA:

Iruñeko Udala

02/97/H espedientea. Horretarako ezarritako prozedura bete gabe ondasunak bahitzea (gomendioa).

02/105/B eta 02/221/B espedienteak. Adinarekin lotutako arrazoiak direla medio bono-taxia ez ematea (gomendioa).

02/333/I espedientea. Baimendutako ordutegi-az kanpo aparkatzeagatik jarritako zehapena (gomendioa).

03/81/I espedientea. Minusbaliatu txartela kentzea eta aparkatzeagatik isuna jartzea (gomendioa).

02/333/U espedientea. Desjabetzapenak ukitutako finka ixteko baldintzak (gomendioa).

Arakilgo Udala

02/311/U espedientea. Desjabetzapenak ukitutako finka ixteko baldintzak (gomendioa).



**Pitillasko Udala**

02/319/V espedientea. Herritarren elkarte bat elkarrean udal erregistroan inskribatzeko atzerape-na (gomendioa).

**Garesko Udala**

01/344/U espedientea. Hirigintzaren arloan ezarritako betebeharrak ez betetzea obra lizentzia ematerakoan (legezko betebeharren gogorazpena).

**Los Arcosko Udala**

01/363/U espedientea. Hirigintzaren arloan ezarritako betebeharrak ez betetzea obra lizentzia ematerakoan (gomendioa).

**Vianako Udala**

02/154/M espedientea. Tabernetako musika ekipoen bolumena eta ixteko ordutegia kontrolatzea (legezko betebeharren gogorazpena).

**ERANTZUN ZAIN DAUDEN EBAZPENAK****NAFARROAKO GOBERNUA:**

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentua

02/375/B espedientea. Etxez etxeko laguntzarako dirulaguntzak (gomendioa).

02/48/E espedientea. Ikasle etorkinen kontzentrazioa Tuterako ikastetxe publikoan (gomendioa).

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

03/136/I espedientea. Lodosako sokamuturra egiteko baldintzak (gomendioa).

**TOKI ADMINISTRAZIOA:****Iruñeko Udala**

03/17/C espedientea. Euskaraz ez erantzutea, Iruñeko Udalarri hala eskatu dion herritar bati (gomendioa).

**Ablitasko Udala**

02/224/M espedientea. Hirigunetik gertu abeltzaintzako ustiatuegiak egotea (gomendioa).

**Corellako Udala**

03/75/M espedientea. Tabernetako musika ekipoen bolumena eta ixteko ordutegia kontrolatzea (legezko betebeharren gogorazpena).

**Arlegiko Kontzejua**

02/324/V espedientea. Kontzejukide kargua betetzeko zailtasunak, horretarako beharrezkoa

den informazioa eskuratzerik ez izateagatik (legezko betebeharren gogorazpena).

**BALIOESPEN ESTADISTIKOA**

Lehenik eta behin, lehenengo taula edo grafikoa aztertzen badugu –hain zuzen, 2003. urtean izandako kexen kudeaketa laburbiltzen duena–, datu esanguratsuen da urte horretan 489 kexa kudeatu direla guztira, 2002. urtean baino pixka bat gutxiago, urte hartan 513 kexa kudeatu baitziren.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da 2003. urtean aurkeztutako kexak, guztira, 303 izan badira ere –2002an, berriz, 397 kexa aurkeztu ziren–, 2002an 174 kexa-espediente geratu zirela amaitu gabe. Zenbateko horri gehitzen badizkiogu amaitu ondoren berriro irekitzen diren espedienteak, itxi ondoren eginiko jarduketaren baten ondorioz gaia berriro aztertzea komeni dela ikusten denean, azkenean 2003an kudeatutako kexak, guztira, 489 izan ziren, 2002an baino 24 gutxiago.

Hori dela eta, amaitu gabe geratu diren kexa-espedienteen kopurua asko murriztu da 2003. urtearen bukaeran. Izan ere, 2002. urtean 174 kexa espediente geratu ziren amaitu gabe, eta 2003. urtean, aldiz, 114, hau da, aurreko urtean baino 60 gutxiago.

2003. urtean aurkeztutako kexei dagokionez, ukitzen dituzten gaiak aztertzen baditugu, guk eginiko egituraketaren arabera, atzeman daiteke kexa gehienak (36), % 11,88 egiten dutenak, hirigintza eta etxebizitzaren arlokoak izan direla. Izan ere, etxebizitza eskuratzeko zailtasunei buruzko kexa asko izan dira, baita babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozesuei buruzkoak ere. Barne arloan ere kexa kopuru antzekoa izan da. Nahiz eta aurreko urtean kexa kopurua nabarmen jaitsi den, berriro ere trafiko arloko zehapen prozedurekin zerikusia duten kexa ugari izan dira.

Bi arlo horien ondotik, kexa kopuru esanguratsuen osasunaren arlokoa da –29, guztira, % 9,54 egiten duena–. Ondoren gizarte ongizatearen arlokoak eta hezkuntzaren arlokoak –24 kexa (% 7,92) eta 22 kexa (% 7,26), hurrenez hurren–. Azkenik, funtzio publikoaren arloko 19 kexa aurkeztu dira, 2003. urtean aurkeztu diren kexa guzti-en % 6,27 egiten dutenak.

Urtearen eta arloaren arabera kexen bilakera islatzen duen koadroa aztertzen badugu, ikusiko dugu joera hori mantentzen dela, aldaketa txiki-ekin; izan ere, aurreko bi urteetan ere gai horiekin lotuta izan da kexa gehien, nahiz eta hurrenkera desberdinean.

2003. urtean jasotako kexen azterketarekin jarraituz, horietatik gehienak –130, guztira, % 43 egiten dutenak– Nafarroako Gobernuaren departamentuen jarduketan aurka aurkeztu ziren. Era berean, 79 kexa aurkeztu ziren Nafarroako toki entitateen jarduketan aurka, hau da, kexen % 26. Horietatik 27 Iruñeko Udalari zegozkion. Azkenik, aurkeztutako kexetatik 94 bestelako erakunde eta entitateen jarduketan aurkakoak izan ziren, hala nola, estatuko administrazioa (32), justizia-administrazioa (12), erakunde pribatuak (12), beste batzuk (14) eta zehaztu gabekoak (24).

Kexa gehien jaso dituen departamentua Osasun Departamentua izan da –31 kexa jaso ditu, Nafarroako Gobernuaren aurka aurkeztutako kexen % 23,85–. Horrekin lotuta, esan behar da aurreko urteko joera berbera errepikatzen dela. Osasun Departamentuaren ondotik datoz Lehen-dakaritza, Justizia eta Barne Departamentua, 20 kexarekin (% 15,38), eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua, 17 kexarekin, hau da, Nafarroako Gobernuari buruzko kexen % 13,08.

Nafarroako toki entitateei dagokienez, Iruñeko Udala da, pentsatzekoa denez, kexa gehien jaso dituen: hain zuzen, 27 kexa jaso ditu, toki entitateen aurka aurkezturikoen %34.

Nahiz eta kexak arlo edo erakunde batzuekin lotuta agertu, garrantzitsua da behar diren zehaztapenak egitea; izan ere, hortik ondoriozta liteke islatzeko modu hori lotuta dagoela arlo horietan utzikeria, botere-abusua edota legea aintzat hartzen ez duten jokabideak izatearekin. Administrazio jakin baten aurka aurkeztutako kexa kopurua baino askoz garrantzitsuagoa da administrazio jakin batek oker jokatu duela onartu eta kexa aurkeztu duenari arrazoia ematen zaioneko kasu kopurua. Era berean, administrazioek gure informazio eskarien edo guk emandako ebazpenen aurrean duten portaera ere kexa kopurua baino garrantzitsuagoa da.

Kexen jatorriari dagokionez, gehienak Iruñetik datoz (138, guztira). Ondotik, Tuteratik helarazita-koak datoz, hain zuzen, 36 kexa. Aurten lehen aldiz ebalua daiteke Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin sinaturiko esparru-hitzarmenaren funtzionamendu-maila. Hitzarmen horren bidez, kexak zuzenean aurkezteko aukera ematen da, berari atxikitako udaletan dauden inprimaki aurre-frankeatuak erabilia, eta nabarmendu deza-kegu 11 kexa helarazi zaizkigula bide horren bitartez. Halaber, bidezkoa iruditzen zaigu aipatzea 5 kexa helarazi zaizkigula atzeritik; izan ere, hori gertatzen den lehen aldia da.

Nafarroako biztanle tarteak biltzen dituen koa-droan atzeman daiteke 100.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan –Iruñaz ari gara– sortzen direla kexa gehien, eta atzetik daude 2.000 biztanle-tik 10.000ra bitarteko udalerriak.

Kexak aurkeztu dituzten pertsonen dagokienez, horietatik 162 gizonetakoek aurkeztu zituzten –%53,47 egiten dute, aurreko urtean baino ia 5 puntu gehiago– eta 109, aldiz, emakumetakoek, hau da, kexen % 35,97.

Honekin batera doazen taula eta grafikoetan islatzen den estatistikari buruzko iruzkin hau amaitzeko, berriro arreta jarriko dugu informazio eskare-ri eta emandako ebazpenei administrazioek emandako erantzuna baloratzean aipatu ditugun datuetan.

Aipatu dugunez, 2003an guztira 91 ebazpen eman dira, 2001eko 24 ebazpenen edo 2002ko 48 ebazpenen aldean, eta horietatik 7 erantzun zain daude, 61 onartu dira eta 23 ez dira onartu. Horrek esan nahi du ebazpenen % 73 onartu dela, gutxi gorabehera, eta ehuneko hori igo daitekeela, kontuan hartzen baditugu erantzun zain dauden 7ak. Ehuneko hori ona dela nabarmendu daiteke, nahiz eta 2002ko ebazpenen onartze-maila baino pixka bat txikiagoa izan –urte horretan % 77 izan zen–, kontuan hartzen badugu 2003an ebazpenen kopurua ia bikoiztu egin dela; izan ere, urte horretan 91 ebazpen eman ditugu, 2002ko 48 ebazpenen aldean.

Halaber, kontuan hartu behar da aipatu ehuneko-koa % 80ra iritsiko litzatekeela, aintzat hartzen baditugu erakunde honen esku-hartzearen ondorioz, administrazioak herritarraren eskaera onartu dueneko edo planteatutako arazoari irtenbideren bat eman dioneko kasuak, erakundeak inongo ebazpenik eman gabe. Hori 64 kasutan gertatu da, eta horiei gehitzen badizkiegu onartuak izan diren 61 ebazpenak, ondorioztatzen da administrazioak 125 kasutan, guztira, onartu duela kexa aurkeztu duen herritarraren eskaera, gure ustez kexa aurkeztu zuenak arrazoia zuen 155 kasuetatik.

Lehen aipaturiko datu eta ehunekoak behar bezala interpretatze aldera, eta berriro 2003an urte horretako nahiz aurreko urteetako kexak nola kudeatu ziren laburbiltzen duen taula edo grafikora itzuliz, ikus daiteke guztira 489 kexa kudeatu zirela. Horietatik, 347 onartu ziren tramitera (% 70,96) eta, aldiz, 111 kexa (% 22,69) ez ziren onartu. Kasu horietan, ez onartzearen arrazoiak azaldu zitzaizkion herritarrari, baita jarduteko zeuzkan aukeren berri eman ere. Tramitera onartu ez ziren kexetatik 31 Espainiako arartekoari edo beste

autonomia erkidegoetako arartekoei igorri genizkien, kexari zer eskumeneko esparru zegokion.

Horretaz gain, tramitera onartutako 347 kexei dagokienez, nabarmendu nahi dugu, lehen aipatu dugun moduan, 155 kasutan –kudeatutako kexen % 31,61– erakundeak arrazoia eman ziola kexa aurkeztu zuenari. Aldiz, 78 kasutan –kasu guztien % 15,95– ez zitzaion arrazoirik eman, kexa aurkeztu zuenak emandako datuak eta erakundeak kexa espedientea tramitatzearen ondorioz administrazioak igorritako informazioa aztertu ondoren. Horrela, tramitera onartzen ez diren kasuen eta tramitera onartu bai, baina kexa aurkeztu duenari arrazoia ematen ez zaion kasuen batura egiten

badugu, guztira 189 egiten dute, hau da, kudeatutako kexa guztien % 38,64.

Pentsatzekoa denez, kopuru horiek interpretatzeko kontuan hartu behar dira ere itxi gabe dauden 114 kexak, 2003an kudeatutakoen % 23,32 egiten dutenak. Kexa espediente horiek amaitu ondoren ikusiko da aipatutako zein multzotan sartu behar diren.

Ondorengo taula eta grafikoetan ageri da erakundeak 2003an kexen arloan eginiko jarduera, eta horietan xehetasun gehiagoz ikus daitezke arestian aipatu ditugun datuak, baita aurkeztutako kexak tramitera ez onartzeko arrazoiak ere.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA  
ORRIA**

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 41,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,05 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,23 »	